

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mutriku



Aurkibidea

Udalerria: Mutriku

Sarrera



Gipuzkoako kostaldeko udalerri txiki bezain ederra. Herri arrantzalea izan da historian zehar, nahiz eta une honetan zerbitzuak eta industria gailendu diren. Astigarribia, Artzain Erreka, Galdonamendi, Laranga eta Olatz dira auzo nagusiak.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 5.031
- **Euskaldunak:** %86,53

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **74**
- Zintak: **90**
- Pasarteak: **1.341**
- Transkribatutakoak: **60**
- Audioak: **247**
- Bideoak: **1.019**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Baitxo euskara taldearen grabazioak
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Lauaizeta BHI Ikastetxea. 'Bake Hari Izpiak' proiektua
- Mutrikuko gerra zibilaren memoria
- Mutrikuko kanta
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Domeka Agirregomezkorta Arrizabalaga Sordo (1934)



Mutrikuko "Katu kalen" jaioa. Ume-umetatik itsasoko lanetan aritutakoa, aitarekin hasi zen itsasoan. Grabazioa egiteko unean ere oraindik arrantzalea. Egindako elkarrizketan landutako gaiak: txikitako gogorapenak, egindako lanak, Mutrikuko antzinako bizimodua eta itsasoko lanetan erabilitako tresnak. Elkarrizketa emaztearekin batera egin zitzaion (Nati Arreitunandia, Mutriku 1939).

Joseba Mirena Agirre Mugerza (1935)



Mutrikuko Leizarren baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Irabaneta baserrikoa. Hiru anai-arreba izan ziren, baina anaia oso umetan hil zen. Leizarren baserrian bizi izan da beti. Gerra sasoian soldaduak izan zituzten bertan eta gerra zibilaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa.

Juan Mari Agirrezabala Iriondo (1946)



Olabarrieta auzoko Erdikua baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Abeletzekoa. Lau senidetan bigarrena. Baserrian bizi eta lan egin arren, 26 urtez fabrian ere lan egin zuen, erretiroa hartu arte.

Ana Alberdi Alkolea (1916)

[Patxi Lizardi `Kaialde`](#) senarrarekin batera egin zioten elkarriketa 2000 urte inguruan Baitxo euskara taldeko kideek. 86 eta 84 urte zituzten elkarriketa egin zitzaientean.

Salbadora Alberdi Burgaña (1920)

Zapatei kalekoa.

Agustin Alkorta Alzibar (1946)



Arbelaitz baserrian jaioa, sei anai-arrebako sendian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Itziarko Arantza baserrikoa. Zesta-puntari profesionala izan zen hamabost urtez Estatu Batuetan eta Bridgeport frontoiko hiru urteko grebak bete-betean harrapatu zuen. Anaia Juan Mari ere zesta-puntan ibili zen Ameriketan. Saturrarango kanpina baserriko lurretan sortu zen 60. hamarkadan. Umetako, gerraosteko, Saturrarango seminarioaz, pilotaz eta kanpineko kontuez aritu da, Arrate Alkorta eta Juan Mari Alkorta anai-arrebekin batera.

Arrate Alkorta Alzibar (1949)



Arbelaitz baserrian jaioa, sei anai-arrebako sendian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Itziarko Arantza baserrikoa. Saturrarango kanpina baserriko lurretan sortu zen 60. hamarkadan. Umetako, gerraosteko, Saturrarango seminarioaz, pilotaz eta kanpineko kontuez aritu da, Juan Mari Alkorta eta Agustin Alkorta anaiekin batera.

Juan Mari Alkorta Alzibar (1956)



Arbelaitz baserrian jaioa, sei anai-arrebako sendian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Itziarko Arantza baserrikoa. Zesta-puntari profesionala izan zen hamabost urtez Estatu Batuetan eta Bridgeport frontoiko hiru urteko grebak bete-betean harrapatu zuen. Anaia Agustin ere zesta-puntan ibili zen Ameriketara. Saturrarango kanpina baserriko lurretan sortu zen 60. hamarkadan. Umetako, gerraosteko, Saturrarango seminarioaz, pilotaz eta kanpineko kontuez aritu da, Arrate Alkorta eta Agustin Alkorta anai-arrebekin batera.

Tomas Alkorta Barruetabeña (1937)



Mijoa auzoko Arana baserrian jaio zen 1937an, lau anai-arrebako familian. Hogeitabat egun zituenean, aita gerrara bidali zuten. Elgoibarren arotzeria ikasi zuen lehendabizi eta ondoren Ondarroan lan egin zuen. Eskopeten baskulak egiten ere ibili izan zen, baserriko ardura hartu zuen arte.

Jose Luis Altuna Kalzakorta (1967)



Guraso biak mutrikuarrak zituen. Hiru senidetan gazteena, umetatik hasi zen zesta puntan jokatzeko, osaba -Luis Mari Altuna pilotaria- irakasle zuela. 19 urterekin Bartzelonara joan zen, pilotari profesional gisa. Handik urtebetera, 1987an, Dania Beachera (Florida). 1988an hiru urteko greba luzea abiatu zuten pilotariek, eta gero Danian jarraitu zuen jokatzeko beste bi urtez. 1993an Mexiko DFra joan zen, baina ordaintzeari utzi ziotela-eta Euskal Herrira itzuli zen: lau urteko kontratua izan zuen han. Markina-Xemeinera ezkondu zen, eta 1999an Daniara joan zen berriro pilotan jokatzera, emaztearekin eta alaba jaio berriarekin. Lau urteren buruan Markina-Xemeinera bueltatu ziren. Geroztik beste lan batzuetan ibili da.



Joseba Andoni Andonegi Arruabarrena Xoxua (1933)

Garbiñe Andonegi Belaustegi (1934)



Garbiñe Andonegi 1934ko martxoan jaio zen Mutrikuko "Katu kale"n. Aita arrantzalea eta patroia zen; eta ama, berriz, etxekoandrea. 10 seme-alaba izan zituzten, baina bizi zortzi. Familia abertzalea izanda, Gerra Zibila hasi zenean, amak zortzi umeak hartu eta Frantziara ihes egin behar izan zuen. Bere biziko gizona, Iñaki Zumalabe, 14 urte zituela ezagutu zuen moilan, bainua hartzen; eta, 22 urte zituela, zuriz ezkondu zen, zeharo maiteminduta. Bi seme eduki zituzten, Valentin eta Jose Luis, eta, oso gazte alargun geratu zenean, berak gobernatu behar izan zuen Zumalabeko ontziola.

Itziar Andonegi Sustaeta (1920)



Mutrikun jaio zen 1920an. Bederatzi senide izan ziren. Ama, Pura Sustaeta, Mutrikuko Emakume Abertzaleen Batzako burua izan zen. 1937an ama herritik bidali zuten umeekin, herriko beste hainbat emakume eta umerekin batera. Kamioietan bidali zituzten frontera, "goseak hiltzera". Orduko bizipenak eta beste hainbat kontu jasotzeko asmoz egin zion elkarrizketa Arantza Ugartek 2006an.

Ramon Ansorregi Juaristi (1940)



Mutrikuko Berrosasi baserrian jaioa. Sei anai-arreba izan ziren. Gerra sasoian soldaduak euren baserri inguruetan ibili ziren eta gurasoei entzundako kontuak azaldu zituen [Benita Maiz](#) emaztearekin batera gerraren inguruko kontuak jasotzeko egindako elkarrizketan.

Edurne Ansorregi Lopez (1935)



Barakaldon jaio zen 1935ean. Bi ahizpa izan ziren. Aita gerran ibili zen eta gerraren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Luis Arakistain Jainaga (1928-2014)



Tetuan baserrikoa. Gerra sasoian soldaduak eduki zituzten baserrian. Saturrarango kartzelara joaten zen txerrientzako janari bila. [Benigno Arrizabalaga](#) rekin batera egin zion elkarrizketa Arantza Ugartek 2004an, Gerra Zibilaren inguruko kontuak jasotzeko.

Jabier Aranberri Ulazia (1945)



Astigarribia auzoko Torre baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Lazao baserrikoa. Bost senidetan zaharrena. Baserrian bizi izan da beti, baina lantegian lan egin izan du urte askoan, muntaketa lanetan.

Tomas Aranzadi Juaristi (1941)



Aritza-Etxeberri baserrian jaioa. Sei senidetan zaharrena.

Maria Arrazola Aldanondo (1929)



Maria Laranga auzoko Langatxiki baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Oñatikoa. Eskolara kontsejupera joan zen doña Fernanda maistrarekin, baina oso denbora gutxi egon zen aita hil eta amari baserrian lagundu behar baitzion. 27 urte zituela, Mijoa auzoko Arantzamendi baserrira ezkondu zen eta bertan izan zituen bere lau seme-alabak. 40 urte pasatxo zituela, herrira jeitsi ziren gizona udaletxean hasi baitzen lanean. Urte batzuk beranduago, ikastola berria zaintzeko familia behar zela-eta, bertara joan ziren bizitzera. Gizona atezaina eta bera ikastolako sukaldaria izan zen 20 urtetan zehar.

Nati Arreitunandia Larrañaga Tolon (1939)



Mutrikuko beste hainbat emakume bezala, gaztetatik arrain-fabriketan lan egindakoa da. Ezkondu ondoren, bost seme-alaba izan zituen, eta haurrak zaintzen gelditu zen etxean. Elkarrizketa bere senarrarekin batera egin zitzaion, Domeka "Sordo".



Gregorio Arreitunandia Ulacia (1933-2011)

Jose Luis Arrieta Iparragirre (1933)



Errotaberri etxean jaio zen. Bederatzi anai-arrebatan bigarrena. Gaztetan, mendi lanetan ibili zen. 16 urterekin, Ondarroako portuan deskarga lanetan ibili zen aitarekin. Gero, Ondarroako aroztegi batean hasi zen lanean harik eta soldadutzara joan zen arte. Burgosen eta Donostian egon zen soldadu. Donostian, ospitale militarrean egon zen. Soldadu denborako oroitzapen oso onak ditu. Soldadutzatik lizentziatu eta denbora gutxira, Eibarko Alfa lantegian hasi zen lanean, eta 35 urtean aritu zen bertan.

Jesus Arrizabalaga Masillas

Mutrikuko arrantzalea. Sotaren ontzian ibili zen gerra garaian. Gero, Londresera eraman zuten ontzia eta bera ere hara joan zen. Gerrako kontuak, arrantzakoak, munduan zehar bizitakoak... hainbat kontu jaso zizkion Arantza Ugartek 1990ean egindako elkarrizketan.

Manuel Arrizabalaga Agirregomezkorta (1913-2009)



Mutrikun jaioa 1913an. Gaztetan anaiekin amuak egiten aritzen zen. 10 urte ingururekin joan zen lehenbiziko aldiz itsasora etxeko itsasontzian. 26 urterekin gerrara joan zen eta lau urte egin zituen kanpoan, lehenbizi Mirandan eta geroago Sevillan. 40 urterekin itsasoa utzi eta lehorrera itzuli zen.



Benigno Arrizabalaga Azpiazu (1934)

1934an Mutrikun jaioa. Gerra zibilaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2004an, [Jose Luis Arakistain](#)ekin batera.



Rosario Arrizabalaga Esnaola Artzain (1924)

Mutrikun jaioa 1924an. Bost senide izan ziren. Joxe Mari anaia Balear Uharteetan hil zen gerratean. Aita, Maximo Arrizabalaga, karlista zen eta Mutrikuko kartzelan eduki zuten atxilotuta. Orduko bizipenen inguruko kontuak jasotzeko egin zion elkarrizketa Arantza Ugartek 2006an.

Maria Dolores Arrizabalaga Mugerza (1927-2020)

Mutrikun jaio zen San Juan txiki baserrian. Bost senide izan ziren. Aita, Alejandro Arrizabalaga, fusilatu egin zuten gerra sasoian. Aita atxilotu zuteneko kontuak eta amaren ibileren ingurukoak kontatu zituen, besteak beste, 2006an Arantza Ugartek egin zion elkarrizketan.

Angel Basterretxea Elezgarai *Keleo* (1936-2019)



Mutrikuko Tranpa kalean jaio zen 1936an. Aita Marinela zuen. Apaiz ikasketak egin zituen eta 2010ean bete zituen ordenatu zeneko urrezko eztaiak. Elkarrizketa garaian, Mendaroko abadea zen.

Lore Basurko Elezgarai *Paletas* (1933-2010)



Mutrikun jaiotako emakumea. Arrantzale familiakoa. Gaztetandik Mutrikun zeuden arrain-lantegietan lan egindakoa. Gizona eta semea marinela. Semea itsasoan galdua. Nahiz eta bizitzak gogor hartu, beti kanturako prest dagoen emakume gogor eta alaia. Herriko kontu zaharrak eta abestiak batu zitzaizkion grabazio honetan.



RosMary Beristain Barrenetxea (1942)

Benita Bernedo Lariz *Piker* (1917-2014)



Altzolan jaio zen 1917. urtean baina gaztetatik bizi da Mutrikun, garai hartan Beheko plazan zegoen mezulari lokalera etorri baitzen lanera (hau da, telefonoa hartu, mezuak bidali eta abar). Mutrikuko gizonezko batekin ezkondu eta Ameriketara ibili ondoren, berriro Mutrikura bueltatu ziren. Herrian bizi izan da harrezkero.

Raul Blanco Herrera (1938-2013)



Santanderreko Valdecillan jaio zen 1938an. Aitak, Agustin Blancok, Frantzia aldera ihes egin zuen gerra sasoian, errepublikaren aldekoa zelako. Ama, Aurora Herrera, familiarekin gelditu zen eta atxilotu egin zuten. Raul semea eta biak Saturrarango kartzelara eramán zituzten. Gerra zibilaren inguruko memoria jasotzeko egin zion elkarrizketa Mutrikun Arantza Ugartek 2004an.



Mari Campos Roldan (1938)

Loechesen (Madril) jaio zen eta, haurra zela, amarekin batera atxilotu eta Saturrarango kartzelara eramán zuten. 2004an egin zion elkarriketa Arantza Ugartek, gerra zibileko memoria jasotzeko asmoz.

Jontxu Elordi Urreizti



Igeltseroa lanbidez. Betidanik kezkatu izan zuen adinekoen egoerak eta Ziñua Elkarteko lehendakari zenean, "Adinekoen eguna" antolatzen hasi ziren 1973an. Frakismo ondorengo lehen udalbatzetan zinegotzia izan zen Mutrikuko Udalean. 1979an sartu zen Udalean eta bi legegintzaldi egin zituen. Mikel Deuna Egoitzaren eraikuntza bideratu zuen eta gerora ere bertan jarraitu zuen Patronatuko Batzordeko partaide gisa.

Alberto Flores Uranga (1945)



Gurasoak mutrikuarrak zituen, aita marinela eta ama etxeko andrea. 50 urte eman ditu Ameriketan bizitzen. Artzain, postari, brocker eta etxe zein pentsio saltzaile gisa ibili da han lanean.

Enkarna Furundarena Goenaga *Loretxu* (1919-2014)

Mutrikun jaioa 1919an. Gerra zibila hasi zenean, Loretxu tabernan zegoen lanean. Saturraranera joaten zen bertan preso zegoen Ana Ariasi jatekoa ematera eta haren seme Leonardo Davilaren amapontekoa izan zen. Gerra zibilaren inguruko kontuak jasotzeko egin zion elkarriketa Arantza Ugartek 2004an.

Jesus Furundarena Goenaga (1924-2018)



Jesus Furundarena Mutrikuko Ibirriaga kalean jaio zen, familia arrantzale baten barruan. Gurasoak, biak, mutrikuarrak ziren. Aita arrantzalea eta patroia eta aitona arrantzalea, patroia eta armadorea. Bera ere 15 urterekin hasi zen aitarekin itsasora joaten, '*Cosme Damian*' itsasontzian. Eskolara ere joan zen, Kofradira, baina gutxi, nahiago baizuen aitaren batela ostuta txibietara joatea. Itsasoari eta itsasoko lanbide eta tresnei buruz asko dakien itsas-gizona da Jesus.

Lorea Furundarena Kalzakorta (1926-2021)



Ia Bizkaia ikutzen dagoen Mizkia baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Markinakoa. Auzoko eskolara joan zen inguruko baserrietako umeekin, baina han ikasi baino gehiago jolasean ibiltzen ziren. Gerra Zibilak 10 urte zituela harrapatu zuen, eta ondo gogoratzen ditu baserrian zeuden soldaduak eta Saturraranetik barkuek botatzen zituzten kanoikadak. 27 urterekin ezkondu zen Olabarrieta auzoko Gaztañeta baserrira.



Joxe Mari Galparsoro Sustaeta (1940)



Manuel Goenaga Osa (1923)

1923an jaio zen Mutrikun. Felix eta Zeferina gurasoek hiru seme izan zituzten. Moilan bizi izan ziren, Kofradia zaharraren alboan. Artoa zuritu eta maluta apartatzera joaten zen baserrietara eta denboraldia egiten zuen han.

Jesusa Ibarzabal Zubizarreta Ametza (1923-2016)



Mutrikun jaio zen eta lau anai-arrebatatik gazteena izan zen. Umea zela eskolara joaten zen, baina 11 urte zituela utzi eta lanean hasi zen. Lehenbizi, 14 urte egin arte, Dentici arrain-kontserba fabrikan aritu zen, Mutrikun bertan; geroago, Donostiako familia baten etxera joan zen lanera, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzera. Lau hilabete igaro ondoren, Mutrikura itzuli eta Egaña fabrikan ibili zen lanean, 20 urte bete zituen arte. Horren ostean, Mutrikuko Txurruka Plazan dagoen Ametza tabernan aritu zen lanean. 1953an ezkondu zen Eulogio Ulaziarekin; lau seme-alaba izan zituzten. Hala ere, garai hartan ohikoena ez bazen ere, ezkondata eta familia izanda, lanean jarraitu zuen Ametza tabernan, betiere etxeko lanekin uztartuz.

Sebastian Ituarte Aranbarri (1938-2018)

Mutriku eta Ondarroa artean dagoen San Jeronimo auzoko Isasi baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Berriatukoa. Bost anai-arreba izan ziren, baina arreba bakarra artean umea zela hil omen zen. Mutrikuko Eskola txikin ibili zen eskolan Sebastian, eta euskaraz ikasteko aukera izan zuen, maistra bertakoa zelako. 15 urterekin jela-fabrikan hasi zen lanean. Gerora eraikuntzan lan egin zuen. Gazte-gaztetatik izan du Sebastianek kirolerako zaletasuna eta bere lana kirolarekin bateratu behar izaten zuen. 1970ean Madrilera joan zen lagun batekin Urtainen boxeo-borrokaldea ikustera eta geroago bera bakar-bakarrik Londresera joan zen Urtainen eta Henry Cooper-en artekoa ikustera. Sokatirako zaletasuna, berriz, 1967an piztu zitzaion, Zarautzen pisu libreko sokatira-lehiaketa ikusi zuenean. 1972an egunkaritik jakin zuen Markinan 720 kiloan sokatira-txapelketa jokatu behar zela, eta bere anaiak eta auzoko mutil batzuk animatu ostean Mutrikuko sokatira taldea osatu eta parte hartu zuten. Beste ehundaka garaipenen hasiera izan zen ordukoa. Mutrikuko taldea izan zen Euskal Herriatik atzerrira joaten lehenengoa eta beraiek egin zuten sokatirako lehenengo goma, Cikautxo lantegiari eskatuta. Sokatiraren inguruko eta Mutrikuko sokatira taldean bizitakoen inguruko hainbat eta hainbat kontu azaltzen ditu elkarrizketan.



Maritxu Ituarte Lizardi *Benteria* (1923)

Mutrikuko Ipar Kalean jaio zen 1923. urtean. Umetan aita hil eta bere amak bentari lana hartu zuen Mutrikuko portuan (Kofradiako elkarteak lehenbizi alargunei eskaintzen zizkien horrelako lanak). Txikitandik, beraz, marinel bizimoduari lotua egon izan da. Ezkondu ere Mutrikuko marinel batekin ezkondu zen. Bere amaren lanpostuan berak jarraitu zuen, hau da, bentari izan zen.



Martzelina Kalzakorta Zenarruzabeitia (1931-2015)

Martzelina Kalzakorta Galdona auzoko Galdona baserrian jaio zen 1931eko Gabon Zaharretan. Aita eta ama bizkaitarrak ziren, sei anai-arreba izan ziren; Martzelina bera zaharrena. Etxetxiki baserrira ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituen. Umetatik gustatu izan zaizkio baserriko lanak, batez ere ganadua eta fruta-arbolak zaintzea.





Pepita Larrañaga Mendizabal *Pepita Txiki* (1923-2014)

Azkoitian jaio zen 1923an, baina umetan joan zen Mutrikura bizitzera. Gerra zibileko kontuak jasotzeko egin zion elkarriketa Arantza Ugartek 2006an.



Juan Larreina Arreitunandia (1937)

Gurasoak gerratik ihesi joan ziren Donibane Lohitzunera, eta han jaio zen Juan. Hiru hilabete zituela, Mutrikura bueltatu zen familia. Mutikotan, Antoni maistrarekin ibili zen eta, gero, maristen eskolan. 12 urterekin eskola bukatu, eta Mutrikun eta Deban merkataritza-peritutza ikasketak egin zituen. Burgosen egin zuen soldadutza. Mutrikura itzuli eta "efectos navales" itsasorako elementuen denda ireki zuen. Mutriku futbol taldeko zuzendaritzako kide izana da hainbat urtez. Familiako dendari, itsasoko kontuei eta etxeko itsasontziei buruzko azalpenak ematen ditu.



Ines Lezea Txurruka (1932)

Eibarko "Kapitantxua" etxean jaio zen Ines. Ama Mutrikuko Aritza baserrikoa zen, eta aita, berriz, Berastegikoa. Lau anai-arrebatan hirugarrena. Gerra etorri zenean, aitak Donibane Lohitzunera ihes egin zuen, eta amak seme-alabak Mutrikura eraman zituen. Mutrikutik Ines eta anaia txikiena Berastegiko familiarekin eraman zituzten. Gerraostean, amarengana bueltatu zen Eibarrera. 11 urtera arte eskolan ibili, eta Mutrikuko Ziñua baserrira bidali zuten. Lau urte egin zituen Ziñuan amaren aldeko familiarekin. 15 urte inguru zituela, Eibarko Orbea bizikleta-fabrikan hasi zen lanean. Bizikleta-fabrikan bost urte egin eta gero, etxean jertseak josten hasi zen. 22 urterekin, [Kandido Urreizti](#) mutrikuarrarekin ezkondu eta hiru seme-alaba eduki zituzten. Magdalena auzoko Kai etxean bizitzen jarri ziren, eta hegaztien granja, "sala de fiestas" eta jatetxea eduki zituzten.

Ana Mari Lezertua Sustaeta (1940)



Mutrikuko "Katu kalia" (Ifar kalean) jaio zen, lau ahizpatan bigarrena. Gurasoak ere biak mutrikuarrak zituen. Aita eta aitona marinela ziren, eta senarra ere marinela izan zuen. Marinel-familien bizimoduaren inguruko azalpenak eta diruz gaizki nola ibiltzen ziren kontatzen du. "Katu kaleko" bizimodua eta neska gaztea zenean egiten zituzten antzerkiak dakartza gogora. Antzerkirako eta kanturako zaletasun handia zuen. Eskolan udaletxean bertan zegoen eskola publikoan ibili zen, maistra nafar batekin, eta oinarri-oinarrizko ikasketak egin zituen. Zortzi urterekin eskabetxerian hasi zen lanean, antxoei burua kentzen. Gerora, Egaña fabrika ezagunetik eskaintza egin zioten, eta hara joan zen lanera. Bertan intsigniak pintatzen zituen eskuz. Ezkondu artean, Egaña lantegian jardun zuen lanean. Senarra ere marinela zuen, eta, batzuetan, harekin batera joaten zen itsasora. Beste batzuetan, berriz, arraina saltzen ibiltzen zen kalean, arrainak otarran hartuta. Hiru seme-alaba izan zituzten. Seme-alabak pixka bat koskortu zirenean, haien ikasketak ordaintzeko marinelaren soldatarekin nahikoa ez zela-eta, adineko pertsonak zaintzen hasi zen, udaletxeko langile moduan, eta sei-zazpi urte egin zituen lan horretan.

Patxi Lizardi San Sebastian Kaialde (1914-2006)

Sabanika kalean jaio zen 1914an. Zabielen hasi zen eskolan moja frantsesekin eta herriko eskolan jarraitu zuen. Kofradiako eskolan amaitu zituen ikasketak 13 urterekin. Aitarekin hasi zen arrantzan, motor txikian eta gerora arrantzalea izan zen. 1974an hartu zuen erretiroa. [Ana Alberdi](#)rekin ezkondu eta bi seme izan zituen. Gerra aurretik Argian eta beste zenbait aldizkaritan idazten zuen. Gerrako frontetik kronikak idazten zituen. Bertso idazlea ere bazen. Gerraren inguruan hitz egin zuen 2000. urtean Arantza Ugartek egin zion elkarrizketan.

Benita Maiz Uriguen (1938)



Okelar baserrian jaioa. Sei anai-arreba izan ziren. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Ramon Ansorregi](#) senarrarekin batera.

Aurora Manterola Burgaña (1942)



Mutrikuko moilako etxe batean jaio zen 1942an. Ama ere mutrikuarra zuen; aita, berriz, zumaiarra. Hiru senidetan zaharrena da. Aita ez zuen asko ezagutu, berak hiru urte zituela hil baitzen itsasoan. Amonarekin hazi ziren. Joxe Mari Burgaña kapitaina famatua bere osaba izan zen. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Karidad Mendizabal (1929)



Konde kalean jaio zen. Aita marinela zuen eta ama zaku-fabrian lan egindakoa. 4 anai-arreba izan ziren (bera gazteena), baina berak 3 ezagutu zituen. San Migelen ibili zen eskolan, mojekin. Egaña lantegian ibili zen lanean; gerra denboran soldaduentzat dekorazioko medailak egiten zituzten bertan eta berak marrazkia egiten zien zerra txiki batekin. Handik Dentici eskabetxeriara joan zen lanera. Betidanik izan du abesteko eta dantzarako zaletasuna. Senarra Mutrikuko futbol taldeko jokalaria zen, "Panizo" gaitzizenarekin ezaguna Mutrikun.

Carmina Merodio Hoyos (1920)



Panesen (Asturias) jaio zen 1920an. 16 urte zituela, atxilotu eta Saturrarango kartzelara eramán zuten. Bost urte egin zituen preso. Orduko bizipenak jasotzeko egin zizkion zenbait elkarrizketa Arantza Ugartek 2004an, horietako bat [Sagrario](#) ahizparekin batera.

Sagrario Merodio Hoyos (1918-2019)



Panesen (Asturias) jaio zen 1918an. Gerra sasoian atxilotu egin zuten Panesen. Oviedon epaiketa egin eta heriotza-zigorra eman zioten, baina gero konmutatu egin zioten. Libre utzi zutenean, ama bisitatzera joan zen Panesera eta, bueltan, Donostiako Norteko estazioan, guardia zibilak zeuzkan zain. Atxilotu eta Martutenera eramán zuten, bere herritik egindako salaketa bat tarteko. Orduko bizipenak jasotzeko egin zizkion zenbait elkarrizketa Arantza Ugartek 2004an, horietako bat [Carmina](#) ahizparekin batera. 2019an hil zen Mutrikun, 101 urte zituela.

Ramona Mugerza Bergaretxe (1917-2017)


Olatz bailarakoa. Etxeberria-Olabarrieta baserrira ezkondu zen.

Benedikta Olazabal Bastida (1921)



Mutrikun jaio zen "Loretzu"n, Beheko Plazan. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarriketa Saturraran Elkartekoek, jada 100 urte beteak zituela.

Julita Osa Alzibar (1925-2021)



Itziarko Mendata baserrian jaioa. Hamaika senidetan zazpigarrena izan zen bera.

Angelita Osoro Urresti (1953)



Gernikan jaio zen, ama hara joan zelako umea izatera. Gurasoak mutrikuarrak zituen biak. Aita Australiara joan zen lanera. Han zegoela hasi zen gerra zibila eta, ez zenez herrira itzuli, iheslari gisa hartu zuten. Australiatik Panamara joan zen aita eta bertako kontsul izan zen.

Jose Luis Pagoaga Soraluze (1943-2015)

Olatz auzoko Apategi Zahar baserrian jaio zen, 10 anai-arrebatan bigarrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Larruskaingoa (Markina-Xemein). Auzoan bertan ibili zen eskolan. Baserriko bizimoduaren inguruko azalpen ugari ematen ditu.

Asunción Rodríguez Pulgar (1915)



Oviedoko Moreda de Aller herrian jaioa. 1938ko irailaren 18an Saturrarango kartzelara eraman zuten, errebelamendua egotzita, eta 1943ra bitartean egon zen preso. 23 urte zituen atxilotu zutenean eta alarguna zen. Jostuna izandakoa.

Adela Romero Urreisti (1942)



Mutrikun jaioa, sei anai-arrebatan nagusiena. Adelaren aita Dicastillokoa (Nafarroa) zen, baina bere herritik ihes egin behar izan zuen “gorrixak” zirela eta. Mutrikuko Saturranera heldu zen, eta, bertan soldadu zegoela, gaixotu egin zen. Mutrikuko familia batek hartu zuen etxean. Arrantzalea izan zen Mutrikun, bajurako barkuan. Ama, berriz, mutrikuarra zen. Adela eta bere ahizpa Maria Pilar Hotelean bizi ziren Ibirriaga auzoan. Hotel txiki eta Hotel haundi sutan erre ziren eta familia osoa etxerik gabe gelditu zen. Bertan hil ziren beraien aitona eta izeba Juanita. Anai-arreba guztiak sakabanatu egin ziren. Eskabetxean lan egin zuen Adelak, Busto fabrikan; ondoren sare-konpontzailea izan zen. Bere ahizpa [Maria Pilar](#)ekin batera egin zitzaion elkarriketa gerrako kontuen inguruan.

Maria Pilar Romero Urreisti (1946)



Mutrikun jaioa, sei anai-arrebatan hirugarrena. Maria Pilarren aita Dicastillokoa (Nafarroa) zen, baina bere herritik ihes egin behar izan zuen gorriak zirela eta. Mutrikuko Saturranera heldu zen, eta, bertan soldadu zegoela, gaixotu egin zen. Mutrikuko familia batek hartu zuen etxean. Arrantzalea izan zen Mutrikun, bajurako barkuan. Ama, berriz, mutrikuarra zen. Maria Pilar eta bere ahizpa Adela Hotelean bizi ziren Ibirriaga auzoan. Hotel txiki eta Hotel haundi sutan erre ziren eta familia osoa etxerik gabe gelditu zen. Bertan hil ziren beraien aitona eta izeba Juanita. Anai-arreba guztiak sakabanatu egin ziren. Arrasateneko eskabetxerian lan egin zuen Maria Pilarrek. Bere ahizpa [Adela](#)ekin batera egin zitzaion elkarriketa, gerra zibilaren inguruko kontuak jasotzeko.

Eusebio Salegi Osa (1928-2024)



Larangaundi baserrian jaioa. Ama zuen bertakoa. 11 anai-arreba izan ziren. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarriketa Saturranan elkarteko kideek.

Inazio San Migel Sorazu (1927-2015)



Elurtegi baserrian jaio zen 1927. urtean. Ama 27 urterekin alargundu zen; hiru anai-arreba izan ziren, baina bat 18 hilabete zituela hil zen. Baserrian, aitona eta ama ere beraiekin bizi ziren. Ibiriko eskola etxean ibili zen bost hilabetez. Aitona 90 urtera arte bizi izan zen, eta hura bizi izan zen artean ardiak izan zituzten baserrian.

Adolfo Soto Fernandez (1934)



Mutrikun jaio zen, baina Debara joan ziren bizitzera berak 7 urte zituela. Gurasoak galiziarak ziren, baina Gernikan bizi ziren. Herriz herri saltzen ibiltzen ziren. Hiru seme-alaba izan zituzten. Gurasoak galiziarak izanik, eta euskara debekatua zegoen garai hartan, lantegian ikasi zuen euskaraz Adolfok. Deban lehendabiziko Euskal Jaiak antolatzen aritu zen eta Oargi Elkartearen sorreran ere parte hartu zuen. Bizitzak edo maitasunak Mutrikura eraman zuen berriro eta bertan bizi izan da ordutik.

Martzelita Txurruka Arrieta (1937)



Martzelita Mutrikuko "hotelean" jaio zen 1937an, baina umea zela joan zen frontoira bizitzera. Aita eta ama ere mutrikuarrak ziren. Aita marinela zen, eta etxean zazpi senide bizi ziren: hiru anai-arrebak, gurasoak, "aitxona" eta izeba bat. Eskolan San Miguel ikastetxean ibili eta gero, eskabetxean hasi zen lanean 11 urte zituenean. Beranduago, Donostiako hotel baten ere aritu zen. 23 urterekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba ditu.

Martina Txurruka Iriondo (1919-2004)

Olatz auzoko Aritza baserrikoa. Bere aita Pedro Mari Txurruka "Aritza" harri-jasotzailea zen eta berak 6 urte inguru zituela itziartar bati apustua irabazi ziola gogoratzen du. Garai horretan jarri zuten argindarra Olatz auzoan eta handik bi hilabete ingurura telefonoa. Ura, berriz, berak 8 urte inguru zituela jarri zuten. Baserriko bizimoduari buruzko azalpen interesgarriak ematen ditu.

Patxi Txurruka Iriondo (1936)



"Jose Luiseneko taberna" ondoan jaio zen Patxi. Gaztetan Amerikeratara joan zen pilotan egitera eta hantxe gelditu. Hala ere, Mutrikura sarri-sarri etortzen da.

Pedro Txurruka Iriondo (1920-2008)

Olatz auzoko Aritza baserrikoa. Bere aita Pedro Mari Txurruka "Aritza" harri-jasotzailea zen.



Fermin Uribesalgo San Martin (1944)

Gurasoak mutrikkuarrak zituen. Zazpi senidetan hirugarrena zen. Jatetxe bat eduki zuen eta gero eraikitzailea izan zen.



Kontxi Urkiri Altzibar (1942)

Mutrikuko Buztiña baserrian jaioa. Ahizpa bat du. Gurasoei entzundako gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa.



Kandido Urreizti Osa (1926)

Mutrikuko Sabanika kalean jaioa eta hazia lau senideko familia batean. Kandidok ez zuen aitarik ezagutu, berak 15 hilabete zituela hil baitzen aita. Erdiko kaleko maristen eskolan egin zituen ikasketak harik eta gerra etorri zen arte. 12 urterekin, igeltsero lanetan hasi zen. Hainbat urtez etxegintzan aritu zen: Mutriku, Markina, Deba eta Eibarren egin zituen etxeak. [Ines Lezearekin](#) ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten. Magdalena auzoko Kai etxean bizitzen jarri ziren, eta hegazti haztegia, "sala de fiestas" eta jatetxea eduki zituzten.



Claudio Usobiaga Albizu (1916-2015)

Astigarribia auzoko Bekoetxe baserrian jaio zen 1916ko abenduaren 1ean. Aita bertakoa zuen eta ama Lastur auzokoa; Claudio zazpi seme-alabetatik gazteena izan zen. Txikitatik baserriko lanetan lagundu beharra izan zuen; hala ere, gerra hasi aurretik trenbidean peoi lanak egin zituen. Anaiarekin batera Eibarko tailerretan ere aritu zen; Eibarrera bizikletan joaten zen entrenamendu modura, txirrindulari ona baitzen. 20 urte zituela, Gerra Zibila hasi eta Amuategi batailoian borrokatu zen Errepublikaren alde, Santanderren harrapatu zuten arte. Hiru urtez egon zen kartzelan, eta ia beste hiru soldadutzan, gerra bukatu ostean. Soldadutza eginda, gerra aurretik ezagutu zuen Agustina Iriondo eibartarrarekin ezkondu zen Elgoibarko Bekoetxe baserrira, eta hiru seme eduki zituzten. 1956an, Alfán lanean zegoela, bizitzera Eibarrera joatea erabaki zuten.

Maria Zubizarreta Andonegi (1927-2015)

Lekonde baserrikoa. Santa Elena baserrira ezkondu zen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Itsasoa

1.1. Amu egile gaztetatik

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Agirregomezkorta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-010/003
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:03:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Gaztetan anaiekin amuak egiten aritzen zen. 10 urte zituela joan zen lehendabiziko aldiz itsasora etxeko itsasontzian. Udan otarrainetan eta neguan amuak egiten aritzen ziren, atunetarakoak adibidez. Emakumeek pattarra eramaten zieten eta harekin berotzen ziren.

Transkripzioa

- Amuak itsasoako, bestiak ere bai, aittona zuenak eta, amuak.
- Udazkenian-ta amuak eitten; neguan be amuak eitten. Ez noan ikasi nik, baiña neuk preparatu ta txikittu eta bihar dan bezela ipini. Lau anaixa ta laurak amu eintzailiak.
- Eta hori zenbat urtekin? Zeuk zenbat urte?
- Nik orduan, ba, hamabi bat urte eo.
- Zenbat urtekin jun ziñan zeu itxasoa lehenengo aldiz?
- Ba, itxasoa jun nitzan zortzi-hamarrekin. mar, hamar.
- Zortzi-hamar urte?
- Hamar urtekin.
- Txalopa-mutil zeu?
- Txalopak etxian zoen eta etxeko zerian.
- Etxeko enbarkaziuan?
- Bai, bai. Bi motor [gendukan] eta hantxe etxian. Udan ibiltzen giñan langostatan eta neguan amu eitten.
- A beira!
- Bixigutako eta papardotako-ta amu eitten. Nik ez noan ikasi, baiña bestiak eitten zeuen danak; Jexusek, Pedrok... danak han. Atunetako ere bai amuak.
- Atunetako amuak eitten.
- Baitta.
- Bai.
- Papardotako eta bixigutako...
- Ederki.
- Gaztetan hala izaten giñan gu, eta, ba, tertzak karnatatzen, ni, ba gu ez giñan ibiltzen baiña gazte jendia tertzak karnatatzen ta.
- Tertzak karnatatzen.
- Bai, bai. Eta emakumiak ere bai.
- Emakumiak ere bai e?
- Bai, esan nizun, ba, emakumiak juten zian tertzak karnatatzea, ta ba erreziuan, ba, seirak-zazpiretan edo erreziua, pota, pota esaten zixeun guk,

pota ta koñaka edo zea.

- A bai, e?
- Gustatzen zakuen andrai hori!
- A ber, akaoba!
- Bai, andrai gustatzen zakue.
- Hotza eingo zoan ta?
- E?
- Hotza!
- Neguan-ta, gustatzen zakuen!

1.2. Mutrikuko 5 itsasontzi otarrainetan

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Agirregomezkorta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-010/012
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:18:38. **Bukatu**: 00:19:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Lehengo barkuak nolakoak ziren azaltzen du. Mutrikutik 5 itsasontzi ibili ohi ziren otarrainetan.

Transkripzioa

- Zein barkotan? Zelakuak zian barkuak lehen?
- Lehen txikixak, ez al dakizu? Olan morun, moilan daudenak bezela. Haundixak ez. Makina dunak geuriak izan zian lelenguak lelenguetauk geuriak eta gero etorri zian baporedunak. Ordurako ni mutil haundixa inda nauan.
- Ya haundia eginda?
- Bai, hor ibitzein ginan langostatan bost enbarkaziño Mutrikutikan.
- Bost, bost enbarkazio?
- Ta gero gure aitxona ta,[... ondo] aitxona ez, atxa, atxa.

1.3. Emakumeen lana: despeska eta otarrak garbitzea

- **Hizlaria(k)**: Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-013/003
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:05:26. **Bukatu**: 00:07:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Gregorioren ama arrainak "despeskatzen" (antxoei burua saretik soltatzen) aritzen zen beste emakume batzuekin batera. Mutikoek egiten zituzten lanak. Emakumeek txalupetatik arrainez beterik ateratzen ziren otarrak nola garbitzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta ama etxian, ezta?

-Ama etxian. Amak orduan ba, orduan eitten zian primaberan-ta otarratan ataratzen zan arrain dana ta hemen, esan deten bezela, kofradi zaharrian eta hor bajamarra zeuanian itsasua behera egoten zanian, maria bizixak-eta, sekatu eitten zien batelak danak eta potiñak, potiñ haundixan ekartzen gendun, "zingira" esaten giñun, barkua amarrauta zeon tokittik ekartzen gendun arraiña horra gaztiak eta otarratan bizkarrian ataratzen genduzen eskailleretan gora dana horra. Eta saretan-ta ibiltzen zan orduan primaberan, eta andrak-eta etortzen zien sare tartian buruak kentzera, arraiña despeskatzera, burua soltatzera antxoai. Betetzen zienian otarrak, dozenerdi bat otarra-edo, hartzen genduzen gaztiak potiñian eta hor bizkarrian horra gora arte. Hori zan guk hamalau urte-ta, hamabost-ta gendukenian. Gero hamabost urte nakala nik-edo sariak galdu zien ta, horrek "de cerco" esaten zixoena, sare honek, ardorako sariak esaten giñoena azaldu zien; ez zien haundixak baiña behintzat harekin gero juten giñan bajurata-ta antxoatara, baiña maillako sariak galdu ein zien, lan asko ematen zun horrek. Harek andrak orduan eitten zeuen, andrak eitten zeuen otarratan guk ataratzen gendun arraiña eta otarrak fabrikara eramaten zittuenian, fabrikatara jun -bakoitzak bere otarrak pinttauta eukitzen zittuen barkuek, bakoitzak bere otarrak-, fabrikatara jun, otarrak ekarri, garbittu, andrak eitten zittuen horrek danak. Buruan hartu bost edo sei otarra edo zortzi-tta, abillidadia zeñek inddarra zelakua..., otarra. Ekartzen zittuen mollara. Arraskatan-da. Itturrixa zauan orduan, arranplia, hor itturri bat zeuan, danak andra danak remangatu, jata jarri oiñutsik eta eskobillekin itsasorako berriz otarrak garbittu-ta. Sariak garbittu, despeskatu, buruak eta apartatu ta gizonai preparatu itxasorako-ta. Lan gogorra zan haura, gure gaztetakua.

1.4. Txibiak, arrastea, bajura eta alturako arrantza

- **Hizlaria(k)**: Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-013/005
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:08:24. **Bukatu**: 00:11:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: "Xoxua" (Joseba) Erdiko kalean bizi zen; kalea deskribatzen du. Umea zela, ama (marinel baten alaba) sareak josten aritzen zen, Joseba otarran sartuta edukitzen zuen bitartean. Mutikotan osabarekin txibiatara joaten zen, ohitzen joateko. Hiru urtez osabarekin ibili ostean bapore handira, engrasera, pasa zen eta bajurako arrantzan, antxoatan eta abarretan ibili zen. Motorreko karneta atera eta bajuran ibili zen 28 urterekin. Ondoren, ia 30 urtez arrasteko arrantzan ibili zen makinista modura, Frantzian, Mauritania eta abarretan.

Transkripzioa

-Jaio zinen erdiko kalian?

-Erdiko Kalian, bai.

-Zeure akorduan zelakua zan inguru haura?

-Ba inguru haura zan edarra, plaza pare-parian, eta ni txikixa nintzala beti plazara juten nintzan eta hantxe jolasten nuan. Gero eozen barandilla batzuk-eta (...) eta hala eta hola, eta nere ama mariñelen alaba zan eta etortzen zan sare jostera, gazterik ekartzen nittun horra molla gaiñera eta (egoten zan) sare josten, eta ni otarran sartuta. Amak esaten zidan hori, gero konturau nintzan ni lau-bost urte nakanian beti otarrria baiña beti otarratik ihes eitten nuan eta hamen mollan ibiltzen nintzan. Eta gero hasi nintzan osabakin lantzian-lantzian juten nintzan txibixetara ta beratzi urtekin igual, baiña enbarkatu gabe, sartu gabe bertan.

G: Ohitzen.

-Ohitzen. Eta gero hasi nintzan berakin hamahiru urtekin-eta ibilli nintzan motor txikixan, hamen Zumaira kabratara juten giñan, askotan arraunian lehengusua ta bixok. Haizia bazauan belan, eta hantxe egoten giñan, igual goizian goizeko ordu bixetan erten igual, eta arraunian tapa-tapa-tapa. Eta belan, haizia bazauan belan beti tta bueno. Ta gero hortikan jun nintzan, hor ein nuan bi urte-hiru, ta jun nintzan bapore haundira engrasadore. Engrasadore jun nintzan eta ibili nintzan makinan han, bajuran, honek esan dan tipora, antxoatara (...), hartan, hortan eta danian. Eta gero denporiakin zerbiziora ere bai, zerbiziora jun nintzan, eta zerbiziuian ein noan hogeta bat hillabete, eta gero atera (...) motorista. Hortako ni jun nintzan hamasei urteko, honek esan duana makinista. Jakiñ asko ez baiña baten bat jun bihar zoan eta neu nenbillen behian eta jun. Eta gero zenbat urte arte ibilli nintzan ni? Zerbiziotik etorri, motorista atera, Ondarrun eskolan ibilli nintzan, motorista ibilli nintzan bajuran beste sei bat urte eta jun nintzan arrastera hogeta zortzi urtekin. Da arrastan ein dittut ba urte asko, hogeta hamar urte. Arrastan eibilli beste danak bezela hamen (Marruekosko?) kalan 'e bai. Ibilli nai Frantziako kostan.

G: Baiña makinista beti. Gero jun nahi (Ronkala?)'re bai, gero jun nai Mauritaniara're bai, konjeladorakin, eta Senegalera ere bai rumanoei arraiña eamatera. Bai, han ein nittuan bueltan-bueltan lau urte t'erdi edo bost. Handikaldian.

1.5. "Reina Rosario" itsasontzia

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
 - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- **Laburpena:** "Reina Rosario" itsasontzia deskribatzen du. 23 urte bakarrik izan arren, berak egin behar izaten zituen mediku lanak eta beste hainbat lan ere, bera zelako patroia. 16-18 lagun ibiltzen ziren bajurako itsasontzietan. Itsasontzi bakoitzean patroia, makinista, engrasadorea eta marinela egoten ziren, besteak beste.

Transkripzioa

-Zenbat lagun tripulazioan?

-Hemezortzi lagun Reina Rosarion. Eta ez zan holako oain bezelako, gero ein genduzen barku haundixak bezelakua, guretzat orduan barku haundixa zan baiña ez zakan harek komodidaderik eta eze. Zakan holako kubieta txiki bat. Alkarren gaiñian danok sartzen giñan kamaiña txiki batzugin, eta gero han berua-ta, kininak-eta hartu bihar genduzen, mariñelai eman bihar zakon, hara jute orduko ein genduzen rekonozimentuak eta gauza horrek danak, eta esan zigun medikuak zela eman bihar giñun kinina gizonai egunian noiz ta zenbat. Ta patroia zan danak organizatu bihar zittuana, eta neu han medikua eitten, patroia eitten ta etxeoandra eitten da danak eitten hogeta hiru urtekin.

-Eta hemen bajuran zenbiltzatenean tripulazio normala zenbat izaten zineten?

-Ba hoixe, orduan hemezortzi gizon, kapazidadia zakanak hola pixkat harrapatzen zonak hemezortzi, eta bestela hamasei gizon danak orduan. Eta barkuak zien, ez zien gero zuek ezautu dittuzuen barku horrek eta ez. Haren erdixa. Honek porejenplo berrehun tonelada ta ehun ta berrogei tonelada ta bazien azkenengo barkuak, harek zien hirurogeta hamar tonelada. Registro Bruto, e. Hirurogeta hamar toneladako barkuak. Beste estilo batekuak zien Elenita ta honek, Kresxenen eta barkuan estilokuak ez zien. Beste estilo bat, baiña pixkat pixkat haundixo, neberak eta holakotxiak. Hamar milla kilo atun neberan ta holako zerak, ta segittuan betetzen gendun haura.

-Barkuan bakoitzak bere funtzioa eukitzen zuen, ezta?

-Barku bakoitzian egoten zan patroia eta sotapatroia, patroiai laguntzeko, gau ta egun ezin zan patroia ibili tta, eta gero makinistia eta engrasadoria, eta beste danak zien mariñelak. Mariñelak ba, bakoitzak berak funtzioa bazekixen zer egin, esan det ba, ez zien oain bezelako mariñelak, dana ainddu ein bihar-ta; bakoitzak berak zakixan arraiña jotakuan ze ein bihar zoan, kaiñaberia zeñek hartu bihar zoan, kakua, gantxua zeñek hartu bihar zoan, nebera zeñek arraiña sartu bihar zoan; osea ke bakoitzak bere funtziua kunplitzen zan esan gabe. Askotan egoten zien beti bezela, danian bezela egoten zien bat edo beste despistatzen zienak eta, baiña hari orduan patroiak begixak zorrotz, o sotapatroiak o gizonak eurak, alkarren lagunak, porke beste lagunak izorratzen egoten zan haura lanik eitten ez zebana, eta segittuan ematen zixuen altua.

1.6. Txalupa-mutiletik marinelerako bidea

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/009
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:20:52. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- **Laburpena:** Mutil gazte gehienak txalupa-mutil modura hasten ziren marinela izatera iritsi aurretik; beraien zeregina aipatzen du. Ardoa zahagian eramaten zuten itsasontzietan.

Transkripzioa

-Esan dozu jentia danak zekixela bakoitzak zer egin behar zuen. Danak txalopa-mutil hasten zielako?

-Asko txalopa-mutil, nobenta porzientua txalopa-mutil hasten zien.

-Eta hari ze tokatzen jakon egitea?

-Txalopa-mutillak ein bihar zoan gizonai barruan bere kapritxo eta mandatu danak. Igual, bai-bai, atzian baldin bazeuan arrantzan-o, barkuan atzian, aurrian eukitzen zittuen otarratan beuren gauzak-o, gaztai pixkat-eo, txokolate pixkat eo baten batek eamaten bazoan; o zigarro-paketia-o. Eta mutillai: "Aide hara eta ekarri neri otarratik!", eta tak! Gero ein biha zittuan ontzi danak garbittu. Eta txalopa-mutillen lana izaten zan bastante gogorra. Eta irabazten zoan soldata erdixa, gizonen soldata erdixa, eta eitten zoan lana gizonak baiño gehixo. Nik patroï jarri nintzianian lelengo gauzia ein noana zan txalopa-mutillei soldata osua eman, porke hori, joer! Neu txalopa-mutil urte askuan ein noan eta, sufriduta. Eta gero, orduan izaten zan gaiñera, ardaua ta ez zan eramaten barrilletan eta gero azkenera botilletan-ta baiña. Orduan zaragixan eamaten zan ardaua. Ha zaragixa zan, pikia eukitzen zoan barruan, ta egoten zan atzeko bodegan zaragi bat edo bi, asko ere ez zan eamaten ardorik porke astebete egoten zien itsasuan, barkuak ez zien holako kapazidade haundikuak-eta. Ta zaragixan ardaua ateratzia hauraxe izaten zan grabia txalopa-mutillentzat. Pikia eukitzen zoan eta haura muturra zabaldu ein bihar zan, putz ein bihar zabaltzeko, eta gero sartu zera bat-eta, gomatxo bat eta ardaua etara ta botatara sartu-ta. Jeneralmente txalopa-mutillak lautik hiru hantxe mariatu eitten zian ardaua ateratzen. Eta ez zauan gizon bat kapazidadekorik, egoten zan bakarren bat baiña, esateko: "geldik zu egon pixkat, neuk aterako det eta". Letxe! Txalopa-mutillentzat txarrena izaten zan ardau ateratze hori, beti mariauta. Pikia hemen barruan-ta, kostria eindda-ta. Txalopa-mutillena haura zan bastante gogorra.

-Gaztiena?

-Edo zaharrena. Orduan ez zauan jubilazioik eta eze. Eta nik gizonak eduki 'ttut barruan ba hirurogeta hamar urtekin-ta barruan. Ta gaiñera gizon mariñelak eta onak, baiña hill arte itsasuan ibiltzen zan orduan, porke ez zauan, ez zan kotizatzen seguridade sozialik eta, ez zauan jubilaziorik, ez zauan ezebe (...). Eta hill arte egoten zan mariñela itxasuan, berrogei urtekin hiltzen bazan eo berrogeta hamar eo hirurogeikin eo hirurogeta hamarrekin, hill arte itsasuan. Orduan mariñelak zaken gogorra. Oaiñ coser y cantar da lenaokuakin konparatzeko. Oaiñ'e eitten da lana itxasuan, itxasua gogorra da. Egotia bakarrik itxasuan bera gogorra da. Hamar-hamabos egun pasatzia ta "a la buena dios" hori bale, baiña. Oan dozen adelantuak eta oan dozen komodidadiakin itxasuan... Oan barku baten dozen komedorak-eta. Nik azkenengo barkua ein noanian'e bai. Baiña oan asko gehixo. Nik azkenengo barkua ein noanian, nere Inmaculada Maria, ein nion kozina haundi bat, hemezortzi gizon sartzen giñan hantxe sukaldeko mahai haundixakin. Danok hantxe bazkaldu ta afaldu ta eitten gendun. Ez arrantzan, e. Arrantzan kubiarta gaiñian eitten zan, tente jaten zan, nik bizi guztian tente jan izan det puentian. Baiña egoten giñan zaiñ etxera etortzekuan arrantzia baldin bazauan-ta. Benga, abante, jarri danok behian da bazkaixa preparatzen danian abixau kozineruai ta behian tertulixia-ta. Beti egoten zan baten bat, mariñelen bat janan ez zoana igual paellia ipini tta gustatzen ez eta. "Zu, gora etorri hona, barkua eramatera-ta". Ta ni gizon tartera-ta. Beste gauza bat, baiña hori gaztetan, gure gazte denporan ez zauan, pentsatu're ez.

1.7. Motoristen zeregina

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/012
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Motoristen zeregina azaltzen du "Xoxuak"; berak hartan lan egin zuen. Gregoriok tretzen aipamena egiten du.

Transkripzioa

-Zu be bajuran, baiña zu motorista. Zuria diferentia izango zan. Ze egiten zuan motoristiak?

-Motoristiana zan ba mariñelak bezelaxe. Bakarrikan zeoze pasatzen bazan makinan, eta makinia zainddu eta horrek danak. Eta txarrena izaten zan motoristista, porejenplo erten zuk Mutrikutik eta bixigutan jun bihar Exkoteran, eta Exkoteran goizeko ordu batian ertetzen gendun, eta hara aillegatzen giñan ba segun egunak e igual bostak edo laurak o lokesea. Hara arte jun bihar ziñan guardixan, han guardixan jun eta gero bota bihar ziñun kordia, eta su segi hantxe, kordia bota eta segi hantxe, eta nik lautik hirutan aparejua neuk kalatzen noan. Hirurogei tretza botatzen gendun guk. Eta aparejua al atun.

G:Trezak zian ehunda hogeia amu eukitzen zebeñ, ehun ta hogeta hamar amu ta luziak. Ehun metroko kordelak.

X: Eta botatzen genduzen, hasten giñan (alan) kanporutz bota han barrena hor barrena eta beste txikoteran jun eta hasi halan eta taka-taka, geldigeldi abante, ta tira, tira, abante, geldigeldi eta ala ta ala ta ala. Eguardi alderako (han batzen?) genduzen eta abante. Eta tretzan hastia bazan, tretzan askotan tretzan nahastatu, beste batekin'e bai kordan zauanakin, korrentak edo peau-edo. ta orduan eitten zan ba trezak libratu bihar eta lotara batez, ... jendiak, esku asko bihar zan-ta lotara batez. Lorik egin gabe etxera igual, batzutan ordubete edo ordu bi, lorik egin gabe berriz'e etxera. Hurrengo egunian bazan berriz ere abante, halaxe ibiltzen giñan. Makinistia nabil esaten. Eta askotan baita gertau zat neri, etorri etxera, eguena ta, nobixiana jun bihar eta kapaz ez eta lo. Kapaz ez. Lorik egin gabe ezin leike ibili ezta bate. Astuna, astuna zan.

1.8. Bajurako arrantza

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/014
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

- **Laburpena:** Bajurako arrantzan denboraldi ezberdinak izaten ziren arrantza bakoitzerako. Neguan tretzekin gastua egiten zen eta dirurik ez zenez izaten, udaberrian ordaintzen ziren. Udaberrian San Jose aurretik hasten ziren antxoatan; atunetara Galiziara eta Xixon aldera joaten ziren. Afrikako kostan arrantzan ibiltzen zireneko kontuak. Casablancan (Maroko) bizitakoak.

Transkripzioa

- Bajuran zer zenuten urtean arrantzaldi fijuak, enerotik martzora ez tdkit zer. Zela izaten zen hori?

- Bai-bai, egoten zien tenporadak, neguan izaten zan bixigu denporia ba hori izaten zan, hasten zan San Anton aurretik haiketa febrero arte-edo izaten zan bixigua. Baiña, klaro, ez zan izaten fijuak, lehen esan deuna, itsasoko gauzak sekula ez die izan fijuak; eta hori arraiña harrapatzen baldin bazan, arraiñik ez bazan harrapatzen, beste ofizio batera kanbixau bihar zan han, lokesea, han ez bazauan bixiguik-edo... Eta askota juden giñan gitxi harrapatuta esaten zana, askotan egoten zian esaten zeбенak: “afaixa bada’re ekarriku ta, etxerako afaixa bada’re ekarriku’u”. Ba neguan eitten zian gastuak, kordak eta tretzak eta eitten eta kordak, itten zan gastu bat, eta gastu haura pagatzen zan beti primaberan, porke neguan ez zan irabazten haura pagatzeko diruik, porke haura pagatzen hasten bagiñan gizonak ezin zoen diruik etxera eramane, eta partilliarena eiñ eta andria etxian hainbeste umekin igual, eta partilla gabe aste bat jun eta bestia jun, eta itten zan ba partillia etxera arraiñakin eta gastuak laga primaberako edo udako pagatzen zien antxoiakin edo atunakin. Eta itten zan negua ba pasatu ahal zan modura. Gero primaberan hasten giñanian, orduan hasten giñan antxoatan igual San Jose aurretik, gure gazte denboran esate’et hori, hasi giñanian itxasuan. Eta primaberan harrapatzen zan arraiña bajuratan-ta, izurdiakin-ta, barkuak, lehen esan dotena, ez zien haundixak-eta. Hona barrura arte etortzen zan arraiña. Hemen egoten giñan zaiñ igual eta egunez bajuratako arraiña ekartzen gendun, ehun arruan ta berrehun-ta. Ehun arruan zien pues milla ta bostehun kilo-edo ta, bestiak bi milla kilo ta, asko zan porke barkuak (...) etortzen giñan hona atera ta; primaberan hola ibiltzen giñan. Eta gero atunetan juden giñan Gijon arte-edo, Galizia arte-edo juden giñan atunetara, eta handikan itten gendun kosteria jeneralmente, porke hona etortzeko urruti-tta. Arraiña jeneralian goragotikan Kantilla edaten giñon, Frantziako kostara sartzen zanian arraiña, behiñ agosto ezkerre, eta orduan ba hurrage egoten zan etxia eta etxera etortzen giñan atunakin-ta; baiña lelengo Gijona ta juden giñan, Coruña ta kasan ibiltzen giñanian. Eta hemezortzi gizon beti barruan, e, hamasei-hemezortzi gizon beti barruan. Eta orduan jendiak gosia etxian-ta gosia eta dirua nahi etxera ekarri-tta. Ni jun nintzanean Dakarrera hogeta hiru urtekin, esan det lehen jun nintzala Dakarra. Eta harrezkerre juden giñan beti o beste barkua ein noanian, beste barku berrixa ein noanian ere juden giñan Algecirasen basia eiñ eta juden giñan Afrikako kostara arrantzara. Juden giñan Casablancan barrana-ta, Safi tta horrek danak juden giñan, bajatzen giñan igual e ixa Dakarrera arte berriz’e Inmaculadakin. Baiña orduan eitten gendun, arraiña eskarmentauta nauan ni (...), eitten gendun arraiña geuk ekarri gora Algecirasa eta Algecirasen saldu. Eta egun bi pasatu (biharrian) Algecirasen, bi egun pasatu baiña juden giñan arraiña salduta dirua kobratu ta danak eindda itsasora atzera juden giñan. Eta han anekdotak kristonak Casablanca aldian ta hor-ta. Baten sartu giñan Casablancara, eiban egualdi

eskasa ta sartu morduak (morduak?), fondiauta han badixan, e, eta sartu morduak barrura ta, ixa ostutzera dana harek etortzen zian. Ta guardixa in bihar han barruan-ta, eta puertora juten ez (...) uzten han Agadirren-ta. Ez zatan gustatzen molliai amarratzia barkuik porke asaltua seguru zauan. Egon bihar zan “con pies de plomo” han. Eta anekdotak kristonak pasatzen zakuzen, beltzak kaiuko haundixekin-ta hamabost-hogei beltz igual gabian. “(...) kostauan. Aiba dios!, zer...?”. Gosia harek eta jatera ta sartzen genduzen barrura kozinara eta jaten eman-ta, joe!, felizao harek jaten zebeñian. Erdixak ardaorik ez zebeñ eraten mahometanuak... Holako anekdotak ehun milla itsasuan. Txar danak ahaztu itten die, baiña gauza eskas asko pasauta, eta gero onak’e bai arraiña aukeran harrapatzen zendunian eta gero junda ondo saltzen bazendun kriston harek eta...

1.9. Itsasontziaren prestaketa

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:33:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
 - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena:** Atun, zimarro eta abarretara joaten ziren. Urte batean atunik ez zegoela eta Aljecirasera joan ziren arrantzara. Itsasontzia beti egoten zen prest; nola prestatzen zuten azaltzen du. Patroiaren ardura izaten zen gauzak antolatzea.

Transkripzioa

-Hara behera zetara, atunetara joaten zineten?

-Atunetara. Atuna, alistaua, zimarroia. Osea ke “túnidos”. Hori ien zan udan. Urte baten hemen eman zon faillo atunak, eta jun giñan Madalenak arte hona jun giñan itsasora, Azores aldian-ta ibilli giñan eta iñok ez gendun arraiñik ekarri, gehixenak hiru milla kilo-edo ekarri genduzen, eta hemendik nora-nora jo bihar ba eta nik ein nuen hartu ta abante, Madalenak pasatu zienian erten gendun itsasora eta arraiñik billatzen ez eta jun giñan Algecirasea arte eta gero gure atzetik etorri zien ixa danak, Mutrikuko... Hemen geratu zian bost o sei barku txikixenak eta gero beurek atun haundixenak harrapau zittuen hemen, gero sartu zan atuna-eta. Baiña guk han harrapau gendun zimarroia ta atuna-ta ondo. Eta etorri giñan Galbarixuetan danok barku danak juntatu ta autobusak hartu ta autobusetan etxera etorri giñan. Akordatzen nai Algecirasetik Mutrikura arte luziaua (...) biajia!

-Lehen esan dozu politenak izaten zirela antxoetia, atunetia eta bixigu-ta. Barkua igual preparamen zan?

-Bai, barkua preparamen egoten zan beti, barkuak ez zakan, aparejuak bihar zixuen diferentia, bixigutarako bihar zixuen kordia eta antxuatarako bihar zendun sariak, lelengo maillatakuak eta gero zerkokuak. Eta atunetako bihar izaten zan, orduan pertxalakin ibiltzen giñan, eta pertxalak. Etortzen giñan, egun baten preparamen gendun pertxalak, kendu saria, pertxalak hartu, aparejuak harutzian itsasorako preparamen genduzen eta sartzen

genduzen sokak eta holako gauzak (...) pitxak-eta, abante itsasora. Eta itsasuan bakoitzak bere aparejuak preparatzen zittuan eta taka (herrira?). -Eta zeinek erabakitzen zuen? -Patroiak, patroian hori zan hori, intuiziua. Si te sale bien bien, eta bestela ba “Hori kabroi hori patroí hori, hori e oaintxe ez dakit ze eta badakit ze ta”. Baiña ondo urtetzen bazixun, joe, e!

1.10. Distantziak neurtzeko erlojua

- **Hizlaria(k)**: Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-013/016
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:33:58. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
- **Laburpena**: Distantziak neurtzeko erloju bat erabiltzen zuten. 18 urte zituela ezagutu zuen itsasoan lehenengo hartu-emanetarako irratia. Mendiei begiratuz gidatzen ziren nondik-nora zebiltzan jakiteko. Marinelei txalupa-mutilak abisatzen zien goizaldera norabait irten behar zutenean etxez etxe joanda.

Transkripzioa

-Itsasora noiz ere bai.
-Bai, bai. Itsasora deittu juteko eta hori dana patroiak.
-Baiña esan dezunez, orduan ez zauan makinarixarik-eta. Zela egiten zenduten distantziak eta jakiteko nora exakto?
-Bueno ba distantziak, esan dizut lehen, erloju bat ibiltzen gendun patroiak tripan, erloju hori pitxa batekin, eta etxetikan ertetetzen zendunian begiratzen zendun erlojuai eta erten deu zazpitan-edo, eta aillegatu gea arrain-tokira hamabixetan-edo. Honenbeste ordu ein dittugu runbo hontan, eta bazekizun etxera zela etorri, al contrario, noroeste jun baziñan, surestian etorri bihar ziñan. Baiña txarra izaten zan atunetan, hori neguan eta bai, baiña atunetan juten ziñanian ertetzen gendun itsasora eta juten ziñan bueno, nortian igual hiru ordu; gero noroestera jartzen giñan eta beste lau edo bost ordu, eta gero halako baten nordestera igual eta pasatzen zien hiru-lau egun eta zuk ez zakizun, mas o menos bai, baiña nun zeozen. Ia ni patroí hasi nintzanian gero e, honek esan dona, eskolan-ta ibilli giñan gu pixkat, Escuela de Pescan-ta, distanziak kartatan ta lanian-ta hasi giñanian-ta ta, tira! Baiña lelengo ez zauan holakoik ezer, ezerez. Radiua itsasora etorri zan, radiua itsasuan ez zauan, aparatoik eta iñok ez zakan barkuak-eta. Ta nik hemezortzi urte eukiko nittuan-edo, lelengo radiua holako poto zahar bat donostiar batek, Arturo akordatzen ein zoala ta, (botatzekua ta), potentia ta, más contentos que dios. Halako radiua ta haretxekin komunikatzen giñan, kosteria o hau o bestia o. Askotan kosteriak: “Cállate hombre, que estoy comunicando con el otro”, eta geuk (...) beti nahi guk geuri atenditzia. Baiña erlojuakin ostientzian más o menos, eta askotan ez giñan etortzen etxera, igual rekalatzen gendun igual sei o zortzi egun itsasuan eiñ itsasuan atunetan, eta bueno,

etxera gatoz, lau edo bost milla kilo atun-edo ta etxera. Más o menos etortzen ziñan zu, baiña mendixa ikusi arte ez zekizun nora rekalatuko zendun. Igual joten gendun Frantziako kostara, San Juan de Luz aldera, edo igual joten gendun Santanderko altura. Eta handikan jartzen giñan mendixa, “E! Santander da hori, Santanderko..., haura Santanderko mendixa! O Santoñako fraillia o, haura o!” Etortzen giñan orduan handikan tak! eta etxera.

-Mendixak ezagutu bihar.

-Mendixak ezagutu eta gero mendixak (...) giñan, etxera. Baiña ez zauan. Gero bai, gero hasi zianian aparatuak eta “coser y cantar”.

-Telefonoik eta asko ez zan egongo. Mariñelei abixatzeko-ta zela egiten zan?

-Telefonoik ez zauan granoik’e. Eta etxian ere ez telefonoik, ez mobilik, telefonoik etxietan ere ez. Mariñelei abixatzeko jutun zan txalopa-mutilla, hori bestia gaiñera txalopa mutillan eginkizuna, hamahiru-hamalau urtekin-ta, txalopa-mutilla jutun zan gizon danai deitzera banaka-banaka, igual goizeko ordu batetan-edo patroiai etortzen zakon Exkoter, Exkote zan hemendikan pixkat urrutixo zaona, bestiak barruko kalak ba goizeko hiruretan eta lauretan-eta ertetzen zan, baiña Exkoter erten bihar zan hamabi tt’erdiak, ordu bata. Patroiak deitzen zion txalopa-mutillai, jutun zan patroia txalopa-mutillan etxera, eta esan zion: “Deittu gizonai!”, Txalopa-mutilla segittuan saltoka, jantzi galtzak eta abante saltoka etxetik etxe. Orduan argirik ere ez zeon Mutrikun gure gazte denporan, gabian kendu eitten zan argixa; argi triste simple batzuk egoten zien gabeko hamaikak arte, gero kendu eitten zan argixa. Argirik gabe norbere sonbriai begira askotan (...) eta dedios! Baten bat datorrela gure atzetik. Eta etxia hasi, nik nakazen gizonak txalopa-mutill nabillela, Torromotoneko, han bizi zan gaillegua, Maneiro-edo esaten zixuena, handik hasi, lelengo jutun nintzan urrutixen zauan tokira, eta bestek hor barrena, hotel haundixan barrena, Txiki-tta hor eozen kuadrilla haundixena-ta, gero bueltan herri danai txalopa-mutillak deitzen zion banaka-banaka.

1.11. Santakarra haitzean amarralekua

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/020
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:49:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
- **Laburpena:** Santakarra deitzen zioten haitz handi bat zegoen moilan eta hantxe lotzen zituzten ontziak. Ontzien amarraleku ezberdinak izendatzen ditu.

Transkripzioa

-Lehen bazan Santa Karra. Zer zan, zela zan hori?

-Gregorio: Santa Karra zan, motortxo illara hori, gorri hori badago han ba, hortxe inguruan zauan Santa Karra, haitz bat. Como si sería amarraderua-edo, amarradero bat izeten da ba molla gaiñian haundixan; eta bueltan zakan haitza dana, haitza.

-Ateratakua zan ala berezkua?

-G: Ez, berezkua, berezkua zan haitza, haitza berezkua zan baiña gero gaiñian ein zixoen amarradero bat, edozein itsasua [...] ba, eta han amarratzeko, txikotera nahi zoanak amarratu han amarratzen zoen.

-Barku haundixak handikaldian egoten zien?

-G: Handikaldian bai. Santa Karratik harutz.

-Eta salterako potiñak?

-G: Salterako potiñak hemen barruan. Eta hor ere Zingiran, Montserrateneko aurrian ere amarratzen zian bi barku edo alderdi batetik bestera. Bueno, hori esaten dot barku txikixauak zianian.

-Xoxua: Zingiria zeukan izena horrek.

-G: Baiña barku baporak-eta zianian, Gure Elenita eta hantxe amarratzen zeuben, bi edo hiru bapor amarratzen zian han, eta gero BH edo haura Getariarra ekarri zoen, haura ere hantxe amarratzen zan, hauraxe zan barkuik haundixena, Inaxio Kamiñok ekarri zittuen Getaritikan barku bat, porke orduan Mutrikuarra zan arrantzalerik onena, porke Getariatik eta Orixotik eta Mutrikura etortzen zian arrantzan ikastera.

-X: Hau berau be ibilli zan Orixon.

-G: Atunetan-ta, orixorarrak nahi izaten zoen, mutrikuarrrak nahi zuten zoen kasan-ta, eta etortzen zien hona eta ekarri zeuben barku bat BH, getariarra.

1.12. Lehorrera iritsiera

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:54:17. **Bukatu:** 00:56:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
 - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena:** Lehorrera iristean egiten zitzaaien ongietorria aipatzen dute. Emakumeek moilara gasaria eramaten zieten marinelei.

Transkripzioa

-Itsasuan egoten ziñaten, baiña gero lehorrera giatzen ziñaten mendixekin. Ongi etorririk egoten zan, danak zuen zain?

-Keba. Gure denboran-ta ez. Hori zan gure gurasuen-ta denboran-ta, gure aittonen-ta denboran-ta. Txalopa haundixak zienian da. Orduan jutun zien belan, jutun zien igual Asturias arte ta abar-ta, etortzen zienian hiru hillabete eindda edo, orduan jutun zien andra danak umiak-in-ta ta Samikollara eta ikusten zeubenian [zoenian] han aparteko al-dian belan, "Han belan txalopa haundixak, han apartera ta!!", orduan ongietorrixak egoten zien ume danakin andrak moillara ta bestia ta; baiña orduan tardatzen zeuben igual azaltzen zienetik barkuak belakin igual egun bat etortzen etxera. Matxa... Bermio gaiñetik eta igual haize gitxi bazeuan egun bat igual etxera etortzen-ta, zain andra danak umiekin-ta. Baiña guk ez. Askotan etortzen giñan iñok jakin gabe. "Han, e, sartu da holako ta!" "Ene, holako dago bentan saltzen-ta." "Sin más".

-Xoxua: Ohittura zauan, gu gaztiak giñanian ohittura bat andrak etortzen zien, andrak, andria honena ta beste batena ta, libre zein dauen; eta

etortzen zien eta otarra eramatera. Otarreko arraiñak zien horrek gure aurreko horrek. Hartzen zeuen andriak preparau buruan eta da! Ni gaztia ez nintzan orduan eta ama, gure ema etorri zan eta, "Ze?" ta "Armozua ekartzera", "Armozua ekartzera etorri nahi baezu baiña arraiña eramatera ez, neuk ekarriko det gero gorutza". Ohittuerak zien horrek.

-Porke orduan primaberan izaten zan, primaberan antxoiakin etortzen bazan barkua ta, andrak juten zien moillara armozua eramatera, honek esan doana, kafesnia zopak eindda o, holako zera batzuk egoten zien, poto batzuk eta. Armozua eramatera. Atunetan-ta bai.

-X: Sartzekua. Sartu hola atzeraka behetik gora kertena eta gero tapau.

-Neri andriak eta alabak ekarri izan dit, Karmen, oaindio ez dia urte asko armozua moillara atunetan. "Kendu eizu armozua!" "Ez." Bazekixan kafesnia zopakin gustatzen zatena ta armozua ekartzera. Baiña lehen lehen [juten zien] gehixo.

1.13. Lehorreratu osteko lana

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/025
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:57:14. **Bukatu:** 01:00:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena:** Portura sartzean, arraina atera, pisatu, itsasontzia garbitu eta berriz ateratzeko prest uzten zuten. Hurrengo egunera arte libre izaten zuten marinelek. Arrainik handienak aukeratu eta bakoitzarentzat kaxak prestatzen ziren. Patroiak egiten zuen kaxa haien banaketa. Kanpotik ere etortzen zen jendea arraina eroatera. Atuna saltzen zen ondoen.

Transkripzioa

-Behin portura sartuta arrainakin-eta ze lan izaten zian?

-Arraiña atera-ta. Arraiña atera, pixatu, barkua gero garbittu, jelak eta hartu, izotzak eta gasoillak-eta hartu, preparatu itxasorako barkua. Eta gero preparatu, segittuan preparatu barkua. Eta gero patroiak ematen zoan ordua, ba goizaldera hurrengo egunian-o, o eguardixan-o.

Jeneralmente eitten zan ba egun haura, arraiña deskargatzeko eguna pasatu, barkua preparatu egun hartan bertan ta gero libre gizonak hurrengo egunera arte, eguardira arte o, goizera arte-o.

-Eta zela egiten zenduen arrain partitzia-ta, ta dana?

-Arraiñ partitzia eitten zan arraiñik onenak, haundixenak apartatzen zien danai igualak egoteko moduan, gizon danai, eta atunetan baldin bazan atun bana. Hiru kaja edo apartatzen zien gizonentzat, eta harek partittu ta etxerako gizonak arraiña beti eramaten zoan.

-Zeiñek erabakitzen zeban? Patroiak erabakitzen zeban arrain partitzia?

-Bai, jeneralmente patroia, jeneralmente patroia, baiña askotan gizonakin komentauta. "Ze, hiru nahikua dia o, hiru kaja-o, edo bikin nahikua degu-o?" Karu eitten zoanian eta pixka bat,e: "Igual bikin nahikua izango da" ta. Merkio baldin bazan ba "hiru kaja partittuko dittu" ta. Eta asko, merke-

merke bazan eta arraiñ asko bazagon ba igual sei kaja-eo, arraiña nahi beste eramateko modua.

-Kanpotik etortzen zien hemengo enpresak arrain bila?

-Kanpotik etortzen zien enpresak. Kanpotik etortzen zien jendia arrain billa, arraiña erostera. Hamen Mutrikun hemen barku asko egon zienian-ta kanpotik etortzen zien, atuna ondo saltzen zan Mutrikun, atuna beti ondo. Antxoia ta pixkat gutxio, freskorako-ta beti izan da Ondarrua-ta hobia, baiña atuna hemen Mutrikun ondo saltzen zan.

-Andrak gehixao arraiñan zain baiño jorنالان zain egongo ziren?

-Bai, arraiña pecata minuta; jorنال, partillia. Ta gu etorri orduko askotan gu etorri orduko arraiñakin Atxukaletikan mariñel zaharrak eta [bestien] partillia eindda, lihortarrak igual Atxukalian partillia indda: "Hogei milla kilo ekarri deu holako preziotan, honenbeste irabazi dau honek". [Beronek] sekula jakiñ ez, baiña lihortarrak jeneralmente partillia indda.

-Xoxua: Mariñelak ze irabazten [deuen]: "Holakok eiñ deu partillia, bestiak halako eiñ deu". Mundu danak, eta lihortarrena sekula jakiñ ez. Hori hola da, e.

1.14. Eskabetxea

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/013
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:09:55. **Bukatu**: 00:10:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Dentisenean eta Karlosenean eskabetxean aritu izan da lanean. Domeketan ere joaten zen eskabetxera. Eskabetxean zer lan egiten zuen azaltzen du: antxoei burua kendu, xerrak egin...

Transkripzioa

- Ta gero handikan eskabitxa. Dentisinea.
- Dentisinian.
- Orduan domekan ere eskabitxia eoten zan. Oain baiño gehixo eongo zan.
- Arrain gehixo.
- Bai.
- Oan baiño.
- No me gustaba eskabitxia baiña e, pero soliamos ir, bai.
- Han ze lan eitten zenuen eskabetxan?
- Eskabitxan filetiak, antxobiai burua kendu. Filetiak Karlosenian ere ein izan det, bai, ta antxobiai burua kendu.

1.15. Kontserberako lana

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/014
- **Iraupena**: 0:00:23. **Hasi**: 00:10:26. **Bukatu**: 00:10:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Kontserberako lanaz hitz egiten du. Antxoa gazitu, trapu batekin garbitu, antxoekin pelotak egiten ziren barrilean kontserbatzeko...

Transkripzioa

- Ta zela fileteatzen zan antxobia?
- Oan eitten dan beze... oan ez dakitt zela eitten dan, baiña orduan trapuakin garbitzen zan.
- Lehelen antxobia gazittu.
- Gazittu, ta gero, pelotak ere eitten zian, pelotak bezela, barrillian haura konserbatzeko. Erdi ahaztuta no baiña.

1.16. Mutrikuko flota

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/019
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- **Laburpena:** Mutrikuko flota: Udaberri, Itxaropena, Salve, Pilartxo, Goizeko izarra (Izarreneko bi zirela esaten du...)

Transkripzioa

- Barkuak ere gehixo zozen.
- Zeu akordatzen zenbat barku orduan Mutrikun?
- Zenbat ez dakit, baiña Udaberri ta Itxaropena ta...
- Bai. Salbe...
- Salbe, Pilartxo...
- Goizeko Izarra...
- Goizeko Izarra... Izarra, bi zozen harek, bi Izarraneko.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Kantu zahar bat

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Agirregomezkorta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-010/004
- **Iraupena:** 0:07:09. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:11:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Amuak egiten ari zirela kantuan aritzen ziren eta haietako kantu bat abesten du.

Transkripzioa

Kantatu ere bai, kantatu, hori, esan nizun ba lehengunian, hau baitta... oin goguan [...], baiña... Kantatzen gendun:

Izak bat, Erromako altara... ez.

Izak bat, gure jaun da bera da bat-eta gu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta gu salbatzeko jaiua zan.

Izak bi, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak hiru, hiru Trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak hiru, hiru Trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera dala bat-eta geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak lau, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak bost, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadiak hiru, erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak bost, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak sei, sei argileriak sei, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak zazpi, zazpi sakramentuak zazpi, sei argileria sei, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak zortzi, zortzi zeruak zortzi, zazpi sakramentuak zazpi, sei argileria sei, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak bederatzi, bederatzi golfoak bederatzi, zortzi zeruak zortzi, zazpi sakramentuak zazpi, sei argileria sei, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelista lau, hiru trinidadiak hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak hamar, hamar mandamentuak hamar, bederatzi golfoak bederatzi, zortzi zeruak zortzi, zazpi sakramentuak zazpi, sei argileria sei, bost kristo

Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadia hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak hamaika, hamaika mila birgina hamaika, hamar mandamentuak hamar, bederatzi golfoak bederatzi, zortzi zeruak zortzi, zazpi sakramentuak zazpi, sei argileria sei, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadia hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

Izak hamabi, hamabi apostoloak hamabi, hamaika mila birgina hamaika, hamar mandamentuak hamar, bederatzi golfoak bederatzi, zortzi zeruak zortzi, zazpi sakramentuak zazpi, sei argileria sei, bost kristo Ilaga bost, lau ebangelistiak lau, hiru trinidadia hiru, Erromako altara bi, gure jaun da bera da bat-eta, geu salbatzeko jaiua zan, gure jaun da bera da bat-eta geu salbatzeko jaiua zan.

2.2. Bost hilabetez itsasoa, Dakarren

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/006
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
- **Laburpena:** Gregorio eta Joseba kinta berdinekoak dira, eta batera hasi ziren arrantzan. Mutrikun, ontzi gehien egon zirenean, 21 baxurako ontzi egon ziren. Soldadutza Ferrolen (Galizia) egin zuen urtebetez; eta, bueltatu zenean, baxurako arrantzara joan zen Reina Rosario izeneko itsasontzian. Beraiek egin zuten itsasontzia. Pasadizo bat kontatzen du. 23 urte zituela, Dakarrera (Senegal) joan zen, eta bost hilabete egin zituen bertan; erlojuarekin eta konpasarekin gidatzen ziren.

Transkripzioa

- Edade berdintsuan hasi zineten bixok itsasuan?
- Bixok kinta bat, bixok edade batekuak gea ta hasi be itxasuan igual.
- Orain baino enbarkazio dezente gehixago egongo ziren.
- Asko.
- Zenbat akordatzen zate?
- Mutrikun egongo giñan gehixen egon giñanian hogeta bat bajurako enbarkazio, hogeta bat.
- Zelakuak zien barkuak?
- Barkuak zien ederrak porke ia... Nik esan det neure bibenzia horrek zerbizio aurrera arte, patroï hasi nintzan arte. Eta hau bezela neu ere zerbiziora, alkarrekin jun giñan. Bueno, hau zaharro eta beranduo jun zan; ni gatzio ta orduan turnuak eitten zittuen-ta. Ni hemeretzi urte kunpliduta jun nintzan zerbiziora eta hau hogeï urte kunplittuta. Eta jun nintzan

zerbiziora, eta handikan, klaro, lehen esan detena, gure aitta beti makalik ibiltzen zan eta, etorri nintzan, Ferrolen ein noan urtebete pasa, hamalau hillebete. Etorri nintzan Bilbora gero. Eta Bilbora etorri nintzanian itsasorako primaberan-ta zain egoten zien noiz etorriko, ta permisua ematen zianian ba itxasora juten nintzan barkuan. Jun nintzanian zerbiziora handik etorri tta hor ibiltzen nintzan pikituak eitten eta abar-ta, eta zerbiziua kunplittu nuenian ia segittuan pues bajura (...) ein gendun barku berrixa, ordun ein gendun, Reina Rosario izena zakan eta ehun da berrogeta hamarreko, ehun da berrogeta hamar kabaloko motorra. Orduan zan haura summum. Eta ein gendunian barku haura esaten zigun hemen mariñel zaharrak-eta, barku haundi ikusten zan ba besteikin konparatzeko ta, “Hori zetako, hondar karriurako barku hori edo?”. Ez zan harrapatzen oin bezelako kantidadeik eta arraiñik ba, sariak eta txikixauak zien-ta. Baiña harekin hasi giñan arrantzan eta ondo harrapatzen gendun antxoia-ta, harek hogeta bi milla kargatzen (...) Eta barku danak ekartzen zeбен. Guk, porejenplo hori arraiñ hori, baiña beste batek hogei, hamar, hamabost. Eta ez zan arraiñikan saltzen. Geuk eaman bihar izaten giñun askotan primaberan fabrikantiei lonjak eta gazitzeko arraiña geuri hartziarren arraiña. Eta akordatzen nai baten, hogeta bi mila kilo ekarri genduzen eta Bustok hartu zigun arraiñ pillo bat, Bustok hemen behian’e bazakan fabrika bat, eta ez zakala berak tokirik sartzeko eta gero lonjara ama ta arreba ta gazitzera arraiña hartziarren. Ta “una,veinte” ein zigun preziaua kiluak, “una veinte”. Hogeta hamasei, hogeta hamabosteko arraiñ haundixa. Eta harrapatzen zan orduan arraiña aukeran, bazauan-ta. Eta gero barku harekin, nik zerbiziua kunpliduta, klaro, pentsatzen noan munduan ez zauala zerik, eztoporik ezere, eta hogeta hiru urtekin jun nintzan Dakarrera barku haretxekin, Dakarrera arte. Pasa genduzen bost hillebete, ixa sei hillebete, bost hillebete pasa. Jangoikua dakagu bakarrik, orduan ez zeuan ez aparatoik eta ez kristoik eta ezere. Erlojo bat tripan eta konpasa eta sextante bat. Eta jun giñan Dakarrera arte. Dakarren pasatu gendun “canutas” han. Arraiña aukeran zeuan zimarroia ta hori, baiña saltzen problemak eukitzen genduzen, porke etortzen zien barkuak Canariasetik nodrizak etortzen zien guri barkuan hartu arraiña itsasuan, edo puertuan, han Dakarren, eta eramaten zuen peninsulara-o, eurak arraiña saltzen zoen. Edo Canariasen, Ojeda ta konparsa zian-ta. Eta hogei mila kilo deskargatzen bagendun, hamabost deklaratu, eta geuk jakin gehixo zana arraiña. Sekulako trifulkak euki genduzen. Eta azkenian aspertu giñan eta etxera etorri giñan. Baiña etxera etortz(eko...) ere Canariasen pasatu genduzen bost egun dirurikan kobratu ezindda. Osea, diru dana kobratzeko gendukan kostera guztikua, baiña oaindio numeruak eta ein ezindda. Guk gendukazen numeruak koinziditzen ez harekin ta abar-ta. Sekulako folloiak euki genduzen eta azkenian etorri giñan etxera jota derrotauta handikan, Dakarretik.

2.3. Itsasontzi barruko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/008
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:17:46. **Bukatu:** 00:20:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

- **Laburpena:** Itsasontzian jaikitzen zirenetik egunaren bukaerara egiten zutena azaltzen du. Gosaltzeko kafea eta esne kondentsatua eta bazkaritan lapikokoa jan ohi zuten, gehienetan zopa eta garbantzua arrainez lagunduta. Afaltzeko marmitakoa jaten zen normalean, atuna nahikoa izaten zuten eta.

Transkripzioa

-Zuen artian konpondu, lotarako eta jateko-ta zela izaten zen eguna barkuan?

-Bueno, barko barruan goizian atunetan izaten zan, goizian goizao (...) eguna, laurak lau t´erdia- o, eta egunakin batera gizon danak altzatzen zian, patroia latzatzen zan-ta, benga, esnatzen zanian, arriba!, altzatzen zien ta lelengo aparejuak bota danak itxasora, kasan ibiltzen giñan orduan jeneralmente atunetan, aparejuak bota itxasora, eta gero kozineruak, kozinero bat egoten zan, kozinerua gure tarteko bat jatekoa nahi zuana ein, porke jeneralmente hamasei edo hemezortzi gizonen tartian iñok ez zoan nahi izeten jatekoa ein, porke gitxi (...) danak egoten gea exigientiak. Batek, “honek txo, inddiarrak gaur”-eta. Bestiak marmittakua o lokesea-ta, orduan ez zauan elejida haundirik baiña, elekzio haundirik ez zauan baiña behintzat; eta egoten zan koziñerua eta harek egiten zoan goizian kafia. Kafia preparauta eukitzen zoan, aparejuan botatzen zienian gizon bakoitzak bere haundixonak egoten zien eta hartu haundixonak eta kafia hartu eta ogi puxketa batekin eo kafia hartu, beste batzuk “leche condensada”-edo bota puxkat eta kafesnia ta hauraxe zan armozua. Goizeko zortzietako edo zortzi tx´erdietako gosiak egoten zan gizona, eta orduan bai bokadillua, o tortillia o arrain pixkat o atun zati bat hori o bestia. Goizian bakoitzak bere eitten zoan zartaiñan eiñ, ogi bitartian hartu, bakoitzak bere bokadillua eiñ, eta bazkaiñara arte, porke bazkaixa izeten zan hamaika t´erdiak-o, hamabixak eguardixa-eo, izaten zan, eta bazkaldu arte ba harekin egoten zan. Jendiak bazkaldu, bazkaldu ez zauan oain bezelako elekziorik-eta. Izaten zan inddiarra, lapikokua jeneralmente: inddiarra o garbantzua-o. Garbantzua domekatan, zopia ta garbantzua. Eta izaten zan ba inddiarra, lentejia ta horrek, lapikokua, ta gaiñetikan zeoze bazauan, arraiñ pixkat, atun pixkat o zeoze, baiña jeneralmente ez zan etxetikan ezebe eramaten, porke ez zauan orduan diruik-eta, gure gazte-denporan ez zauan diruik, eta itsasora eramaten zan junto-justo patatia, eta horretxek indiarrak eta horrek eta. Jaten zan hori, betetzen zan ahal zoan gehixen marmitta haundixa bete eitten zoan koziñeruak eta jan haura tartera batetik danok, eta eurixa baldin bazauan, tartera erdi atera lapikotik eta jan ordua osua eurixa ta hantxe, e! Ez zauan barruan-ta koziñan tokirik iñon, jaten zan danak tartera batetik egurrezko kutxarakin, tipi-tapa danak eguardixan. Eta berriz gabian afaixa ba seirak o seitterdiak-o, porke eguardiko hamabixetatikan gosetuta egoten zan jendia ta. Eta berriz e gabian jeneralmente izaten zan marmittakua, zela atuna egoten zan eta patatia, marmittakua ein, marmittako pillo bat jan eta hoixe zan jatekoik onena. Baiña gaztai-ta ez zauen gustatzen marmittakua-ta. Orduan gorrotua jeneralmente hartzen giñuan gaztiak porke ez zan haura ta; baiña jatekoa hoixe zan itsasokua.

2.4. Itsaso bajuko pasadizoa; moila txarra Mutrikun

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
- **Laburpena:** Itsasora joan eta itsaso bajua zegoela gertatutako pasadizo bat kontatzen du "Xoxuak". Moila arriskutsua zen Mutrikukoa eta kanpotarrei txalupaz nola sartu behar zuten azaldu behar izaten zieten bertakoek.

Transkripzioa

-X: Guri baten ein zakun, hor itxasotik gatozela, motor txikixa zan, osabana, hamalau kabaloko motorra, barrukaldera jun giñan. Itxasora jun giñanian pixkat zauan, eta gero terriblia itsasua, eta bajamar, eta sartu ein bihar gendula, korrenta zauan, eta lemako, lema-kania apurtu, apurtu ein zakun, suertia euki, eman abante (...) erdixan eta kanpoaldixa orduantxe hasitta, buelta ta kriston etxera jun giñan (...). Orduan ez zauan, bapor haundixan badao soldatzekua baiña han ez zauan, eta ipiñi hola egur batzuk, jo, halako baten goazen ba segi, hortikan seiñaka gizonak: "sartu barrura!", abante, abante, abante; bajamar, korrentak jo, amuratikan jo petrillian, (koasana?) apurtu, lemanak jo zoanian-ta apurtu, bultzaka-bultzaka haura're apurtu gendun. Abante barrura! Sartu giñan barrura, jo Martin Txikin potiña... Hona barrura etorri giñan, suertia euki gendun, hona barrura arte.

-G: Enkallatzera, porke potin txikirik eta ez zan amarratzen hor, porke libre bihar zan baezpadare.

X: Baiña gauza bat esaten det. Denporalia zauan, denporalia, gu ohittuta gaozen, halaxe zalakuan. Halaxe dalakuan, sekula estutu gabe. Jo haura, jo hori, gaztiak...

G: Gero're neu barkua Reina Rosariokin-ta, Inmaculadakin-ta, klaro, lagunak eitten dittuzu itsasuan-ta, Santoñarrak eta horrek-eta Mutrikura nahi izaten zoen askotan arraiña saltzera-edo etorri tta, "Segi neuri atzetik", eta hala etortzen zien barrura, baiña bestela? "Ahora ya sabes como tienes que venir, siempre arrimándote al este y tal; cualquier día venís a Motriko"-ta. "No, no venimos más allí, no, no, no".

-Zer etortzen ziren, arraiña saltzera?

-Bai. Eta gero hona etortzen zienian mollara amarrauta egon eziñ-ta.

X: Hor zakazun markak. San Migelko harri gorri bat egon zan lehen, fijau za sekula? Lelengo Mendibelzu hartu, Mendibelzu basarrixa ta arbolia-ta zeuan. Harek ebaki zittuen.

G: Bai, baiña hori guk gendekixen, kanpotarrak ez.

X: Kanpokuak ez. Haretxen barrura etortzen giñan, itsasuak joko gaittu, joko gaittu, joko gaittu eta rraaaa pasa.

G: Honek esan doana. Orduan barkuei eukitzen gendun peparauta neguan beste lemakana bat atzian, osea, faillo ematen bazuan lemiak, apurtu eitten zan asko, katiau, lokesea-ta. Atzian ipinita, atze-atzian, gora aterata kubiarta gaiñera, eskuko lemakana haundi bat, horrek beleruak eta

ibiltze'ittue ba, holakua, por si katia apurtzen bazan edo, segittuan sartu haura eta haretxekin maniobria itteko. Barkuan danok eukitzen gendun preparauta; ia zelako puertua zan hau. Eta gero ein zienian honek harrikotiak eta asko jarri zan, asko; hau dragatu zanian ta konsegittu gendun, uste konsegittu gendula zera!

2.5. Itsasoko kantuak

- **Hizlaria(k)**: Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-013/022
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:52:31. **Bukatu**: 00:54:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- **Laburpena**: Itsasoa kantuan aritzen ziren eta abesti batzuen izena aipatzen dute.

Transkripzioa

-Lana asko eta gogorra, baiña guk entzun degu itsasuan kantau ere egiten zendutela.

-Bai.

-Akordatzen zer kantatzen zenduten?

-Edozer guk.

-Kantia kantidadia, edozer. Andaluzez igual.

-Baiña hemengo kantak, mutrikuarrenak.

-Baiña guri kantatzen ez ipiñi hemen, eztarria izorrrautak dakat, nik behintzat.

-Pixkat.

-Xoxua: zeoze bai, "Bi arioplano pasata" horrek kantatzen genduzen behintzet.

-Eta ze gehixago kantatzen zenduenik?

-Kantak, e, hasi tta amaittu iñor ez, baiña erdi kantau danak.

-X: "Somos afladores"´e bai.

-"En la época de invierno"-ta. Horrek gure gazte-denboran atara genduzen bertsuak-eta.

-Bazegoen mariñelene bat kantatzen zenduena?

-Ez, bestela. [...] Bai, oiñ herrixan kantatzen dian kanta danak. Eta gero tartian batek boza ona bazakan ataratzen zoan gorgoriton bat-eta.

-X: Orduan kantatu asko eitten zan, e! Lihorrera etorritta ere bai.

-Baiña ez hola kantatu tripulazio dana batuta eta ez, e. Atzian bazeozen hiru lau harek kantatzen eta gero aurrian bestiak´e kantatzen-eta. Egualdi earra zauanian eta arrantza ona itten zanian-ta.

-Euskeraz bai kantau?

-Bai, euskeraz. Guk euskeraz eitten gendun dana.

-Zertzuk gehixago? Akordau bai kanta gehixagokin?

-X: Gero akordauko naiz ni.

-Hau asko akordatzen da lehenaoko kantakin.

2.6. Marinelen lehorreko lagunartea

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/026
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:00:06. **Bukatu:** 01:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Lehorrean, lagunekin taberna batean elkartzen ziren, eta kartetan aritzen ziren ardoa limonadarekin edanez. Jaietan, plazara atera eta aurreku dantza egiten zuten neska-mutilek. Garai hartan sagardoa edaten zen; txakolina gerora sortu zen.

Transkripzioa

-Behin lihorrera etorrita lagunekin batuko ziñaten kalera ertetzeko. Nun batzen ziñaten?

-Xoxua: Gure zerbiziua egin ezkeru pixkat aurreraotikan gu Kiloxenian.

-Gregorio: Jeneralmente Kiloxeneko tabernia zan.

-X: Hortxe batzen giñan kuadrillia, kuadrillan geozen hamabi-hamalau lagun.

-Zelakua zan tabernia?

-Oin bodegoia dana. Osea ke terrenuan igual; bestaldera, han barruan zakan reserbaua bezela [merixendak]-eta eitteko-ta, ta gero kanpuan txikiteorako ta jentia egoteko tokixa. Igual. Oaintxe bezelaxe, igual xamar.

-Edateko zer zeuan? Oain bezela wiskixa ta ez zan egongo?

-X: Ez. Guk [eraten giñuan] ardaia limonadiakin. Limonadia gehixao ardaia baiño, hantxe kartetan zarataka-ta ibiltzen giñan, ta gero hiru-lau txikito edatera. Han beti limonadiakin. Igual frontoian ibili pelotan-ta ta, bata ta bestia-ta "guazen Kiloxenera"-ta. Porroittik.

-Jaixak zienian-ta ere, igual aureskua atera plazan-o, neskakin-ta, zain egoten zien neska danak, ta eitten genduzen dantzaldixak eta gero aureskua atera-ta. Gero aureskura ateratzen genduzen neska danak hartu ta juten giñen Kiloxenera ta ipiñi txarro haundi batzutan zerbeza ta limonadia ta danok eitten gendun kriston haura ta gero...

-Kantuan tabernetan?

-Bai. Kantuan ta dantzan-ta orduan izaten zan. Oain hor ibiltzen dian bezela gaztia- eta, neskak-eta, bakarrik eta gu... Neskak egoten zien zain guk inbitatu arte-o, dantzara atera ta gero limonadia zerbezakin edan basokada bana edo biña eta gero juten giñan dantzan eittera ta kantatzen kalian barrena ta geure gazte denboran.

-Orduan horixe, zerbeza ta. Kokakolaik ez zauan, kokakolaik ez.

-Sardaua eta txakoliña?

-Sardaua ta bai. Txakoliña gitxio, txakoliña gitxi edaten zan orduan. Oain txakoliña edaten da asko baiña orduan ez zauan, txakolin gitxi, eta ez zan edaten. Txakoliña eraten zoanak orduan pues kapritxoson bat hola, txakoliña-ta, Getariako txakolin edarra ta bestia. Gero hasi zien txakoliñak-eta eitten, oaingo hamar urteko, hamabos urteko gauzia da hori. Gehixo, gehixo. Geuk [da-ra-mau] ixa hogeitau urte jubilauta ta gehixo. Baiña oain hogeta hamar urte ta hasi zan txakoliña ta. Baiña ordura arte...

2.7. Mojen zigorrek

- **Hizlaria(k):** Basurko Elezgarai, Lore
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-018/007
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:12:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Egaña, Eli
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrek
- **Laburpena:** Mojek zigortzen zituztenean, liburuak eskuetan jarrita belauniko eta lurrari muin ematen edukitzen zituzten. Pobreak ziren umeak oso gaizki tratatzen zituzten. Eskola gutxi ikasi zuen. Amak emandako diruarekin kontuak atera ezinda gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Kastigada're belauniko lurrian jarri, beso bixak hola ipini, haura, zabal-zabalik, ipini libro haundixak eskutan hola eta balantzaka-balantzaka egoten giñan. Eta gero "ahora tienes que besar el suelo cien veces" ta hantxe, mutur danak arraskatu biharrikan. Esaten nion "guri sarnaik ez digu erten "porque Dios no ha querido", bestela sarniak ertengo zigun guri, e. Gaiztua! Eta Egañaneko hari ta holako jende aberatsai harek "atxi!" igual katarrua ta mojak eurak atea pañelua —gure aldian garbixak eukitzen zeuen guk ez giñun eukitzen pañeloikan ere; eskuturrakin ta—, eta hartu pañeluak eta harei mokuak-eta kendu. Eta pobre jendiai kastigua, palizia... jo baiña jo eitten zigun, e! Gu eskola jun nahiezta ibiltzen giñan,eskola ihesi beti.

- Hortik Agapitonea orduan ihesi.

- Horretxeaittik ez deu guk ize ikasi eskolan, ez deu ize ikasi guk eskolan. "Sumar" ta "restar" justo-justo, ta "dividir" numero batekua, ta bea're ahaztuta dakat. Baiña iñok ez dit izorratzen, e! Ni... Gure ama Donostia juden zan, bere aitzia ikustea juden zan Donostia, eta lagatzen zian honenbesteko bat. Goizian juden zan ta illuntzian etorri. "Aiba, Lore, honenbesteko haura, ta neri zer gastatzen dezun neri apuntatu hor, e". Ba, igual ogixa, ba, zortzi zentimo edo hamar zentimo edo eztaikit ez nai akordatzen oan zenbat baiña... ba, kuartillo bat arda bazkaittako danontzako beste honenbeste ta igual azaburu bat honenbeste ta hola. Hasi nitzan ateatzen "honenbeste balixo deu, harek honenbeste balixo deu, honenbeste balixo deu, honenbeste dakat bueltan..." Suma haura ezin zoan ama batek atea; ezta aman semeik'e! Ezta iñok'e! Esaten noan: "hauze da markia!". Gure Joxe Agustin, anaixa, Ondarruan bizi zana —haura're hil zan gizajua—, haura lihorrian ibiltzen zan guraiza fabrikan, baiña gero zakan berak obsesiua tornero ateratzeko ta, haura, zeak, libruak etxea "por correspondencia" ekarri ta estudixatzen zoan. Esan nion: "Joxe Agustin —etorri zan bazkaitta ta—, amak honenbeste diru laga ditt, honenbeste gastatu det, honenbeste dakat bueltan eta neri honek ez ditt ondo ertetzen", "Zela ertengo dizu, Lore, honek ondo, ba? "Cinco" ta "cuatro" ta "tres" ta honek eta ondo dakazu baiña "doce" hau, "uno" hau kanpuan ipini bihar dezu,". La letxe! Hantxe ikasi numeruak kolokatzen! Nik danak alde batera ipintzen ta aman semeik ez zauan semeik haura

suma klase haura aterako zoanik!

- Bueno, mandatuakin bada ere...

- Bai, ikasi guk ein gendun, "honenbeste balixo deu ta honenbeste balixo deu ta honenbeste gastatu det ta beste horrenbeste dakat bueltan...", ondo ertetzen zian, baiña suma klase haura amai erakusteko ez! Ene...! Guk holako... zenbat holako gauza...!

2.8. San Migelgo eskola

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/006
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:02:54. **Bukatu**: 00:03:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: San Migelgo eskola ibili zen. Mojak ziren maistrak. Sor Ramonarekin abestu egiten zuten. Zigorrak, eta mutilen eta nesken artean dagoen aldea aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ba holaxen eta...

- Zeu eskolan ta?

- Eskolan, San Migelen.

- San Migelen.

- Mojak.

- Mojakin.

- Mojakin. Ta ahal dan bezela. Kantoria nitzan. Sor Ramonakin kantau eitten gendun.

- Zeu zela akordatzen zea zeu zeure eskolako garai horrek?

- Ba ez nai /enai/ akordatzen asko. Mojak pixkat gogorro zian oain baiño.

- Pixkat, bakarrik?

- Bai, pixkat gogorro zian oain baiño. Bai. Kastiguan ere... Hamen pañueluak ipini haura eitteko ta.

- Zer, buruan?

- Bai. O hola ipini o. Baiña neskak pixkat formalosak giñan mutillak baiño, ba, beti izan gea. Mutillak beti izan dia ba...

- Pixkat bizixo.

- Bizixo. Oain ere bai.

- Bai, hori...

- Bai, errespetua beti mutillai.

2.9. Antoni maistra

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/007
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:03:47. **Bukatu**: 00:04:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Antoni maistraren partikularrea joaten zen zatiketak egiten ikastera. Maistra hori non bizi zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta ze ikasten zenuen zeuek han eskolan?
- Dividir..., no, dividir ikastea partikularrea jun nitzan. Bai, Antoni maistria...
- Nik ez dakit ba.
- Antoni maistria hildda do, baiña oain barake ba lorak-eta etxe horrek, Atxitxina baiño goro? Hortxe bizi zan Antoni maistria. Ta horrek ematen zoan partikularrak. Ta ni, ni juten nitzan ba partikularrea eskola. Bai.
- Garai hortan, ez, partikularrak?
- Bai, bai, bai, juten nitzan. Oaindio kaso eitten ditt baserriko mutil batek, gaiña.
- Bertako ezauna?
- Hantxen ezaututa, bai.

2.10. Garbitokia

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/038
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:30:43. **Bukatu:** 00:31:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Arropa garbiketa. Komentu ondoan garbitokia zegoen, eta Karidaden ahizpa hara joaten omen zen arropa garbitzera.

Transkripzioa

- Ta orduan erropia-ta garbitzea?
- Etxian.
- Etxian?
- Bai.
- Ze hor komentuko hor arraska [...]
- Nere aizta jun izan da hara, ni sekula´re ez. Hor zauan haura, labador o garbiketa batzuk, arraskak eta labaderua.
- Labaderua, arraskak.
- Bai, nere aizta haraxe juten zan. Haura abila. Oain´e bai, oain´e bai.
- Socorro?
- Bai.
- Bai, e?
- Haraxe juten zan, baina ni ez nitzan /enitzan/ jun sekula´re.
- Ze jaboi-edo orduan?
- Ez dakit /ezdakitx/, zeoze eongo zan.
- Ez dakit sasoi hortako Chimbo eongo zan.
- Chimbo.
- Lagarto edo?
- Lagartua edo...

2.11. Ura eta argindarra

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/039
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:31:29. **Bukatu:** 00:32:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Etxean ura eta argindarra zuten, baina ez zuten bainuontzik. Burua "arraskan" garbitzen zuen.

Transkripzioa

- Eta etxian, orduan, ura ta... ura bazekazuen?
- Baai, bai, bai, bai. Baiña bañeraik-eta ez zauan e, dutxaik eta e. Ni akordutzen nai lanetik etorri ta burua ta garbitzen-ta arraskan. Orduan ez zauan dutxaik eta.
- Labadoraik ere ez.
- Labadoraik ere ez, dana eskuetan.
- Nehikua lan.
- "Ya lo creo". Hori nik ez noala ein asko e, aizta zarro zan ta harei tokatzen zakon dana. Harek lan asko eindakua do, bai.

2.12. Galtzak

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/045
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:35:38. **Bukatu:** 00:37:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Emakumeak aurrenekoz galtzak jantzita... Karidad eta bere lagun Martzelitik janzten zituzten. Ezkondu ondorengo garaia zen. Gomazko oinetakoak, abarketak eta sandaliak janzten zituzten. Laxaronean erosten zituzten abarketak.

Transkripzioa

- Gogoratzen zara lehenengo noiz hasi zian ikusten galtzak edo?
- Galtzak? Urte asko da baiña Marzelita ta bixok "Galtzak jantzi bihar deu", ta jantzi ta nik kendu ez gehixo.
- Komodo. Esan nahi dot, gaztia ziñanian andra asko ez zan ikusiko galtzak janzitta.
- Ezta pentsatu ere, ezta pentsatu ere. Oain ere esaten die "Larogeita hiru urte ta bakeruakin ez zoz baiña". Oi, zeaittik ez?
- Karo ba.
- Ni ohittu nai galtzakin ta galtzak. Nere galtzak. Gonak, gure... nere neskiak esaten ditt ganbaran dozela nere erropak, galtz... gonak eta. "Egunen baten botako dizut, e". "Ez dittuzu bota -esaten diot /esateiot/-, rekuerdotzat lagaizu".
- Klaro, hombre. Galtzak jantziko zenuen ia ezkondu ondoren.
- Bai.

- Pixkat ia...
- Geruo. Marzelita ta bixok aldabatian. Ta gehixo kendu ez.
- Gustora.
- Nik kendu ez behintzat, nik gehixo ez.
- Eukiko zenduen soiñekoren bat, ezta?
- Bai, eongo zan soiñekuak. Han ganbaran eongo dia /eongoia/, soiñekuak baiña nik ez det /eztet/ jantzi gehixo.
- Ta oiñetakuak? Ze oiñetako erabiltzen zenduen lehen?
- Oiñetakuak? Ba holakuak ez, e. Zapata gomazko batzuk.
- Gomazkuak?
- Gomazkuak izango zian.
- Bai?
- Negurako ta. Udako sandaliak.
- Ez zan orduan asko ibiltzen abarkak? Abar... bueno, abarketak eo. Abarketak.
- Ez, ez. Abarketak bai, bi pisokuak ere bai. Bai.
- Jesus.
- Abarketak. Latxaronea abarketak erostea.
- Laxaro ze Mutrikun?
- Mutrikun Laxarok abarketak eitten zoan.
- Oain da, "Cariño" esaten dixue /esateixue/ ba hari, hantxe Laxaronekuak. Maria Angel `Laxaro´ alarguna da. Haretxen aittak.
- Ta bi pisokua zer e... azpitan?
- Bi azpi.
- Ta neguan? ze abarketak...
- Neguan zapatak.
- Neguan zapatak.
- Zapatak, ta galtzerdi mehiak.
- Txaketia jantzia ta ala!
- Dauana jantzi ta... ez dakit /eztakitz/ ze jazten noan, baiña abante.

2.13. 'Hijas de María' kongregazioa

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/054
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:44:40. **Bukatu**: 00:46:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena**: Hijas de María kongregazioko kide zen Karidad, eta, mutilekin dantza eginez gero, kongregazioko lepokoa kentzen zien zigor moduan.

Transkripzioa

- Ni bikaixuai, bikaixuakin amistade haundixa dakau guk. Ta nik behin esan nion, gaixorik do gizajua. Porke nik euki det koiñaua hamahiru urtian ohian. Ta etortzen da ta amistade haundixa daka gurekin ta. Esan nion, "Don Ramon, pena batekin hilko nai". "Jesus! Zer dezu?". "Zer deten? Nahi beste mutillekin dantzan ez ein biharra". "Hijas de Maria"ko zinttak gendukan orduan, ta eitten zigun kendu, "como si fuéramos fulanas".
- Ta zerrek kentzen zizuen ba?
- Kendu eitten zigun mutillakin dantzan ein ezkeo.

- Zeiñek? apaizak hori? Abariak?
- Hangotxe zeak, "Hijas de Marias" zian neska danak eta, zinttak eruaten gendun guk eta nobenak eta zinttak jazten ta.
- Ta monjak eramaten zeuen hori edo herriko apaizak?
- Ez, e... A, ez dakit / eztakitx/ zeñek eruaten zoan.
- Ta eitten zizuen kendu?
- Kendu, mutillakin dantzan ein...,ein bihar... Ta esan nion, "Beste penaik ez dakat, mutillakin nahi beste dantzan ein biharra", ta barre eitten deu. Abariai beurai ere halaxen edukatu zixuen sasoi hartan.
- Bai, hori ein bihar zebela ta.

2.14. Astoa hizketan

- **Hizlaria(k):** Furundarena Kalzakorta, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Bernabe, Ainhoa
- **Erref:** MUT-029/031
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:29:25. **Bukatu:** 00:30:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Kondaira bat kontatzen du. Mutrikuko eliza aldean behetik gora zetozen batzuei astoak "formatu" zitzaizkien, eta jendea beldurrez. Astoa paretik kentzeko joz gero, erantzun egiten omen zuen "jo naiekela berriz!". Inguruko etxeren batetik aritzen omen zen norbait adarra jotzen.

Transkripzioa

Ba esaten zeuen Mutrikun ere, zela zan, eleiza aldian betigora zatozela beti astuak eta ez dakit ze formatzen zitzakuezen batenbatzuei, kalekuai-o baserrikuai ez dakitx zeintzui. Eta beti billurrez, ta igual astuak jo ta, astuak atzea erantzun: "Jo [neiekela] berriz." Astuak atzea esan. Jo zionai, ezta? Entenitzen dezu? Eta esan zion baten batek, ze: "Entzun, hurrengun hara etortzen zeatenian, beittuizue aber zein bentanatan dauan argixa." Batak bestiai komentauko zixuen itxuria. Asmatutakuak igual izango dia, baiña dana dala. Eta beittu zeuen eta txanboliñeko ez dakitx zein bentanatan argixa, ta esan zoan, orduan esan zoahan bentana hartan zaozenei. Harek botatzen zeuela. Ta geo holakotxe tonterixak-eta esaten zoan, baiña ez.

2.15. Antoni eta purgatorioko amona

- **Hizlaria(k):** Furundarena Kalzakorta, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Bernabe, Ainhoa
- **Erref:** MUT-029/034
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:32:01. **Bukatu:** 00:36:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Lorearen amonaren ahizpa bat Ondarroan bizi zen. Senarra gazte hil zitzaion, eta sei seme-alabekin Mizkia baserrian asko egoten omen ziren. Haren alabetako batek, Antonik, purgatorioan zegoen emakume bat ikusi zuela kontatzen du. Istorioa kontatzen du.

Transkripzioa

- Gure etxeko amonan aizta bat Ondarrun ere bizi zan. Gizona gazte, e, bai, osaba itxuria gazteik hil zitzakon. Ta zaukozen lau alaba ta seme bat, harek-eta. Asko itxuria eoten zian, gizona hil zakonian, ba gurian zakan beste aizta, gure amona, Ondarruko tia harek, ta gurian eoten zian asko. Ta ez daki ba nik, umiak zianian, aber, gizonik ez bazakan-ta, ze... tiak ere zela sostenittuko zittuan ba danak Ondarruan, ta, ba, gurian eoten zian asko. Eta ba itxuria, hori guk falta gendun bai, guretik joten zian ba astuan bila-o. Asto bila joten zianian, horren Ondarruko tian alaba zaharrenak ba ez dakitx ba zenbat urte eukiko zittun ba, hamasei bat urte-ero, eta gero badakizu gure etxetik mendi bat hola ta gero do erreka zulua ta gero berriz beste mendixa hor, San Geronimo aldetik dijuan mendi hori. Ta han astuai diar eitten zionian-ta ikusten zoala amona bat zauala arbolian onduan, eta itxuria billurtu eitten zan ta diar eitten zion gure zeorri, lehengusiña horri, baiña lehengusiña etzan atrebitzen harei... Gaiña bittarte haundixa zaken euki. Ta itxuria ba gurian-ta esango zixuen amak-eta ero amonak eta, nik ez dakit ba zeintzuk esango zixuen, ba, esateko aber zer nahi zoan. Ta egun baten itxuria noa-noa ein zian, astuan billa jun zianian, hurreau bereana. Eta esan ziola amona o dana dalako hori, arbola baten ipurdian ei zauan, ta esan ziola, ba, ez dakit nungo amona zala bea. Ta zakala meza bat ofrezitura Mutrikun emateko, ta hauraxe meza hauraxe eman gabe zaualako ba eztatik zenbat denbora zauala purgatoixuan. Hori beak esaten zoan gure lehengusiñiak e, neskiak e, zela esan zion. Eta esan ziola, “Bueno, ba orduan zeuk nahi dezunian, domekan edo, emango deu mezia Mutrikun”. Jun zian danak Mutrikura mezia entzutea, eta beak... Antoni zoan izena. Eleizako atea aillau zanian esan zixuela bestiai, “hamentxen do ba neure onduan”. Iñok ez zoala ikusten, ta beak bakarrik. Eleizan eon ziala alkarren onduan, mezia entzun, kanpoa erten zoanian, esan ziola, pañelua eskeiñi ei zion, gure lehengusiña horrek e, etorri zan emakume horri. Esan ziola, “Aiba rekuerdia”, “Ez. Hor daukazu” —esan ziola— zeuk”. Eta mantillie, bere markak einda zakan e, buruan. Ta guk haura mantilla haura ein bihar gendun... baiña gure amak-eta ere holako gauzaik pentsau ez eta gaur beste jakingo baneu nik sartuko kuadro baten eta eingo gendun gorde. Hor istori danak.

- Hori dotoria, e.

- Hori dotoria ´re dotoria izango zan, e. Beak esaten eleizako atian “Etorri da ba, hamentxen dao neure onduan” ta iñok ikusten ez, beak bakarrik.

- Ta hori zan zure aman lehengusiña?

- Ez. Amona, amonan aiztan alaba.

- Amonan aiztan alaba.

- Zaharrena.

- Antoni izena.

-Bai. Ta oaindik ez dakitx ez dan bizi e, Ondarruan.

- Aaa..

- Bai, bai.

- Kuriosua hori, e!

- Bai, bai...

- Illiak tente jartzeko modukua.

- Uuu, u, u, u, bai, bai, bai. Enee..! Ta gero hantxen armaixo baten kajoian harek aa, harrezkeo zenbat bider akordau naizen, inuzentia izan giñela

baiñag, haura mantilla haura kargu hartu-e...

- Baiña zure gurasuak esango zeuen “zetako?”.

- Bai, ez dakitx ba nik zeaittik eo, ez zeuen pentsauko holako gauzaik, baiña, gaur, gaur bezela banitz bai gordeko neuke haura. Hori makiña bat bider entzundakua! Nik zenbat bider eukitzen noan goguan. Ene...! Harek eleizako atian esan zionian “Hamen do ba neure onduan ta” beste iñok ize ikusten ez, ta beak bakarrik ikusten.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Mutrikuko portua lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Agirregomezkorta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-010/006
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Garai bateko eta gaurko Mutrikuko portuaren ezberdintasunak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Badakit zu kantuan, juten ziñanian arrantzaa, arraiñak harrapatzea, kantatzen ziñala abilla. Zenek esan zian neuri, ez dakit zeinek esan zian, abilla ziñala kantatzen. Bota aparejuak, aparejuak bota ta kantuan zeu. Zela akordatzen zea zeu moillia ta, moillia ta zela akordatzen zea?

- Moillia ta? Oianguan [modokuak]. Oain sikiera moilliak [...], lehen gaizki zauan, gaizki ez portua, baiña halaxe [...], baporak-eta barrura ekartzen, kanpotikan barrura ekartzen zixuen, orduan, gaur [...].

- Ta olatua ta itxaso txarrakin?

- Itxaso txarrakin pasau ein bihar.

- Pasau ein bihar.

- Bota amarrak ta, hantxe, gaztiak, gu gaztiak giñanian ta, orduan [...].

3.2. 15 urterako marinel eginda

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/002
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Moila nolakoa zen azaltzen du Gregoriok. Herrian italiarren lantegi bat zegoen eta 9-10 urterekin, eskolatik irtetean,

arratsaldeetan, hara joaten ziren lanera, arrainei burua kentzera. Gutxi bazen ere, sos batzuk ateratzen zituzten lan horrekin. Aitak nahi ez bazuen ere, 13 urterekin itsasoan hasi zen lanean txalupa-mutil modura. 15 urterekin marinel egina zegoen.

Transkripzioa

-Orduan Moilla Berri eta Moilla Zahar igualak?

-Bai, Molla Berrixa eta Molla Zaharra igualak, baiña zauan beste moilla bat, hor (...) etxiak daozen, hor zauan beste moillatxo bat, eta bentak eta danak izeten zien hemen kontxa barruan, porke barkuak'e txikixak zian eta horra juten giñan eskola baiña egun guztian egoten giñan arraiñ tartian porke arrain danak deskargatzen zittuen hementxe egun guztian. Orduan bixigua-ta harrapatzen zan neguan, bixigua ondo harrapatzen zan. Eta barku danak ibiltzen giñan kordoban pixutan. Eta guk txiki-txikitatikan palpatu gendun itxasoko dana gresala. Primaberan antxoia, gero umiak giñala juten giñan burua kentzera, eskabetxa; eta hemen Don Josen fabrikia zauan, italianuen hori, eta hor eskolatikan atsaldetan askotan - arkupian onduan-, eta askotan atsaldetan-ta juten giñan lanera burua kentzera. Ume txikixak, hamar urte ta, beratzi ta hamaika-ta. Eta harrixak ipiñi hanka azpitan, mahaira aillegatu eziñ-ta, harrixak ipiñi azpitan da hantxe burua kentzen danok. Ematen zigun ez dakit zenbat, asko ez orduan, ez dakit zenbat txotx txiki, baiña etxera eramateko amorratzen gu diru hauraxe. Eta hoixe zan gure umetako hori. Gero hamahiru urte... Beti lanian. Eta behin hamahiru urte kunplittu genduenian ia itxasora begira. Porke gurian gaiñera amak ez zoan nahi, aittak ez zoan nahi ni itxasora juteik, eta nik ez noan ertetzen barkutik, txiki-txikitatik hauraxe ikusten noan-ta. Etxian beti barkua-ta. Eta hamahiru urtekin hasi nintzan itsasora. Orduan hamahiru urtekin, eskolatikan hamalau kunplittu gabe itsasora txalopa-mutil. Lelengo hasi nintzan neguan tertzak eta karnatatu lujan-ta, hori hasitta geozen hamar urterako tertzak karnatatzen, baiña gero hamahiru urtekin ia txalopa-mutil, barkuko txalopa-mutil. Eta hasi giñan hori, eta gero itxasora juten giñan primaberan-ta abar ta. Ba ia hamabost urtekin-ta mariñel normala eindda. Osea, mariñel-mariñelak eindda. -Aita mariñela al zan?

-Bai, etxian gero barkua gendukan eta aitta patroï ibiltzen zan, eta aittakin ba, esan dotena lehen, ez zidan lagatzen harek itxasora juten, ez zoan nahi itxasora juteik nik, estudixatzia nahi zoan-ta, nik itxasora nahi beti ta. Eskolia ihes eindda sartzen nintzan igual barkuan itxasora jun baiño lenuo ezkutauta eta ertetzen nun itxasuan. Aittari ertetzen nion: "Nun dabill oain hau baiña!". Eta itxasuan. [...]

3.3. Mutrikuko moila eta korronte txarrak

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/018
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:45:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- **Laburpena:** Moila deskribatzen du eta orduko korrante txarrak aipatzen ditu. Moilan itsasoak etheen hormak jotzen zituen, eta etxeetako leihoak itxita egoten ziren.

Transkripzioa

-Mutrikuko portuak beti izan dau arriskutsu famia eta batez be lehen esan dozun molla. Zeuek hola akordatzan al dezue?

-Bai, bai, bai, guk bizi eiañ deu hori, bizi eiañ deu. Hemengo mollia zeuanian hor, klaro gu gaztiak eta arraunian eta potiñ haundixak egoten zien barkura juteko gizonak. Eta traste danakin jun biha giñan-ta. Eta eukitzen genduzen bi arraun-ta, lau arraun-ta, salterako potiñak, porke bestela zingan arraun batekin ibiltzen giñan hola zuanian egualdi earra baiña, itxasua zeuanian, listo!, patroiak, atera, preparau arraunak! Eta di-da korrente kontra eta askotan eziñ korrentak eta buelta eta atzera barrura. Korrentia, aida dios!, presaka itxasorako-ta. Kristonak. Eta atzera berriz jun barkura ta jarri tta han molla haundidan erdixan zaiñ, bareunian zaiñ, hor, listo!, listo!, hor gerauta. Geratu hor eta listo!, abante!, eta hartu berriz korrentak eta mollia jota askotan jota barrura ta barkuak-eta. Hemen kristonak ein izan dittuu. Eta bizi guztian gure ilusua izan zan horixe, jun beti Madrillera eta eskatu dirua ta bata ta bestia; jun hara ta, hantxe iñ molla haundi bat itxasua kentzeko ta gero ba pixkat puertuan harrikote honek eta konsegittu genduzen. Lehen ez zeozen harrikote honek eta iñun. Honek geratu zouen itsasua asko hemen, e! Hemen jotzen zon pareta itsasuak, eta gu hor bizi giñan, amona bizi zan hona begira eta gu beste aldera begira, eta jo pareta eta laugarren pisura arte itxasua juten zan balkoira arte , e! Hemen. Eta han etxe berrixak daozen hartan ere bizi zian beste batzuk eta han ez zeon harrikoteik eta ezer e, eta jotzen zon pareta han'e, eta jota dana bentana danak-eta itxitta eta tabloiak-eta ipinitta egoten zian. Itxasua zauanian jota etxando puñetas danak gorutz juten zan. Honbre! Jota barrura sartzen zan.

X: Hor dana hondarra zan.

G: Hor dana hondarra, eta pareta gero han. Oain daon tokixan ez, e. Bost-sei metro atzero, harutzo, ta bertatik bertara. Jota etxando letxes.

X: Neri amak esaten zian, gure ama hortxe bizi zan bigarren pisuan-ta, txarra zauanian itsasua bentana arte raaaaa! ura.

G: Bai, gure amonanera arte juten zan.

-Billurgarrixa portua.

-Hemen? Hemen itto zienian-ta mollar-ta. Ni gaztia nintzan baiña mollar aittakin etxetik erten gendun danok mollara laguntzera ta haura ta beste. Itxasua hortik sartzen zan gora arte, horra arte, uste zera zala. Itxasua!?

3.4. Konde kaleko etxeak

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/041
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:32:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena:** Konde kaleko etxeak kolakoak ziren azaltzen du. Behean, taberna zegoen.

Transkripzioa

- Ta etxiak zelakuak zian e, oain etxea altuak eta.
- Bai, Calle Konden oain ere haretzek doz. Haren goixan miradora gendukan atzian, euzkixa ederra. Kale... etxe hauraxen ezautu noan nik. Maria Maiz behian, behero ez dakit /eztakitx/ zein biziko zan. Ta tabernia behian. Beurak biziko zian. Alazne `Kale´? Alazne hortxe bizi dana, alarguna?
- Andereñua?
- Andereñua izan zana /izantzana/.
- Bai.
- Ba hantxe tabernia aittak eta.
- A bai, e?
- Bai. Nere aitzak bodia hantxen euki zoan.
- Taberna ederra, orduan.
- Bai, tabernia bai. Ezkondu zanian hantxen bazkaixa.

3.5. Mizkia baserria

- **Hizlaria(k)**: Furundarena Kalzakorta, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Bernabe, Ainhoa
- **Erref**: MUT-029/004
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:01:33. **Bukatu**: 00:03:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Murtikuko Mizkia baserrian jaio zen, Bizkaiko mugatik gertu. Auzoko baserrien izenak aipatzen ditu. Auzo-eskola non zegoen azaltzen du; oinez 20 minutuko bidea zuen baserritik eskolara.

Transkripzioa

- Zeu nun jaixua?
- Ni neu ere Mutrikun, ni Mixkian.
- Mixkian.
- San Jeronimotik goruntz, do beste barrixo bat, eta hantxen, Arantzamendi lehelengo ta gero Mixkia.
- Mixkia baserrixa.
- Bai, Mixkia zan behekua bat ta goikua bestia. Ta gero zozen, Dostua, Berrosasi, ikastolia, Elordi, Armetxa behekua, goikua eta Armetxa zabal, ta gero Bizkaiko mugia. Ta Bizkai aldetik etortzen zian, Kateikuak-ta, Galtzakorta-ta, Olabekuak hiru, baserri hurrenekuak gure ikastola hartaa, ikasten.
- Zeuk ikastolia aittatu dezu-ta, zer zon hantxe auzuan bertan ikastolia?
- Ba, guretik ba hoge minutu o hola jun bihar.
- Eta zein juten zan hara maistría edo?
- A! Lehelengo eon zian auskalo nundik noakuak zian, "Cara al sol" besteik ez zeuen kantatzen ta. "Cara al sol" ta holakotxe kantak kantau ta bale.
- Ni ez nai enterau. Nun zauan eskolia?
- Ba, gure etxetik ordu laren bat hara, Bizkai aldea, Bizkaiko muga-mugan, e.
- Larruskaingo mugan edo hola?
- Ez, harek urruti doz. Gu... Mixkia barrixua beste bat da. Mixkia da,

Armetxan amaitzen da Mixkia.

- Artzai errekatik?

- Artzain errekatik ez giñan juten. Agerre badakizu, Mijoako Agerreko, hantxen onduan gora. Bai, oain kamiñua do einda handik goruntz, Arantzamendittikan barrixo hortan...

4. Familia eta harremanak

4.1. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Agirregomezkorta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-010/007
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:12:35. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Baleka", sokasaltoan, etab. jolasten zuten

Transkripzioa

- Zeu akordatzen zea ze jolas? Zeu akordatzen zea zertan olatzen zenuen?

- Ba, horixe ba, esan dizut ba, Baleka ta.

- Baleka.

- Baleka ta, [...], ba, kategorixa [...], era batea ez zian eitten, ba, sokasaltuan-ta, lehen hala ibiltzen giñan.

- Sokasaltuan.

- Sokasaltuan, ba, kuadrilla haundixa-ta [...], bat eta bat eta, gu hala ibiltzen giñan. Denboria zela pasatzen giñun ba? Gu bestela ezin [...] denboria, ta, baiña halare amuak eitten baiño nahixo han ibili.

- Aaa, jolasian nahixo.

4.2. 8 anai-arreba familian

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Agirregomezkorta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-010/008
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:16:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Moilan jaio zen. 13 anai-arreba ziren guztira, bi ezkontzatakoak, baina eurak berez zortzi anai-arreba ziren. Anai-arrebak izendatzen ditu.

Transkripzioa

- Zeu nun jaixo ziñan, kalia, moillan?

- Oain moillan, ze esango dizut ba, oain ez dakitx zeintzuk bizi dian, han bizi dia... Hori...

- Purita "Mutxur"?

- Ez! A! Gero, gero, gero, baiña ni jaixo moillan.

- Zein tokittan?

- Ba esango dizut, oain, han, ni jaixo nitzan lekuan Txanbelenekuak euki zeuela, hantxe aurrian, hori...

- Txanbeleneko taberna aurrian?

- Handik gora, aldapan goixan, esango dizut ba, hori, oain zein bizi dan.

- Ageda "Xastre"-ta bizi zian han?

- Non?

- Ageda "Xastre" bizi zan bloke hartan?

- Zein Ageda?

- Ageda "Xastre"-ta.

- Guk handik alde ein ezkeo.

- Baiña hantxe.

- Ni txikixa nitzala...

- Eulogi "Trentxiki" ta.

- Ni txikixa nitzala handikan erten ein gendun, zerea, horra, gure aurea. [...] Han oain Txanbeleneko etxe haura gora, Txanbelenekuak dake, oain Anakleton semiak.

- Bai, Anakleto.

- Han, lehelengo pisuan jaixua, ta [...] danok hantxe jaixuak geala.

- Hantxe jaixuak danok?

- Danok.

- Asko ziñaten zuek.

- Oan bezela, neri Manuel danak.

- Zenbat anaixa-arreba?

- Ba, bittakuak hamahiru.

- Hamahiru.

- Bittakuak hamahiru. Baiña geu zortzi.

- Zuek zortzi, Arrizabalaga.

- Bai, zortzi, Pedro, Bernardo, gero, zea, Jexus, neu gaztiena mutilletatikan. Ta arrebak, Teodora ta —hemen do Samielen— ... Teodora ta Rufina. Hola zortzi gu. Bestiak apartekuak.

- Martintxiki-ta bestiak.

- Hamahiru lagun e, hamahiru lagun.

- Asunzion bestia...

- Hamahiru lagun.

4.3. Otarrainetan

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Agirregomezkorta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-010/011
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
- **Laburpena:** Haginak atera eta flemoia atera zitzaionekoa. Etxean denak ziren amu-egileak. Aitak erakutsi zien otarrainetan; nola arrantzatzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

-Hagiña atera eta flemoia?

-Flemoia hagiña etara ta gero.

-Eta itsaso gabe etxian gelditxu ziñan?
 -Bai, bai. Gogor xamarra zan e, baiña harek baiño kulpia gehio zakan anaixak. Anaixa danak zoken haundixak, danak amueintzailliak.
 -Danak amueintzailliak.
 -Amueintzailliak, amua papardotako ta, bixigutako ta danetako. Gu ez giñan juten horta, gu langostata, gu ofizioz langosteruak giñan.
 -Langostatan.
 -Gure aitxa beti izan da langosterua.
 -Langostatan zela itten zan ?
 -Zer?
 -Langostatan zela? Kaixolak?
 -Bai, kaixolak botatzen giñuzen. Kaixolak, ba hogeta hamar bat hamabi o [...]. Kaixolatan etortzen zian harek. Batzutan [...] eta hurrungon bat ezebe baik eta. Baiña gu hala ibiltzen giñan
 -Ze arraunean jun?
 -Ia, bueno arraunian ni ez naiz iñoiz jun. Ni juten nitzanerako motorrak preparatuta zoken, baiña aurretikan arraunian.

4.4. Gregorioren eskola garaiak

- **Hizlaria(k)**: Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-013/001
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Beraien burua aurkezten dute. Gregorio Zumalakarregi kalean jaio zen; umetako denbora gehiena moilan pasatzen zuen. Eskolan Beheko plazako Don Marianorekin eta maristekin ibili zen lehenbizi; gero, kofradiako eskolan eta "hermanoetan" ere ibili zen. Kofradiako eskola marinelen umeentzat zen; maisua nor zen aipatzen du.

Transkripzioa

-Lehenengo esaten badidazue izen-abizenak eta noiz jaio zineten.
 -Gregorio Arreitaonaindia Ulazia. Jaixo nintzan “el año treinta y tres”, eta “veinte de setiembre”, hillan hogeixan setienbrian. “El año treinta y tres”. Osea ke dakat hirurogeta hamalau, hamabost oraintxe in bihar.
 -Mutrikun jaioa?
 -Mutrikun jaixo nintzan, Zumalakarregi kalia, Zumalakarregi 1, pixua ez dakit zenbagarrena dan, bosgarrena-o.
 -Ni Joxeba Andoni Andonegi Arruabarrena. Ta jaixua ba Mutrikun. Vicealmirante Txurruka. Erdiko Kalia. “Número ocho”, bigarren pisan.
 -Ze urtetan?
 -Urtia “mil novecientos treinta y tres”, eneruan hamabostian.
 G: Bixok gitarristak.
 -Orain esango didazue, Zumalakarregi kalia esan didazu, zela akordatzen zan txikittan zelakua zan kale haura-ta.

G: Bueno, molan gu, esate baterako molan jaixo giñan, ta gure bizitza zan molla egun, goiz guztian eta atsalde guztian eskolara jun arte-o, txikixak giñala ba molla. Eta gero pixkat hasi giñanian eskolara juten giñan, lelengo juten giñan Beheko Plazako Don Marianokin ibilli nintzan. Gero Maristak zeozen Mutrikun-ta hara juteko pixkat rekomendaziua bihar zan eta gero etorri zien hermanuak, Hermanos de Instrucción Cristiana, eta harekin sartu nintzan Beheko Plazatik. Gero ibilli nintzan molan, Otxoakin Kofradixako eskolatan, eta handik jun nintzan erdiko kalera, hermanuak zeozen, Maristak, eta jun giñan hara. Eta hortxe hamahiru urte arte eskolan ibilli giñan.

-Eta molan esaten didazu Kofradixan zeuala eskolia...

G: Kofradixa zaharra. Orain esaten dizoen Kofradixa zan han lehen eta hor zauan eskolia mariñelen umientzat eskola bat, eta hor ibiltzen giñan mariñelen ume danok jeneralmente. Horko maixua zan Otxoa, gizon haundi bat, ta haura egoten zan Margariñian ospedauta, hementxe Mutrikun bizi zan, eta hortxe ematen zigun eskolia ume danoi maixu batek.

4.5. 17 urterekin patroï

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref:** MUT-013/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:08:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- **Laburpena:** Aita gaixotu egin zen eta 17 urterekin itsasontzia hartu eta patroï joan zen Gregorio 18 gizonekin. Euren ontzia ("Elenita") nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

Gero pues eso, hamabost urte, hamasei-tta, puxkat gizon ein giñan-ta, gero neri aitta pixkat gaixotu ein zaten, estamaguko pixkat sufritzen zoen-ta. Ni hamazazpi urte orduko patroï jun nintzan itxasora. Aitta etxian geratu gaixorik eta hamazazpi urte orduko jun nintzan barkuakin hemezortzi gizon barruan dila. Orduan barkuak'e txikitxauak zien, klaro, Elenita zan gure barkua. Hirurogeta hamarrek Yeregi motorra zakan eta hemezortzi gizon ibiltzen giñan barruan, gizonak (aukeran zeuren) itsasorako. Mutrikun dana mariñela zan-ta. Gizonak mariñel-mariñelak, gizonak potentiak eta itxasuan habillak. Eta halaxe zan gure bizimorua. Harik eta puxkat e, gero hasi zien motorrak haunditzen-ta abar-ta. Gero motor haundixakin-ta hitz eingo deu.

4.6. Atunetara joaten zirenekoa

- **Hizlaria(k):** Andonegi Arruabarrena, Joseba Andoni; Arreitunandia Ulacia, Gregorio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Erref**: MUT-013/017
- **Iraupena**: 0:04:39. **Hasi**: 00:37:55. **Bukatu**: 00:42:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- **Laburpena**: Atunetara joandakoan asteak pasatzen zituzten. Ogia etxetik eramaten zuten; denek tartera batetik jaten zuten. Arraina bakan harrapatzen zen, eta harrapatutakoa hozkailuetan sartzen zuten. Etxera itzultzean familiek egiten zieten harrera azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta gero behin itsasuan zeintzuk izaten zien zuen lanak. Zela izaten zan eguna? Esan dezu astebete-ta egoten zinatela.

-Bai. Atunetan astebete-ta. Zortzi, zazpi, hamar egun'e bai. Arraiña zela harrapatzen zan. Arraiñ gitxi harrapatzen bazan egun gehixo. Eta orduan ogixa're etxetik eramaten zan, ogirik ez zauan-ta. Ogi holako barra bat edo bi eramaten zoanak, eta gaztiak jan (...) kanporutzian jaten bazoan ogi erdixa edo ogi bat gero ez zakan ogirik'e, eta hantxe tartera batetik jaten zan danak ba, eta zeoze ipiñi bihar zan, platerik eta ez zauan-ta, kutxara batetik hartu eta gero azpizan, ogi gaiñian tak! eta jateko. Ta orduan ogirik ez zauan-ta batzuk tabla puxketa bat eta bestiak eztakit zer ta. Ta ogixa zakanak ere igual, igual laugarren edo bosgarren egunera orduko kardenillua eindda porke ogixa ere ez zan oain bezelako ogixa, gutxiao eiñdda-edo ta, kardenillua, (humedaizua?) segittuan eiten zion, neberaik-eta ez zeon oin bezela sartzeko-ta. Dana otarran egoten zan ogixa, eta behin lau-bost egun egiñ ezkerro ta kardenillua. Baiña zelako gozua kadenillua zakan ogixa? Joer!, batez baiño hobia. Zelako gozua!, batez baiño hobia. Dana barrura. Apetittu earra-ta.

-Eta gero arraiñak jotakuan?

-Arraiñak jotakuan lana, arraiñak jotakuan ez zauan jatekoik eta edatekoik. Lelengo lana eiñ da gero jan arraiñak jotakuan. Eta joten zanian oin bezela adelanturik ez eta arraiña gitxiao harrapatzen zan, banakio. Atunetan ere pues, porrejenplo, harrapatzen bazendun eguadirako hogeta hamar o berrogei atun-eo, esaten zan, tira!, arrantza ona, gaberako beste hirurogei harrapatzen badittu... Behiñ ehun atun-edo pasatzen zanian egunian, egun ona. Oiñ igual egun baten harrapatzeittue hogei milla kilo-ta. Kaiñaberakin-ta. Geuk'e harrapatu izan deu gero arrastian karnatiakin, baiña kazan ez, kazan ez zauan holako golpeik, kazan izaten zan ba larogei edo ehun atun edo ehun ta hogei atun-edo, ehuneko taria, tira!, bale! Eta egun guztian pasatu han eta neberan sartu eguadixan zeozen atunak. Euzkixa egoten zan eta euzki beruakin neberan sartu pixkat, eta gero gabian berriz beste haura eta arraiñ ona ekartzeko-edo, hobia ekartzeko-edo. Jelia-ta ez zan asko hartzen-ta, jelia hartzen zan ba, neberak zien txikixak-eta. Orduan nik esaten detan denpora hontan Gure Elenitak zakazen neberiak bost milla kilo arraiñ kabitzen zoan, sei milla kilo estu-estu sartuta. Eta orduan horixe zeozen bost-sei milla kiloko neberak-eta. Gero guk Reina Rosario ein gendunian, hamabost milla kiloko bi nebera, aurrian bat eta atzian bestia. Eta orduan pixkat gehixo. Jatekuantzat eta atzeko neberia ibiltzen gendun askotan ba. Orduan bai ogixak eta gauza danak earki fresko-fresko neberan-da. Baiña bestela hasi giñanian gu itsasora ez zauan holako gauzaik. Ez zauan. Eta arraiña harrapatzen zana ez zan askua, porke gizon

askokin segittuan dominatzen genduzen arraiñak. Hemezortzi gizon-ta ehun atun-ta ta jan eingo genduzen orduan guk gordiñik danak.

-Hori maria onakin. Eta maria txarrakin?

-Maria txarrak etortzen zienian baakizu. Eta gero hemen neguan askotan itsaso txarrak, esan dezunian akordatu nai, hemen neguan askotan itsasorako jun, etorri mollara gizonak-eta, eta itsasua haundi tta, haundi tta, jata dana barra-barra eindda ta eziñ erten-ta, bueno, etxera jun bihako gea. Igual Ondarrutik eta Getaritik-eta danak itsasora eta gu buelta ta etxera. Eta igual orduantxe abixua igual, e, gero entera, “Berrogei arrua ta berrogeta hamar eta eraman dittuela-ta.” “Mekauben laputa, asko dek ba!”. Hurrengo egunian itsasua ondo baldin bazeuan itsasora erten bihar zan. Eta (...) erten ein bihar zan, eta han juten giñan itxasora jun eta gero etortzean andra danak eta molla muturrian zain egoten zian danak eta itsasua zaintzen, korrientia eta haura ta bestia sartzeko barrura-ta. Andrak kontatzen molla gaiñetik: “Bai, arrantza ona, sei otarra badakaz”, otarra haundixak izaten zien orduan. Akordatzen haiz Dominotarrak-eta? “Horrek sei otar-eta, bestiak bost otar-ta, harek lau”, eta danak kontatzen andrak molla gaiñetik.

X: (Atxarango?) molla gaiñetik..., atxona!, atxona! Eta neuk neure artian, atxona... dios!

4.7. Konde kalea

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/002
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:01:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
 Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Karidad Konde kalean jaioa da. Umea zela kale hura nola gogoratzen duen azaltzen du. Noskineko taberna aipatzen du. Bizilagunen artean nolako harremana zuten aipatzen du.

Transkripzioa

- Ba nik akordatzen nai, txikittan gu, gaztetan. Oain, Benjaminen haura...

- Bai, lokala.

- Lokala, zan tabernia. Noxkinekua.

- Bai entzutzeia.

- Eta han banko bat eoten zan, ta gu beti bankuan hantxe parian bizi giñan ta. Lelengo bizi giñan bigarrenian eta gero bigarrenetik hirugarrenea ta bigarrenea etorri zan Maria Maiz. Munduan ez do /ezto/ halako familixaik oain.

- Zeba?

- Gu lanea igual, ta beak lapikokuak guri egosi.

- Bai.

- Hartu-eman haundixa, eta gaiñea hartu-eman bakarrik ez, transmititu dixue /transmitituixue/ beuran...

4.8. Beheko plaza eta dantzaldiak

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/011
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:06:08. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Garai batean Beheko plaza nolako zen azaltzen du: eserlekuak, zuhaitzak eta kiosko bat zeuden. Igandeetan musika bandak jotzen zuen, eta dantzaldia egoten den. Dantzan eta mutiletan nola ibiltzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Lehen beko plazia politto zan oain baño, bankuakin ta arbolakin. Kiosko bat zauan, eta gu dantzan hantxe.
- Ze eitten zenuen agarrauak?
- Klaro, agarrauak. Eta [...] han mutil guapua nun don. Bueltan-bueltan jun, ta gero gau guztirako geuretzat.
- Ta ze juten zinaten zeuek... ze orduan garai hortan mutila edo neskia, zein juten zan?
- Garai hortan mutilla neskian billa, "faborez?".
- Orduan, batenbat guapua ikusten bazenuen zain eon bihar etorri arte.
- Bestela, bestelan ez zakun inportaik baiña geu bueltan-bueltan hantxe. Politta zan plazia, lehengo plazia. Ta esaten deue han lehen kanposantua zauala, gaiña. Ez dezu /eztezu/ entzun sekula're?
- Bai, bai, bai.
- Kanposantua zala.
- Ta eleizia, bertan.
- Ez dakit /etakitx/, ez det ezautu nik ez kanposantuik ta ez eleizaik, baiña esan eitten zeuen. Baiña zan oso plaza politta, bankuakin, beuron arbolakin... Gero, bakizu, plazia ein bihar zeuen behian ta kendu zeuen dana, baiña oso politta zan.
- Ta ze musika eoten zan?
- Bandia, bandia, pasodoble, tangos... lo que sea.
- Ta hori ze jaixetan izango zan?
- Jaixa, domeketan.
- Domekero?
- Beatu ia, Zarautzen, domekan-domekan musikia eoten da. Ez dezue /eztezue/sekula entzun?
- Ez.
- Bai, ni jun izan nai ta...
- Orduan jaixan eitten zan hemen, musikia ta.
- Bai, musikia. Jaixak izaten zian behintzat. Nik pentsatzen det jaixak izango ziala. Bestela ez. Eta pasakalliak asko domeketan ta. Zeozer zanian ta, ni beti anginakin ohian orduan. Nearrez ohian.
- [...]
- Ez, neure zea, haura izan zan.
- Debilidadia.
- Anginak, oain ere dakat pixkat haura.
- Ta zeu lanian ta?
- Egañanian.

- Parranda ere ein deu baiña lana ere ein bihar.
- Ez, parrandan ez, e. Orduan ez zauan parrandaik e. Orduan ez zauan. Parrandaik ez zauan orduan e, gure sasoian ez zauan parrandaik. Keba.

4.9. Umetako lanak

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/027
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:18:06. **Bukatu:** 00:19:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Neska koskorra zela hasi zen eskabetxean lanean. Txikiak izanik, batzuei harria jartzen zien mahaira iristeko. Egañanean lanean hasi zen eskola amaitzeaz zuela. Lantegietako nagusiak eskolara joaten omen ziren eskola amaitu zutenen bila, lanerako.

Transkripzioa

- [...] ta bai? ze entzutzia beti neska koskorrak. Zenbat urtekin hasten ziñan?
- Txikixa. Ez dakit /eztakitz/ zenbat urte, baiña gaztiak.
- Bai.
- Gaztiak.
- Neska koskorrak.
- Bai. Batzui harrixa ipintzen, altzatzeko mahaira.
- Hori, hori.
- Ez nai /enai/ akordutzen harrixakin.
- Ez.
- Harrixakin ez nai /enai/ akordutzen.
- Entzutzia beti, neska koskorrak-ta aillatzen ez mahaira ta harrixa ipinitta. Ta orduan ze polain edo...?
- Egañanian sartu giñan eskolia amaitzeakuan, Egañanekuak etortzen zian eskola, aber zeintzuk haura, amaitzen zeuen eskolia, ta orduatxe sartu giñan Egañanea.
- Zenbat urte, orduan, gutxi gorabehera?
- Ba eztakiñat /ez dakiñat/ ba zenbat urte. Hamabost, hamasei? Hamalau? "No tengo ni idea". Baiña gaztiak giñala bai.
- Ta, orduan, billa etortzen zian Egañanian lanian hasteko?
- Egañanekuak etortzen zian San Migela zeñek eskolia amaitutuzen zoan billa, lanea sartzeko.
- Graduaua-ta orduan ematen zizuen?
- Ez dakit /eztakitz/, emango zeuen zeozelakua eo.
- Papeleon bat eo.
- Orduan halaxe zan. Oain ez, oain dana diferentia do, oain dana diferentia.

4.10. Ondarroarako joera

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/030
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:21:38. **Bukatu**: 00:22:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Gaztetako ibilerak. Ondarroara joan eta mutilak ezagutzen omen zituzten. Mutrikutik ez zen inor joaten Debara; Ondarroarako joera zuten. Eibarren ere ba omen zituen lagunak. Domeketan Ondarroara joaten ziren, zinemara. Banda ere izaten omen zen.

Transkripzioa

- Zuk ze afizio, txikittan edo gaztetan edo? Zeozer...
- Ondarrura jun, mutillak ezautu... Deba iñor ez hamendikan. Qué cosa. Zuk debarra dakazu gizona?
- Bai zea.
- Mutrikuarra?
- Mutrikuarra.
- A!
- Gu ere Ondarrura jute giñan, e.
- Bai, danok On...
- Mutriku [...].
- Danok tendenzia gendukan Ondarrura juteko, e? Baiña Deba-ta gitxi. Eibarren ere "ya tenía amigos yo". Hil zian /hiltzian/ harek. Haura hil zan, bai.
- Ta Ondarrura ze igandetan? Domeketan?
- Bai, domeketan zinea juten giñan.
- A bai, e?
- Ta gero azkenengo piezia hango direktoriak eitten zigun geuretzat jo, piezia, musikia.

4.11. Igandetan, zinera

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/032
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:23:17. **Bukatu**: 00:24:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Igande arratsaldetan zer egiten zuten. Ez ziren tabernetara sartzen. Zinera joaten ziren, eta handik irtendakoan etxera. Lagunak ibiltzera joaten ziren, baina Karidadek etxera joan behar izaten zuen. Izeba oso zorrotza zela dio.

Transkripzioa

- Zela pasatzen zenuen atsaldia zeuek igandeko atsaldia?
- Atsaldia hantxen.
- Zinea jun.
- Bueltia ein Mutrikun. Orduan ez zan tabernata sartzen oain bezela, kafetxua hartzea eo haura, ez. Orduan gaztiak giñan ta... Ta gero zinea. Zinetikan ordua etxea juteko, e.

- Pasieria ein.
- Bai. Gure tia zaharra zan holakotxia.
- Orden y mando.
- Orden y mando. Nik esaten nion: "Ni ez nai /enai/ hobio, tia, harek bueltia eittea jun dia ta ni etxea seittuan. Ni ez nai /enai/ harek baiño hobio", baiña konfiantzia eurak, bakizu.
- Bai.
- Eta iluntzen zanian akordatzen nai esaten zoala beti, iluntzen hasi ta "Gaztiak, umiak batu, e", umiak, ilobak gendukan, ba, nere aitzak sei ume euki zoan.

4.12. Sakaponetan

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/043
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Ume garaiko jolasak. Sakaponak, kromoak... Sakaponetan nola jolasten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Ataixan jolastuko zenuten ba.
- Bai, ataixan jolastu deu. Hamentxen eoten giñan gu, e. Ni hona bizi nitzanian kalera ez noan ertetzen, bankuak bajatu behera eta hortxen.
- Ta zeu akordatzen zea zertan ibiltzen ziñaten ataixan, ze jolas edo?
- Haura, sakaponak.
- Sakaponak?
- Kromuak. Orduan ez zan eongo joko asko. Horrek eukitzian...
- Esplikatu sakapona zer dan. Badakitt e, baiña igual Aintzanek ez daki.
- Arkumien zea. Arkumia jaten dezunian zein partetakua dan ikusten dezu.
- Hazurtxua.
- Bai, baiña bere zea zakan, formia, harek.
- Ta zela zan jokua sakaponakin?
- Pelotiakin hola bota ta. Bai.
- Ta ze ein bihar zan? Goi aldea, borobila edo...?
- Ez dakit /eztakitx/.
- Ez zea akordatzen.
- Ez nai /enai/ akordatzen, baiña sakaponak eta kromuak hola eindda.
- Orduan kromuak...
- Oain kartatan-ta ibiltzen dia /ibiltzeia/ jendia. Orduan horrek zian.
- Ta kromuak nundik?
- Ez dakit, ba, nundik etorriko zian. Sobren batzutan-edo etorriko zian, ez nai /enai/ akordatzen, egixa esan.
- Ta sakaponak lortzia ere ez zan izango erreza.
- Ba sakaponak bazoen ba. Batzuk antxumienak, hobio ziala ta.
- A, beira. Arkumiana entzutzeia.
- Ta gero pintxatu-ta eitten gendun ta. Koloriñetan ta.
- Politta. Ez?
- Bestela ez zauan beste ize.

4.13. Senarraren aita, barberoa

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/047
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:38:09. **Bukatu:** 00:38:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Karidaden senarra barberuaren semea zen. Bere senarra futbolaria zen, eta kantu bat atera zioten: "si veis ha un chico guapo que mete muchos goles no preguntéis quié es, que es hijo de un barbero...". Senarrari "Panizo campeón" esaten zioten.

Transkripzioa

- Oan barberuak bai. Barberixak eongo zian.
- Eon bai. Geure gizona barberuan semia zan.
- Kantuan esan dozu, ezta?
- Bai.
- Hori da. Zelan zan kantua?
- " Si veis a un chico guapo que mete muchos goles, no preguntéis quién es, que es hijo de un barbero"
- Baina hori kantu hori zeure gizonari etaratakua zan?
- Klaro, "Panizo campeón". Delanterua zan ta, golak sartzen zoan ta. Messi beste akaso ez zoan sartuko baiña.
- Baiña, abila bea.

4.14. Mutrikuko kondea

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/051
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Kondea udaran joaten zen Mutrikura. Kondeari buruzko azalpenak ematen ditu: abizenak, nola hil zen...

Transkripzioa

- Kondian etxia ta hori esan dozu eta, Kondia bizi zan Mutrikun?
- Bai. Etortzen zan udan ta Saturrarana ju... bazaken horrek zeoze.
- Bai.
- Oain etortzen da semia.
- Bere semia, e?
- Bai, kondian semia. Etortzen da Enrique.
- Nungua zan edo ze konde zan?
- Enrique.
- Enrique zan bera be bai?

- Bea zan Enri... Bea, Don Jose María “creo que era”. Jose María. Ez dakitx, baina uste det /ustet/ Jose María zala. Hil zan /hiltzan/, bai.

- Nungua bea?

- Ez dakit /eztakitx/.

- “Conde de...”?

- “Conde de Motrico”.

- “Conde de Motrico” hori da baina, nungua ete dan?

- Txurruka.

- Txurrukatarrak.

- Txurruka. “Ese murió en la batalla de Trafalgar”.

- Bai, bai.

- Estudixuan hantxen ikusten zan eta hankia moztu zixuen.

- Haura da monumentua dauena...

- Bai, goiko plazan.

- Bai, goiko plazan.

- Hankia moztu zixuen ta libruak esaten zoan zerrautsetan sartu zeuela.

- Bai, Txurruka.

- Orduan, horrena zan han zuek bizi ziñazien inguruan zeuan etxia, ezta?

- Etxia. Hortxen do etxia oain ere. Bai, etxe haundi bat. Ta aurria ere baraka. Aurrian ematen zeuen orduan dotriñak. Dotriñia haraxe juten giñan.

- Zer e dantzak ematen zianak gero, beanduo?

- Dantzak. Gero, ez dakit /eztakitx/. Baiña...

- Aurrian dozen etxe...

- Zahar batzuk.

- Bai, zahar batzuk. Zeu akordatzen kondia-ta etortzen zianian Mutrikura?

- Bai, kondia-ta etortzen zianian “era una cosa”... haura. Oain bezela ez. “La ignorancia era”.

- A.

- “Kondia ta etorri dia”. “Ahora se pasaría en el Conde de Motrico”.

- Ta ze etortzen zan, ekarriko zittun berak neskamiak eta...

- Ekarriko zoan. Porke neskak-eta bizi zian, neskamiak ta hor. Maiordomuak eta.

- Kotxian etorriko zan haura.

- Bai.

- Eleante-eleante.

- Oan zein ikusten dezu /ikustezu/ elegante, danak “de traje y corbata”.

Oain ez leuke /eleuke/ distingittuko baiña oain, orduan.

- Ba bai, orduan bai.

4.15. Lorea izena

- **Hizlaria(k)**: Furundarena Kalzakorta, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Bernabe, Ainhoa
- **Erref**: MUT-029/001
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Lorea izena zergatik jarri zioten azaltzen du. Frankismo denboran, Flora esaten omen zioten.

Transkripzioa

- [Ondarrutarra] osaba nakan, aman difuntian aizta bat Ondarrun bizi zan, ta harek zakazen hamar seme-alaba, bai.
- Ez da gitxi e.
- Ez. Eta hango neska zaharrenak zakan izena Lorea, ta neri're horrexeaittio ipini zian bea.
- Ba, izen politta da ba Lorea!
- Ba ez dakitx pa.
- Ez ala?
- Orduan-ta ez zan asko entzuten e.
- Ba, oso politta da Lorea. Flor.
- Gero, frankisten denboran, Flora.
- Flora?
- Flora gora ta Flora behera, ta amorrua neuk galanta, baiña...
- Karo, ba, norbea Lore izan ta Flora deittu... hori ere ez da, e.
- Ez, baiña..

5. Aisia

5.1. Gaztetako ibilerak

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/004
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:02:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Gaztetako ibilerak. Mangolinuak jan, eta goiko Plazako musika amaitutan etxera joan behar izaten zuten. 23:00etarako etxera joan behar izaten zuen, eta bera lagunak, berriz, kanterara ibiltzera joaten ziren. Izeba bat bizi zen beraiekin, eta zorrotza zutela dio.

Transkripzioa

- Eta guk mangolinua jan, musikia goiko plazan, ta haura amaittuta [...] seittuan etxea. Gure tia soltera bat gendukan, eta hamaiketako etxea jun bihar. Ta nere lagunak eitten zeuen bueltia kantera atzian, ta nik esaten nixuen, ni ez nai hobio horrek baiña ba, horrek bueltia eitten deue baiña, lengo...
- Hamaiketan kantera atzian gabaz bueltia?
- Gabaz buelta bat ein amaittuta musikia, ta nik ez noan eitten. Holakotxia zan gure solteria.
- Bai, e?
- Bai.

6. Ekonomia eta industria

6.1. Egaña lantegian lanean

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/012
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:09:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Egañanean lantegian egiten zuen lan. Zer lan egiten zuen kontatzen du.

Transkripzioa

- Lan asko.
- Lan asko. Egañanean juten nitzan lanea. Egañanien eitten zian dekorazio... gerra denboria zan ta, dekorazioko medaillak.
- Ze, soldauentzat?
- Soldauentzat, bai. Ta bestela're bai ipintzeko, soldauentzat dekoratzeko ta. Ni akordatzan nai ein noala, lana eitten noala, zerria... Ta orduan zauan haura, zea, hor bizi da ba oain, hil zan andra-gizona... Ta, karo, kanposantura juten naizenian esaten det: "Gizon hau ez baldin bado zeruan ez do /ezto/ zeruik". Zeakua..., Pikotxikixanekuakin dion bat ezkontuta alto bat, ba? Maidagan.
- A! Maidaganekua.
- Aitta zan. Era el que nos daba para trabajar.
- Jefia edo gerentia edo?
- E... haura zan, haura eitten zoana beak. Ez dakit /eztakitx/ ze hitzekin esan, momentu hontan ez nai /enai/ akordatzan.
- Ta zeuek ze eitten zenuen eskuz pintxau?
- Pintxau ez noan eitten nik. Zerriakin zulua baldin bazakan, dibujua atea. Por ejemplo, zauan haura medailla bata, ta dibujuak eukiko zoan, ta eitten zerra... zerra... holakotxe zerra txiki batekin.

6.2. Ama eta izeba zaku-lantegiko langileak

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref**: MUT-027/017
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:11:47. **Bukatu**: 00:12:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Karidaden amak eta izebak zaku-lantegian egiten zuten lan. Zaku-lantegia non zegoen azaltzen du. Zaku-lantegiaren ondoan Dentiseneke eskabetxe lantegia zegoen.

Transkripzioa

- Zeuk esan dezu ama zaku fabrikari.
- Ama ta tia solteria zaku fabrikari.
- Ta Mutrikun zakuak eitten zian?
- Zakuak. Oain etxe berri horrek badoz ba kanpofutbolian, haura, hauraxe zan zaku fabrikia.
- Zeu akordatzan zela eitten zian zakuak eta?
- Ez, ez nai akordatzan. Gu jun ta laga eitten gendun, baiña zan zaku

fabrikia.

- Ta amai eramaten ziozun...

- Ta aldameneko etxia dozenak, haura zan Dentisineko fabrikia. Amai o Tia Juanai ez dakit /eztakitx/ zein zan. Por ke batek eitten zoan seiretatik ordubixeta ta bestiak ordubixetatik hamarreta.

- Dentisinian zer eitten zan?

- Eskabitxia.

- Eskabetxia.

- Bai. Karlos ta horrek danak. Ia zenbat fabrika itxi dian Mutrikun.

7. Natura

7.1. Lehen hotz handiagoa

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/016
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:11:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Lehen, hotz eta elur gehiago egiten omen zuen. Karidaden amak zaku-lantegian egiten zuen lan, eta bera lanera joan aurretik amari gosaria eramaten zion; hura zain egoten omen zen gosariarekin eskuak berotzeko.

Transkripzioa

- Bai, orduan hotz gehixo eingo zoan oan baiño.

- Bai, orduan edur gehixo eitten zan.

- Zeu akordatzen?

- Eta, gure ama ta, zaku fabrian lan eitten zeuen. Ta gu Egañanea guazela armosu potuak eruaten gendun. Akordatzen nai eskuak holaxen, ta ama-ta zain eoten zian eskuak armosuari eutsitzeko. Ta orduan eoten zian kandelak. Izotza. Bai, oan ez det aspaldixan ikusi izotzik, eta edurrik ere ez hamen bistan.

- Hori da.

- Edur asko do eitten hortikaldian, e.

- Bai, bai hemen aspaldixan...

8. Politika

8.1. Gerrako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/035
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:26:39. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- **Laburpena:** Gerra garaiko oroitzapenak. Etxeko eskaileretan egon omen ziren soldaduak. Soldaduak azpeitiarrak ziren, eta harreman ona zuten haiekin. Beheko bizilagunak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gerra ondorengo... zeu akordatzten hemen, bestela, gerra garaixan soldauak edo?

- Bai, akordatzten nai soldauak gure etxian. Orduan zian azpeittiarrek, zela esaten zakuen harei? Eta bakian utzitzen zigun, porke harek eskiletan geatzen zian eta entria itxi eta gu bake-bakian barruan. Bestela etortzen zian soldauak eskiletan gora ta. Baiña gu... milizianuak ez zian baiña, ez dakit /eztakitx/ zela esaten zakuen. Azpeitxiarrak zian, gaiña. Hantxen oso ondo eon zian geure eskiletan, ta gu bake-bakian.

- Zu neska koskorra izango ziñan.

- Koskorra, bai, neska koskorra. Behian... behian Maria Maiz-ta bizi zian. Ebaristo, hil zan /hiltzan/, barberua zan.

- Entzutzia ere jostuna zanai igual ba erropak josi erain, edo janarixa edo garbitzia erropia soldauai edo...

- Ez, guk ez gendun ein hori, e. Gurekin portatu zian ondo soldau harek. Akordatzten nai eskiletan, ni gaztia izango nitzan, eskiletan eoten ziala, ta guri [...] bestela etortzen zian ta haura, baina guri ez zigun molestatu izetako're ez. "Y así es".

8.2. Soldataren ordeztasun, patata

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/036
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):** Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** 1941ean gose pasa zutela dio. Zaku-lantegian patata ematen zuten diruaren ordeztasun, eta horri esker nahiko ondo egon omen ziren etxean.

Transkripzioa

- Ta gerraostian goserik pasau zenduen?

- Gosia bai "el año cuarenta y uno", "el año cuarenta y uno". Patatia ematen zixuen fabrikan diru partez, zaku fabrikan. Eta handikan bastante ondo eon giñan, patatia jaten, eta patatia amaitzeko're penatan. Bai.

- Patatia ta gehixo zer orduan?

- Diru partez, jornal partez, patatia. Beti ez zeuen emango, baiña ni akordatzten nai hori jaten gendula behintzat, patatia zaku fabrikak emandakua. Diruik ez.

8.3. Aeroplanoak eta babeslekua

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Karidad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Erref:** MUT-027/037

- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:30:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra garaiko oroitzapenak. Aeroplano bat pasatzen zenean non babesten ziren aipatzen du. Bonba txikiak botatzen omen zituzten, "lehertzen ez zirenak". Errazionamendua, ilarak... aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Haura, airoplano bat pasatzen zanian, gure refujixua zan kondianeko entria.
- A bai, e? Ta zer dala-ta edo?
- Bonbia botatzen zoan ta.
- Baiña kondian bea entria zer e harrizkua...?
- Harrizkua zan ta. Harrizkua da ta haraxen. Bestela ez zauan hamen haura. "Y así es la vida".
- Ta sirenaren bat-edo jotezan ala?
- Bai, sirenia uste det joten zeuela, ez dakit /eztakitx/ seguru, e. Eztixuela esan andra honek gizurra esan doanikan.
- Zeoze izango zan. Orduan, bonbak-eta bota zittuen hemen be bai Mutrikun?
- Bai, baiña haura, esplotatzen ez zianak, bonba txikixak, baiña guk sustua beti. Ez dakit zan hamabixak laurden gutxio pasatzen zana eo beti. Ta gu refugiora joten giñan kondien entra. Hantxe kale Konden zela bizi giñan. Oain bezela bizi? Oaingo gaztiak bezela? Gu zeozer, eta gure gurasuak...
- Okerro.
- Gu zeozer ta gure gurasuak-eta ia zela bizi izan zian. Gero zauan razionamentuan gauzak.
- Ta ze joten ziñaten panadeira edo ta...?
- Denda. Ni akordatzen nai denda, eo ez dakit noa joten giñan, behintzat kolan eoten giñan.
- Ta ze ematen zeuen razionametu hortan? Ogixa?
- Ez dakit /eztakitx/. Haragixan razionamentuan ere eon izan gea ta.

9. Lanbideak

9.1. Fonda Berrira josten ikastera

- **Hizlaria(k):** Furundarena Kalzakorta, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Bernabe, Ainhoa
- **Erref:** MUT-029/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:06. **Bukatu:** 00:04:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Eguneroko zereginak: goizetan, esnea kalera jaitsi eta baserriko lanak egin behar izaten zituen; bazkal ondoren, josten ikastera joaten zen Fonda Berrira. Katalin izeneko emakume batek josten irakasten zien neska talde bati; hari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Oiñez jun biharko ziñaten?
- Gu oiñez, aber! Goizian lehelengo esniakin etorri kalea, etxea jun, eta zeozela lanak ein, bazkaixa eo jan bihar noana ta josten ikastea etortzen nitzan Fonda Berrira.
- Bai?
- Han, Fonda Berri, Katalin! [...] ene, alabak juten zianian sukaldeko lanak eittea, Katalin etorriko zan neri kontuak esatea.
- A bai e, Agustina eta Maria.
- Bai ba, bai ba. Ta harek ez zeuen nahi izaten eoze gauza neri esatea etortzia, baiña neri esaten zian: “Zu juten bazea auzolanea —Kattalinek e —, aurrena ez hasi lana eitten, lehelengo bestiak ikusi ta gero zeu hasi” ta holakuak esaten zian. Zelako konsejuak!
- Argixa ei zan Kattalin.
- Katalin? Katalin zan, bueno! Jarritta, jarri bihar dezunian ere, zenbait bezela jarri hala behian lurrian hanka zabalik eta ez, e. Jartzeakuan hankak kruzau... baiña ze konseju eman harek. Gero esango zeuen bata ta bestia, baiña konseju ematen ona zan e, oso ona.
- [...].
- Fonda Berri lehen zan hori, eleizian atzian zan hori etxe hori. Gero ba obrak eta gauzak eitteko, ba, bota ein zeuen ta. Baiña hantxe, neskak eoten giñan ba...
- Hori zan berez fondia, fonda-hostal edo fondia?
- Nik ez dakitx zer izango zan, baiña haura zan; zozen Zumalabenekuak, ez dakit zeintzuk, bi-o bai, josten ikasten eoten zian, eta hortxen. Neska señoiritakin ibili nintzan ni josten ikasten.
- Ez da gitxi.
- Bai, bai, oso.

9.2. Aitona, txondorra eta sorginak

- **Hizlaria(k)**: Furundarena Kalzakorta, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Bernabe, Ainhoa
- **Erref**: MUT-029/032
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:30:29. **Bukatu**: 00:31:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Lorearen Berrosasiko aitonak txondorrak egiten zituen. Txondorraren bueltan sorginak ibiltzen zirela esan ohi zen.

Transkripzioa

- Errekako sorgiñak-eta.
- Errekan ze sorgin eoten zian ba?
- Han artzai errekatik gora-ta entzunda dakat...
- Bai?
- ... sorgiñak ibiltzen ete zian.
- Bai, akordatzen naiz ni han Berrosasiko aittonak-eta txondorrak eitten zeuenian ta, auskalo txondorran bueltan-ta ze ibiltzen zakozen, ze sorgiñ, e. Ta gizajua han eongo zan bakar-bakarrik, ta ez dakit ba ze billurtzen zan edo ez zan edo ze eitten zan.

- Hori da, ze txondorra eitten zeuenak´e han bakar-bakarrrik eoten ziala, han gabaz.
- Bakar-bakarrrik gabian, hantxe txondorra zaintzen, aber.
- Ta zeuk aittonai-ta entzunda bai kontuik edo?
- Ez, aittona haura gaiñea guretik, ez zan gurian bizi izan ta, guretik urruti´e bai ta, baiña ez, nik hola, ez, ez, ez dakitx, baiña , behintzat edadian e han txondor aldian ibiltzen zakozela harek bai e, bueltan-bueltan sustuak ematen ta hola.
- Dantzan.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aitona arotz lanean aritzen zen (MUT-001/001)

Garai batean etxeak nola egiten zituzten azaltzen du. Hargin eta arotzak baziren orduan ere. Pedroren aitona arotz lanean aritzen zen etxez etxe. Bilboko Arriaga antzokiko zenbait egitura berak proposatutakoak dira.

2. Txoriak garai batetik urrituta (MUT-001/002)

Txori mota ezberdinen izenak aipatzen ditu: lertxunak, antzarrak, kalandresak, eta abar. Txori asko dago urrituta gaur egun.

3. Olatz auzoko ura Debara (MUT-001/003)

Olatz auzoan ez dago errekarik. Olazko ura Debara joaten da. Inguruko ura nora joaten den azaltzen du.

4. Okila kantuz ari denean, euri eskea (MUT-001/004)

Txoriak izendatzen ditu. Okilak kantatzen duenean euri eske dagoela esaten da. Gaztea zenetik txoria asko ugaritu da, udaberrian txori-kantu ikusgarria izaten zen. Izendatzen jarraitzen du.

5. Zortzi urterekin kalera esnea saltzera eskolara joan aurretik (MUT-003/001)

Sei urterekin Olatz auzoan hasi zen eskolan. 18 urteko osabak bizkarrean eraman omen zuen. Etxera joandakoan ganadua zaindu behar izaten zuen. Zortzi urterekin esnea saltzera joaten zen goizean kalera; gero astoa bakarrik bidali etxera eta bera eskolara. Auzoko umeekin jolasten zuten.

6. Argia eta ura noiz jarri ziren etxean (MUT-003/002)

Bere aita harri-jasotzailea zen. Berak sei urte zituela apustua jokatu zuen Itziarko baten kontra eta irabazi. Garai horretan sartu zen argia auzoan eta telefonoa ere handik gutxira jarri zuten. Ura berak zortzi urte inguru zituela jarri zuten.

7. Lixiba nola egiten zen (MUT-003/003)

Etxean ura jarri arte errekarra joaten ziren arropa garbitzera. Lixiba egosi egiten zen eta gero "zinkatan" errekarra eraman eta astindu. Lixiba nola

egosten zen: barrika handi batean jartzen ziren arropak eta gainean trapu bat eta sutako hautsa. Ur beroa botatzen zitzaion gainetik piskanaka. Sobra zegoen ura azpitik irteten zen eta hari "lixixa" deitzen zitzaion.

8. Argia eta ura jartzea aurrerapen handia (MUT-003/004)

Eurenean nahiko goiz jarri ziren argia eta telefonoa. Sukaldean lehengo su zaharra zuten, beheko sua, erdian laratzarekin. Argia eta ura jarri zituztenean aldaketa handia izan zen, aurrerapen handia.

9. Umetatik lan ugari egin behar baserrian (MUT-003/005)

Bera zen anai-arrebatan zaharrena eta lan ugari egitea tokatzen zitzaion. Anai-arrebak hazi zirenean denen artean egiten zituzten lanak. Amonak lan asko egiten zuen baserrian, baina berak bederatzi urte zituela hil zen. Lan asko zegoen baserrian eta eskolara joateko astirik ez zuten.

10. Baserrira etortzen zitzaien eskalearen inguruko kontuak (MUT-003/006)

Eskale bat baserririra etortzen zitzaien jatera. Alferra zelako eta lanik egin nahi ez zuelako omen zebilen eskean. Eurenean lotan gelditu zeneko anekdota. Ez zekiten nola bidali; eta, azkenean, euren osaba bat polizia zela esanda beldurtu zuten. Morroiaren inguruko kontuak.

11. Gerra denboran inguruko auzoetakoak eurenera (MUT-003/007)

Aitak beste etxe bat zuen erosita eta Aritzatik hara joan ziren. Gero gerra etorri zen. Gerra garaian inguruetako auzoetako jende ugari etorri zitzaien euren etxera; "Hotel derrepente" deitzen omen zioten. Inguruetako mutil bat soldadu joan gabe gelditu zen eta soinu-jotzailea zenez, gauean erromeriak egiten zituzten etxean.

12. Guardia zibilen beldurrez, ogia ezkutuan egiten zutelako etxean (MUT-003/008)

Gerra ostean ere, ogia egiten zuten etxean eta guardia zibilen beldurrez egoten ziren. Hala ere, goserik ez zuten pasatu. Irina ahal bezala errotatik ekarri, bahean pasatu eta ogia egiten zuten. Behin, ogia egiten ari zirela, guardia zibilak zetoze la ikusi zuten. Presaka dena ezkutatu behar izan zuten. Beste behin, txerria hiltzen ari zirela, gauza bera gertatu zitzaien.

13. Guardia zibilen beldurrez, astoa jeneroz kargatuta zutelako (MUT-003/009)

Olioaren truke, zenbait jenero eramaten zituzten beste etxe batera. Astoa kargatuta zeramaten batean, guardia zibilekin topo egin zuten. Kontuak esanda entretenu zituzten, astoa kargatuta zutela ez konturatzeko.

14. Otarrain kiloa 5 pezetatan (MUT-010/014)

Dozena inguru otarrain harrapatzen zituzten eta saldu egiten zituzten; kiloak 4 pezeta inguru balio izaten zuen. Olagarroak itsasora botatzen zituzten.

15. Mendiak, arrantzarako gida (MUT-010/015)

Itsaso txarrak eragindako deskalabruak aipatzen ditu. Egunero joan-etorria egiten zuten itsasora, mendiekin gidatzen ziren nondik-nora arrantzatu jakiteko.

16. Lehenengo baporea (MUT-010/016)

Etxeko itsasontzian ibili zen gehienez; bi patroi ibili ohi ziren eta izendatu egiten ditu. Lehenengo baporea zein izan zen eta nork erosi zuen aipatzen du.

17. "Talaixero"-aren lana (MUT-010/017)

"Talaixero"-aren lana zein izaten zen azaltzen du.

18. Itsasoko denbora kantuan pasatzen zuten (MUT-010/018)

Itsasoan zebiltzanean kanturako ohitura zuten eta kantuan aritu ohi ziren ezagun batzuk izendatzen ditu.

19. Emakumeak portuan "despeskan" (MUT-010/019)

Portura sartzen zirenean beti izaten zuten norbait ongietorria egiteko. Emakume ugari aritzen zen "despeskan".

20. Amuak egiten Tranpa-kalen (MUT-010/022)

40 urterekin lehorrera itzuli zen. Amuak egiten nola aritu ziren eta nola egiten zituzten azaltzen du. Tranpa-kalean egiten zituzten amuak.

21. Garai hartako dirurik eza (MUT-010/024)

Garai hartan ez zen diru sobrarik eta erosten zena apuntatzen joaten ziren; gehienetan zorretan izaten zen jendea.

22. Gerra garaian, Mirandan eta Sevillan (MUT-010/025)

26 urterekin gerrara joan zen boluntario. Lehenengo, Loiolan egon zen. Erizain ibili zen gerra amaitu arte. Gerra amaitutakoan, lehenengo Mirandara, eta gero Sevillara joan behar izan zuen preso. Sarjentuarekin gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

23. "Trabajadoreetan" sukaldari lanetan (MUT-010/026)

Sevillara "trabajadoreetara" heldu zirenean, bi lagun aurkezteko esan zieten; eta bera eta beste lagun bat sukaldari lanetan aritu ziren. Etxetik laguntza handia jasotzen zuten, paketeak bidaltzen zizkieten.

24. "Salvoconductoa" zer zen (MUT-010/030)

"Salvoconducto" zeritzona egun baterako etxera joateko baimena izaten zen. Sevillan pasa zuen denboran, sukaldari lanetan aritu zelako, ez zuen goserik pasa.

25. Gerra garaiko kontuak (MUT-010/032)

Gerra garaian, alderdi ezberdinetakoei buruzko kontuak.

26. Eskolako garaia (MUT-011/001)

Mutrikuko Erdiko kalean jaio zen. Ume denbora goiko plazan gogoratzen du. Eskolan neska-mutilek aparte ikasten zuten. Iru^o maistra bat zuten. Ikasgai guztiak liburu batetik ikasten zituzten. 4 anai-arreba ziren eta aita gazterik hil zitzaenez goiz utzi zuten eskola.

27. 11 urterekin lanera (MUT-011/002)

11 urterekin hasi zen lanean "fileteetan" eta gero Donostian aritu zen neskame. Lantegia nolakoa zen eta non zegoen deskribatzen du.

28. Bisigutako marinelak tretzak garbitzen (MUT-011/003)

Ezkundu aurretik Erdiko kalean bizi izan zen eta, ondoren, 29rekin, portuan. Portua lehen nolakoa zen deskribatzen du eta berria nola egin zuten azaltzen du. Lonja ezberdinak izendatzen ditu; marinelak bisigutatik joan eta tretzak garbitzen nola aritzen ziren aipatzen du.

29. Mutrikuko ontziola (MUT-011/004)

Ontziola ezagutu zuen Mutrikun; gizonek bakarrik egiten zuten lan bertan. Itsasontzi gehienak Mutrikun eginak izaten ziren eta izendatu egiten ditu; Nazareno, esaterako.

30. Portuko giroa (MUT-011/005)

Portuko kalea deskribatzen du; itsaso txarra zegoenean olatuak etxeetaraino iristen ziren. Taberna bat zen portuan eta kanturako jendea elkartu ohi zen. Zapatari kalea eta tabernak.

31. Mutrikuko kale eta txokoak (MUT-011/007)

Neskame egon zen lekuak izendatzen ditu. Donostian ume-zain egon zen. Gero Egaña lantegian ere aritu zen; ze lan egiten zuten azaltzen du. Ametza ostatuan ere aritu zen zerbitzari lanetan. Plazaren aldaketa eta toki ezberdinak deskribatzen ditu: labaderoa, udaletxea, etab.

32. Ametza ostatuan lanean (MUT-011/008)

Meza nagusitik bueltan marinelak eta baita abadeak ere joaten ziren tabernara. Kuartilu ardoa eta hamaiketakoa izaten zuten marinelek. Ondarroako jende ugari joaten zen Ametzara. Tabernako lana zerbitzatzea eta taberna bera eta arropak garbitzea izaten zen. Ostatua ere bazen Ametza eta lotarako jendea izaten zuten bertan.

33. Tabernako janzkera (MUT-011/009)

Tabernan soineko beltza eta mantala erabiltzen zuten. 3 lagun aritzen ziren lanean eta bankete berezietan jende gehiago eramaten zuten.

34. Juan de Landa aktore ospetsua (MUT-011/011)

Jende ospetsua joaten zen Ametza tabernara; Juan de Landa aktorea aipatzen du. Jokorako ohitura bazegoen tabernetan.

35. Antzerkian ibili zenekoa (MUT-011/012)

Igandeetan, kantura bildu ohi zen jendea Ametzara; kantuan aritzen ziren batzuk izendatzen ditu. Antzerkian ibilia da. Sabino Aranaren olerki bat

aipatzen du. Euskaraz egiten zituzten antzerkiak eta orduko anekdota bat aipatzen du.

36. Madalen jaiak (MUT-011/014)

Gauean azkar ixten zen taberna, festetan izan ezean. Madalenetan lan ugari izaten zuten goizaldera arte, eta diru ugari irabazten zuten. Madalen jaietako ikuskizun ezberdinak aipatzen ditu: pilota, zezenketak, etab. Plazan neska-mutilak baltseoan ibiltzen ziren.

37. Pasodoblea (MUT-011/015)

Pasodoble bat abesten du.

38. Lotuan dantza egitea bekatu! (MUT-011/017)

Plazako azkeneko pasodoblea denek dantzatu eta abesten zuten. Mutilekin dantza eginez gero, Mariatarren kongregaziotik botatzen zituzten. "Mariaren alabek" zinta bat eramaten zuten lepotik eta hilero izaten zuten meza.

39. Portuko "intxirrixa" (MUT-011/019)

Portuko "intxirrixa"-ren aipamena egiten du. Hondartzara sartzeko harri handi bat zegoen. Ez zitzaion hondartza asko gustatzen eta ez zuen igerian ikasi.

40. Gurasoak baserritarrak (MUT-011/020)

Ama Ametza baserrikoa zuen. Gurasoak baserritik bizi izan ziren, gero kalera ezkondu baziren ere. Senarra itsasoan ibiltzen zen eta kanpoan denbora asko pasatzen zuen bisigutan.

41. Marinelen bizimodua (MUT-011/022)

Sarea konpontzen irakatsi zioten, baina ez zuen sekula portuko lanetan lan egin. Itsasontziak eta txalupak iristen zirenean, emazteak joaten ziren otarrekin bila. Saldu ezindako arraina etxera eramaten zuten.

42. Moilako festak (MUT-011/023)

Moilako festen aipamena egiten du; itsulapiko puskatzea; zezenak, etab. izaten ziren.

43. Arrantza sareak tintatzen (MUT-011/025)

Leihoetako sarea lotzekoak aipatzen ditu. Sareak nola tintatzen zituzten "kaskia" harriaz eta non zabaltzen zituzten azaltzen du. Lehortutakoan josi egiten zituzten.

44. Marinelen jaia San Pedroetan (MUT-011/026)

Marinelak San Pedro egunerako etxeratzen ziren eta jaiak ospatzen ziren. Neska bat itsasoan galdu zenekoa aipatzen du. San Pedro egunean eta Madalen egunean marinelen bazkaria egiten zen kofradiakoekin.

45. Mutriku, herri kantaria (MUT-011/027)

Herri kantaria zen Mutriku eta kantuan aritzen ziren batzuen aipamena egiten du. Kanta bat abesten du.

46. Katu kalea eta orduko mixeria (MUT-012/002)

Bere bizitokiko kalearen aipamena egiten du, "Katu kalea". Mixeria handia zegoen eta jendeak dirurik ez zuenez, koadernoetan eraman ohi zituzten ordaindu beharrekoak, beti zorretan izaten ziren. Umeak lurlean jarri eta baserritarrek astoan eramandako artoak aletzen aritzen ziren.

47. Alargunen etxera bizitzera (MUT-012/003)

Ama gazterik alargundu zen eta alargunentzako etxean hartu zituzten.

48. Arrain salmentarekin arropetarako lain (MUT-012/004)

Arraina saltzera Debara eta Mendarora joaten ziren. Diru gutxi ateratzen zuten, arropetarako justu-justu. Erosketetarako ez zen dirurik erabiltzen, koadernoan apuntatu eta gero ordaintzekotan uzten zuten.

49. Mutrikuko portua (MUT-012/005)

Mutrikuko portua deskribatzen du; itsaso txarrarekin arriskutsua zen. Kofradian eskola zegoen eta marinelek ere hantxe jan eta lo egiten zuten askotan. Hondartzara arranpla zegoen. "Lojak" nun zeuden azaltzen du eta beraien izenak aipatzen ditu. Emakumeak "tretzak karnatatzen" aritzen ziren.

50. Itsasontzien porturatzea (MUT-012/006)

Lehorrean ez zen lanik izaten eta denek itsaso edo arrain munduan lan egiten zuten. Osaba arrantzale baten aipamena egiten du. Ume guztiak gurasoen porturatzea ikustera joaten ziren. Txalupak deskribatzen ditu.

51. Bentako lana (MUT-012/007)

Bentan lanean hasi zenekoa aipatzen du. Ez zuten jakiten txalupak noiz porturatuko ziren eta zain egoten ziren gau osoan. Antxoak gazitu eta gero haiek izaten ziren bisigutarako karnata gisa erabiltzen zirenak. Sekretario bat zuten kofradiakoek eta hark apuntatzen zuen egunero zenbat arrain sartzen zen portu bakoitzean. Gero Maria patroiegana joaten zen paper harekin bakoitzari ze arrain eta non sartu zen esatera. Telefonorik ez zen izaten. Marinelak tabernan elkartu ohi ziren.

52. Patroiei arraina non zegoen abisatu behar (MUT-012/009)

Mutrikuarrek Mutrikun bertan saltzen zuten harrapatutako arraina. Mariak arraina non zegoen aditzera ematen zien patroiei eta benteroak mahaian jarri eta beste herrietako prezioa esaten zuen.

53. Arrainaren prezioa erdaraz abesten zuen sekretarioak (MUT-012/011)

Bentan bakoitza bere lekuan jartzen zen eta sekretarioak erdaraz kantatzen zuen zenbat arrain eta zer preziotan zegoen; herri ezberdinertako prezioak alderatzen zituzten. Batzuk izendatzen ditu eta nola kantatzen zuten aipatzen du.

54. Etxeko ganbaran marinelak guardian (MUT-012/012)

Saltzen zen arraina Mutrikuko lantegietarako eta Donostiako armadore batentzako izaten zen gehienbat. Mariaren etxea eskola zen eta kanpotar

nahiz bertako arrantzale asko izaten zen bertan jaten eta lo egiten. Marinelek gauez guardia egiten zuten eta Mariaren etxeko ganbarara joaten ziren, bertan foko batzuk baitzituzten itsasora begira. Arrisku asko pasatzen zuten itsaso txarrarekin portuan bertan ere.

55. Erosketak koadernoan zigilatuta (MUT-012/015)

Erosketak nola ordaintzen zituzten aipatzen du: erosketak koadernoan apuntatu eta zigilua botatzen zieten erosleek. Honen inguruko anekdota bat aipatzen du.

56. San Pedro jaiak (MUT-012/016)

San Pedro jaietako bezperan, Maritxuren etxean egoten zen bandera garbitzen zuten, San Pedro egunean kofradiakoek meza nagusira eraman zezaten. Mezatatik ateratakoan bazkaria izaten zen. Beheko plazan marinelek dantza egiten zuten; "dantza-aurrea" zer zen azaltzen du.

57. San Pedroetako bandera altxatzea (MUT-012/017)

San Pedroetan bandera altxatzean kantatzen zen kantua abesten du. Marinelek eta emakumeek bazuten abesteko ohitura. Txalupak etxera zetoze jakiten zutenean, oihu egin eta ume guztiak joaten ziren portura.

58. Herriko garbitokiak (MUT-012/019)

San Agustin kalean, Maritxuren etxe azpian eta portuan zeuden garbitokiak eta han elkartzen ziren emakumeak arropa garbitzeko.

59. Tabernak, marinelen biltoki (MUT-012/022)

Herriko tabernak izendatzen ditu. Tabernak marinelez beteta egon ohi ziren. Gizonak bakarrik sartzen ziren tabernara; emakumeak Beheko plazan egoten ziren umeekin. Kanturako joera handia zegoen.

60. Atunetako diruarekin gertatutako pasadizoa (MUT-012/025)

Atuna merke zegoen garai hartan, eta frantsesei pezeta batzuk garestiago saltzen zitzairen. Atunetako diruarekin pasatako anekdota bat kontatzen du.

61. Itsasoko bizitza lehen eta orain (MUT-013/010)

Garai hartan ez zegoen jubilaziorik eta hil arte ibiltzen zen marinela itsasoan; gogorak izaten ziren. Lehengo eta oraingo itsasontziak eta bizimodua alderatzen ditu.

62. Jaietako buelta eta Dakar taberna (MUT-014/002)

"Buelta" zerri esaten zioten azaltzen dute: "beheko plazara joan eta dantzan egitea". jaietan, neskak 21:00ak 21:30erako etxeratu egin behar izaten zuten. Astegunetako lagunartea. Dakar taberna: izen hori zergatik jarri zioten azaltzen dute. Kanean gora eta behera ibiltzen ziren.

63. Atxukalea (MUT-014/003)

Neguan, itsasora joan aurretik, patroiz guztiak Atxukalean batzen ziren. Eguraldiaz, arrainaz... hitz egin eta erabakiak hartu ohi zituzten bertan.

64. Lehorreko lanak eta patroï titulua (MUT-014/004)

Lehorrean zeudenean zer egiten zuten. Goizetan lonjan lanean aritzen ziren (aparejuak prestatu, sareak zabaldu... behar izaten ziren), eta arratsaldetan, eskola partikularrera joaten ziren (patroï eta makinista ikasketak egiteko). 17 urte zituela joan zen Gregorio Arrantza Eskolara, baina soldadutza egin aurretik ez zen alturako patroï titulurik atera. Soldadutzan bigarren komandanteak eskolak ematen zizikion; handik joan zen Pasaïara patroï titulua ateratzeko azterketa egitera.

65. Itsasoa eta jaiak (MUT-014/005)

Herriko jaietan itsasontziak herrira bueltatzen ziren. Malenetan bi egun egiten zituzten jai marinelek. San Pedroetan, egun bat. Batzar asko egin ondoren, aldatu egin zituzten jaiegunak. Gero, Kalbario eta San Piñastegi jaietan ere jai egiten hasi ziren marinelak.

66. San Piñastegi jaien jatorria (MUT-014/006)

San Piñastegi jaien jatorria. Marinelek bultzatutako jaieguna zen sorreran. Aurreneko San Piñastegi Eguna nolakoa izan zen kontatzen du: marinelak harri-jasotzeko itxurak egiten, moilan zezenak toreatzen... Krexen eta Paletas marinelak aipatzen dituzte.

67. San Pedro jaiak (MUT-014/007)

San Pedroa jaia marinelentzako berezia izaten zen. Prozesio eta dantzetan parte hartzen zuten. Itsasontzi handiekin atunetara joaten hasi zirenean San Pedro egunan itsasoan egoten ziren. Urte batean Korputz Egunez Vigon prozesioa egin zutela kontatzen dute. Keleo eta Patxiko Txiki marinelak aipatzen dituzte.

68. Kanturako joera (MUT-014/008)

Kanturako joera handia zuten. Herriko lagun talde batzuk aipatzen dituzte.

69. Kalbarioko kofradia (MUT-014/009)

Kalbarioko kofradia baserritarrek eta marinelek osatu zuten. Gregoriok hainbat urte egin zituen kofradiako presidente moduan. Kalbarioko kofradioaren historia kontatzen du.

70. Baserritarrak eta marinelak (MUT-014/011)

Baserritarren eta marinelen arteko harremanaz hitz egiten dute. Lehen, marinelak mendira joaten ziren egur bila eta baserritarrek ez zuten hori ondo ikusten.

71. Korrika-apustua (MUT-014/013)

Baldomin baserritarraren eta Txurrukita kaletarraren arteko korrika-apustua. Mutrikutik Debara joan behar zuten korrika.

72. Pilota desafioak (MUT-014/014)

Pilota partidak tabernetako desafioak izaten ziren. Keleo eta Konpitxoren arteko pilota desafioa kontatzen dute. Herrian desafioaren berri jakiten zen, eta frontoia jendez betetzen zen.

73. Alturako arrantza I (MUT-014/016)

Alturako arrantza. Nolako itsasontziak izaten ziren. Ondarroako itsasontzi batean ibiltzen zen. Tripulazioa eta itsasontziko eginkizunak.

74. Alturako arrantza II (MUT-014/018)

Alturako arrantza. Itsasontzien funtzionamendua. Zer arrantzatzen zuten: arrain zuria (legatza, merlenka, mihi-arraina, barbarina...). Eguraldi txarrekin izaten ziren gorabeherak.

75. Alturako arrantza III (MUT-014/019)

Alturako arrantza. Garaian garaiko arraina harrapatzen zuten. Gran Solera ere joaten ziren arrantzara. 18, 20 edota 22 egun egiten zituzten itsasoan. Etxera bueltatu eta 48 ordura berriz joaten ziren itsasora.

76. Tripulazioa (MUT-014/020)

Alturako arrantza. 22 egun egiten zituzten itsasoan, bataz beste. Tripulazioaren arteko harremana nolakoa zen.

77. Bizimodua itsasontzian (MUT-014/021)

Alturako arrantza. Eguneroko bizimodua itsasontzian. "Kamainak" (lo egiteko tokiak) nolakoak izaten ziren azaltzen du.

78. Itsaso txarra (MUT-014/023)

Gran Soleko itsaso txarrak ditu hizpide. Sei-zortzi metroko olatuak ezagutu ditu Andonegik. Behin, "atrasean" 50 orduan egon zirela kontatzen du. Denboralea zenengan, ez zen erraza izaten lo egitea, apaletatik gauzak erortzen ziren...

79. Lehorreko eginkizunak (MUT-014/024)

Lehorrera iritsitakoan, makinistek ez zuten obligazioarik izaten lanerako. Hala ere, Andonegi goizetan itsasontzia ikustera joaten zen. Marinelek ez zuten arraina ateratzen (lehenago, ordea, marinelek ateratzen zuten arraina).

80. Lehorreko bizimodua (MUT-014/025)

Itsasotik bueltatutakoan zer bizimodu egiten zuen kontatzen du. 24 edo 48 ordu egiten zituen lehorrean.

81. Deskarga eta arrain-partea (MUT-014/026)

Portura iritsitakoan arraina deskargatzeko gizona batzuk egoten ziren. Arraina biltegira eramaten zuten, eta han emakumeak arduratzen ziren arraina apartatzeaz. Arrain-partea itsasontzian edota biltegian egin ohi zen.

82. Alturan, txalupa-mutilik ez (MUT-014/027)

Alturako arrantzan ez zen txalupa-mutilik; jakineko orduan joan behar izaten zuten portura. Mutrikutik Ondarroara, berriz, taxian edota "korreoan" joan ohi zen Andonegi.

83. 1936an Mutrikun jaioa (MUT-015/002)

Mutrikuko Tranpa kalean jaio zen 1936an. Auzoa nolakoa zen deskribatzen du.

84. Tranpa kaleko "hojalateriak" (MUT-015/003)

Tranpa kaleko latorritegiak (hojalateriak) aipatzen ditu eta kaletarrak izendatu.

85. Mutrikuko Tranpa kalea (MUT-015/004)

Tranpa kalea. Bertan bizi ziren familiak.

86. Etxeko giroa eta luxurik eza (MUT-015/005)

Etxeetan jende ugari bizi zen; Angelek bere etxekoak aipatzen ditu. Etxea deskribatzen du.

87. Kaleko giroa Mutrikun (MUT-015/006)

Txikiteoan ibiltzen zireneko tabernak aipatzen ditu. "Buenos Aires" taberna urruti eratzen zitzairen. Jaten ondo ematen omen zuten. Etxean ez zuten denbora askorik pasatzen, futbolera edo lagunartera joaten ziren.

88. Dutxa: etxeko harraska (MUT-015/007)

Dutxarik ez zuten etxean eta amak sukaldeko harraskan garbitzen zituen anai-arrebak espartzuaz. Lehenengo dutxak 1960tik aurrera ezagutu ziren. Egurretara joaten ziren zintzela hartuta, enborren azala jasotzera.

89. Kokozko olio eta boniatoa errazionamenduan (MUT-015/008)

Olioak ehun pezeta balio zuen eta jende askok 10 pezeta irabazten zituen egunean. "Alondegian" (alhondigan) egoten ziren errazionamenduko jakiak. Familia bakoitzeko hainbesteko bat izaten zen eta koaderno batzuetan apuntatzen zuten bakoitzaren zorra zigilu batekin. Kokozko olio eta boniatoa ematen zizkieten, adibidez, errazionamenduan, eta desatseginak izaten ziren. Jaki hauen erruz tuberkulosia harrapatutako jendea ere izan zen.

90. Mutrikuko eskolak (MUT-015/011)

Mutrikuko eskolak aipatzen ditu. Baserritar ugari joaten zen eskolara Mutrikura eta haiek eramaten zuten etxean egindako ogia, zeinek jango ibiltzen ziren kaletarrak.

91. Mezara joatea derrigorra (MUT-015/013)

Mezara joatea derrigorra zen. Korura ere joaten ziren; latinez kantatzen zuten elizan.

92. Beheko plazako telefono zentralita (MUT-015/015)

Mutrikuko telefono zentralita Beheko plazan zegoen eta telefonoa zuenak haren bitartez deitu behar izaten zuen.

93. Aitarekin bisigutara (MUT-015/017)

Aita marinela zuen eta berarekin bisigutara joan zen bateko pasadizoa kontatzen du. 15 itsasontzi inguru ateratzen ziren elkarren jarraian Mutrikutik. Goizean meza entzun eta, abadegai izanik, arratsaldean arrosarioa errezatzen joan behar izaten zuen.

94. Denboralea izan zenekoa (MUT-015/019)

Denboralea izan zen bateko kontuak eta pasatako deskalabruak kontatzen ditu; lau gizon ito ziren.

95. Itsasoari buruzko anekdota (MUT-015/020)

Itsasoan ibili gabea bada ere, handik bizi izan da beti. Anekdota bat kontatzen du.

96. Mutrikuko San Agustinen jaioa (MUT-018/001)

Mutrikuko San Agustin kalean jaio zen. Gurasoak ere bertakoak zituen. Auzoaren aldaketak aipatzen ditu. Aita eta senide gehienak arrantzaleak zituen.

97. 12 urterako "eskabetxean" lanean (MUT-018/002)

12 urterekin hasi zen "eskabetxean" lanean. Hanka azpian harria jarri eta bederatzi urterekin arrain fileteak egiten hasi zen. Ezkondu aurreko eta ondorengo lantokien aipamena egiten du.

98. Aita arrantzalea (MUT-018/003)

Umea zela aitak hilabete egiten zuen kanpoan arrantzan, eta ez zuten etxean asko ikusten. Lore alaba bakarra zen. Amaren aipamena egiten du, oso gogorra zen. Joko batzuk aipatzen ditu eta errekarra bainatzera nola joaten ziren kontatzen du.

99. Orduko garbiketa nekagarria (MUT-018/004)

Etxean ez zuten garbigailurik, eta harri-ikatzeko sua eta arraskako ura izaten zuten. Hondarra eta lixiba izaten ziren orduko garbikariak, eta garbiketa egitean belauneko eta eskuko minez amaitzen zuten.

100. Eskolara ez joateagatik, lanera (MUT-018/005)

Eskolara ez joateagatik gustura hasi zen lantegian lanean. Etxean ez zuten dirurik eskola ordaintzeko. Karidadeko mojek eman zioten eskola eta nola zigortu eta jotzen zituzten kontatzen du.

101. Antxoei burua kentzen (MUT-018/008)

"Apitonia"-rengana joan eta antxoa harrapatu berri zutenean lagundu egiten zioten. Antxoak otarretan batzen zituzten eta haiei burua kentzen aritzen ziren. "Apitonia"-tik "Gustonera" joan zen lanera eta han egiten zituen lanak aipatzen ditu.

102. Antxoa kontserba (MUT-018/009)

Antxoak pilota bat eginez bildu eta gatz-uretan jartzen zituzten kontserbatzen. Trapuarekin marraskatu eta gero xerrak egin eta ontzietan sartzen zituzten. Antxoak eta atuna garbitzetik hasi eta kaxan sartu arteko prozesua azaltzen du.

103. Itsasontziak porturatzean lan bila (MUT-018/010)

Emakumeak eurak joaten ziren lantegietara lan eske itsasontziak porturatzen zirenean eta zeinek gehiago eskaini bertan hasten ziren lanean. Ez zuten ez kontraturik eta ez segururik izaten.

104. Kontserbetako emakumeak kantu-zaleak (MUT-018/011)

Kontserbetan lan egiten zuten emakumeek kantarako zaletasun handia zuten. Kantu bat aipatzen du. Eskabetxean zeudenean goizeko 03:00etarako hasten zen Lore kantuan. Euskaraz kantatzea debekatua zegoen garai hartan. Deabruzko izena zuela eta bi urtez errazionamendu gabe utzi zuten.

105. Emakume nagusiagoei ikasitako kantak (MUT-018/012)

Irratirik ez zuten garai hartan eta emakume nagusiagoei entzuten zizkieten abestiak ikasten zituzten. Erdarazko kantu bat kantatzen du.

106. Auzoko jaiak (MUT-018/018)

Auzoko jaien aipamena egiten du. Amak txorizo egosia eta beste jaki batzuk jartzen zituen denentzat. Zezenak eta ume-jolasak izaten ziren festetan.

107. Asteburuetan ere lanean "Sábado inglés"-a jarri arte (MUT-018/020)

Asteburuetan ere lan egiten zuten "Sábado inglés"-a jarri zuten arte. Gauez ere askotan lan egiten zuten. Aste Santuan ere ez zuten jairik izaten.

108. San Pedro eguneko ospakizunak (MUT-018/021)

San Pedro egunez marinelek Beheko plazan dantza egiten zuten eta hura ikustera joaten ziren Lore eta lagunak. Osaben aipamena egiten du eta egiten zituzten adar-jotze eta antzerkiak azaltzen ditu. Antzerkirako zaletasun handia zegoen herrian.

109. Dantza lotuan egiteagatik kongregaziotik kanpora (MUT-018/022)

Igandeetan dantzara joaten ziren. Mutilek gonbidatuz gero limonada edaten zuten, neskak ez baitziren tabernara sartzen. Dantza lotuan egiteagatik Mariatarren kongregaziotik botatzen zituzten neskak. Zinta bat edukitzen zuten eta hura janztearazten zieten dantza egiten bazuten. Gauean ez zen argirik egoten eta beldurrez joaten ziren etxera.

110. Ukuilu eta sagardotegiak (MUT-018/023)

Etxe ingurua deskribatzen du. Dolarea zegoen etxe ondoan eta sagardoa egin eta saldu egiten zuten. Mutrikun ukuilu eta sagardotegi asko zeuden. Soziedadea egin zenekoa eta egiten ziren parrandak aipatzen ditu.

111. Mutilak neskei etxepetik kantari (MUT-018/024)

Mutriku beti izan da herri kantaria eta mutilen batek neskaren batekin zerbait nahi bazuen sarritan etxe azpian kantatu ohi zieten neskei. Elizan kantatzea gogoko zuen. Garai bateko elizako kontuak kontatzen ditu.

112. Elizara ez joateagatik ihes egiten zutenekoa (MUT-018/026)

Mezara joatea derrigorra zen, eta bezperetara ere joaten ziren. Elizara ez joateagatik ihes egin eta jolasera joaten ziren batzuetan.

113. Elurtegi baserria (MUT-019/002)

Elurtegi baserriari buruzko azalpenak: 1860an egin zen baserrian. Baserria zergatik egin zen, nork egin zuen... kontatzen du.

114. Marinelak eskean baserrietan (MUT-019/004)

Gosete garaiko oroitzapenak. Marinelak eskean ibiltzen ziren baserrietan; itsasora joateko petroliorik ez zuten arrantzaleek. Etxeko giroa: ama 27 urterekin alargundu zen, eta triste egoten omen zen beti.

115. Amari laguntzen umetatik (MUT-019/006)

Baserriko bizimodua. Ama alarguna zen, eta umetatik lagundu behar izan zion Inaziok baserriko lanetan. Gaztainak eta porru-salda afaldu ohi zuten.

116. Aitona eta amona (MUT-019/007)

Aiton-amonei buruz hitz egiten du. Amona 84 urterekin hil zen, eta aitona, berriz, 90 urterekin. Aitona osasun oneko gizona zen.

117. Arreba eta lagunak (MUT-019/008)

Hiru anai-arreba ziren: bat 18 hilabete zituela hil zen. Arreba Inazio baino lau urte zaharragoa zen, eta harekin Izarrera joan ohi zen auzokoengana. Auzoko lagunak aipatzen ditu.

118. Jolasak (MUT-019/009)

Ume garaiko jolasak: baleka, harrapaketa... Pilotan ibili ohi ziren baserriko horman. Kalbariora joaten zen lagunekin.

119. Kalera gutxi (MUT-019/010)

Inaziok ez zuen herrira joateko ohitura handirik. Kale jendearekin ez zuen batere harremanik. Ama edota arreba joaten ziren herrira saltzera. Arrebak bazuen kaleko berri; eskolan ere San Miguelgo mojekin ibili zen.

120. Ibiriko eskola (MUT-019/011)

Inaziok bost hilabete soilik egin zituen eskolan. Ibiri bailarako eskola etxean ibili zen. Bost erregelak eta sinatzen ikasi zuen; aitonarentzat hori egiten jakitea nahikoa zen. Dotrina ikasteagatik bidaltzen omen zuen amak eskolara: goizetan, dotrina ikasten zuten; arratsaldetan, matematikako "tablak kantatzen" zituzten.

121. Komunio txikia eta handia (MUT-019/012)

Komunio txikia eta handia egin zituen. Mutrikuko Don Telesforo abadeak galderak egiten zizkiola gogoratzen du. Eskola: goizetan, dotrina ikasten zuten; arratsaldetan, matematikako "tablak kantatzen" zituzten. Arratsaldetan gutxitan joaten zen, "lana egin behar izaten zen etxean eta".

122. Eskolako kontuak (MUT-019/013)

Eskolako kontuak. Oinez joaten zen eskolara. Oinetakoak: abarkak. Maistra ona zela esaten du. Ikaskide batzuk oso argiak ziren. Xabiartxo liburua erabiltzen zuten.

123. Gaztaina batzen (MUT-019/017)

Gaztainondo asko zegoen baserri inguruan. Gurdikada gaztaina biltzen omen zuten. Eguraldi txarra egiten zuenerako ez zen arropa eta oinetako egokirik izaten.

124. Elurte handiak (MUT-019/019)

Nolako eguraldia egiten zuen. Elurte handiak izaten ziren lehen. Eguraldi txarra egiten zuenerako ez zen arropa eta oinetako egokirik izaten.

125. Bitxiak saldu behar (MUT-019/021)

Aitonari buruzko kontuak: gerran ibilitakoa, morroi izandakoa... Aitonaren zilarrezko erlojua eta amaren eta amonaren eraztunak saldu behar izan zituzten "aita gobernatzeko". Iñaziok bi hilabete zituela hil zen bere aita.

126. Abeletzeko erromeriak (MUT-019/023)

Abeletzeko erromeriak. Inazio hango erromeriara joaten hasi zen garairako utzi egin zioten han erromeria egiteari, baina bere arreba joan ohi zen lehenago. Dantza solterako afizio handia zegoen.

127. Marinela egurretan (MUT-019/026)

Garai hartan marinel jendea miserian bizi zela dio. Berain basotik egurra moztu eta kalean saltzen zuen marinel baten istorioa kontatzen du.

128. Kalbarioko jaiak (MUT-019/027)

Kalbarioko jaiak. Gerra aurretik, danbolina eta txistua izaten ziren. Jendeak dantzarako afizio handia zuen.

129. Baserritar eta kaletarren arteko apustuak (MUT-019/028)

Kalbarioko jaiak. Gerra ondorenean, baserritar eta kaletarren arteko saltakako aurreneko apustua gogoratzen du. Lasterkariak nor ziren aipatzen du.

130. Boloetan (MUT-019/029)

Kalbarioko bolatokia. Inaziok afizio handia izan du boloetarako. Boloetan zenbat diru jokatu ohi zen aipatzen du.

131. Soldaduak eta ardiak (MUT-019/031)

Sasoian sasoikoa lanak egiten zituzten: gaztainak batu, artoa bota, jorratu... Aitona hil zenean kendu zituzten ardiak. Gerra denboran, soldaduek ardiak kendu zizkien, eta jan egin zituztela dio.

132. Fusilamendua gogoan (MUT-019/032)

Gerra denborako kontuak. Komandantea, medikua eta hiru soldadu Elurtegi baserrian zeudela atxilotu bat eramán zuten baserrira. Apaizarekin konfesatu ostean fusilatu omen zuten presoak. Inazio umea zen, eta beldurra pasatu zuen.

133. Gerrako notiziak (MUT-019/033)

Gerra denborako kontuak. Baserrian ez zuten irratirik. Arrebak ekartzen zituen gerrako notiziak kaletik bueltan. 18 aeroplano pasatzen ikusi zituzten baseritik; hurrengo egunean jakin zuten Gernika bonbardatu zutela.

134. Bildotsak estraperloan (MUT-019/035)

Ardiak zituzten baserrian. Amak gazta egiten zuen. Bildots batzuk estraperloan saldu ohi zituzten.

135. Ardiak (MUT-019/036)

Ardiak zituzten baserrian. Arkumeen jaiotzak nola izaten ziren. Ardiekin ateratzen zuten bizimodua.

136. Esnea (MUT-019/037)

Mutrikuko Perratzaileneko familiari saldu ohi zien esnea. Herriko aberatsak zein ziren aipatzen du. Etxerako gatzatua egiten zuen amak. Arkume sasoia Pazkoetan izaten zela dio.

137. Telefonista ikasketak Elgoibarren eta Mutrikura lanera (MUT-020/001)

1917an jaio zen Altzolan. Telefonista ikastera Elgoibarrera joan zen eta titulua atera ondoren Mutrikurako plaza atera eta bertara joan zen bizitzera. Telefonista lanetan beste emakume batekin aritzen zen. Deiak, telegramak etab. hartzen zituen Benitak. Garai hartan ez zegoen aurrerakuntza handirik eta dena eskuz idazten zuten.

138. "Gorrien" aldekoa zelako, lanetik bota (MUT-020/004)

Gerra garaian, "Gorrien" aldekoa izateagatik, telefonista-lanetik bota zuten. Amak bankuan egiten zuen lan; eta aita, berriz, ihesi joanda zegoen Frantzian. "Gorriek" dena kontra izaten zuten. Ihesi zebiltzala gertatuak kontatzen ditu.

139. Senarra gerran zegoenekoa (MUT-020/005)

Senarrak gerran jarraitu zuen, eta Benita Altzolara itzuli zen. Senarra Laredon harrapatuta zegoela, bisitan joan zitzaion trenez.

140. "San Juanenean" apopilo (MUT-020/009)

Mutriku herri txiroa zen, baina Benita eta etxeakoak beti ibiltzen ziren ondo jantzita. Benitak irabazitakoa amari ematen zion. "San Juanenean" egon zen apopilo.

141. Mutrikuko Beheko plaza (MUT-020/010)

Mutrikuko Beheko plaza deskribatzen du. Merkatua egiten zen eta Benita esnea eroatera joaten zen. Baserritarrek esnea eta berdura eramaten zuten saltzeko.

142. Goiko plazako erromeria eta moila ingurua (MUT-020/011)

Igandeetan Goiko plazara joaten ziren lotuan dantza egitera. San Jeronimora ere joaten ziren dantzara. Goizeko seietan moilara jaisten ziren bainua hartzera, baina ez zuten igerian egiten, busti bakarrik. Bainua hartu ondoren lanera joaten zen. Marinelak despeskan aritzen ziren moilan.

143. Konfesatzera joanda gertatua (MUT-020/012)

12 seme-alaba izan zituen. Konfesatzera joandakoan gertatutako anekdota bat kontatzen du.

144. Senarrarekin Argentinara bizitzera (MUT-020/016)

Senarrarekin Ameriketara joan zen haurrak hartuta eta Argentinan lantegi bat zabaldu zuten. Bidaia hartako kontuak kontatzen ditu.

145. 'Los Vasquitos' ezizenez ezagunak Argentinan (MUT-020/018)

Argentinan egon zirenean hemen baino askoz merkeagoa zen hango bizimodua. Los Vasquitos ezizenez deitzen zieten. Bi urte eta erdi egin zituzten Argentinan, gizonari kontratua amaitu zitzaion arte.

146. Arropa eta zoruaren garbiketa (MUT-020/022)

Etxean urik ez zuten izaten eta, belauniko jarrita, zinketan ura hartuta egiten zuten garbiketa. Xaboia ordurako bazen. Lurra garbitzeko "arenaketan" aritzen ziren, hondarrarekin lurra garbitzen. Sukaldea deskribatzen du.

147. Errazionamendu garaia (MUT-020/025)

Gerra garaian errazionamendua ezagutu zuen. Dirurik ez zutenek zorrak apuntatzeko eskatzen zuten dendetan. Latako esnea hartzen zuen umeentzat errazionamenduan. Honen inguruko anekdota bat kontatzen du.

148. Antzezlanak euskaratzen (MUT-020/027)

Herritarrek antzerkia egiten zuten; Pakito Txiki izendatzen du. Benitak erdaraz zeuden antzezlanak euskaratu egiten zituen. Umorezko antzerkiak izaten ziren gehienak.

149. Eskola garaian euskaraz egiterik ez (MUT-020/029)

Eskolan erdaraz ikasten zuten eta dotrina ere erdaraz ematen zuen parrokoak. Euskaraz hitzik eginez gero belauniko eskuetan liburuak jarrita zigortzen zituzten. Mutrikun zegoela aurrez ikasitako ikasgaiak ez ahazteko San Migelgo eskolan errepasatzen ibili zen.

150. "Txarlotadak" (MUT-020/034)

"Txarlotadak" zer ziren azaltzen du.

151. Buenos Aires hotela eta turista mugimendua (MUT-020/038)

Garai hartako bideak gurdi-bideak ziren. Etxe ingurua deskribatzen du. Samikoian "Buenos Aires" Hotela izendatzen du. Kanpotar jende ugari, tartean ezagunak, joaten ziren hotelera eta baita kondearen senitartekoak ere.

152. Nobiotako kontuak (MUT-020/039)

Mutil-laguna non ezagutu zuen eta harekin nola hasi zen kontatzen du.

153. Moilan hazitakoa I (MUT-021/004)

Mutrikuko moilan bizi zen "Martin txikineko etxe azpian". Ezkondu eta gero, etxez aldatzea asko kostatzen zitzaion.

154. Moilan hazitakoa II (MUT-021/006)

Moilakoek moilan egiten zuten bizimodua. San Piñastegi kalean elkartzen zen lagunekin, eta han jolasten zuten.

155. Umetako jolasak (MUT-021/007)

Umetako jolasak: sakaponetan, diabolarekin, anduaka... ibili ohi ziren. Gaiztakeria: amari arrosa ostu eta perlak askatzen zituen gero haiekin jolas egiteko.

156. Bederatzi urterekin "morenitorenera" (MUT-021/008)

Eskolatik ihes egiten zuen, eta eskolako maleta portale batean gordetzen zuen. Sagar bila, jolasera... joaten zen. Eskolatik ihes egiten zuela eta, udaberrian amak "morenitorenera" bidaltzen zuen lanera. Bederatzi urte izango zituen orduan. Harri bat jartzen zioten lantokian, mahaira irits zedin. Arropak "salmuerarekin" (gesalarekin) zikinduta joaten zen etxera; hurrengo egunean arropa bera jantzi behar izaten zuen.

157. 11 urterekin eskabetxera (MUT-021/009)

11 urte pasatxo zituela hasi zen eskabetxean lanean "Arrasatenean". Zortzi orduan zortzi pezeta irabazten zituen. Lankideen izenak eta laneko kontuak aipatzen ditu.

158. Don Joserenean bederatzi pezeta egunean (MUT-021/010)

"Arrasatenean" lanean zebilerla, Don Joserenera joateko proposamena jaso zuen. Eguneko bederatzi pezeta eskaini zizkieten (irabazten zuena baino pezeta bat gehiago), eta Natik hasieran ezezkoa eman arren amak joateko esan zion. 30 pezeta ordaintzen zuten etxearen errenta. Lankideen izenak eta laneko kontuak aipatzen ditu.

159. Lana eta gau-eskola (MUT-021/011)

Don Joserenean lanean zebilela, Bustorenera joateko eskaintza egin zioten. 14 urte egiteko zituela hasi zen Bustorenean. Lanera joateaz gain, San Migelera joaten zen eskola ziurtagiria ateratzera; beste bi urtean ere gau-eskolara joan zen.

160. Aita arrasteroan (MUT-021/013)

Moilan bizi zeneko oroitzapenak. Natiren aita arrasteroan ibili zen. Argazki bat du hizpide: argazki horretan bere aita arrasteroan agertzen da; aitarekin batera agertzen diren beste gizonen izenak ere aipatzen ditu. Aitak Pasaiatik arraina ekartzen zuenean, Nati joan ohi zen familiako lagun batzuei legatz "bixarrak" eramatera. Arrasteroan Pasaiatik ateratzen ziren.

161. 'La Esperanza' autobusa (MUT-021/014)

Lekeitiotik Debara arteko bidea egiten zuen 'La Esperanza' autobusak. Autobusa non gordetzen zuten gogoratzen du.

162. Eskabetxeko otoitzak eta hotza (MUT-021/015)

Bustoneko eskabetxe lantegiko kontuak. Goizeko otoitzak, arrosarioak... esaten zituzten lanean zebiltzan bitartean. Negu garaian, elur ugari egiten zuen; astean zehar oholezko zapatekin ibiltzen zen Nati. Lanean zegoela, aitonak txokolate beroa ematen zion arratsaldetan. Mahai azpian barraseroa zutela egiten zuten lana, baina Nati oinutsik egoten zen ospelak izaten zituelako.

163. Ezkontzerako lana utzi (MUT-021/016)

Zazpi urte egin zituen eskabetxean lanean. 22 urte egiteko zituela ezkondu zen, eta ezkondu baino hilabete batzuk lehenago utzi zion lanari. Ama izan eta gero ere aritu zen eskabetxean lanean.

164. Bederatzi urte zerbitzari lanetan (MUT-021/017)

Bederatzi urte egin zituen zerbitzari lanetan Ondarroako jatetxe batean. Ustekabean, zerbitzari bat falta zela eta joan zen laguntzera, eta bederatzi urtean aritu zen zerbitzatzen. Zerbitzari lanari utzi zion bost ume zituelako.

165. Bi solairu eta gainalde irekiko autobusa (MUT-021/019)

Bi solairu eta gainalde irekiko autobusa ibiltzen zen Ondarroa eta Debara joateko. Debako jaietara eta joaten zirenean eguraldi ona egiten bazuen, denek goian nahi izaten omen zuten.

166. Mendira, egurretara (MUT-021/021)

Gaztetan goizean goiz mendira joaten ziren egurretara. Mendian egurra ebakitzen ari zirela egurrak aurpegian jo, eta marka geratu zitzaion aurpegian. Egurra aizkararekin moztu, egurra zakueta sartu eta zakuak bizkarrean hartuta jaisten ziren etxera.

167. Umetatik itsasoan (MUT-021/023)

Beraien motor txikia zuten, eta aitarekin ibiltzen zen antxoatan, atunetan, txibietan... Bederatzi urterekin hasi omen zen aitarekin itsasora joaten. Domekak 11 urte eta erdi zituen aita itsasoan galdu zenean.

168. Eskola (MUT-021/024)

Neguan, eskolara joaten zen. Kofradian eta Antoni maistrarekin ibili zen eskolan. Aita hil eta gero gutxi joaten zen eskolara.

169. 'Sagrada familia' potina (MUT-021/025)

Aita itsasoan galdu eta hilabete batzuetara, 'Sagrada familia' potinean hasi zen. Domeka mutil gaztea zen, eta arraunean lo hartzen omen zuen. Udaberrian, begihandia hastean, 04:00etarako ateratzen ziren itsasora. Bi edo hiru lagun ibiltzen ziren arraunean.

170. Aita itsasoan galdu I (MUT-021/026)

Aita itsasoan galdu zen eguna nola oroitzen duen kontatzen du. Egun horretan zer egin zuen, norekin egon zen...

171. Aita itsasoan galdu II (MUT-021/027)

Barku denak etxeratu ziren, baina Kulixka ontzia ez. Hurrengo goizean, emisoratik abisu bat jaso zuten, barkuak itsasora atera ziren... Gorpu bat bilatu omen zuten. Lehengo enbarkazioen ezaugarriak aipatzen ditu. Zazpi gizon galdu ziren itsasoan; izenak eta adina aipatzen ditu.

172. Bezpera, Inuzente Eguna (MUT-021/031)

Aita itsasoan galdu aurreko eguna, Inuzente Eguna zen. Egun horretan, 500 kilo bisigu harrapatu omen zituzten, eta etxean gustura zirela kontatzen du. Hurrengo egunean gertatu zen ezbeharra. Domekak 11 urte eta erdi zituen.

173. Bizi guztia itsasoan (MUT-021/033)

Bizi guztia itsasoan eman du Domekak, baxurako arrantzan. Atunetan, antxoatan, berdelan... ibili izan da. Urte bat edo bi egin zituen 'Elenita' ontzian; 14 urte 'Ninfa'n; eta kooperatiba sorreratik 'Udaberri' ontzian 20 urte baino gehiago.

174. 17 itsasontzi Mutrikun (MUT-021/035)

17 itsasontzi ere ezagutu izan dituzte Mutrikun. 'Salve', 'Pilartxo', 'Nazareno'... ontziak aipatzen dituzte.

175. Dakarrera, atunetara (MUT-021/037)

1957an, Dakarrera (Senegal) atunetara joan ziren. Sei hilabete egin zituzten han. Kanaberarekin arrantzatzen zuten. 'Udaberri' itsasontzia nolakoa zen azaltzen du.

176. Mutrikutik hiru ontzi Dakarrera (MUT-021/038)

Mutrikutik hiru itsasontzi joan ziren Dakarrera (Senegal): 'Ninfa I', 'Xabier' eta 'Elenita' ontziak. Finisterretik (Galizia) zuzenean joan ziren Kanarietara. Bost egun behar izan zituzten Kanarietara iristeko; Kanarietatik Dakarrera (Senegal), berriz, hiru egunean iritsi ziren. Mutrikuko ontziek arraina harrapatzen zuten, eta Kanarietako arrastero batetara pasatzen zuten arraina; gero, hark portura eramaten zuen.

177. Txibietan ibili ondoren Itziarrera (MUT-022/002)

Aita abenduan itsasoan galdu, eta hurrengo otsailean potinean hasi zen Domeka. Hiru urte inguru egin zituen potinean. Goizeko 04:00etan Mutrikutik atera arraunean eta zer ibilbide egiten zuten aipatzen du. Txibietan ibili eta egunak argitzen zuenean, etxera bueltatzen ziren. Gero, etxean ahal zen moduan garbitu (etxean ez zuten dutxarik) eta Itziarrera joaten zen oinez. Han meza nagusia entzun, tabernan zerbait hartu eta bazkaritarako etxera bueltatu ohi zen.

178. Galerna, bazter haizea eta "errukaizea" (MUT-022/004)

Eguraldia eta itsasoa. Galernarekin ez zen erraza izaten potinean arraun egitea. Maiatzea eta udazkenea, bazter haizea egitean, "sasoi txarra" izaten dela dio. "Errukaizea" ere aipatzen du.

179. Bazter haizea Zarauztenen (MUT-022/005)

Eguraldia eta itsasoa. Pasadizo bat kontaktzen du: Ondarroa eta Lekeitio arteko kostara, Zarauztenera, joan zen koinatuarekin motor txikian. Aita, berriz, potinarekin txibietara atera omen zen. Bazter haizea atera zuen, eta itsasoan aurrera egin ezinda ibili ziren; aitarekin gogoratu omen ziren, hura bakarrik baitzen.

180. Dakarreko kontuak (MUT-022/008)

Dakarren (Senegal) sei hilabete egin zituen arrantzan Domekak: urrian joan eta martxoan bueltatu ziren. Antxoaren denboraldirako bueltatu ziren. Dakarreko (Senegal) atuna eta hemengoa behardinak omen dira. Etxekoei zer opari ekarri zizkien kontaktzen du. Sei hilabetea 10.000 pezeta irabazi zituen.

181. Eskabetxean lan faltarik ez (MUT-022/011)

Lehorreko lana. Eskabetxeko lanari buruz hitz egiten du Natik. Antxoa portura iristen zenean, abixua jasotzen zuten antxoa gazitzera joateko. Antxoa gazitzen lan asko izaten zen. Pasadizo bat kontaktzen du.

182. Jornala eta aparteko orduak (MUT-022/012)

Lehorreko lana. Lehen, antxoa asko harrapatzen zen, eta eskabetxean lan mordo izaten zen; langileek aparteko orduak sartu behar izaten zituzten. Natik jornala amari ematen zion, baina "estraordinarixua" (aparteko orduengatik jasotako ordainsaria) berarentzat izaten zen; ordu gehiago sartzeko gogoz egoten zen. Lanean zeudela, kafe ugari hartzen omen zuten.

183. Antxoaren kontserba (MUT-022/013)

Lehorreko lanari buruzko azalpenak. Antxoa gazitu eta segituan latan sartu behar izaten da. Kontserba lantegiko italiarrek "plata, plata" esaten zien antxoaren tripa pare zuria nahi izaten zutelako; ez zuten nahi izaten bizkar alde beltza jartzerik. Antxoak barrilean banan-banan nola enpakatzen zituen azaltzen du.

184. Arraina eta beroa (MUT-022/015)

Lehorreko lanari buruzko azalpenak. Emakumeak kontserba lantegian egoten ziren, eta arraina moilatik kamionean eramaten zuten lantegira. Moilako Bustoneko lonjetan gazitzen zutenean, berriz, karroarekin garraiatzen zuten arraina. Itsasontzietatik arraina atera eta otarretan banatzen zen. Arrain asko izaten zen, eta maiatzeko beroarekin mandeuliak ibiltzen omen ziren.

185. Lanpua (MUT-022/016)

Lanpua esaten dio atun txikiari. Arrain horrek nolako ezaugarriak dituen azaltzen du. Urte batean atun asko harrapatu zela gogoratzen du: kontserba lantegian atun mordo zegoen.

186. Tripulazioa (MUT-022/020)

Garai bateko itsasontziek irrati bat izaten zuten soilik. Patroiak sestantearekin behatzen zuen eguzkia, eta horrela kalkulatzeko zuen norabidea. Mutrikuko hainbat patroi aipatzen ditu. Itsasontzia rutan zen bitartean, marinelek lo egiten zuten.

187. Lehengo itsasontziak (MUT-022/021)

Lehengo itsasontziak nolakoak izaten ziren. Lo non egiten zuten; "kamañetan". Gabeziak: ur geza gutxi izaten zuten ontzian.

188. Jatekoa itsasoan (MUT-022/023)

Itsasoan zeudenean, sukaldariak egiten zuen jatekoa. Jatekoa nola kontserbatzen zuten kontatzen du.

189. Marinel eta soldapatroi (MUT-022/025)

Domeka marinel eta soldapatroi lanetan ibili izan da itsasoan. Batzuen eta besteen eginkizunak zein ziren azaltzen dituzte. 'Udaberri', 'Mikel' eta 'Itxaropena' itsasontzien tripulazioari buruz hitz egiten dute.

190. Txalupa-mutil (MUT-022/026)

Txalupa-mutilaren eginkizunak azaltzen ditu. 14 urte ingururekin itsasoan hasten zirenak izan ohi ziren. "Partila"ri dagokionez, marinelen erdia jaso ohi zuen.

191. Portuko eginkizunak (MUT-022/028)

Porturatutakoan zer eginkizun izaten ziren: arraina deskargatu, ontzia gobernatu... Arraina moilara nola ateratzen zuten: lehenengo, otarratan; gero, kaxetan. "Imillan otarria" esaten diote antxoa hartzeko otarrari.

192. 'Apostolo del mar' (MUT-022/032)

19-20 urte zituela 'Apostolo del mar'ean ibili zen. Abadeak liburu bat eman zien, eta liburu harekin ikasi zuen 'Arrantzaleen eguneroko otoitza'.

193. 'Arrantzaleen eguneroko otoitza' (MUT-022/033)

'Arrantzaleen eguneroko otoitza' hitzez hitz esaten du.

194. 'Pater noster', eguzkiaren lehen printzarekin (MUT-022/035)

Atunetan zebiltzala, eguzkiaren irteerarekin batera 'Pater noster, Ave Maria' esan eta aitaren egiten zuten.

195. Isasi baserriko errota (MUT-023/005)

Auzoan izan diren aldaketak azaltzen ditu. Baserrian ur-errota zuten. Errota mugitzeko, Artzain-Erreka eta Mijoa errekatik hartzen zuten ura; neguan arazorik gabe eta udan urontzia erabiltzen zuten.

196. Errotan estraperloan (MUT-023/006)

Estatuari urtero 100 kilo gari eman behar zitzaion eta urtean 3 hilabete ixtera derrigortuta zeuden. Orduan gaez ibiltzen ziren, estraperloan, kontadorea

geldituta, baserritarrek garia landu eta ogia egin ahal izateko, orduan ogia baserrian egiten baitzen.

197. Auzoko baserritarrek garia eramaten zuten errotara (MUT-023/007)

Laranga eta Olatz auzoetatik ere etortzen ziren baserritarrak, asto gainean, eta errotariari ordaindu beharra zegoen, 10 kilotik 1. Garia lantzen zuten artoa baino gehiago, batez ere ogia egiteko. Artoarekin morokila egiten zuten.

198. Mijoako errotak (MUT-023/009)

Errota baserria baino lehenago zegoen, baserria gorago zegoen; baina, gauez jaisteko deserosoa zela-eta, baserri berria errota ondoan eraiki zuten, orain dela 200 urte gutxi gorabehera. Berak bi errota bakarrik ezagutu zituen auzoan: beraiena eta Errota-Berri baserrikoa (hauek artoa bakarrik lantzen zuten). Baina, garai batean, errota asko egon ohi ziren. Errota 70eko hamarkadan gelditu zuten, ogia kanpotik etortzen hasi zenean.

199. Londresera Urtain ikustera (MUT-023/013)

Kirol zaletasun handia. 1970an Londresera joan zen bera bera bakar-bakarrik Urtainen eta Henry Cooper-en arteko txapelketa ikustera, gaztelera eta ingelesa jakin gabe. Europako txapelketa zen eta Cooper-ek irabazi zuen. Lehenago hegazkinean ibilita zegoen, 1965an Mallorcan ikasten eta pilotaz jokatzeko zegoen anaiari paper batzuk eramatera joan zenean. Bilbon hartu hegazkina eta Hondarribian eta Bartzelonan egin zuen eskala Mallorcara iritsi baino lehenago.

200. Mutrikuko lehenengo sokatira taldea (MUT-023/015)

Lehenengo Mutrikuko sokatira taldea sortu zutenekoa. 1972an, La Voz de España egunkarian irakurri zuen Markinan 720 kiloko Espainiako sokatira txapelketa jokatu behar zela. Bi anaiekin eta auzoko beste gazte batzuekin taldea sortu, eta txapelketa irabazi zuten. Hortik aurrera, Euskal Herriko eta atzerriko txapelketa askotan parte hartu zuten.

201. Mutrikukoa izan zen atzerrira bidaiatu zuen lehenengo taldea (MUT-023/017)

Mutrikukoa izan zen atzerrira joaten hasi zen lehenengo sokatira taldea. Entrenamenduak Pikupeko frontoian edo arkupetan egiten zituzten, Donostiako apezpikutzari lokala eskatu zioten arte.

202. Cikautxon eskatu zuten sokatirako lehenengo goma (MUT-023/019)

Frontoian, lurrean eta goma gainean ibiltzen ziren. Sokatirarako lehenengo goma beraiek egin zuten, Cikautxo lantegiari eskatuta.

203. Herri-kiroletan jasotako laguntza (MUT-023/022)

Rafael Agirre Francok, Donostiako turismoko arduradunak, herri-kirolei orokorrean eskainitako laguntza eta babesa. Hark eramaten zituen lehenengo aizkolariak Australiara; eta Mutrikuko sokatira taldeak ere atzerrira bidaiatu ahal izan zuen berari esker.

204. Sokatirako txapelketak (MUT-023/024)

Euskal Herriko txapelketa garrantzitsuena Zazpi Probintzietakoa izaten omen zen. Jai-giro polita egoten zen eta jende asko batzen zen frontoian txapelketa ikusteko.

205. Atzerrira sokatira txapelketak jokatzera (MUT-023/025)

Sokatiran ibiltzen ziren herriei buruzko kontuak. Euskal Herri osoan zehar ibili ziren, eta atzerrira makina bat aldiz joateko aukera ere izan zuten; Pau, Paris edo Londresera, besteak beste. Bera, Urtain ikustera lehengo aldiz Londresera joan zenetik, beste lautan egon da bertan. Oso gustuko ditu Londreseko parke eta kaleak.

206. Urtain ikustera Londresera (MUT-023/028)

Urtain ikustera euskaldun asko joaten ziren. Londresen 60 bat batu ziren. Txapelketa hura Cooper-ek irabazi zuen 9. asaltoan. Sebastianentzat, Urtain ikustera joatea bidaiatzeko aitzakia ere bazen.

207. Tom Jones dantzalekuan (MUT-023/029)

Urtain ikustera Londresera joan zen hartan dantzaleku baten afaldu zuten, eta Tom Jones-en emanaldi bat suertatu zitzaion.

208. Sokatirakoak askotan joan ziren atzerrira (MUT-023/033)

Sokatiraren aitzakiarekin leku askotara bidaiatzeko aukera izan zuten. Suediaz gain, Holandan, Italian eta Frantzia ere ibili ziren. Piazenzan Mutrikuko taldeak irabazi zuen txapelketa.

209. Sokatirako txapelketak antolatzen (MUT-023/035)

Sokatira txapelketak antolatzea ere tokatu zaio: Zarauzko Zinema frontoian bat; eta bestea Aian, Euskadiko txapelketa.

210. 13 aldiz Euskadiko txapeldun (MUT-023/038)

Mutrikuko sokatira taldea 13 aldiz izan zen Euskadiko txapelduna. Lanean 10 ordu egin ondoren, eta, baserriko lanak bukatuta, egunero 21:30ak edo 22:00ak aldean entrenatzen zuten.

211. Katetxeko muga (MUT-023/043)

Bizkaiko muga Venezia dantzalekuaren parean dago, "katetxea" bezala ezagutzen den eraikinean. Bera gaztea zenean, muga kontrola egoten zen. Bizkaira zerbait pasatu izan nahi izanez gero, mikeleteei ordaindu behar zitzaion.

212. Saturraraneko emakume presoei esnea eramaten (MUT-023/044)

Saturraraneko kartzelara joaten ziren, bertako presoei esnea eramatera; emakumeak eta umeak izaten ziren gehienak.

213. Apategi Zahar eta gurasoak (MUT-024/003)

Jose Luisen aitan zen Apategi Zahar baserrikoan jaio zen, baina aiton-amonak kaletarrak ziren. Aitona Ameriketan egona zen, eta, gosete garaian, han egindako diruarekin baserria erosi zuen. Jose Luisen ama, berriz, Markina-Xemeingoa zen.

214. Auzokoekin harremana (MUT-024/004)

Harreman ona zuten auzokoen artean. Elkarri gauzak eskatzen zizkioten. Umetako pasadizo bat kontaktzen du.

215. Ogia (MUT-024/005)

Astean asteko ogia egin ohi zen. Gehinetan larunbatetan egiten zen labesua. Ogi gabe geldituz gero, auzokoei eskatzen zien.

216. Etxeko zereginetan umetatik (MUT-024/006)

Denbora gutxi pasa zuen Jose Luisek eskolan. Anai-arrebetan zaharrenetakoa zen, eta etxeko lanetan lagun behar izaten zuen: anai-arrebak zaindu, herrira joaten zen salerosketara, bazkaria prestatu...

217. Jatekoa (MUT-024/007)

Astean zehar etxeko babarruna, baba gorria edo zuria, jaten zuten. Igandetan, berriz, garbantzuk. Taloa, morokila eta esnea ere ez zen falta izaten. Taloa eta morokila egiteko irina fin-fina izaten zen; bahean pasatzen zuten.

218. Garia (MUT-024/008)

Garia. Biltzen zuten gariaren erdia edo gehiago entregatu egin behar izaten zuten. Garia ezkutatzen zuten, gero faltan ez izateko; Guardia Zibila ibiltzen zen baserriak miatzen. Udazkenean, goiz-garia egin izan zuten (San Joanak alderako heldu ohi zen goiz-garia, bestea baino lehenago).

219. Guardia Zibila, mikeleteak eta jatekoa (MUT-024/009)

Guardia Zibilek kontrolak egoten zituzten hainbat tokitan, eta jatekoa harrapatuz gero kendu egiten zuten. Baserriak miatzen zituzten. Mikeleteekin eta Guardia Zibilarekin zer harreman zuten kontaktzen du.

220. Gari-lanak (MUT-024/010)

Lehen, garia eskuz jotzen zuten; gero etorri ziren matxakea eta beste tresna batzuk. Garia igitaiaarekin ebatzen zuten. Garia ebatzeko trebezia eta gorabeherak ditu hizpide.

221. Olinoa, urrea bezala (MUT-024/012)

Arroz-esnea, flana... egiten ziren etxean, baina neurrian arrautzak saldu egiten baiziren. Olinoa garestia zen. Lapikoko jakiak prestatzen urdaia erabili ohi zen. Etxean hiltzen ziren animalien gantzak gorde egiten ziren, jakiak prestatzerakoan erabiltzeko.

222. Txerrikia eta gazun-aska (MUT-024/013)

Txerrikia kontserbatzeko gazun-askan gordetzen zuten. Gazun-aska gaztain-edo haritz-egurrarek egindako kutxa bat izaten zen.

223. Denetik egin behar (MUT-024/014)

Baserritarrek denetik egiten zuten: arotz-lanak (gazun-askak, gurdiak... etxean egin ohi ziren), otarrak... Elkarri erakusten zioten.

224. Egurra eta arotz-lanak (MUT-024/015)

Lehen, ilargiari asko begiratzen zitzaion baserriko kontuetarako (ilargiaren eragina egurra botatzerako orduan). Baserrietan egurra botatzeko erraminta falta izaten zen. Aizkora, "zepilloa" (eskuila), "galapia", zerrota... erabiltzen ziren arotz-lanerako.

225. Auzolana I (MUT-024/016)

Gari-lanak, arto-zuriketa... auzolanean egin ohi ziren. Auzokoei lanerako deia luzatzen zitzairen. Arto-zuriketa eguraldi txarra zenean, gauez, egin ohi zen, "juerga moduan". Nolako giroa sortzen zen kontatzen du.

226. Aita, soinujolea (MUT-024/017)

Jose Luisen aitak bertsotarako zaletasuna zuen, eta soinua ere jotzen zuen. Santa Eskean ere ibili ohi zen.

227. Auzolana II (MUT-024/018)

Auzolanean nolako giroa sortzen zen kontatzen du. Pozik egoten ziren auzokoekin etxean biltzen zirenean. Garo-ebatea eta -batzea ere auzolanean egiten zen.

228. Simaurra, ilbeheran (MUT-024/019)

Garoa garrantzitsua izaten zen simaurra egiteko. Simaur gutxi izaten zen, eta "relikia bezalaxe" zaintzen zen. Simaurra kortan pilatu eta garoa botatzen zioten gainean. Simaurra ilbeheran ateratzen zen.

229. Olatz aldeko lurrak (MUT-024/020)

Olazko lurrak "sendoak" dira, eta garia nahikoa hazten zen "gehiegi askotan". Ez zen komeni izaten garia gora gehiegi hazterik, heldu aurretik denborale batekin etzan egin zitekeelako.

230. Garo-metak eta tximistak (MUT-024/021)

Garoa urrian ebakitzen zen. Etxe bueltan, larrainean, egiten zituzten garo-metak. Metaren batek su hartu izan die inoiz: "tximista amorratua da metan sartzen". Sua sortzen bazen kanpaia jotzen zen auzokoei laguntza eskatzeko.

231. Auzoko kanpai-jotzailea (MUT-024/022)

Olatzen emakume batek jotzen zituen kanpaiak. Etxetik kable bat zuen jarria kanpaia jotzeko. Hamabietan, angelusa eta sua zenean jo ohi zuen kanpaia. Sua non piztu zen ikusten ez zenean, jendea eliza ingurura hurbiltzen zen, eta emakume hark esaten zien nora joan behar zuten.

232. Akolito (MUT-024/023)

Mezara joatea derrigorra zen. Bi meza egiten ziren Olatzen. Jose Luis akolito ibili zen zazpi urtean. Urte batean auzoko bi baserrik izaten zuten Olazko elizaren ardura (baserrien artean binaka txandatu ohi ziren), eta derrigorra zen ardura tokatzen zitzaion baserrietako seme-alabaren batek akolito lanak egitea.

233. Apaizak (MUT-024/025)

Apaiza herritik oinez joan ohi zen Olatzera meza ematera. Don Peio, Don Alejo eta Don Rafael apaizak ezagutu zituen Jose Luisek.

234. Uztaiarekin eta pilotan (MUT-024/026)

Umetako jolasak: uztai barila batekin eramaten... Elizpean ibiltzen ziren pilotan.

235. Errekara, siesta garaian (MUT-024/027)

Ez zien uzten errekara joaten, baina siestako denbora aprobetxatzen zuten errekara joateko. Aldian behin bakarrik bainatzen ziren putzu-zuloetan.

236. Arrateko erromeriara (MUT-024/029)

Erromeriak. Gurasoekin asto gainean Arratera joaten zirela kontatzen du. Bidean auzokoak gehitzen joaten ziren. Jose Luisen aitak soinua jotzen zuen. Arraten mahatsa erosten zutela gogoratzen du.

237. Ama (MUT-024/031)

Amak josten zien arropa: lan asko egiten zuen etxean. Gerra aurretik Ondarroan zerbitzari edo sukaldari lanetan ibilia zen ama, eta sukaldari oso ona zela dio.

238. Etxeko lanak (MUT-024/033)

Arreba 12 urterekin hasi zen sukaldari lanetan jatetxe batean. Ama hil zenean gazteak ziren, eta etxeko lanak nola egiten zituzten azaltzen du: arreba batek jatekoa prestatzen zuen, besteak arropak prestatzen zituen... Jose Luis 16 urterekin lantegian hasi zen lanean.

239. Auzo-eskola (MUT-024/035)

Hiru-lau urte zituela "Bellotei" baserriko eskolara joaten zen. Han, Mutrikuko emakume bat zuten maistra. Aritza baserriko eskolan ere ibili zen denbora batez. Gero, baserritarrek Olazko eskola egin zuten, eta hara joaten zen Jose Luis.

240. Maistrak (MUT-024/036)

Baserritarrek Olazko eskola egin zuten, eta estatua hasi zen maistrak bidaltzen hara. Maistrak erdaldunak ziren, eta baserrietan egoten ziren apopilo. Jose Luisen etxean Salamancako maistra bat eduki zuten apopilo lau urtez.

241. Katona (MUT-024/039)

Eskolako kontuak. Kantonarekin ikasten zuten (hiru liburu izaten ziren). Liburuak ondo zaindu behar izaten ziren hurrengo anaia edo arrebak erabil zezan.

242. Ibiriko gau-eskola (MUT-024/040)

Ibiriko maistrari buruz hitz egiten du. Maistra karlista omen zen, eta umeei Cara al Sol abesarazten zien. 14 urterekin Ibiriko gau-eskolara joaten zen Jose Luis. Negu partean, egunez lan egiten zuen baserrian, eta, gero, gau-eskolara joaten zen. Ilundutakoan bueltatzen ziren etxera; ez zuten beldurrik izaten.

243. Jentilak (MUT-024/042)

Etxean jentilei buruz entzundako istorioak kontatzen ditu: nolakoak ziren, non bizi ziren... Jose Luisen baserriko lurren kontran dago Jentiletxea. Jose Luisen aitona Jentiletxean jendea bizitzen ezagutu omen zuen. Jentiletxe bueltako garoa ez zuten mozten.

244. Jentiletxera sartu (MUT-024/043)

Gaztetan, anaia bat eta Jose Luis Jentiletxean sartu ziren. Kobazulo barruan zeudela, linterna itzali eta bata besteagandik urrundu zirela kontatzen du. Kobazulotik ateratzen denbora asko pasa zuten. Arropa eta belaun eta besoak urratu zituzten leizeko hormen kontra.

245. Isasimendiko erromeriak (MUT-025/002)

Olatzen, Isasimendikoan, erromeria egiten zen jaiero. Eta urteko beste lau egunetan (Pazku erdiko, San Esteban...) erromeria handiagoa izaten zen. Itziartik, Larruskaindik, Berriatuatik... joaten zen jendea egun horietan. Mandioan zegoen dantzalekua, eta hainbeste jende biltzen zen bertan, kortatik mandioa puntalatu omen zuten behin lau-bost lagunek.

246. Neska-laguntzearen inguruko kontuak (MUT-025/003)

Neska-laguntzera joandako pasadizoak kontatzen ditu. Auzoko erromeriara mutil gehiago joaten ziren neskak baino. Kanpoko mutilak konpetentzia ziren. Neska-laguntzatik erromeriara bueltatzen ziren kanpoko mutilei harriak edo sagarrak botatzen zizkien.

247. Neska-laguntzera, etxetik urruti (MUT-025/004)

Neska-laguntzera joandako pasadizoak kontatzen ditu. 15 urterako hasten ziren neska-laguntzen. San Inaziotan Larruskaingo familiarengana joateko ohitura zuten.

248. Santa Eufemiara, orkatila bihurrituta (MUT-025/005)

Inguruko mendi-erromeria eta jai esanguratsuak: Arrate, Santa Eufemia, Santa Katalina eta Itziarko jaiak. Orkatila bihurrituta Santa Eufemiako erromeriara joan zenekoa kontatzen du. 18 urte zituen orduan.

249. Santa Eufemiako erromeria (MUT-025/006)

Lau erromeria leku zeuden Santa Eufemian, eta inoiz bost ere egon ziren. Erromerian dantza egiteko mutilek ordaindu egin behar izaten zuten. Erromeriako antolatzaileek ateratzen zuten diruari buruzko azalpenak.

250. Santa Katalinako erromeria (MUT-025/007)

San Juan Egunean Santa Katalinako erromeriara joaten ziren. Urtegarai horretan, Madril aldetik "femeninetako" neskak joaten ziren Debara hilabete inguru pasatzera, eta haiekin elkartzen ziren erromerian.

251. Dantzarako zaletasuna (MUT-025/008)

Gazterik hasi zen erromerietara joaten. Dantzarako zaletasun handia izan du Jose Luisek. Erromerietako ohiturak: lehenengo, neskak hasten ziren dantzan, eta mutilak begira egoten ziren; eta, gero, mutilak joaten ziren dantza-eskean. Jose Luis eta bere lagun bati hasiera samarrean joaten ziren dantza eskatzera, "aukera gehien orduan egoten zen eta!". Trikitia eta dantza lotua. "Arrimatzea": gaizki ikusia zegoen. Gurasoak dantzaldiak zaintzen egoten ziren. Gaizki ikusita zeuden arrimatuta dantza egiten zuten neskak.

252. "Arrimatuta" dantza egitea (MUT-025/009)

Erromeriak. "Arrimatzea": gaizki ikusia zegoen. Toki batzuetan gurasoak dantzaldiak zaintzen egoten ziren. Gaizki ikusita zeuden "arrimatuta" dantza egiten zuten neskak.

253. Aitona, artzain ibilia Ameriketara (MUT-025/010)

Jose Luisen aitona harrobian ibili zen lanean, eta, harrobian lanak behera egin zuenean, Ameriketara joan zen artzain. Ordurako ezkondata zegoen, eta lau seme-alaba zituen. Bederatzi urte egin zituen Ameriketara. Pagoaga familiako senide mordoa joan omen zen Ameriketara.

254. Galbahegile galziarrak (MUT-025/012)

"Bahieroak" esaten zien. Galziazatik etortzen ziren, eta baserriz baserri joaten ziren galbaheak konpontzera jan eta lo egiteko leku truke. Galbahe berriak ere saltzen zituzten. Trasteak mandoan hartuta ibiltzen ziren. Garia egiteari utzi zitzaionean utzi zioten etortzeari. Galbahe motak aipatzen ditu.

255. "Bahiero"ei buruzko kontuak (MUT-025/013)

Ourense aldekoak izaten ziren "bahieroak" (galbahegileak). Galbahegileen janzkera: "txapelak zikinak gogortuta ekartzen zituzten" dio Jose Luisek. Ez zuten aldatzeko arroparik izaten. Baserriren batean gaua pasatzen geratzen zirenean, bertan garbitu ohi zizkien arropak hurrengo egunean berriz jantzi ahal izateko.

256. Kareak nola egiten den (MUT-025/015)

Kare bizia erabiltzen zuten lurra ongarritzeko. Beti ezagutu du karobi zuloa etxean. Aitarekin egiten zuten karea. Karobia harriz kargatzeak duen zailtasunari buruz hitz egiten du. Bolbora kartutxoak edukitzen zituzten baserrian. Bolbora erabiltzen zuten harria ateratzeko.

257. Kareak: sororako eta etxeak zuritzeko (MUT-025/016)

Kareak bi gauzetarako erabiltzen zen: sororako ongarritzeko eta etxeak zuritzeko. Urtean bitan margatzen ziren karez baserriak.

258. Lurra lantzeari buruzko azalpenak (MUT-025/017)

Lurrak gaixotzea: gehiegi esplotatzeak eta simaur asko botatzeak eragin dezake, besteak beste. Mamorruak. Simaurra botatzeari buruz hitz egiten du: simaur zaharra hobea. Belar txarrak. Kanpotik ekarritako landareak. Pozoia. Lurra ongarritzeko, karea botatzen da neguan eta udaberrian.

259. Mamorruak eta fruitua (MUT-025/018)

Patataren mamorrua eta gorrinaren kontrako botika aipatzen ditu. Mamorruak eta txoriek jandako fruitua, seinale ona dela dio Jose Luisek.

260. "Katu kalea" (MUT-026/002)

Ifar kaleri "Katu kale" esaten diote. Izen horren zergatia azaltzen du. Garai batean, abere ugari egoten omen zen kale horretan. Langosta otarrak egiten zituen gizon eta elkarte gastronomiko bat ere baziren kale horretan. “Hartu-eman handiko” kalea zen.

261. "Katu kale"ko etxeak (MUT-026/003)

"Katu kale"ko etxeak nolakoak ziren; “kale baserriak” izaten ziren. Etxe batzuen izenak aipatzen ditu. Abere ugari egoten zen kalean. Bi-hiru solairuko etxeak izaten ziren; behean, ukuiluarekin. Kale alaia eta polita dela dio Ana Marik.

262. Antzerkirako zaletasuna (MUT-026/004)

Gaztetan antzerkirako zaletasuna zuen Ana Marik. Eskola denboran, antzerkia egiten omen zuen. Bizilagunen artean antzerkiak prestatu eta, gero, jendaurrean antzezten zuten. Behinola, aguazilak antzerkia egitea galarazi zien ez zutelako zergarik ordaindu. Antzerkia ikustera joaten zen jendeak borondatea ematen zien. "Soy de la raza calé y tengo la sangre morena..." abesten zuten antzerkietan. Herriko jendea joan ohi zen antzerkia ikustera. Hilean, pare bat ikuskizun egiten zituzten.

263. Herri kantuzalea (MUT-026/005)

Garai batean, Mutrikun asko kantatzen zen: kontserba lantegietan, tabernetan... Abesti gehienak erdaraz izaten ziren.

264. Eskola nazionala (MUT-026/006)

Eskola nazionalean ibili zen. Eskola udaletxe azpiko lokaletan zegoen. Arratsaldetan, joskintza izaten zuten. Maistrak eskolako umeak bereizi egiten zituen; aberatsak alde batetik, xumeagoak bestetik... Maistrak eskola garbierazi zioneko pasadizoa kontatzen du.

265. Maistra eta eskolako antzerkiak (MUT-026/007)

Miren Goiburu nafarra zen maistra. Nolakoa zen azaltzen du. Maistra euskalduna zen, baina eskola erdaraz ematen zuten. Eskolan ere antzerkiak egiten zituzten. 'Nela, la hija del mar' antzeztu zutenekoa kontatzen du. Beste behin, tartamutuarena egin zuela kontatzen du.

266. Maistra eta belarrondokoak (MUT-026/010)

Ana Mariri sekula ez zaio ikastea gustatu; nahiago izan du antzerkian edo kantuan aritzea. Maistrak ez zien jaramonik egiten. Maistrari buruz hitz egiten du. "Nerbio handiak zituenean" belarrondokoak ematen omen zizkien.

267. "No hablaré más en vasco" (MUT-026/011)

Eskolako kontuak. Euskaraz hitz eginez gero, zigorra jartzen zien. Nolako zigorrak izaten ziren azaltzen du; arbelean "no hablaré más en vasco" idatzarazten zien. Ana Mariren etxean euskaraz hitz egiten zuten; eskolan ikasi zuen erdara. Maistrak ikasleen artean bereizketak egiten zituen.

268. Izeba, kofradia eta 'Xabiartxo' (MUT-026/014)

Ana Mariren izeba bat kofradian bizi zen; bertako garbitasunaz arduratzen zen. Kofradia nolakoa zen azaltzen du; marinelen kontuak eramateko bi bulego zeuden, eta, pixka bat barrurago, mutilen eskola nazionala zegoen. Eskola horretako maisuari buruz hitz egiten du: euskalduna, Otxoa abizenekoa, Ondarroa bideko baserri batean zuen hartuta ostatua, eguraldi txarra egiten zuenean oinetakoak Ana Mariren izebarenean aldatzen zituen... Ana Mari izebarenera joan ohi zen liburu bat irakurtzearren Xabiartxo. Liburua nolakoa zen azaltzen du. Izebarenean ez zen jatekorik falta izaten, eta Ana Marik denbora asko pasatzen zuen izebarenean.

269. Italiarren kontserba-lantegiak (MUT-026/016)

Italiarren kontserba-lantegiak betidanik ezagutu izan ditu herrian.

270. Zortzi urterekin eskabetxean hasi (MUT-026/018)

Zortzi urte zituela, Calongero Billante lantegian hasi zen lanean, eskabetxean. Ez zen mahaira iristen, eta bi harri jartzen zizkioten; zakuzko mantalak erabiltzen zituzten "mantala handiagoa zen neu baino". Ana Mariren lana izaten zen antxoei burua kentzea. Gerora, kontserbarako "antxoa fileteak" atera eta latan jartzen aritu zen.

271. "Lana aukeran zegoen" (MUT-026/019)

Ez du gogoratzen zenbat irabazten zuen Calongero Billante eskabetxe lantegian. Larunbat batean kobratu gabe geratu ziren bankua itxita zegoelako. Etxean ama diru horren zain zegoen. Hurrengo astelehenean, Busto lantegira joan zen lanera. "Orduan lana aukeran zegoen"

272. Antxoa eta atuna eskabetxean (MUT-026/020)

Eskabetxeko lanari buruz hitz egiten du. Antxoa, atuna... jarri ohi zuten eskabetxean. Ana Marik ez du ezagutu txitxarroa eta papardoa eskabetxean jartzen, baina lehenago egiten omen zen.

273. 11 urte Egaña lantegian (MUT-026/022)

Calongero Billante utzi eta Busto lantegian bi urte egin zituen. Gero, Egaña lantegian lanean hasteko aukera sortu zitzaion, eta bertan hasi zen lanean. Lantegi horretan, zer lan egiten ziren kontatzen du; Ana Marik intsigniak margotzen zituen. 11 urte egin zituen Egaña lantegian lanean.

274. Mutrikuko lantegiak (MUT-026/023)

Ana Mari umea zen garaian, Mutrikun lantegi asko zegoen. Sei-zazpi kontserba-lantegi, Egaña intsignia-lantegia, zaku-lantegia, guraize-lantegia, ferratzailea... aipatzen ditu.

275. Zaku-lantegia (MUT-026/024)

Ana Mariren ahizpa zaharrena zaku-lantegian aritu zen lanean. Ahizpari "armosua" ematera joan ohi zen lantegira. Lantegian nolako zakuak egiten zituzten azaltzen du. Ana Mari eta beste bi ahizpa Egaña lantegian aritu ziren lanean.

276. Gurasoak, biak mutrikuarrak (MUT-026/026)

Ana Mariren gurasoak mutrikuarrak ziren. Aitak urte asko eman zuen Getarian handik ibiltzen baitziren arrantzan.

277. Aita, marinela (MUT-026/027)

Ana Mariren aita marinela zen. Etxeko gorabeherak kontatzen ditu. Garai batean, neguan, hiru hilabetez ez zen dirurik sartzen etxean (denbora horretan marinela ez ziren itsasora ateratzen), baina gero langabezi-saria jarri zuten, eta laguntza izan zen.

278. "Ezin aberastu" itsasontzia (MUT-026/029)

'Sagrada Familia' itsasontzia "Ezin aberastu" izenarekin ezagutzen zen. Bisigua, papardoa, atuna, antxoa... harrapatu ohi zituzten. Marinelek arrantzatutako arrainen parte bat jasotzen zuten, etxerako.

279. Jatekoa (MUT-026/030)

Etxean zer jaten zuten kontatzen du Ana Marik. Asteazken behin jaten zuten okela.

280. Bola lekuko enkantea (MUT-026/032)

Itsasotik arraina iristen zenean Bola lekuan egiten zen arrain salmenta. Enkantea nola izaten zen azaldu Ana Marik.

281. Marinela artean beti (MUT-026/033)

Marinela artean bizi izan da Ana Mari. Aita marinela zuen, senarra ere bai eta elkarrizketa garaiko bikotea ere marinela izandakoa. Beti itsasoko bizimodua eraman izan du.

282. "Txitxarro freskueee!!" (MUT-026/034)

Ana Mari arrain saltzen ibili izan da urte askoan; "nire gizonen arrainak saldu izan ditut". Arraina saltzeko lekuak: Erdiko kaletik Goiko kalera joan, han buelta eman eta Beheko plazan gelditu ohi zen. Salmenta nola izaten zen azaltzen du: prezioak, pisua, otarra, jendearekin zer harreman izaten zen... Bost-sei emakume ibili ohi ziren arraina saltzen.

283. Sare-konpontzaileak (MUT-026/035)

Sare-konpontzaileak lana non egiten zuten azaltzen du. Ana Marik ez du ikasi sareak nola konpontzen diren, baina aparailuak konpontzen badaki; izan ere, senarrarekin askotan joan ohi zen itsasora "txibitxetara".

284. Txibitara senarrarekin (MUT-026/036)

Senarrarekin askotan joan ohi zen itsasora. Mutrikun, lau bat emakume edo joaten omen ziren itsasora. "Eta gustura joaten nintzen, gainera, ni!". Itsasoan zer lan egiten zuen azaltzen du. Txibiaren "tenkadak" poz handia ematen duela dio. Txibiak harrapatzeko koraina nolakoa izaten den azaltzen du. Txibitarako lekuak aipatzen ditu.

285. Txitxarrota (MUT-026/037)

Txitxarrota nola egiten den azaltzen du Ana Marik. Aparailua itsasontziaren atzeko aldetik bota behar izaten da; gero, arrantzaleak branka aldera eraman behar du aparailua. Itsasontzia bueltan-bueltan ibili ohi da; motorra ez da gelditzen txibitan bezala.

286. Itsasora joateko desiatzen (MUT-026/038)

Ana Mari deseatzten egoten zen senarrarekin itsasora joateko. Behin itsasora joandakoan, ez zuen etxera bueltatzeko gogorik izaten.

287. Ontziola (MUT-026/040)

Mutrikun bazen ontziola bat "kooperatibakoak". Ana Mariren eta senarraren ontzia bertan egindakoa zen. Ontziola non zegoen azaltzen du. Izotz-fabrika aipatzen du: oraindik martxan dago, eta itsasontzietarako izotza egiten dute bertan.

288. Itsasoko bizitza (MUT-026/041)

Ana Mariren aita marinela zen; sekula ez zen aitarekin itsasontzian ibili. Garai hartan, emakumeak ez ziren itsasontzietan ibiltzen. Ana Mariren aita "Ezin aberastunekoarentzat" egiten zuen lan. Itsasontzia nolakoa zen, zer kargu zeuden, "kamañak" (lo egiteko tokiak) nolakoa izaten ziren... Gertuko arrantzaldiak zortzi egun ingurukoak izaten ziren. Algecirasera joaten zirenean, berriz, bi-hiru hilabete egiten zituzten itsasoan. Bitartean, etxean nola moldatzen ziren kontatzen du; "norberak egin behar aitarena eta amarena".

289. Atuna harrapatzeko malutak (MUT-026/043)

Amari eta amonari buruz hitz egiten du. Ana Mariren amonak malutak egiten zituen arto-azalarekin; nola egiten zituen azaltzen du. Malutak atuna harrapatzeko erabiltzen ziren. Bertarako, Asturiaserako eta Galiziarako prestatzen zituen malutak. Garai batean, herrian lau familia aritzen ziren lan horretako

290. Amona (MUT-026/045)

Amonari buruz hitz egiten du. Emakume azkarra eta ausarta zela dio. Amonak malutak egiten zituen; malutak atunetarako erabiltzen ziren. Dirua nola kobratzen zuen aipatzen du.

291. Tangarta (MUT-026/048)

Lehen, Mutrikuko portuan txirlak biltzen aritzen ziren. Gero, lurra dena zangatu zuten, eta galdu egin zen. Txirlatara eta lapatarara joateko tangarta erabiltzen zuten. Tangarta zer den azaltzen du.

292. Marinelen lan-tresnak (MUT-026/050)

Marinelek itsasoan erabiltzen zituzten otarra motei buruz hitz egiten du. Langosta otarrak, tretzak... zer diren azaltzen du.

293. "Atzandelak" (MUT-026/051)

"Atzandelak" zer diren azaltzen du: marinelek atunetan zebitzala pitarekin hatzetan ebakirik ez egiteko eskularru itxurako telazko babesgarria.

294. "Soletak" (MUT-026/053)

"Soletak". Galtzerdiak zulatutakoan azpi berria egitea. Arropak zutalu edo apurtutakoan amak nola konpontzen zituen azaltzen du.

295. "Truxua egin" (MUT-026/056)

Indar handiko euria egiten duenean "truxua egin" esaten dute Mutrikun

296. "Banutu" (MUT-026/057)

Gerrikoa edo soka askatzeko "banatu" esaten dute Mutrikun.

297. Itsasoa izendatzeko hainbat modu (MUT-026/059)

Itsasoa izendatzeko hainbat modu aipatzen ditu: zuri-zuri (pikatua) dagoenean "arkumeak daude", olatu handiak daudeak "azpiko itsasoa"...

298. Ilargia eta kalatxoriak (MUT-026/061)

Itsasoa eta ilargia. Ilargiari begiratzen zitzaien zer eguradi etorriko zen jakiteko. Kalatxorien zarata entzuten denean, eguraldi txarra datorrenaren seinale izaten dela dio Ana Marik.

299. Marinelak eta kanta (MUT-026/064)

Marinelak itsasotik bueltatzen zirenean, asko kantatzen zuten. Tabernetan nolako giroa sortzen zen aipatzen du. "En la época de invierno" marinel-kanta aipatzen du. Lehen kanturako ohitura handiagoa zegoela dio.

300. Marinelen etorrerak (MUT-026/066)

Marinelen etorrerak nolakoa izaten ziren aipatzen du. Marinelei ongietorria egiten zien herriko jendeak portuan.

301. Marinelen arropa eta jatekoak (MUT-026/068)

Marinelei buruzko azalpenak. Lehen denak ontzi batetik jaten zuten. Zer arropa erabiltzen zituzten: bonbatxo urdinak eta gomazko polainak. marinelek itsasoan zeudenean zer jaten zuten... Bizimodua aldatu egin dela dio.

302. 18 itsasontzi portuan (MUT-026/069)

Ana Marik 18 itsasontzi ezagutu ditu Mutrikun. Elkarriketa egin zitzaion garaian bakarra.

303. Itsasoko ezbeharrak (MUT-026/071)

Ana Mariren senarren aita itsasoan galdu zen. Bisigutara atera ziren, eta ez zuten ez barkurik ez tripulaziorik aurkitu, "bat uste dut bilatu zutela" dio. Ezbeharraren ondorioz, ama hiru umerekin geratu zen; umeei kontu korronte

bat ireki omen zien laguntza gisa. Herrira Franco joan zela aipatzen du. Beste behin, itsaso txarra zela, ontziak amarratzera joan eta hiru-lau marinel ito zirela kontatzen du.

304. Despeska (MUT-026/073)

Lehen, marinelek sarearekin arrainak harrapatu eta gero, lehorrean despeskan aritzen ziren. Saretik arrainak askatzeari esaten zaio despeska. Lan handia ematen omen zuen arrainak askatzeak.

305. Arrain buruak ongarri (MUT-026/075)

Antxoa eta atun buruak sorora bota ohi zituzten baserritarrek, ongarri gisa.

306. Antxoa eta atuna (MUT-026/077)

Mutrikun antxoa eta atuna arrantzatu izan da. Bisigu denboran, bisigua ere bai "baina galdu egin zen". Azken urteetan antxoa arrantzateko bost urteko geldialdia egin izana aipatzen du.

307. Etxean arrain faltarik ez (MUT-026/079)

Jatordu guztietan arraina izaten zuten jateko. Ana Mariren amak arraina nola prestatzen zuen kontatzen du.

308. "Venta"ra, izebarenera (MUT-026/080)

Ana Mariren izeba bat "venta"ko atezaina zen, eta bertan bizi ziren. Askotan joaten zen haren etxera "han beti zegoen okela pixkat bat".

309. Mutrikuko eskolak (MUT-026/083)

Herrian zenbat eskola zeuden aipatzen du. Eskola nazionalak: udaletxe azpian bi; neskena eta mutilena, eta kofradian mutilen beste eskola bat zegoen. San Miguel mojen eskola ere aipatzen du.

310. Umetako jolasak (MUT-026/086)

Ume garaiko jolasak: kromoetan, kaniketan, txirlekin, "poto-potoka", "andua lehenengoa"ka... Kaleetan aldabak jo eta ihes egiten ibiltzen ziren. Mutil eta neskak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean kalean.

311. Sabanika kalea (MUT-028/003)

Gazte garaiko oroitzapenak. Sabanika kalea nolakoa zen eta bertako giroa ditu hizpide.

312. Futbolean frontoian (MUT-028/006)

Frontoian futbolean jolasten zuten. Behinola, arbitro ibili zeneko oroitzapenak kontatzen ditu Martzelitak. Anaiek trapuzko pilotak egiten zituzten; baloiren bat ere ba omen zuten.

313. Malenetako pilota partidak (MUT-028/007)

Frontoian bizi ziren. Maleten pilota partidak izaten ziren, eta etxeko balkoia jendez betetzen omen zen.

314. Frontoi irekia (MUT-028/008)

Garai bateko frontoia nolako zen: irekia, exerleku ugari zituen, hiru sarrera...

315. Moilatarrekin pikea (MUT-028/010)

Martzelita eta frontoian ibiltzen ziren jolasean. Moilako umeak, moilatarrak, hara joaten zirenean pikeak izaten zituzten.

316. Musika tokia eta Santa Zezili eguna (MUT-028/012)

Martzelitaren anaiak mutikotatik izan dira "musikeroak". Musika tokia, entseguak egiteko tokia, Sabanika kalean zegoen lehen. Santa Zezilia egunean, musika bandak kontzertua ematen zuen plazan, eta, gero, Sabanika kalean ematen zioten egunari amaiera.

317. Aita marinela (MUT-028/013)

Martzelitaren aita marinela zen. Etxeko giroa; jatekoarekin gorabeherak, arraina jan nahi ez eta...

318. Arrainak (MUT-028/014)

Lehen zer arrain harrapatu ohi ziren aipatzen du. Neguan, txitxarro beltza (eskabetxean jarri izan zen asko), papardoa, bisigua... Legatz zatiak aukeran izaten zituzten.

319. Seineroa atez ate (MUT-028/015)

Seineroak ematen zien marinelei itsasora joateko abisua. Herrian bi seineru zeuden. Atez ate joaten ziren itsasora ateratzeko edo eguraldi txarragatik ez zirela aterako abisatzera.

320. 18 itsasontzi (MUT-028/017)

Mutrikuko portuan baxurako 18 itsasontzi ezagutu zituen Martzelitak. 'Salve', 'Saturraran'... izenak aipatzen ditu.

321. Etxeko lanetan lagundu behar (MUT-028/019)

Martzelitak bi anaia zituen. Alaba bakarra izanik, amari etxeko lanetan lagundu behar izaten zion. Amari arropak nola exekitzea gustatzen zitzaion azaltzen du.

322. Arropa garbiketa (MUT-028/020)

Arropa garbiketa. Martzelitaren amak etxean garbitzen zituen arropak, baina moilako emakumeak moilan non garbitzen zuten arropa azaltzen du. Komentuko etxeen behean ere bazen beste erreka bat, eta jende asko joaten zen hara arropa garbitzera. 'Lagarto' xaboia eta lixiba erabiltzen ziren arropa garbitzeko.

323. Etxeko garbitasuna (MUT-028/021)

Etxeko garbiketa. Sukaldeko lurra egurrezkoa zen, eta nola garbitzen zuen azaltzen du.

324. Eskolako kontuak (MUT-028/023)

Eskolan non ibili zen eta zer maistra izan zituen kontatzen du. 11 urterekin eskabetxean hasi zen lanean Apitorenean; gauetan, San Migelera joaten zen eskola ziurtagiria ateratzera.

325. Maistraren zaplaztekoa (MUT-028/025)

Eskolako kontuak. Maistra batek zaplaztekoa eman zioneko oroitzapenak.

326. Jolasak (MUT-028/026)

Jolasak: sapakonetan, kromoekin, sokasaltoan, "Bi lau, sei, zortzi, hamar...". Sokasaltoko kantak.

327. Sapakonak (MUT-028/028)

Umetako jolasak: sapakonak lortzeko gorabeherak, batzuk margotu egiten zituzten, sapakonetan nola jolasten zen...

328. Etxean, euskaraz (MUT-028/030)

Etxean beti euskaraz hitz egin izan dute. Aitona Pasaiatik ibiltzen arrasteran, eta hark esaten zien euskaraz nola hitz egiten behar zen.

329. Erregeak (MUT-028/033)

Erregetako ilusioa, opariak... ditu hizpide.

330. Kartoizko "marama" (MUT-028/034)

Kartoizko "marama" (panpina) bat eduki zuen umetan. Egun batean aurpegia garbitu zion, eta margo guztia joan egin zitzaion.

331. Erosketak "palo-palotan" (MUT-028/036)

Erosketak egiterakoan, dendariak apuntatu egiten zuen; "palo-palotan" esaten zioten. Adibidez: bi ogi erosiz gero, bi palo.

332. 11 urterekin, eskabetxean hasi (MUT-028/037)

11 urterekin hasi zen eskabetxean Apitorenean. Egunean, 5,75 pezeta irabazten zituen. Egunean-egunean jasotzen zuten soldata, eta eskuan gogor hartu eta etxeratutakoan amari ematen zion dirua. Urte batzuk geroago, Apitorenetik 18:30ean lanetik atera eta 19:00etatik 22:00etara Arrutineko lanetegira joaten zen lanera. Arrutinean astean behin kobratzen zen: bederatzi duroko soldata zuen.

333. Antxoa fabrikako lanak (MUT-028/038)

Eskabetxeko lana nola izaten zen: antxoak gazitu, "fileteak" atera, antxoa pelotak egin eta kupetelan sartu...

334. Neguko lanak (MUT-028/039)

Kontserba lantegietan negu garaian zer lan izaten zen: txitxarro beltza, papardoa... Frijiketa garaian, ordu askoak jarduten zuten lanean. Txitxarroa parrilan frijitu eta hurrengo egunean enpakatu egiten zen.

335. Domeketan, zinera (MUT-028/042)

Gazte denborako kontuak. Neskak neskekin eta mutilak mutilekin ibiltzen ziren. Zinea eguen, zapatu eta domeketan egoten zen eliza atzean. 3R fimak 17 urtetik gorakoentzat izaten ziren. Martzelita eta lagunak domeka arratsaldeko zine emanaldira joaten ziren; zinerako sarrerak igande goizean, mezatik irten ondoren, erosten zituzten.

336. Ondarroara, zinera (MUT-028/043)

Gazte denborako kontuak. Pezeta bateko paga izaten zuen; karameluak erosi eta zinera joateko kontuak ateratzen ibiltzen zen. Ondarroara ere joaten zen lagunekin pelikularen bat ikustera; oinez joan (zapatak eskuan eta abarketak jantzita) eta bi pisuko autobusean bueltatzen ziren.

337. Zentsuratutako filmak (MUT-028/044)

Zentsuratutako film batzuen izenak aipatzen ditu. 'Gilda', 'Lo que el viento se llevo'... Apaizak sermoietan aipatzen zituen film horiek.

338. Osaba bandako zuzendaria (MUT-028/046)

Dantzaldiak: neguan, Beheko plazan; udaran, Goiko plazan. Martzelitaren osaba, Pako Arrieta, musika bandako zuzendaria zen. Igandetan zinera joaten zirenean, dantzaldiko azkenengo tanda beranduago hasteko esaten zion osabari; horrela, azken hiru piezak harrapatzen zituzten. Zinetik ateratakoan, Erdiko kalean goitik behera korrika joaten zen lagunekin plazara. Dantza eskatzeak...

339. Kongregazioa eta dantza lotua (MUT-028/047)

Hijas de María kongregazioari buruz hitz egiten du. Mutilekin dantza egiten zuten neskek ezin zuten zinta jantzi; mutilei ez zien zintarik kentzen. Martzelitak mutilekin dantza egiten zuen.

340. Prozesioak (MUT-028/048)

Aste Santuan, San Pedro egunean, Malena egunean, Kandelario egunean... prozesioak egiten ziren. Prozesioak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Martzelita aingeru jantzian ateratakoa da prozesioetan. Bederatziurrenak erdaraz egiten ziren.

341. Aulkiगतik ordaindu egin behar (MUT-028/050)

Elizan, mezan, bederatziurrenetan... aulkiगतik ordaindu egin behar izaten zen. Gizonak eta emakumeak aparte jartzen ziren.

342. Malena jaiak (MUT-028/051)

Malena jaiak nolakoak izaten ziren. Zezenketak, sokamuturra, toreatzaileak... Musika, jai-giroa eta lagunarteaz hitz egiten du.

343. Aurreneko danborradak (MUT-028/052)

Hasieran, Itsasgain Elkartek antolatzen zuen danborrada. Danborjoleak marinel jantzita ateratzen ziren; ohorezko damak eta karroza ere izaten ziren. Malen bezperan, gauez, egiten zen orduan ere danborrada. Diana goizean goiz izaten zen.

344. Kalbarioak (MUT-028/055)

Kalbarioak, marinелentzat jai handiagoa. Kalbariora oinez joan, meza entzun, hamaiketakoa jan, erromeria...

345. Marinel eta baserritarren apustuak (MUT-028/056)

Marinel eta baserritarren arteko apustuak. Martzelitaren aitak marinela izan arren bazuen harremana baserritarrekin.

346. Marinel Eguna (MUT-028/058)

Marinel Egunekeo jaia nolakoa izaten zen azaltzen du: moilako giroa, estropadak... Ez ziren marinel arrokekin janzten.

347. Tabernak I (MUT-028/060)

Ezkon aurretik neskak ere joaten omen ziren tabernara, baina ez zen gaur adinako ohiturarik. Martzelitaren gazte garaian Mutrikun zer taberna zeuden: Ulacia, Kulixka, Ametza, Batzokia, Zuatzu...

348. Tabernak II (MUT-028/062)

Martzelitaren gazte garaian Mutrikun zer taberna zeuden. Emakumeak ezkondu ondoren joaten omen ziren gehiago tabernara.

349. Sagardotegiak eta dolareak (MUT-028/063)

Martzelitaren gazte garaian, sagardotegi ugari zegoen Mutrikun. Herrian dolareak non zeuden azaltzen du.

350. Fruta eta baserritarrak (MUT-028/064)

Fruta plazan erosten zien baserritarrei. Mutriku inguruetan sagarrondo ugari zegoen; gero, pinua sartu zuten. Baserritarrak astoarekin jaisten ziren kalera.

351. 'Buenos Aires' hotela (MUT-028/065)

'Buenos Aires' hotela zegoen Mutrikun. Mutrikuko kondeak herrira joaten zirenean, merienda ematen omen zien hotelean herriko umeei.

352. Mutrikuko kondeak (MUT-028/068)

Mutrikuko kondeak eta haien etxea. Udara partean joaten ziren Mutrikura.

353. Donostiara lanera (MUT-028/070)

Donostiako Excelsior hotelean bi udatan aritu zen zerbitzari lanetan. 19 urterekin joan zen Donostiara; adin horrekin ez zioten gauez zinera joaten uzten.

354. Mendira lagunekin I (MUT-028/072)

Mendi irteerak lagunekin. Arnora, Galdonara, Leizarren aldera joaten ziren.

355. 'Leizarrena jua eta' kanta (MUT-028/074)

'Leizarrena jua eta' kanta abesten du.

356. Mendira lagunekin II (MUT-028/075)

Mendi irteerak lagunekin. Abarketekin ibili ohi ziren mendian. Amak egindako gantxilozko bandoleran eramaten zuen jatekoa. Zer jateko eramaten zuen.

357. Jatekoa (MUT-028/076)

Aita eta mendira egurretara joaten zirenean, sagarrak eta gaztainak ere hartzen omen zituzten. Etxean zer jan ohi zuten azaltzen du.

358. Hondartza eta arranpla (MUT-028/077)

Amak ez zien uzten hondartzara joaten. Hondartza nolakoa zen. Itsasoko korronteek hondarra ekarri eta eraman egiten zuten. Bainatzera arranplara eta "pizina" joaten ziren.

359. Hondartzarako arropa (MUT-028/080)

Hondartzara zer arroparekin joaten ziren azaltzen du.

360. Udatiarrak (MUT-028/084)

Udatiarrak. Eibartar asko joaten zen Mutrikura uda partean. Bazen bainua hartzeko ohitura; emakumeen artean gutxiago.

361. Arrauna (MUT-028/087)

Lehenengo aldiz Mutrikun arraun taldea sortu zenekoaz hitz egiten du. Estropadak eta arraunlariak.

362. Futbola Mutrikun (MUT-028/089)

1944an inauguratu zen Mutrikuko futbol zelaia. 'Hoja de lunes' irakurtzen zuten etxean. Ondarroarrekin eta debarrekin izaten ziren pikeak futbol partidetan.

363. Mizkiako auzo-eskola (MUT-029/006)

Mizkiako auzo-eskolari buruzko azalpenak. Eskolan erdaraz hitz egiten behar izaten zuten. Hasieran, kanpoko irakasleak izan zituzten; gero, Pili Bullain maistra mutrikuarrarekin aritu ziren ikasten. Bullainekin euskaraz egiten zuten. Negu garaian, baserritarrek egurra eraman behar izaten zuten eskolara.

364. Eskolatik gorakoak eta beherakoak (MUT-029/008)

Umetako kontuak. Eskolatik gora eta eskolatik behera bizi ziren umeak gaizki konpontzen omen ziren. Elkarri segika, harrika... ibiltzen ziren. Eskolan, neska eta mutil elkarrekin ibiltzen ziren.

365. Gau-eskola (MUT-029/009)

15-16 urterekin, gau-eskolara joaten zen. Erdarazko liburuak ibiltzen zituzten.

366. Frontea auzoan (MUT-029/013)

Gerra denborako oroitzapenak. Frontea auzoan egon zen geldituta zazpi hilabetean. Bizkaia aldeko baserrietako jendea Lorea eta bizi ziren aldera pasarazi zituzten. Ondarroako baserri bateko ganadua eduki zuten beraien baserrian; ganadu jabeak, berriz, auzoko baserri batera joaten ziren lo egitera. Lorearen aitona eta auzoko baserri batean egon ziren.

367. Astoarekin esnea banatzera (MUT-029/015)

Lorea umea zela hil zen aitona. Aitonaren hileta zela eta, berak joan behar izan zuen esnea banatzera Mutrikura astoarekin. Esnea zer familiatan banatzen zuten esaten du. Ondo gogoratzen du bera elurretan jolasean zebilen bitartean astoak bideari nola jarraitzen zion.

368. Baserriko bizimodua (MUT-029/018)

Baserriko bizimodua. Uda parteko lanak: ardiak eta ganaduak zaintzen zituen. Gurasoak soroan lanean ziren bitartean, anai-arrebak zaintzen zituen Loreak. Ama haur txikiena izara batekin bizkarrean lotuta ere aritzen omen zen lanean.

369. Gari-lanak (MUT-029/019)

Gari-lanak. Igitaiarekin mozten zuten garia. Garia multzoetan bildu, lotu eta metak egiten ziren. Metak soroan utzi eta hilabete inguru pasatu ondoren, matxakarekin jotzen zuten garia. Gari-jotzeari buruzko azalpenak ematen ditu.

370. Mizkia aldeko errotak (MUT-029/020)

Mizkia aldean bi errota zeuden. Lorearen etxekeok Bizkaia aldeko errota batera joateko joera zuten.

371. Errotarria eta irina (MUT-029/021)

Gerra denboran, baserri bakoitzak landutako gariaren hainbesteko bat entregatu behar izaten zuen. Gerra etorri zenean, Lorearen etxekeok garia errotara eraman gabe zeukaten. Lorearen aita eta senide batek Larroskain aldeko baserri batetik errotarria erosi eta Berrosasi baserrian (Lorearen amonaren jaiotetxean) egiten zuten irina. Garia eta artoa eramaten zuten hara.

372. Maria errekadista eta osabaren ogia (MUT-029/022)

Gerra denborako kontuak. Lorearen osaba bi Bilbon bizi ziren; haietako bat apopilo mutrikuar batzuen taberna batean, eta ogi goseak egoten omen zen. Baserrian ogia egin, eta Maria "rekadistia" rekin bidaltzen zioten ogia osabari.

373. Osabaren andregaia (MUT-029/024)

Bilbon zegoen osabetako batek andregaia bilatu eta Mizkia baserrira eraman omen zuen. Andregaia erdalduna zen, eta hari buruzko kontuak kontatzen ditu; "baserriko oilo guztiak" jan omen zituen. Osabaren andregaiarekin Bilbora joan zela gogoratzen du Loreak.

374. Bi udaratan jatetxean lanean (MUT-029/026)

20 urte inguru zituela Mutrikuko jatetxe batean zerbitzari lanetan aritu zen bi udaratan. Jatetxeko familiari eta laneko kontuei buruz hitz egiten du.

375. Larruskaingo erromeria (MUT-029/028)

Erromeria tokiak: Larruskain, Saturrarán (Singapur esaten zioten toki bat)... Oinez egiten zituzten joan-etorriak. Lehenengo aldiz Larruskainera joan zenekoaz hitz egiten du: xaboi saltzailea joan omen zen, eta xaboia erosteko aitzakian... joan zen lagunekin (etxeetan ez omen zen oraindik xaboirik). Orduko hartan Loreak ez zuen dantzarik egin. Gerora, auzoko gazteak elkarrekin joaten omen ziren erromeriara.

376. Mutilei harrika (MUT-029/029)

Gaztetako ibilerak. Auzoko neskak etxera zihoazela, atzetik mutil kuadrilla bat zutela somatu, eta goiko bide batean ezkutatu ziren. Mutilak parera iritsi zirenean, goitik harrika hasi omen zitzaizkien.

377. Zazpiretako mezara (MUT-029/035)

Parrokiako goizeko zazpiretako mezara joaten ziren. Negu garaian, ilunpetan edo lastabalak piztuta joaten ziren mendian behera. Aldian aldina, bezperetara ere joan ohi ziren.

378. Meza ondoren, lanera (MUT-029/036)

Larunbatetan lan egiten behar izaten zen baserrian. Igandetan, berriz, goizeko zazpiretako mezara joaten ziren. Meza ondoren, etxeratu, arropa aldatu eta jatekoa prestatzen zuten. Zer jaten zuten azaltzen du: taloa, txerri saiheskia... Ondoren, sorora joaten ziren lanera.

379. Taloa nola egiten den (MUT-029/037)

Taloak nola egiten zituen azaltzen du Loreak.

380. Saturrarango kartzela (MUT-029/040)

Saturrarango kartzelari buruz hitz egiten du. Lorearen izeba bat eta haren senarra han egon ziren lanean.

381. Ur bila joan behar (MUT-029/042)

Baserriko lanak. Aitak zer lan egiten zituen: soroko lanak, ganadua zaindu, behiak jetzi... Etxean ez zuten urik, astoarekin joan behar izaten zuten bila. Gero, kortan bilatu omen zuten ura. Argirik ere ez zuten etxean; argia jarri zutenean "Haura zan zerua, txo!" dio Loreak.

382. Don Inazio medikua (MUT-029/043)

Don Inazio zen herriko medikua. Zaldian ibiltzen zen batera eta bestera.

383. Abereen erditzeak (MUT-030/003)

Abereen erditzeak. Inguruan beti izaten zen norbait animalia begiratzen zekiena. Behiei sendabelarrak ematen zizkien: "mantzanila" (kamamila), pasmo-belarra...

384. San Antoniok senargaia eman? (MUT-030/006)

Senarra Urkiolan topatu zuela dio. Mutrikutik autobusa antolatu zuten San Antoniora joateko, eta bere ondoan jarri omen zen bere senarra izango zena.

385. Arropa garbiketa (MUT-030/010)

Olabarrieta auzoko garbitokiari buruzko azalpenak. Arropak nola gargitzen ziren azaltzen du: arropak etxean xaboitu, zinka buruan hartu eta garbitokira joaten zen. Loreak ez du ezagutu lixibarik egiten.

386. Dotrina (MUT-030/015)

Dotrina handia eta txikia izaten ziren. Eskolan galdetzen ziren dotrina, eta euskaraz ikasi zuten.

387. Baserriko zereginak (MUT-030/017)

Gazteñeta baserrira ezkondu zenean zer bizimodu egiten zuen azaltzen du. Baserriko lanak egiten zituen: soroan, ganaduari jatekoa eman...

388. Mutrikura joera (MUT-030/018)

Gaztañetatik Mutrikurako joera izan dute. Astoarekin joaten zen Mutrikura, baina Lorea ez zen gainean jartzen.

389. Kanoia eta frankistak etxe ondoan (MUT-030/020)

Gerra denborako oroitzapenak. Lorearen etxetik oso hurrean kanoi handi bat egon zen. Baserri ondoan egon ziren soldaduak frankistak ziren; Lorearen baserriko txakurrari jatekoa ematen zioten.

390. Soldaduak etxean lo (MUT-030/021)

Gerra denborako oroitzapenak. Soldadu txapel gorriak etxean lo egiten zuten... Azkoitia Azpeitia aldekoak omen ziren, eta mandoarekin beste soldaduei jatekoa eramaten ibiltzen ziren. Olloa lagatzen zien baserrian. Soldaduak lehenengo aldiz baserrira joan zirenean etxeko ur, ogi eta txokolate guztia gastatu zuten.

391. Amak bonba bat aurkitu (MUT-030/022)

Gerra denborako oroitzapenak. Lorearen amak kalera bidean bonba bat aurkitu zuen. Otarran hartu eta etxera eraman zuen.

392. Gerrako itsasontziak Saturraranen (MUT-030/023)

Gerra denborako oroitzapenak. Tiro hotsak baserritik entzuten zituzten. Gerrako itsasontziak Saturraranera iristen zirenean zarata handia ateratzen zuten. Baserritik itsasontzien mugimenduak ikusten zituzten. Itsasontziak Saturraran aldera iristen zirenean, soldaduek etxetik joateko esaten zien. Ama eta umeak gorde egiten ziren; aita baserrian geratzen zen.

393. Gerrako hegazkina (MUT-030/024)

Gerra denborako oroitzapenak. Anaiarekin iturrian zela gerrako hegazkin batengandik nola ezkutatu ziren kontatzen du. Bidean etzan ziren.

394. Soldaduak (MUT-030/025)

Gerra denborako oroitzapenak. Soldaduak baserriko tejabanan lo egiten zuten. Pareta bat egin zuten babesteko.

395. Izara zuria eta soldaduak (MUT-030/027)

Gerra denborako oroitzapenak. Baserrian izara zuri bat jartzen zuten. Soldaduei nolako harremana zuten azaltzen du: Lorea eta anai-arrebak haiengana joaten ziren tiroteorik ez zenean, eta jatekoa ematen zien. Soldaduak Bizkaia aldera zihoazen.

396. Beldurrez dardaraka (MUT-030/029)

Gerra denborako oroitzapenak. Tiroteoak, kanoikadak, hegazkinak, bonbardaketak... gogoratzen ditu. Baserritik itsasoa ikusten zuten; itsasontzien joan-etorriak... Etxean beldurrez dardaraka egon ziren.

397. Kanoikadak (MUT-030/030)

Gerra denborako oroitzapenak. Soroan garia botatzen aritu eta gero, etxeratu ziren Lorearen gurasoak. Lanean egon ziren lur horietan kanoikadak izan ziren. Tiro hotsak, kanoikadak... entzuten zituzten baserritik; zarata horiek entzutean, zaldiak ihes egiten omen zuen.

398. Tela saltzailea (MUT-030/033)

Loreak 10 urte inguru zituela tela saltzaile bat joan zen baserrira. Tela saltzailearekin izandago gorabehera kontatzen du.

399. "Han daukat hazia..." kanta (MUT-030/035)

"Han daukat hazia, poltsan urre gorria..." abesten du.

400. "Etxe Txiki" eta inguruko baserriak (MUT-031/002)

"Etxe Txiki", Gabilondonekua eta "Tomorroto" izenez ezagutzen ziren baserrien berezko izenak zein diren aipatzen du. Garai batean, Txurruka kondearen mirabeak "Etxe Txiki"n egoten ziren.

401. Gerrako oroitzapenak (MUT-031/004)

Gerrako oroitzapenak. Soldaduen etorrera gogoratzen du. Soldaduek baserria tirokatu zuten.

402. Estraperloan (MUT-031/005)

Martzelina umea zela, estraperloan ibiltzen zen. Ondarroatik Mutrikurako bidea oinez egiten zuen.

403. "Etxe Txiki"tik San Migelera (MUT-031/006)

Eskola kontuak. "Etxe Txiki"ko eskolan ibili zen Martzelina. Maistra bere izeba zen, tia Pelipa. Euskaraz ikasten zuten. Ez zuten libururik. Gero, San Migelen ibili zen mojekin 10 urtera arte. San Migelgo maistrak: sor Guadalupe eta sor Felisa.

404. Galdona (MUT-031/007)

Martzelina umea zela Galdona nolakoa zen azaltzen du. Etxe berria egin zuteneko kontuak: zenbat kostatu zitzairen aipatzen du. 11 urterako behiak batzen ibiltzen zen.

405. Seminaristentzako ogia (MUT-031/008)

Martzelinaren amak ogia eramaten zien Saturrarango seminaristei, eta horrela diru pixkat ateratzen zuen. Artoa eta esnea ere ematen zien goizean, baina hura nahikoa ez eta seminaristak "protesta" egin zutela dio.

406. Saturrarango kartzela (MUT-031/010)

Saturrarango kartzelako kontuak. Kartzelan norbait hiltzen zen bakoitzean, "barranderuan" gurdian eramaten zituzten gorpuak Mutrikuko kanposantura. Saturrarango kartzelan egon ziren Mutrikuko emakume batzuk aipatzen ditu.

407. Bikote kontuak (MUT-031/012)

Senarra izango zenarekin harremanetan nola hasi zen kontatzen du. Garai hartan, Martzelinaren ahizpa ezkondu berria zen, eta lagun min bat Argentinara joana zen. Ez zuen kalera ateratzeko lagunik, eta oiloak eta untxiak hazteko afizia sortu zitzaion. Inguruko feria eta tabernetan saltzen zituzten oilaskoak, eta amak asko estimatzen zuen salmenta hartatik ateratzen zuten diruari. Martzelina Debako periatik bueltan zela, autobusean elkarren ondoan jarri ziren eta...

408. Ezkonbidaia (MUT-031/013)

Noiz ezkondu ziren. Ezkon bidaiko kontuak: Bilbo, Santander, Oviedo, Irun, Iruñea, Zaragoza eta Donostia... bisitatu zituzten.

409. Ilarrak (MUT-031/017)

Baratze kontuak. Azaroan, ilarra ("idarra") ereiten zuen Martzelinak. Zenbat kilo ateratzen zituen aldiko. Lincoln ilar mota ereiten zuen.

410. Plazako salmenta (MUT-031/018)

Plazako salmenta. Martzelinak genero asko eramaten zuen plazara. Bezero finkoak ere bazituen.

411. Plazako kontuak (MUT-031/021)

Esnea eta berdura eramaten zuen aurrena. Amaitzen zitzaizkionean, senarraren aitak berriz ere letxuga ekarriko ziola saltzeko. Beste baserritarrekin izandako gorabeherak asko saltzen zuelako...

412. Arrautzak ostu (MUT-031/022)

Oiloen salmenta, oparitu ere egiten omen zituen. Arrautzak ostu egiten zizkieten, eta gehiago ez osteko zer neurri hartu zituen kontatzen du.

413. Ametzanean, neskame (MUT-031/023)

Neska gaztea zela, Ametza Tabernan ibili zen lanean. Oilaskoak hil eta lumatzen zituen hasieran. Oilaskoa nola prestatzen zuten azaltzen du. Ametzanean eman zen lehenengo banketea gogoratzen du: noren ezkontza zen, eta zer jan zuten.

414. Fruta-arbolen inguruko azalpenak (MUT-031/026)

Galdonako fruta-arbolak. Eztitzea, mendua... norekin ikasi zituen. Hiru fruta klase ematen zituen zuhaitz bat omen zuen Martzelinak. "Brindoiak", sagarrak, melokotoiak, okaranak... zituen.

415. Etxeko sagardoa (MUT-031/028)

Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Dolarea. Sagardoa etxerako izaten zen, ez zuten saltzen. Galdonan bizi zenean, etxerako sagar nahikoa zutenean, saltzen zuten sagarra.

416. Laian egitea (MUT-031/029)

Laiak zertarako erabiltzen ziren deskribatzen du. Nabarra zer den. Lurra arearekin labratzen zen.

417. Astoak eta erditzea (MUT-031/030)

Astoa ume egiteko dagoenean, ez da ukitu behar. Bere kasara utzi behar izaten zaio.

418. Baratzeko lanak, urte sasoiaren arabera (MUT-031/031)

Baratzeko lanak zeintzuk ziren, urte sasoi bakoitzean. Azaroan hasten ziren ilarrarekin. Azaro erditik aurrera ereiten zen letxuga. Apirila bukaeran, tomatea. Maiatza hasieran ereiten da baina. Maiatza bukaeran, piperra.

419. Ikurrina aurrenekoz ikusi (MUT-031/038)

Ikurrinaren koloreekin jantzita zihoan herriko emakume bat etxera bidali zuteneko pasadizoa kontatzen du. 14 urte inguru zituela, lehenengoz ikusi zuen ikurrina parrokiako kanpandorrean. Pazko Egun bat zen. Gerora jakin zen ikurrin hura nork jarri zuen.

420. Soldaduak eta kainoiak Galdonan (MUT-031/039)

Gerra garaiko oroitzapenak. Soldaduen tiroketak. Martzelina umea zen, eta, Galdona inguruan pasioan zebilela, gizon bat hilda aurkitu zuen... Galdonan kainoiak non zeuden aipatzen du. Soldaduak Martzelinaren etxe ondoan egon ziren, eta haiekin joaten zen rantxoa hartzera.

421. Zazpi urtekin txibitara (MUT-032/003)

Lehenengo aldiz itsasora zazpi urte zituela joan zen; "aitari botina ostuta". Txibiak harrapatzera joaten zen Debako hondartzara. Garai hartan, Deban hotel asko zegoen "veraneante" asko izaten zelako, eta txipiroiak hotelean saltzen zituen; dirua hartuta arraunean bueltatzen zen etxera. Udaran, goiz eta arratsaldetan joaten zen txibitara. Eskolan aspertu egiten zen, eta amari gezurra esanda ez zen eskolara joaten.

422. Kofradiako eskola (MUT-032/004)

Eskolako kontuak. Ez zitzaion eskola gustatzen. Arrantzaleen kofradian zegoen eskolara joaten zen. Maisua Otxoa abizeneko donostirra bat zen; edan egiten omen zuen, eta, gero, eskolan mahai gainean lo hartzen zuen. Maisuak lo hartzen zuenean, tintontzira piza egiten omen zuten. Maisuak zigorrarekin eskuetan jotzen zituen.

423. Komunera joateko baimena eskatu... (MUT-032/005)

Eskolako kontuak. Maisuari komunera joateko baimena eskatu, eta komunera joandakoan ez omen ziren ikasgelara bueltatzen. Mendiara joan eta sagarrak osten zituzten.

424. Geografia gustuko (MUT-032/006)

Eskolako kontuak. Kofradiako eskolan mutilak bakarrik ibiltzen ziren, eta eskola erdaraz izaten zen. Jesusi geografia ikastea gustatzen zitzaion: diktaketak egitea, berriz, ez zuen gustuko.

425. Antxoatan (MUT-032/008)

Udaberria izan ohi da antxoa harrapatzeko garaia. Antxoa handia harrapatzeko itsasoko urak epel egon behar du (18 graduren bueltan).

426. Zimarroia (MUT-032/009)

Antxoaren ondoren, zimarroia garaia izaten da. Zimarroiaren eta atunaren arteko aldeak zein diren azaltzen du.

427. Hegaluzea (MUT-032/011)

Garaian garaiko arrantza. Zimarroiaren ondoren, hegaluzea harrapatzen da. Udazkenean "ez da egoten ezer"; horregatik, txibitan ibiltzen zen. Behin, 1,700 gramoko txipia harratu zuela kontatzen du.

428. Txitxarroa (MUT-032/012)

Txitxarroa kanaberarekin harrapatu ohi zuen, potinean.

429. Kabrak, haitz ondoan (MUT-032/013)

Non egoten ziren kabrak: itsasondoan, haitzak dauden tokian. Potina geldituta harrapatu ohi zituen Jesusek.

430. Txibitan (MUT-032/014)

Txipiroiei buruzko azalpenak: non egoten diren, nola harrapatzen diren, nola elikatzen diren... Potinean edo motor txikiarekin aritu izan da txibitan.

431. Soldadu italiarrak Mutrikun (MUT-032/016)

Gerra Zibila piztu zenean Jesusek 12 urte zituen. Erreketeak Mutrikun sartu zireneko oroitzapenak. Frontea Ondarroa gainean zegoen. Italiar asko hil omen zen gain hartan. Mutrikun 800 eta 1000 soldadu italiar artean egon omen ziren, frontean zeudenei erreleboa egiteko zain. Beheko Plazan, estalpean, egiten zuten lo. Frontera jatekoa Mutrikutik bidaltzen zen: Beheko Plazan brontzezko galdara handi batzuetan prestatzen zuten jatekoa. Mandoetan kargatuta bidaltzen zuten jatekoa frontera.

432. Soldadu italiarregana jan eske (MUT-032/017)

Gerra denborako oroitzapenak. Frontea Ondarroa aldean egon zen denboran, Mutrikuko Beheko Plazan 800 eta 1000 soldadu italiar artean egon ziren. Sasoi hartan, gose handia zegoenez, mutikoak soldaduengana jateko eske joaten omen ziren. Soldaduek ez zuten jatekorik falta izaten almazenean, eta "emataileak" zirela dio Jesusek. Ogitartekoak prestatzen zizkien.

433. Soldaduekin ikasi erretzen (MUT-032/018)

Gerra denborako oroitzapenak. Mutrikuko Beheko Plazan 800 eta 1000 soldadu italiar artean egon ziren. Herriko mutikoak zigarro eskean joaten ziren soldaduengana. Tabakoa errazionamenduan zegoen garai hartan, eta bakarren bat ematen zien. "Gizon plantak egiten" erretzen zuten zigarroa.

434. Gerrako fusilatuak (MUT-032/019)

Gerra denborako kontuak. Zazpi soldaduk, gauez, auzoko gizon bat eraman zutela gogoratzen du. Mutrikuko kanposantu atzeko paretaren kontra jarri eta fusilatu omen zuten gizona. Gizona nor zen aipatzen du. Soldaduak azpeitiarrak omen ziren, eta mehatxupean, behartuta, fusilatu omen zuten gizona. Herriko giroa gerra denboran nolakoa zen aipatzen du.

435. Bonbardaketa (MUT-032/020)

Komentuko kanpaiak jotzen zituzten bonbardaketa hasten zenean. Tunel azpi eta sotoetan gordetzen ziren. "Perratzaillianeko fabrikara" bonba bat sartu zen tximiatik, eta makina guztiak hondatu zituen. Zaldientzako ferrak egiten zituzten lantegian.

436. Gordelekura saltoka (MUT-032/022)

Bonbardaketak eta gordelekuak. Komentu aurreko tunelean babesten ziren. Sirena entzun orduko saltoka joaten ziren gordelekura denak. "Perratzaillianeko fabrikara" bonba bat sartu zen tximiatik.

437. Soldadutza, Cadizen (MUT-032/023)

Soldadutza marinan egin zuen. Lehen hiru hilabeteak Ferrolen (Galizia) egin zituen, eta, gero, Cadizen (Andaluzia) egon zen. Itsasoko Komandantzia Militarrean egon zen Cadizen. Hango gorabeherak eta eginkizunak aipatzen ditu. Zortzi marinero ziren, eta beraien eginkizuna bodega zaintzea zen. Itsasotik barkuek ekartzen zuten arraina zaintzen zuten: izan ere, "rateroak" ibiltzen ziren lapurretan. Arrain-salmenta 17:00etan izaten zen. Armadoreak arraina oparitzen zien "rateroekin" gogor aritzen zirelako: baioneta eta pistola soinean eramaten zituzten.

438. "Rateroak" (MUT-032/024)

Soldadutzako kontuak. Bodegan arraina zaintzen egoten zen Jesus. Baioneta eta pistola soinean eramaten zituzten. Behin, arrain-salmenta hasi eta berehala argi guztiak joan egin ziren. "Rateroak" ziren, arraina lapurretzeko argia kendu zutenak. Armadore asko euskaldunak ziren.

439. Arraina talegan gordeta... (MUT-032/025)

Soldadutzako kontuak. Armadoreak egunero Lau-bost kilo arrain ematen zien opari. Komandatziatik debekatuta zuten arrain hori hartzea, baina Jesusek eta bere kideek talegan gorde eta "ventan" baino merkeago saltzen zuten. Egunero, lau-bost duro irabazten zituzten arrainarekin. Non bazkaltzen zuen azaltzen du. Gustora egon zen Cadizen, eta dirua aurreztuta bueltatu zen etxera.

440. Franco, Mutrikun (MUT-032/026)

Franco Mutrikun egon zeneko oroitzapenak. Prozesioa parrokiara. Arraunekin pasilloa egin zioten.

441. Bajurako arrantza (MUT-032/028)

Arrantzaleek 8.000 kiloan jarri zuten kupoa, eta, gero, 6.000 kilora jaitsi zuten. Antxoa zenbatean saltzen zen aipatzen du. Garai hartzan, zortzi-hamar kontserba-lantegi zeuden herrian.

442. Gerra aurrean, 22 itsasontzi Mutrikun (MUT-032/030)

Gerra aurrean, 22 barku omen ziren Mutrikun. Gero, 17-15era jaitsi ziren.

443. Atunetara (MUT-032/031)

Atunetara joaten zirenean, 12 eta 17 egun artean pasatzen zuten itsasoan. 18 egunetik gora ez ziren egoten itsasoan, arrainak usaina hartzen zuen bestela.

444. Itsasontziko jatorduak (MUT-032/032)

Barkuko eginkizunak. Sukaldea nolakoa zen. Jatekoa non prestatzen zen. Jatorduak: zer, non eta nola jaten zuten. 15-16 gizon izaten ziren.

445. "Seiñeruen" diharra, itsasora joateko (MUT-032/035)

Neguan, goizeko ordu bietan ateratzen ziren bisigutara, lau orduko bidera. Bi "seiñero" zeuden Mutrikun. Haien eginkizuna: Atxukalera joan eta eguraldiari begiratzen zioten gauetan. Eguraldia ona bazen, itsasora ateratzeko deia egiten zien itsasgizonei. Kofradiak egunean pezeta bi ordaintzen zizkion "seiñero" bakoitzari.

446. "Seiñeru zantar demoniñua..." (MUT-032/036)

Lekeitioko "seiñeruen" kanta bat abesten du. "Seiñeru zantar demoniñua itsasorako...". Lekeition emakumeek egiten omen zuten itsasorako deia.

447. Kalbaixoko jaiak, meza eta "partidia" (MUT-032/037)

Madalena Eguna eta Kalbaixo Eguna. Festa horietan bezpera eta eguna jai izaten ziren marinellentzat, ez ziren itsasora ateratzen. Irailaren 14an, Kalbaixoko jaietan, barku bakoitzak bere meza izaten zuen ermitan. Barku bakoitzeko tripulazio guztia joaten zen Kalbaixora, eta txalupa-mutilak gailetak eta txakolina eramaten zituen otarra batean denentzat. "Partidia" egiten zen gero: diru banaketa nola egiten zen azaltzen du.

448. Lonjako eginkizunak, "lonjako aittona" eta txalupa-mutila (MUT-032/038)

Tripulazioan 16 gizon baziren, 15 itsasoan egoten ziren, eta marinelik zaharrena geratzen zen etxean lonjako eginkizuna egiten. "Lonjako aittona" esaten zioten. Txalupa-mutila ere etxean geratzen zen. Lonjako eginkizunak eta giroa: tretzak egitea, hamaiketakoa... "Seiñeruaren diharra" entzun eta gizonak itsasora irtetzen zirenean, emakume asko joaten zen lonjara tretzak egitera.

449. Aparejoak (MUT-033/002)

Aparejoak. Korainak, txibitarako. Kobliak, kabratarako. Tretzak, bisigutarako. Tretza bakoitzak 150 amu izaten zituen.

450. Bisigutara, 35 miliatara (MUT-033/004)

Bisigutara joaten 35 miliatara joaten ziren. Lau orduko bidea itsasontziz. Mutrikutik, Getariatik eta Hondarribitik 20 itsasontzi inguru joaten ziren bisigutara. Hainbeste itsasontzitako argiak piztuta ikustean, "ziudadea ematen zuen itsasoak"; dio Jesusek. "Bota sondia";

451. Brazak eta miliak (MUT-033/005)

Itsasoan distantziak neurtzeko brazak eta miliak erabiltzen dira.

452. Lexikoa: tretzak, "dominua"... (MUT-033/006)

Txopa, itsasontziaren atzeko aldea. Bisigutarako tretzak itsasontzia martxan zihoala botatzen ziren. "Tredotzalak". "Dominua", 50 tretza kabitzen zen otarra handi bat.

453. Itsasontziko eginkizunak (MUT-033/007)

Itsasontziko eginkizunak. Gaztea eta sasoi honekoa zenez, Jesus kordel batzen aritzen zen. Beste bat, aurrealdean, kainabera luze batekin "muxa" hartzen ibiltzen zen. Bisigu gehiena harrapatu zuten egunean, 100 arroa arrantzatu zituzten.

454. Bisigu- eta antxoa-otarrak (MUT-033/008)

Arrain mota bakoitzarentzako otarra mota bat erabiltzen zuten. Mutrikun egindako otarrak izaten ziren. Herrian bi "zestero" zeuden: bat Erdiko Kalen zegoen, eta, bestea, moilan. Bisigu-otarra bakoitzean, sei arroa kabitzen ziren. Antxoa-otarrak, berriz, lau arroakoak izan ziren.

455. Bisigutako "partida" (MUT-033/010)

Bisigutan ateratako diruaren "partida", hiru zatitan banatzen zen: armadorearena, marinela eta "trongua". "Trongua" izaten zen gastuak pagatzeko: tretzak, otarrak... pagatzeko. "Trongua" kostera guztiaren artean ordaintzen zen. Soldata kontuak.

456. Sare-konpontze lanak (MUT-033/012)

Sare-konpontzaile asko zeuden herrian; gehinak, emakume ezkonduak ziren. Eguraldi ona zenean, sareak moila gainean zabaltzen ziren lehertzeko; eguraldi txarrarekin, lonja azpian. Behin sareak lehortzen zirenean, konponketak egiten zituzten. Sareen neurriak. "Redera maistrak".

457. Arraina lehorrera (MUT-033/013)

Arraina nola deskargatzen zuten. "Milotarrak".

458. Herriko amugileak (MUT-033/015)

Herriko amugileak: Jesus Arrizabalaga 'Masillas', Juanito Apellu 'Barberua', Jose Luis 'Barberua'... Arrizabalaga arrantzalea zen. Beste biak, berriz, barberuak ziren eta barberian aritzen ziren amuak egiten bezerorik ez zuten tarteetan. Arrizabalagak zortzi orduan 1.000 amu egiten omen zituen eskuz. Amuak egiteko tresnak: "matrailua", lima eta tenazak. "Garranga": amuaren alde zorrotza, arraina ez askatzeko daukan punta.

459. 'Masillas' ezizenaren jatorria (MUT-033/016)

Jesus Arrizabalaga arrantzale eta amugileari 'Masillas' ezizena nondik zetorkion kontatzen du. Gerra aurretik bere enbarkazioak euskarazko izena zuen, eta, diktadura garaian, euskarazko izenak debekatzean, masa batekin topatu behar izan zuen ontziaren izena.

460. Langosta-otarrak (MUT-033/017)

Langosta harrapatzea. Langosta-otarrak nolakoak diren azaltzen du. Langosta-otarretan atun-buru frekoak jartzen zituzten, erakartzeko. Atxukaletik jendea langosteroei begirea egoten omen zen.

461. Itsasontziak bedeinkatzea (MUT-033/019)

Jesus 'Goizeko Izarra' itsasontzian ibili zen. Itsasontzi berriak bedeinkatzeko ohitura zegoen. Portutik kanpora ateratzen ziren ontzia bedeinkatzera.

462. Mutrikuko ontziolak (MUT-033/020)

Jesusek bi ontziola ezagutu ditu Mutrikun: Zezario Zumalabe eta Pedro Manuel Egaña. Zezario Zumalabe Jesusen amonaren anaia zen. Zumalabek egindako ontzi batzuen izenak aipatzen ditu.

463. 'Atxili' (MUT-033/022)

Herriko gizon ezaguna zen. 'Atxili'ren esaerak. Herriko gazteek 'Atxili'ri abesten ziotena: "Atxili kalbosu hori, kanalla gaiztua, don Bizentei zor dio patata zakua"... 'Atxili'k hiru-lau marinelekin "anis del mono" edan edo ez egindako apustua. Jesusek eta bere lagunek 'Atxili' etxera mozkotuta eta min hartuta gurdian etxera eraman zutenekoa.

464. Maritxu "ikastolakua" (MUT-034/003)

Herrian Maritxu "ikastolakua" bezala ezagutzen dute. Baserritik kalera jaitsi zirenean bizitzera, senarra Mutrikuko Udalean hasi zen lanean. Eskola berria egin zutenean, bertako atezain lana eskaini zioten senarrari eta hara joan ziren bizitzera. Hasieran eskola nazionala izan zen eta, gerora, ikastola. Berak sukaldean lan egiten zuen.

465. Alabak eskola nazionaletan (MUT-034/008)

Mariaren alabak eskola nazionaletan ibili ziren, Beheko Plazan. Fraideen eskola non zegoen. Ordurako neskak eta mutilak nahastuta ibiltzen ziren eskolan.

466. Kontzejupeko eskolak; doña Fernanda (MUT-034/009)

Maria zortzi urte ingururekin hasi zen eskolan, Kontzejupean, baina denbora gutxi egin zuen, jaunartzea egin arte bakarrik. Orduan bi jaunartzen egiten ziren, txikia eta handia. Doña Fernanda irakasle erdalduna. Bi eskola zeuden Kontzejupean, ezker-eskuma: bata neskena eta bestea mutilena. Zatiketak ikastera ez ei zen iritsi.

467. Bizimodu gogorra (MUT-034/011)

Eskola utzi eta gero baserrian lagundu behar izaten zuen. Aita hiru urtez ohean egon omen zen, gaixorik, eta gazterik hil zitzairen. Bi anaia zituen, baina anaia nagusiena gerran hil zuten 19 urterekin. Gurasoek umezurtz-etxetik ekarritako beste bi neska-mutil ere izan omen zituzten etxean, baina haiekin ere zorte txarra izan omen zuten. Ama gogorra zen, eta horri esker egin zuten aurrera.

468. Astoarekin herrira; esnea banatu eta enkarguak egin (MUT-034/014)

Neskatilatan baserrian egiten zituen lanak. Astoarekin plazara jaisten zen. Astoa non lotzen zuten. Esneak banatu eta saltzeko zerbeit bazuten plazan saltzen zuten. Gero dendan enkarguak egin eta etxera. Non erosten zituzten elikagaiak. Ingurua nolakoa zen. Baserria itzultitakoan ganaduaren inguruko lanak egin behar: jana prestatu, zaindu... Baserri txikia zen eurena, baina ganaduaz gain oiloak eta untxiak ere bazituzten.

469. Ehiztariantzat taberna (MUT-034/016)

Udaberrian uso-pasea egoten zenean, eibartar ugari etortzen ziren inguruetara eta mendian egon ostean euren etxera joaten ziren jatera. Sukaldean beheko sua zuten eta han epeldu eta lehortzen ziren ehiztariak. Etxea beti kartutxoaz eta eskopetaz beteta.

470. Gerraostean kaletarrak baserrira jatera; Eibarko grabatzaileari gertatua (MUT-034/018)

Gerraostean ez zegoen jateko askorik, baina baserrian beti egoten zen gehixeago: "indiarrek" (babarrunak), artoa, taloak... Kaleko jendea halakoak jatearren joaten zen eurenara. Eibarko grabatzaile bati gertatua: indabak gabardinako poltsikoan ezkutatu zituen, Deban trenean konfiskatu egiten zituztelako, baina hala ere harrapatu egin zuten. Gose garaia zen, baina eurak ondo moldatu ziren baserrian.

471. Eskekoak baserrira; errazionamendua (MUT-034/019)

Gerraostean etxeko generoarekin nahikoa izaten zuten eurentzat. Eskeko asko etortzen zitzaizkien baserrira. Errazionamenduan hartutako tabakoa Debako batzuei ematen zieten, umeak gosez izaten zituzten eta. Oliorik ez zuten izaten, errazionatuta zegoen eta. Askotan atun latako olioak erabiltzen zuten. Gogoan du Elgoibartik litroko olio botila ekarri izan zuela 100 pezeta ordainduta. Gose garaia izan zen askorentzat.

472. Morroia, aita bezala (MUT-034/020)

Baserrian morroia izan zuten urte askoan. Nafarra zen. Bronkioetako gaitza zuen eta bere herrian ez zelako ondo ibiltzen joan zen euren etxera. Beraientzat aita bezala izan omen zen, gauza asko erakutsi zuelako: gaztelania, eskolako kontuak, erlijio kontuak...

473. Gaztelania eskolan eta morroiarekin (MUT-034/021)

Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten, doña Fernanda irakaslea erdalduna zen eta. Otoitzak gerora ikasi dituela euskaraz dio Mariak. Etxean zuten morroi nafarrarekin ikasi zuten gero gaztelania gehiago. Mariaren anaiak eskola ikasteko berak baino gogo gehixeago omen zuen eta gau-eskolan ere ibili omen zen.

474. Arantzamendi baserrira ezkondu (MUT-034/023)

27 urterekin Arantzamendi baserrira ezkondu zen. Handik Ondarroarako joera zuten beti, eta ez ziren jaisten Mutrikura, udaletxera edo medikuarenera joateko ez bazen. Arantzamendi eurena baino baserri handiagoa zen, abere gehiagorekin. Jendea ere gehiago: gizonaren amona, haren anaia bat, gurasoak... Alaba zaharrena Mutrikura eskolara hasi zenean, bideak oso

txarrak ziren artean eta Larangan egoten zen. Bigarren alaba eskolara hasi zenerako herrira joan ziren bizitzera.

475. Senarraren anaiak Ameriketara artzain (MUT-034/024)

Arantzamendi baserrian nortzuk bizi ziren bera hara ezkondu zenean. Senarraren anaia bat Ameriketara joan zen. Senide gehiago ere bazituzten han. Anaia zaharragoak urte asko egin zituen han artzain. Gazteagoa hiru urterako joan zen eta itzulitakoan auzoko neska batekin ezkondu zen. Boisen (Idaho) egon omen ziren.

476. Arantzamenditik herrira bizitzera (MUT-034/027)

Oso bide txarra zuten Arantzamendi baserritik kalera. Alaba Mutrikura eskolara hasi zenean, astean behin jaisten zen eta gero Larangan pasatzen zuen astea. Bigarren alaba eskolara hasterako herrira jaitsi ziren bizitzera eta senarra Udalean hasi zen lanean. Hasieran ez zuten etxerik, eta bi urte Larangan pasa zituzten, anaiaren etxean. Gero, kontserba-lantegiaren gaineko etxean bizi izan ziren, Txirritxan, beste bi urtez. Penaz alde egin zuten handik.

477. Ezkontza Itziarren, beltzez jantzita (MUT-034/030)

Ezkondu aurretik konfesatu eta jauna hartu behar izaten zen, eta Erdiko kalean zeuden fraideekin konfesatu omen ziren eurak. Itziarren ezkondu zituen on Rafael abadeak. Itziarren ezkontzeko joera. Bi alaba nagusienak ere han ezkondu ziren. Bera eta koinata berdina jantzita ezkondu ziren, beltzez. Pasaiaiko senide jostun batzuek egin zizkieten soinekoak. Anai-arrebak batera ezkondu zirenez, senide asko bildu ziren. Debako Txurrerian egin zuten bazkaria.

478. Ezkon-bidaiairenen nondik norakoak (MUT-034/033)

Ezkon-bidaiaiko lehenengo gaua Zumarragan pasa zuten. Hurrengo egunean Arantzazura joan ziren. Handik Gasteizera. Handik bera eta senarra Bilbora joan ziren senarraren arrebarenera, eta anaia eta koinata Donostiara. Bilbon kantari famatu bat ikusi omen zuten. Zortzi egun egiten ziren normalean ezkon-bidaian. Bidaiaitik itzuli eta astebetera edo Lurdesera joan ziren Mutrikutik antolatutako bidaia batean. Baina harekin amaitu ziren euren bidaia, baserrian halakoak egiteko aukera gutxi zegoen eta.

479. Ezkongabetan bidaia inguruetara (MUT-034/034)

Ezkongabetan gutxi irten zela Mutrikutik dio. San Antonioetan Urkiolara, Santa Eufemiara Markinara... Eta senideak bisitatzen Donostia ingurura, senide asko zituzten eta.

480. Izeba moja bisitatzen (MUT-034/036)

Amaren ahizpa bat Burgosen zegoen moja komentu baten eta urtero joaten omen ziren anaia, koinata eta laurak. Beste bi senide ere moja egon ziren, bata Madrilen eta bestea Valladoliden. Hara ere joaten ziren bisitan. Izebetako batek don Santiago medikuarekin lan egiten omen zuen, operazio-gelan.

481. Larangatzikitik Debarako joera (MUT-034/039)

Gaztetan irteera gutxi egiten zituzten baserritik: Santa Eufemiara, Debara, Mutrikura Madalenetan... Ondarroarako joerarik ez zuten. Larangatzikitik Deba hurbil geratzen da eta Mutrikura baino gehiago jotzen zuten hara.

482. Soinekoarekin bainatzen ziren haitzetan (MUT-034/041)

Umetan Arben bainatzen ziren, Alkolea azpian. soinekoarekin eta kuleroekin. Bainujantzirik ez zuten izaten. Nondik jaisten ziren. Haitzetan bainatzen ziren. Igerian ez zuten inoiz ikasi. Inguruetako ume gehiago ere etortzen ziren. Jendea lapatan eta olagarroak batzen ere ibiltzen zen.

483. Harizko izararekin egindako soinekoa eta abarketak (MUT-034/042)

Arropa bera erabiltzen zuten uda eta negu. Gogoan du harizko izar zuriarekin egindako soinekoa izan zuela, jostunak egina. Amak dotore janzten zituela dio. Oinetakoak: abarketak eta zapatilak. Antsomendira joaten ziren erromeriara, abarketekin. Igandero egoten zen erromeria eta inguruetako gazteak elkartzen ziren. Taberna ere bazegoen.

484. Kalbarioko jaietan gonbidautza (MUT-034/043)

Inguruko festak: Mutrikun Madalenak eta Kalbarioak, Deban San Rokeak... Kalbariora joaten ziren jaietan. Festak nolakoak izaten ziren. Gonbidautza egiten zen eta urrutiko senideak ere etortzen ziren. Pasaian bizi zen osaba batek izugarrizko legatza ekartzen omen zien bezperan. Eta, gainera, zilarrezko txanpona ematen zieten propina moduan.

485. Teodora "Sanjuantxiki"ri laguntzen, eskolako sukaldean (MUT-034/047)

Eskola nazionaleko sukaldaria Teodora "Sanjuantxiki" zen. Hasieran bera bakarrik moldatzen zen, baina gero eta haur gehiago elkartzen zirenez bazkaltzeko, Maria ere bertan hasi zen lanean, hari laguntzen. Bazkaria egiteko butano batzuk eta lapiko txiki batzuk erabiltzen zituzten hasieran. Gerora, erakundeetatik bidali zieten ontziteria. Teodorak erabakitzen zuen menua. Hari lagundu, mahaia zerbitzatu eta ontziak garbitzea izaten zen bere lana.

486. Eskola nazionala behera eta ikastola gora (MUT-034/048)

Urte batzuen buruan ikastola eta eskola nazionala eraikin berean jarri ziren, bata alde batean eta bestea bestean. Eskola publikoan jendea gutxitzen joan zen eta azkenean denak ikastolara pasa ziren. Orduan 100 umetik gora egoten ziren jangelan bazkaltzeko. Hasieran Teodora eta biak konpontzen ziren, ordu gehiago sartuta, baina gerora emakume gehiago hasi ziren lanean.

487. 200 umeri bazkaria eman behar; sukaldean hobekuntzak (MUT-034/050)

Eskola nazionalan ez zegoen ume txikirik, baina gero ikastolakoak ere gora ekarri zituzten. Bi eskolak eraikin berean elkartu ziren sasoian 130-140 umek bazkaltzen zuten jangelan, baina 200 umerak ere iritsi omen ziren bera han lanean zebilen sasoian. Gerora, sukaldea berritu egin zieten eta ontziak garbitzeko makinak ere jarri zizkieten. Ontziteria guztia ere gobernutik jaso omen zuten. Sukalde berriaren inguruko azalpenak.

488. Ikastolako sukaldea; jatekoa (MUT-034/051)

Ikastolako sukalde berriaren inguruko azalpenak. Jatekoa bero mantentzeko armairua. Ze jateko prestatzen zuten. Lan handia izaten zuten.

489. Ikastolako jangelako langileak; Trini, ume txikien arduradun (MUT-034/052)

Ikastolako ume txikienak behean zeuden hasieran, baina gero gora etorri ziren haiek ere. Emakume gehiago hartu behar izan zituzten lanerako. Trini izan zuen umeen ardura. Teodora jubilatu zenean, haren alaba Inmaculada sartu omen zen.

490. Umeak ere jangelan laguntzen (MUT-034/058)

Umeei ura bakarrik ematen zieten edateko eta irakasleei ardoa eta kafea ere bai. Ikastolako jangelan sei ume izaten zituzten astero bertako emakumeei zerbitzatzen laguntzen. Haiei kas bana ematen zieten bazkariarekin, eskainitako laguntzagatik. Irakasleek kafea aparte ordaintzen zuten.

491. Aita arrantzalea (MUT-035/006)

Garbiñeren aita arrantzalea zen; patroia. Marinel etxe askotan bezala, bederatzi urterako aitaren dotea arrantzako otarra izan omen zen.

492. Amaren ezkontza arropa (MUT-035/007)

Amaren ezkontza arropa nork egin zuen eta nolakoa zen azaltzen du. Ama 21 urterekin ezkondu zen. Gurasoen ezkontzako argazki bati buruz hitz egiten du.

493. Eskolako oroitzapenak (MUT-035/009)

Udaletxe azpiko eskolan eta San Miguelen ibili zen eskolan. Eskolara sartzen zirenean besoa altxatu eta "¡Arriba España!" esan behar izaten zuten. Udaletxe azpiko eskolako maistra nafarra zen.

494. Maistra eta mojak (MUT-035/011)

Eskolan erdaraz hitz egin behar izaten zuten bai herri eskolan baita San Miguelen ere. Bateko maistreak eta besteko mojei buruz hitz egiten du.

495. Umetako jolasak (MUT-035/013)

Kaniketan, perlekin, sakaponetan, kromoetan... jolasten zuten. Sakaponak lixibatan sartzen zituen zuri-zuri gelditzeko. 'Tres navíos en el mar' jolasa.

496. Atxukalea (MUT-035/015)

Nobioaren Atxukalera joan ohi zen, eta Garbiñeren amari ez zion gustatzen. Antza, bere amaren garaian Atxukalean fama txarra zuen.

497. Moilan ezagutu (MUT-035/016)

Nobiotako kontuak. Garbiñek noilan ezagutu zuen Iñaki (gero bere senarra izango zena). Bainua hartzera joaten ziren hara; lehen ez zen jende asko joaten bainua hartzera. 14 urte zituela hasi ziren nobio moduan; gai hartan, Iñaki Lekarozen zegoen barneko ikasle moduan.

498. Kongregazioa eta baltseoa (MUT-035/018)

Nobio garaiko kontuak. Nobioarekin Atxukalera joaten zen. Kalbarioetan, Malenetan... baltseoa dantza egin ohi zuen Garbiñek. Hijas de María kongregazioko gorabeherak: baltseoa egiten zutenei ez zien uzten prozesioan zintarekin irteten uzten. Elizaren eraginaz hitz egiten du.

499. Euskaraz etxean eta lagunartean (MUT-035/019)

Eskolan erdaraz hitz egin behar izaten zuten. Lagunartean, euskaraz hitz egiten zuten, baina erdarak "kategoria" ematen zuenaren ustea omen zegoen. Etxean euskaraz hitz egiten zuten; erdaraz eginez gero, aitak errieta egiten zien.

500. Paga eta zinea (MUT-035/022)

Nobiotako kontuak. Bost pezetako paga edukitzen zuen Garbiñek, baina gorde egiten zuen. Dena senargaiak ordaintzen zion; hark 20 duroko paga zeukan. Ondarroara joaten ziren zinera: oinez joan eta 'La Esperanza' autobusean bueltatzen ziren.

501. Mutilari helduta? (MUT-035/024)

Nobiotako kontuak. Zinera astean hirutan joaten ziren. Kantera atzera joaten ziren paseatzera, eta besotik helduta ibiltzen ziren. Norbait gerturatuz gero, elkarrengandik urruntzen ziren.

502. Vermuta (MUT-035/025)

Herriko jai handietan neskak eta mutilak elkarrekin ateratzen ziren, eta tabernetan vermuta hartzen zuten.

503. Malena jaiak I (MUT-035/027)

Malenak jaiak nolako ziren kontatzen du: meza nagusia, 'Salvea', kalejira, kontzertua... Aurreneko danborra amaginarrebarekin eta semea besoetan zuela ikusi zuen. Dianako kantak.

504. Elizkizunak (MUT-035/028)

Meza edo bezperaren bat failatzea gaizki ikusia zegoen. Eliza jendez betetzen zen.

505. Kalbario jaiak (MUT-035/031)

Herri giroko festa izaten zen. San Piñastegi kalean korroan dantzan ibiltzen ziren. Beheko plazan jendea kantuan aritzen zen.

506. Beheko plaza (MUT-035/032)

Lehen Beheko plaza nolakoa zen azaltzen du. Zuhaitzak, exerlekuak, petrila, kioskoa... deskribatzen ditu.

507. Mendira lagunekin (MUT-035/035)

Lagunekin mendira joan ohi zen "Pazkua Txiki" egunean: Leizarren aldera, Arnopera... joaten ziren. Astoa trastez kargatuta eramaten zuten, eta mendian prestatzen zuten bazkaria.

508. Bainua (MUT-035/037)

Udaran joaten ziren bainatzera. Jendeak ez zuen ohiturarik hondartzara joateko; mentalitate kontua izan zitekeela dio. Danborretik salto egiten ibiltzen ziren.

509. Bainujantzia (MUT-035/038)

Ahizpa zaharrenak josten zizkion bainujantziak. Gaztetan nolako bainujantziak izan zituen kontatzen du.

510. Igeria (MUT-035/039)

Umetatik egin izan du igerian Garbiñek. Ahizpa zaharrenarekin joaten igeri egitera Intxirrira. Intxirria nolakoa zen kontatzen du.

511. Arropa eta jostuna (MUT-035/042)

Hiru ahizpak josten ikasi zuten, eta eguneroko arropa eta konponketak etxean egiten zituzten. Arropa jantziagoa (abrigoak, trajeak...) egiteko jostunarengana joaten ziren.

512. Ezkontzako soinekoa I (MUT-035/043)

Garbiñe zuriz ezkondu zen. Garai hartan ez zen oso ohikoa zuriz ezkontzea (bera baino lehenago ezkondu zen lagun bati ikusi eta gustatu egin zitzaion). Ezkontzako trajea nolakoa zen azaltzen du.

513. Ezkontzako soinekoa II (MUT-035/045)

Donostiako 'Sederias de Oriente' dendan erosi zuen ezkontzako soinekoa egiteko tela. Ezkontzako soinekoa nolakoa zen azaltzen du.

514. Ezkontzako bazkaria (MUT-035/046)

Ezkontzako bazkaria Margarinean egin zuten. Menua: oilaskoa eta legatza. Banketea 11.000 pezeta kostatu zen. 75 lagun bildu ziren bazkarian.

515. Eztei-bidea (MUT-035/048)

Gasteizera eta Madrilera joan ziren eztei-bidaian. Orduko kontuak kontatzen ditu.

516. Mutrikuko tabernak (MUT-035/052)

Garbiñeren gazte garaian Mutrikun zer taberna zeuden aipatzen du.

517. 'Buenos Aires' hotela (MUT-035/054)

'Buenos Aires' hotelari buruz hitz egiten du.

518. Abertzalea izateagatik (MUT-035/059)

Garbiñeren aita abertzalea zen, eta familia Mutrikutik Bilbora joan zen. Nazionalek Bilbo okupatu zutenean, Santarderrera joan ziren ihesi. Aitak itsasontzian Bilbon jaso eta Donibane Lohizunera eraman zuen familia. Zapateroneko familia ere eurekin zen. Iparraldetik bueltan, aita atxilotu eta kartzelara eraman zuten.

519. Euskal izenak galarazi (MUT-035/060)

Diktadura garaian, euskaraz hitz egitea eta pertsonen, tabernetan eta itsasontziei euskal izena edukitzea galarazi zen. 'Masillas' ontziaren izena 'Euskalerria' zen.

520. Zumalabeneko arotz-lantegia (MUT-035/064)

Lehen Zumalabenean arotz-lantegia zegoen; "carpintería de ribera". Kanoak, piranguak, raketak... egin eta konpontzen zituzten. Kirol denda ere bazen. Eraikinaren gainaldean erakusketa zegoen.

521. "Ia Mutrikuko baserri txikiena!" (MUT-037/003)

Baserriko bizimodua zuten. Baserri txikia zen terrenoz. Anguletan irabazten zuten dirua.

522. Gaztaina bilteta eta salmenta (MUT-037/004)

Basoan gaztaina biltzen zuten, eta Claudioren anaia bat Ondarrara joan ohi zen gaztaina saltzera. Gero, anaiak karameluak ekartzen omen zizkien Ondarroatik.

523. Angulatara (MUT-037/006)

Gazte denboran, angulatara joaten ziren igandetan. Aitak noiz etxeratzen ziren zaintzen omen zuen, eta behin baino gehigotan oinetako bustiarekin sartu omen zen Claudio ohera.

524. Angulatarako tresnak (MUT-037/007)

Angulak nola harrapatzen zituzten eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du Claudiok. Baheak nola erabiltzen zituen azaltzen du.

525. Tabakoa, angulak hiltzeko (MUT-037/008)

Angulak harrapatuta, etxean edukitzen zituzten aska edo "deposito"an. Gero, saltzeko garaia etortzen zenean, angulai tabako piska bat botatzen zieten hil zitezen. Ondoren, angulak egosi eta ondo lehortzen zituzten.

526. Eskolan denbora gutxi (MUT-037/010)

Astigarribiako eskolan ibili zen "ibili nintzen denbora gutxian". Eskola elizaren kontra zegoen. Baserriko lanetan lagun behar izaten zuen Claudiok; itulan ibili ohi zen.

527. Eskolako kontuak (MUT-037/012)

Neskak eta mutilak elkarrekin ikasten zuten. Beti maisuak izaten zituzten. Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten.

528. Urte askoan akolito izandakoa (MUT-037/014)

Umetan, urte askoan akolito ibilitakoa da Claudio. Gaiztakeria: elizako ardoak edaten omen zuen; gero, apaizak ez antzemateko ura botatzen omen zuen haren ordean.

529. Astigarribiako taberna (MUT-037/018)

Claudio umea zela Astigarribian bazen taberna bat Torrean.

530. Praileaitzeko kobak (MUT-037/019)

Praileaitzeko kobei buruz hitz egiten du. 13-14 urte zituela lagun taldearekin kobara sartu zeneko pasadizoa kontatzen du. Kobazuloa barrutik nolakoa den azaltzen du.

531. Boto eskean (MUT-037/025)

Lehen baserrietara joaten omen ziren boto eskean.

532. Primo de Rivera Ondarroan (MUT-037/026)

Primo de Rivero Ondarroan egon zela gogoratzen du. Claudio umea zen orduan, eta ume guztiak eskolatik atera omen ziren hura agurtzera.

533. II. Errepublikako kontuak (MUT-037/028)

II. Errepublikako kontuak. Mutrikun ba omen ziren bi pertsona mitinak ematen ibiltzen zirenak; Galarraga delako bat gogoratzen du.

534. Eibarrera lanera (MUT-037/031)

Deban aritu zen lanean, eta 13-14 urte zituela, berriz, Eibarrera joan zen lanera. Eibarko Etxabe, Arizmendi y Cía bizikleta lantegian aritu zen lanean. Anaiaaren bidez hasi zen lantegian lanean. Orbea, BH, G.A.C. bizikleta lantegiak ere aipatzen ditu.

535. Bizikletaz Eibarrera, lanera (MUT-037/033)

Eibarren hasi zen lanean Etxabe, Arizmendi y Cía bizikleta lantegian. Ordurako, Claudioren anaia bat Eibarren bizi zen, eta hasieran haren etxean geratzen zen. Gero, egunero bizikletaz joan-etorria egiten zuen Astigarribiatik Eibarrera.

536. Txirrindularia (MUT-037/034)

Txirrindularitza. Eibarren egiten zuen lana. Egunero bizikletaz joan-etorria egiten zuen Astigarribiatik Eibarrera. Nolako entrenamenduak egiten zituen: Elgoibartik Azkaratera, Azkaratetik Azkoitira, Azkotitik Azpeitira eta handik Zestoara. Zestoatik etxera bueltatzen zen. 44 kilometro egiten zituen. Txirrindularitza lasterketetan parte hartzen zuen Claudiok. Ez zen profesionaletara iritsi gerra etorri zelako.

537. Astigarribiako "apeaderoa" (MUT-037/035)

Lehen automobil gutxi zegoen. Astigarribian "apeaderoa" (trenaren geralekua) zegoen. "Langileen trena" esaten zitzaion.

538. Peoi lanetan (MUT-037/037)

Mutil kozkorra zela peoi lanetan ibili zen Astigarribiako tren geltokiko lanetan. Errekadista lanak egiten omen zituen. Egunean 3 pezeta irabazten zituen.

539. Errepublika garaiko prentsa (MUT-037/038)

Errepublika garaiko prentsa: La Voz de Guipúzcoa, Hierro, La Gaceta, El Diario Vasco...

540. Amuategi batailoia (MUT-037/040)

Gerra Zibileko kontuak. 20 urte zituela, Amuategi batailoian sartu zen. Eibarren lan egiten zuen garai hartan.

541. Libre gerraostean (MUT-037/041)

Gerra ondoreneko oroitzapenak. Claudiok denbora egin zuen preso. Libre geratu ostean, Mutrikura joan zen lehenengo aldiari buruz hitz egiten du.

542. Batailoiko gazteena (MUT-037/045)

Amuategi batailoian zeuden mutrikuarrei buruz hitz egiten du. Batailoiko gazteena zen Claudio. Frontera joan ziren zer zen jakin gabe. Argazkia ikus daiteke.

543. Intxorta (MUT-037/051)

Intxortako borrokari buruz hitz egiten du. Intxortatik Olaberri ondora jaitsi zen Claudio, bakar-bakarrik. Tenienteak munizio kaxa baten bila joateko agindua eman zion, eta kaxarekin bueltatu zenerako batailoiko kide guztiak ihes egindako zeuden.

544. Eibartik Gernikara (MUT-037/053)

Eibarren batailoiko soldaduak sakabanatuta, bata bestearengandik galduta, gelditu ziren. Gauzak horrela, nazionalengandik ihesi, Eibartik Gernikara abiatu zen Claudio. Gernikara bidean zihola bonbardatu zuten herria. Bidean topatu zuen emakume batekin izandako elkarriketa kontatzen du.

545. Gernikatik Bilbora (MUT-037/054)

Gernikatik Bilbora joan ziren. Bilboko Burdinazko gerrikoan sabotaia egon zela dio Claudiok.

546. Kartzelako egonaldia (MUT-037/055)

Bilbotik ere ihes egitea lortu zuen Clauriok, baina Santanderren harrapatu zuten. Santoñako 'El Dueso' kartzelan egon zen preso. Bilboko eskolapioetan eta Villarcayon ere bai. Preso egon zeneko oroitzapenak kontatzen ditu. Hiru urte egin zituen preso.

547. "Trabajadoretan" (MUT-037/056)

Hiru urte preso egin eta gero, "trabajadoretan" ere beste hiru egin zituen Claudiok. Canfrancen "trabajadoretan" ibili zireneko pasadizoak kontatzen ditu.

548. Mirandan hiru urte (MUT-037/061)

Gerra-kontseiluan epaitu eta soldadutzara bidali zuten. Mirandara bidali zuten: han zer lan egiten zituen aipatzen du. Hiru urte egin zituen han: denera zazpi urte egin zituen etxetik kanpora.

549. Mirandan, almazenean (MUT-037/063)

Gerra-kontseiluan epaitu eta Mirandara bidali zuten: han almazenean aritu zen lanean. Gustora egon zen: ez zitzaion jatekorik falta izaten.

550. Aita, errepublikanoa (MUT-038/002)

Inesen gurasoak mutrikuarrak ziren, baina Eibarren bizi ziren. Gerra etorri zenean, ordea, familiak handik alde egin zuen. Inesen aita errepublikanoa zen, eta Mutrikun itsasontzia hartu eta Donibane Lohitzunera ihes egin zuen. Han emaztearen ahizparen etxean egon zen, beste iheslari asko bezala. Inesen aita Landetan pinu lanetan aritu zen lau urtez harik eta etxera bueltatzeko zertifikatua lortu zuen arte.

551. Eibartik Mutrikura, gerratik ihesi (MUT-038/003)

Inesen gurasoak mutrikuarrak ziren, baina Eibarren bizi ziren. Gerra etorri zenean, aita Donibane Lohitzunera egin zuen ihes. Eta amak lau seme-alabak Mutrikuko Ziñua baserrian utzi zituen. Bi txikienak aitaren familiarekin Berastegira eraman zituzten. Ahizpa zaharragoa Ziñuan geratu zen, eta anaia zaharrena, berriz, Beliotegi baserrira eraman zuten. Anaia eta bera asto-otarran sartuta eraman zituzteneko oroitzapena.

552. Amarekin Eibarrera bueltatu (MUT-038/004)

Gerrako kontuak. Mutrikun egon eta gero, amarekin Eibarrera bueltatu zeneko oroitzapenak kontatzen ditu. Trena Maltzagara arte bakarrik joaten zen gerraren eraginez. Maltzagatik etxerako bidea oinez egin zuten. Eibar guztian 7 lagun zeudela dio: jendeak herritik alde egin zuen.

553. Eibarko Bar Loyola (MUT-038/005)

Gerrako kontuak. Trenak martxan jarri, eta jendea Eibarrera bueltatzen hasi zen. Jan eskasia. Bar Loyolan bazkaria debalde ematen zuten. Tabernan bandera espāñola zegoen, eta 'Cara al Sol' abestu behar zen jateko.

554. Errazionamenduko esnea (MUT-038/006)

Trenak martxan jarri, eta jendea Eibarrera bueltatzen hasi zen. Baserritarrek ere herritik kanpora joanak ziren ganaduarekin. Esnea errazionamenduan ematen hasi ziren. Bi lagunentzako, litro laurden esne. Ordubateko trenean iristen zen esnea. Ines joaten zen esnetara. Esnea ez galtzeko, egosten ipini eta bikarbonato pixkat bota.

555. Trenei begira (MUT-038/007)

Gerraosteko Eibarko oroitzapenak. Trenak martxan hasi zireneko azalpenak. Etxetik trenei begira egoten zen Ines. Lurrunezko tren-makinak kendu eta elektrikoak jarri zituzten.

556. "Parguloak" (MUT-038/008)

Bost urte inguru zituela hasi zen eskolan. Orduko oroitzapenak. "Parguloetan", Urkizuko eskolan, neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

557. Erlojua irakurtzen ikasi (MUT-038/009)

Doña Valeriaren eskolan denbora gutxi egin zuen. Gero, Señorita Rosariorekin ibili zen. Erlojua irakurtzen ikasi zuen Señorita Rosariorekin.

558. Goizetan eskolako berogailua piztera (MUT-038/010)

Eskolan hotza pasatzen zuten, eta gerogailu bat ekarri zien. Etxe ondoko aroztegitik egur zatiak hartu eta maistrari sua pizten lagundu zion. Maistrak

ikusi zuenean Inesek sua egiten bazekiela, eskolako giltzak eman zizkion goizetan berogailua piztera joateko.

559. Eskolan arrosarioa errezatu behar (MUT-038/011)

Eskola garaiko kontuak. Maiatzean, egunero arrosarioa errezatu behar izaten zuten. Maiatza pasatu eta gero, astean behin errezetzen zuten arrosarioa. Ines izaten zen arrosarioa eskuetan errezatzen zuena.

560. Komunio txikia eta handia (MUT-038/013)

Txontako azpi batean karmelitak egon ziren. Komunio txikia karmelitetan egin zuen. Komunio handia, parrokian.

561. Gerraosteko Eibar (MUT-038/015)

Herria txikituta gogoratzen du. Ez dauka gerra aurreko oroitzapenik. Parrokia ondoan aurrezki kutxa zegoen, eta aurrezki kutxan telefonoa. Igandetan, meza ondoren, Mutrikuko senideekin telefonoz hitz egiten zuten handik.

562. Etxeak txikituta (MUT-038/016)

Gerran, Kapitantxukua etxea zutik geratu zen. Etxe handia zen, eta ohe asko zituzten. Herriko etxe asko apurtuta geratu ziren. Eibarrera bueltatu eta etxegabe zeuden familia batzuk beraien etxean egon ziren etxeak berregin edo konpondu arte.

563. Goserik ez (MUT-038/017)

Gerraostean ez zuten goserik pasatu. Oiloetxea eta lur zati bat zeuzkaten. Jakiren bat falta izanez gero, baseritik bidaltzen zien behar zutena.

564. Etxepean lau ume hil tuberkulosiarekin (MUT-038/018)

Gerraostean, pixkanaka bizilagunak bueltatzen hasi ziren etxepera. Ume asko ziren etxepean: lau ume tuberkulosiak jota hil ziren. Jan faltak eta ahuldadeak eraginda gaixotzen ziren.

565. Sukaldea, komuna eta ura (MUT-038/019)

Egurrarekin egiten zuten sua. Komuna nolakoa zen. Etxeak iturri naturala zuen. Uda garaian, ur gutxi etortzen zen. Inesen aita urarentzako biltegi bat egin zuen faltan ez izateko. Bizilagunek ura eskatzen zien.

566. Gerra jolas (MUT-038/021)

Umetako kontuak. "Gerran" jolasten zuten. Barakaldo kaleko umeei harri botatzen ibiltzen ziren.

567. Eskolako kontuak (MUT-038/022)

Ez zitzaion "debereak" egitea gustatzen. Ikasgai guztiak liburu batean edukitzen zituzten: "Enciclopedia". Maistrak lezioa galdetzea. Arrosarioa errezatzea.

568. Ume garaiko jolasak (MUT-038/023)

Ume garaiko jolasak: sokasaltoan, "txingor-gainian", kaniketan, diabolarekin...

569. Santa Teresita kongregaziokoa (MUT-038/024)

Santa Teresita kongregazioakoa zen Ines. Misioen alde errezatzen zuten. Kongregazioako kontuak: Eibarren ez ziren Mutrikun adina zorrotzak. Mutilekin dantza egitea libre zen.

570. 11 urterekin, Ziñuara (MUT-038/026)

11 urterekin Eibartik Mutrikuko Ziñua baserrira bidali zuen amak. Ziñuara bizitzera joatea Inesentzat "unibertsitatea" izan zen. Baserriko kontuak ikasi zituen.

571. Ardizain (MUT-038/027)

11 urterekin, Eibartik Mutrikuko Ziñua baserrira bidali zuen amak. Ziñuan bizi zela ardizain ibiltzen zen. 65-70 ardi artean zaintzen zituen. Ahariak noiz botatzen zituzten kontatzen du.

572. "Letxeria", arrautzak kontserbatzeko (MUT-038/028)

Baserriko zereginak ondo ikasi zituen Ziñuan egon zen denboran. Arrautza asko zegoen garaian, arrautzak nola kontserbatzen zituzten azaltzen du. Lurrezko ontzi bat "letxeriakin" (kare hautsez egindako masa) betetzen zuten, eta arrautzak karetan sartzen zituzten.

573. Jatorduak eta jakiak (MUT-038/030)

Baserriko bizimoduari buruzko azalpenak ematen ditu. Noiz jaikitzen ziren eta zer jaten zuten. Bakoitzak bere plateretik jaten zuen, eta haragia erdira ateratzen zen. Tomatea eta piperra poteetan erosten zuten.

574. Piper poteak, txatar-biltzailearentzat (MUT-038/031)

Tomatea eta piperra poteetan erosten zuten. Gero, poteak gorde egiten zituzten. Txatar-biltzailea etortzen zenean, ari saltzen zizkioten.

575. Gatzatua eta gazta (MUT-038/032)

Baserrian zer eginkizun zituen: ardiak zaindu, itulan, artajorran... Ardien zaintzari buruzko kontuak. Ardi-esnearekin gatzatua egiten zuten. Esne asko zen garaian, Inesen izebak gaztak egiten zituen.

576. Ardiak mendian (MUT-038/033)

Artzaintzari buruzko azalpenak. Ardiak mendian ibiltzen ziren solte. Zelaietan uzta lantzen zuten.

577. Ardien erditzeak (MUT-038/034)

Artzaintzari buruzko azalpenak. Ardiak menditik etxera eraman eta batzeaz arduratzen zen Ines. Osabak irakatsi zion bildotsak zelan jaio behar ziren. Ardiei erditzen laguntzen ibilia da.

578. Arto-zuritzailleak eta arto-malutak (MUT-038/037)

Baserriko bizimoduari buruzko azalpenak. Gaueko lanak: indabak ("indiarrek") eta artoa aletzea. Kaletik andre kuadrilla joaten zen Ziñuara arto-zuritzera. Arto-malutak gordetzen zituzten atunetan karnata moduan erabiltzeko.

579. 'Aritza' harri-jasotzailea, osaba (MUT-038/038)

Pedro Mari Txurruka 'Aritza' harri-jasotzailea Inesen osaba zen. Ines jaiotzerako osabak utzia zuen harri-jasotzea. 1925ean osabak Arteondorekin Eibarren egindako apustua aipatzen du. Lehen, harri-jasotzaileak Ziñuara joaten ziren osabaren harriak ikustera.

580. Berastegiko amona (MUT-038/039)

Ziñua baserrian bi ekonomika zeuden. Berastegin, berriz, beheko sua ere bazuten. Berastegiko amonak sorgin kontuak kontatzen zituen; sorginetan sinesten zuen. Amonak ez zuen nahi izaten ekonomikan prestatutako janaririk: "ikusten ez den sua sorginkeria da!" esaten omen zuen.

581. Ama "plantxadora" eta neskame (MUT-038/043)

Gerra denborako kontuak. Inesen ama "plantxadora" (lisatzailea) zen: Eibarko Hotel Comerciorako arropak garbitu eta lisatzen zituen etxean. Gero, militar baten etxean neskame egon zen Bergaran. Domeketan bueltatzen zen ama etxera. Denbora horretan, Ines bizilagun baten etxean egon zen.

582. Ama, Orbean hasi (MUT-038/044)

Inesen ama militar baten etxean neskame zegoen Bergaran. Amak militarrari eskatu zion gutun bat idazteko Eibarko Orbea lantegian lanerako har zezaten. Gerrako metraila egiten zuten Orbean. Jaurtigailuak ("proyektilak") hori-gorritz margotzea zen Inesen amaren egitekoa.

583. Orbean lanean hasi (MUT-038/045)

Inesen amak Orbea lantegian egiten zuen lan. Ines eta ahizpa ere bertan hasi ziren lanean gero. Bizikleta-fabrikari buruzko kontuak. Egunean 200 bizikleta egiten zituzten: egin ahala saltzen omen zen.

584. Riojano (MUT-038/047)

Riojano esaten zioten Orbeako langile baten familiari buruzko kontuak. Familia ugaria zen, eta txabola batean bizi ziren. Diktadura garaian, Ipuruako etxeak egin eta Riojanori etxe bat eman zioten. Orbea lantegiko lankideen esanak. Riojanoren seme-alabek beheko bizilagunari esne-tela osten zioten.

585. Ama, "gorrien" sukaldari (MUT-039/003)

Gerra denboran, Inesen ama Eibarren geratu zen. Ama Hotel Comercioko arropak garbitu eta plantxatzen aritzen zen. Soldadu "gorrien" sukaldari lanean ere ibili zen. Bi soldadu laguntzaile jarri zizkieten. Arrate bailarako baserriak hutsik geratu zirela dio: baserritarrak ganaduekin gerratik ihesi joan ziren. Amaren oiloei jana emateko, soldaduak Arrate aldeko soroetara arto bila joan zirela kontatzen du.

586. Pazko Eguneako meza, gerra denboran (MUT-039/004)

Gerra denborako Eibarko kontuak. Inesen ama soldadu "gorrien" sukaldari lanetan ibili zen. Bi soldadu laguntzaile jarri zizkieten. Pazko Egunean Orbeaneko kaperan meza izan zuten. Kaperari buruzko azalpenak. Meza eman zutenak, amaren soldadu laguntzaileak; biak abadeak ziren.

587. Amak Eibartik alde egin (MUT-039/006)

Soldaduak Eibarren sartu zirenean, Inesen amak alde egin zuen herritik. Ermuan, Hambretik gorako baserri batean pasatu zituen pare bat egun.

588. Amak soldaduekin argazkia atera (MUT-039/008)

Gerrako kontuak. Inesen amak Eibarren bizitakoak. Ama soldadu "gorrien" sukaldari lanetan ibili zen. Soldaduekin argazki bat atera zuen. Argazkia kuartelera eta udalera iritsi zen. Argazkia zela eta, hamabostean behin kuartelean aurkeztu behar izaten zuen amak. Kuarteleko gorabeherak. Udalean argazkia jaso zuena beren etxejabea zen, eta argazkia apurtu egin zuen.

589. Untzueta dorretxea I: "gorriak" eta mojak (MUT-039/009)

Eibarko Untzueta dorretxeari buruzko azalpenak ematen ditu. Gerra denboran, soldadu "gorriak" bertan egon ziren. Gero, mojak egon ziren: gerraren ondorioz kalean apurtu edo erretako komenturen bat konpondu bitartean. Domeketan, hara joaten ziren arrosarioa errezatzera. Mojek elizetarako hostiak egiten zituzten: soberakinak Inesi ematen zizkioten jateko.

590. Untzueta dorretxea II: Langileen Batailoak (MUT-039/010)

Eibarko Untzueta dorretxeari buruzko azalpenak ematen ditu. Soldadu "gorriak" eta moja batzuk bertan egon ostean, dorretxean Langileen Batailoak egon ziren. Presoek Eibarren zer lan egin zituzten aipatzen du. Gabonetan libre geratutako presoak etxean hartu ohi zituzten.

591. Malenetan, Mutrikura (MUT-039/016)

Eibarren bizi zela, Malenetan Mutrikura joaten zen senide batzuen etxera. Eibarko lagun batek ere senideak zituen Mutrikun, eta biak joaten ziren jaietara. Horrela hasi zen bere senarra izango zenarekin hartu emanetan.

592. Kaiko hegazti granja (MUT-039/018)

Kaiko etxera bizitzera joan zireneko kontuak. Etxeko zereginak eta soroko lanak egiten zituen Inesek. Hegazti granja ere bazuten. Granjako lanak. 700 hegazti eduki zituzten. Arrautzak eta oilaskoak saltzen zituen Ondarroako plazan.

593. Ondarroako Beheko plazara, saltzera (MUT-039/020)

Ondarruko Beheko plazara joaten zen baserriko jeneroa saltzera. Azokako kontuak: gela txiki bat zuten pisua eta saldu gabe geratutako jeneroa gordetzeko.

594. Kai dantzalekua (MUT-039/021)

Hegazti granja kendu eta "sala de fiestas" jarri zuten Kain. Venecia diskoteka zabaldu zutenean, ordea, Kai itxi egin behar izan zuten.

595. Kai jatetxea ireki (MUT-039/022)

Kai "sala de fiestas" itxi eta jatetxea ireki zuten. Jatetxea ireki aurreko buruhaustek.

596. Kai jatetxeko banketeak (MUT-039/023)

Kai jatetxean ezkontzetako banketeak ematen hasi ziren. Ezkontzetan zer jaten zen aipatzen du.

597. Ezkontzako banketea (MUT-039/024)

Bere ezkontzako menua aipatzen du: fritoak, baserriko oilaskoa eta legatza saltsan. Eibarko Bar Loyolan egin zuten banketea. Xapaina estreneko, bere ezkontzako banketea edan zuen. Soinu-jotzailea, Angiozarko itsua.

598. Eztei-bidaia (MUT-039/026)

Trenez joan ziren Donostiara. Trenean inguruko beste bikote batekin elkartu eta Donostian elkarrekin ibili ziren. Hurrengo egunean, Ines eta senarra Bartzelonara joan ziren. Bueltan, Zaragoza bisitatu zuten.

599. Ardi-lanak (MUT-039/030)

Ardi zaintzari buruzko azalpenak. Gaua egin aurretik joaten zen ardien bila. Ilunduz gero, hurrean zegoen ardi-txabolan sartzen zituen ardiak. Farola hartuta ibiltzen zen. Udan, ardiak libre ibiltzen ziren.

600. Mutrikutik Arratera oinez (MUT-039/031)

14 urterekin, Mutrikutik Arratera oinez joan zen lagunekin. Ziñua baserritik abiatuta zer bide egin zuten kontatzen du.

601. Fruta saltzera (MUT-039/038)

Baserrian bizi zeneko kontuak. Fruitu garaian, astoarekin jaisten ziren kalera. Arkumeak hiltegira eramateko ere astoan jaisten zituzten. Ines plazan egoten zen fruta saltzen; izeba esnea banatzera joaten zen etxetik. Ez zuten marinelekin trukerik egiteko ohiturarik. Marinelen etorreretan eta itsasora joan aurretik, benta ona.

602. Mendi garbitzen, irin truke (MUT-040/003)

Bederatzi senide ziren. Zeregin asko etxean. Jose Luis mendi garbitzen ibiltzen zen. Auzoko Isasi errotakoen lurak garbitzen zituen, eta trukean 30-40 kilo irin jasotzen zuen.

603. Errotaberri (MUT-040/007)

Lehengo Errotaberri baserriari buruzko azalpenak. Lau logelako baserria zen. Korta baserri barruan zegoen. Baserrian lana amaigabea zela dio Jose Luisek.

604. Mutikotan, ganadu-zain (MUT-040/008)

Zazpi-zortzi urte inguru zituela, lau-bost behi hartu eta mendira joaten zen ganadu-zain.

605. San Juan Egunean, eguzkia dantzan (MUT-040/009)

Mutikotan ganadu-zain ibiltzen zeneko pasadizoa. Aitonari entzuna zion San Juan Egunean eguzkiak dantza egiten zuela. Gauzak horrela, joan zen behiekin mendira eta jarri zen eguzkiari begira...

606. Garo-ebatea (MUT-040/011)

Garoa ebakitzeko sasoia zein den. Korostegiko sailetara joaten ziren garo lanetara. 9-10 gurdikada garo ebakitzen zituzten. Auzokoen artean, garoa kargatu eta baserrira ekartzen zuten. Gero, garo-metak egiten zituzten.

607. Garoa, simaurretarako (MUT-040/012)

Garoa erabiltzen zuten simaurra egiteko. Simaurra eta ganaduaren pixa erabiltzen ziren lurra ongarritzeko.

608. Beheko plazara, saltzera (MUT-040/013)

Ortuko generoa (aza, porrua...) eta esnea saltzen zuten Mutrikun. Astoarekin joaten ziren Beheko plazara. Esne-bezeroak zituzten.

609. Deskarga lanetan, Ondarroako portuan (MUT-040/015)

Baserriko lanak egin, gosaldu eta zortzietarako Ondarroako portura joaten zen Jose Luisen aita. Ondarroako portuan pontoi-ontzi bat egoten zen, eta ikatz biltegi edo almazen moduan erabiltzen zen. Jose Luisen aita deskarga lanetan ibiltzen zen portuan. 16 urte ingururekin, Jose Luis ere deskarga lanetan hasi zen aitarekin.

610. Futbolean, kaminoan (MUT-040/017)

Errotaberriko etxe aurrean, kaminoan, futbolean ibiltzen ziren. Lehen ez zegoen trafikorik. Harriekin markatzen zituzten porteriak. Neska eta mutil kuadrilla ibiltzen ziren futbolean. Haserreak.

611. Antxoko San Fermin jaietara (MUT-040/018)

Pasai Antxon eta Pasai San Pedron senideak zituzten. 18 urte ingururekin, Antxoko San Fermin jaietara nola joan zen kontatzen du. Ordura arte, inguruko herrietatik ateragabea zen Jose Luis.

612. Aroztegia eta Burgoaren gutuna (MUT-040/019)

Soldadutzara joan aurretik, urte eta erdian Ondarroako aroztegi batean ibili zen lanean. Manolo Leon zen aroztegiko nagusia. Jose Luisi lagundu asmoz, Kontxita Burgoa aroztegiko bezeroak gomendiozko gutun bat idatzi zion komandante bati emateko.

613. "Sanidad nº 6"era destinatu (MUT-040/020)

Soldadutzako kontuak. Donostiara joan eta destinoa eman zioten: "Sanidad nº 6". Berak ez zekien horrek zer esan nahi zuen. Gero, Kontxita Burgoak idatzitako gomendiozko gutuna eman zion komandanteari. Komandanteak esan zion destino ona tokatu zitzaioela, eta, ondo portatuz gero, ahaleginak egingo zituela Jose Luis Donostiara gerturatzeko.

614. Burgostik Donostiara bidali (MUT-040/021)

Soldadutzako kontuak. "Sanidad nº 6" destinoa Burgosen zegoen. 32 laguneko taldea zen. Banderaren zina. Gero, taldeko bederatzi soldadu Donostiako ospitale militarra bidali zituzten. Donostian, Zirugian egon zen. 14 hilabete kirofanoan egin zituen.

615. Kirofanoko eginkizunak (MUT-040/022)

Soldadutzako kontuak. Donostian, ospitale militarreko zirugian egon zen. Jose Luisen eginkizunak: tresnak esterilizatzea eta jasotzea, kirofanoa garbitzea eta janzea... Astean bi-hiru egunetan egiten zituzten ebakuntzak.

616. Ebakuntzak ikusten (MUT-040/023)

Soldadutzako kontuak. Nahi izanez gero, soldaduek aukera zuten ebakuntza arinak kirofanoan bertan ikusteko. Mantal zuria eta maskarila jantzita egoten zen Jose Luis ebakuntzak ikusten.

617. Injekzioak jartzen (MUT-040/024)

Soldadutza osasungintza destinatuta egoteak zertara balio izan dion aipatzen du. Soldadutzatik bueltatu ondoren, bailara guztian ibili zen injekzioak jartzen. Injekzioak jartzeari buruzko azalpena. Xiringak esterilizatzea.

618. Soldadutzako harremanak (MUT-040/025)

Soldadutzako kontuak. Lizentziatu zirenean, soldadutzako lagunek argazkia atera zuten mantal zuria jantzita zutela Donostiako alde zaharreko Santa Maria elizaren aurrean. Medikuek tenientea, aita bezala. Zesareak.

619. Ospitale militarretik berbenara joan (MUT-040/026)

Soldadutzako kontuak. Soldadutzako lagunei buruzko azalpenak: gehienak kapitalekoak, "papaitos" eta karreradunak. Uda partean, iluntzetan, ia egunero egoten ziren berbenak Donostian. Gauez ez zuten guardiarik edukitzen. Ospitale militarrean zazpi moja zeuden. Behinola, moja bati berbenara joateko baimena eskatu zioten. Dantzan ari zirela, altabozetatik abisua eman zien ospitale militarreara joateko.

620. Soldadutzatik lizentziazteko penaz (MUT-040/027)

Soldadutzako kontuak. Soldadu denborako oroitza penak dituzte. Goizetan, lanean aritzen ziren, eta, larrialdirik ez bazen, arratsaldetan hondartzara joaten ziren. Iluntzean, berbenara.

621. Etxera bisita, Realak eta guardiak (MUT-040/028)

Soldadutzako kontuak. Hamabostean behin etxera joaten zen. Soldadu egon zen denboran, Realak etxean jokatu zituen partidua guztiak ikusi zituen. Soldadutzako lagun bati guardiak egin, eta hark bost duro ematen zizkion.

622. Fimosi ebakuntza (MUT-040/031)

Soldadutza garaiko kontuak. Hiru sanitario zeuden galgatxo ("frenillo") eta fimosi ebakuntza egiteko, tartean Jose Luis. Damaso medikuak egin zien ebakuntza hirurei. Aurreko bi ebakuntzetan laguntzen egon zen Jose Luis; gero, bere operatu zuen.

623. Kontsulta pasatzen (MUT-040/033)

Soldadutza garaiko kontuak. Ospitale militarreko egunerokoa nola izaten zen. Tenientea etorri baino lehenago pasatzen omen zuen kontsulta Jose Luisek. Medikuek eskumena ematen zien zaurien sendatze eta injekzio kontuetan.

624. Alfa lanean hasi (MUT-040/035)

1956ko uztailean soldadutzatik lizentziatu, eta lau hilabetera Eibarko Alfa lantegian hasi zen lanean. Kubiloteak konpontzen egiten zuen lana. 35 urte egin zituen lantegi horretan.

625. Lambretta erosi (MUT-040/036)

Eibarko Alfa lantegian lanean hasi zeneko kontuak. Hasieran, apopilo egon zen Eibarren. Lanean hasi eta bi urte ingurura, ordea, Lambretta motor bat erosi zuen eta etxera bueltatzen hasi zen. 19.000 pezeta kostatu zitzaion motorra.

626. Nobio garaia eta ezkontza (MUT-040/037)

Bere emaztea izango zenarekin noiz hasi zen nobiotan. Hiru urte nobiotan pasatu eta gero, ezkondu egin ziren. Ezkontzako banketea Debako Montreal jatetxean izan zen. Zer jan zuten aipatzen du.

627. Eztei-bidaia (MUT-040/038)

Bilbotik Madrilera hegazkinez joan ziren. Gero, Madrildik Zaragozara. Zaragozan emaztearen aldeko familia zuten. Zaragozatik Donostiara itzuli ziren.

628. Gidabaimena eta automobila (MUT-040/039)

Alfa lanera sartu aurretik, kotxeko gidabaimena ateratzeko prestatzera joaten zen goizetan. Lehenengo automobila, bi zaldiko Citroena.

629. Auzoko errotak (MUT-040/042)

Isasi goikoa errotan, arto- eta gari-irina egiten zituzten. Errotaberri Behekoan, ostera, artoa ehotzen zuten. "Lakia": irinaren hainbesteko bat errotariari eman behar izaten zitzaien lanaren ordain moduan (anegako hiru kilo). Anega: 45 kilo. Estraperloa.

630. Telebista eta irratia (MUT-040/043)

Errotaberrin nahiko goiz jarri zuten telebista. Ameriketara pilotari ibilitako senide batek eraman zien telebista. Telefonen irratia.

631. Katu kalean jaioa (MUT-042/002)

Katu kalean jaio zen. 1966an Aranzubiko taberna gainera joan ziren bizitzera, Goiko Plazara. Katu kalea ezaguna zen eta bertan bizi zirenek harreman oso ona zuten.

632. Katu kalean bizi ziren gehienak marinelak (MUT-042/004)

Katu kalean otarrainetarako otarreak egiten zituen familia batek. Bertan bizi ziren gehienak marinelak ziren. "Kiloxenekoak" ei ziren lehorrekoak, taberna eta denda zituztelako. Itsasoak behera egin zuenean, gazteagoak "lihorreratzen" hasi omen ziren. Mutrikun itsasontzi gehien ezagutu zuen garaian 21 ontzi zeuden. Gaur egun bakarra geratzen omen da. Ondarroan ere antzera.

633. Txalupa-mutilaren lanak (MUT-042/005)

Mutikoak 12-13 urterekin txalupa-mutil moduan hasten ziren lanean. Txalupa-mutilaren lanak. Bere ontziko marinela guztiei itsasorako abisua pasatzera joaten zen txalupa-mutila, etxetik etxe. Joxe Mariren aita marinela zen eta hari ere etortzen zitzaion abisua. Batez ere bisigu sasoiaren izaten zen hori, neguan.

634. Lehorrekoak ontzi bakoitzaren bisigu otarre kopurua kontatzeko zain (MUT-042/007)

Bisigutako arrantza. Marinela goizean goiz joaten ziren arrantzara. Lehorrekoak zain egoten ziren barku bakoitzak zenbat bisigu otarre ateratzen zituen kontatzeko. Lantegietan orduan goiz eta arratsalde lan egiten zen, ez zegoen erreleborik.

635. Gerraosteko eza; ama zaku-fabrika lanean (MUT-042/009)

Gerraostean eza ezagutu zuten. Amak zaku-fabrika lan egiten zuen. Ordu pila bat lan eginda etxera etorri eta umeei tomatea ematen omen zien koilaratxoan, besterik ez zutelako. Behin amari amonarekin gertatutako pasadizoa.

636. Azokara saltzera etortzen ziren baserritarrei txokolatea lapurtzen (MUT-042/010)

Gosea pasa zuten arren, gazte-denborako oroitzapen onak ditu. Okerrak omen ziren; lapurretan ibiltzen ziren asko. Orain pentsatzen jarrita, penarik handiena azokara saltzera etortzen ziren baserritarrei txokolatea lapurtu izanak ematen omen dio.

637. Denbora luzez eskolatik "ihestuta"; guraize-fabrika (MUT-042/011)

Gutxi joan zen eskolara, ez zitzaion gustatzen eta. Eskolarako poltsa atarian ezkutatu eta "ihestu" egiten omen zuen. Beheko Plazara joaten zen eskolara. Don Mariano maisua. 12 urte zituen guraize lantegitik lanerako deitu ziotenean eta poz handia hartu zuen. Lantegia non zegoen.

638. Eskolatik piper egin eta aspertuta (MUT-042/013)

Eskolatik piper egiten zuenean, batzuetan enborrei gaineko azala kentzen laguntzen zion beste bati. Baina askotan aspertu ere egiten zen, etxera bueltatzeko ordua iristeko zain.

639. Beheko Plazan txistua igandero; ingurua nolakoa zen (MUT-042/015)

Beheko Plaza zen lekuan hilerria omen zegoen lehenago eta gogoan du hezur ugari atera zituztela merkatu plaza egiteko obra hasi zutenean. Beheko Plaza ingurua nolakoa zen lehenago. Kioskua zegoen eta igandero txistua eta dantza egoten zen.

640. "Kateka" jolasa gustukoaren (MUT-042/016)

Umetako jolasak. Berari "kateka" gustatzen zitzaion gehien. Jolasaren inguruko azalpenak.

641. Umetako jolasak; "andua lehelengua" (MUT-042/018)

Umetako jolasak. "Andua lehelengua" jolasaren inguruko azalpenak. "Batian", tronpatan, kanikatan... Antxoa sartzen zenean, denak "eskabetxera" lanera eta akabo jolasak.

642. Sei urterekin antxoei burua kentzera (MUT-042/019)

Sei urterekin hasi zen lanean, antxoei burua kentzen. Mahaira iristeko, hiru harri jartzen zizkioten oin azpian. Hazi ahala, harriak gutxitzen joan ziren.

643. Partila egiten zenean ordaintzen ziren dendetako zorrak (MUT-042/021)

Garai batean gutxik zuten dirua eta dendan "palo-palo" egiten omen zuten: zenbatekoa apuntatu eta hurrengoan ordaintzeko utzi. Gero, partila egiten zenean ordaintzen omen ziren zorrak. Kiloxeneko denda. Ikatza ere erosi egiten zen.

644. Guraize fabrika batetik bestera 14 urterekin (MUT-042/023)

12 urterekin guraize-fabrika hasi zen lanean. Debako Azpiri anaiak ziren nagusiak. Samikollan zegoen beste guraize-fabrikako nagusiak, berriz, Imanol "Piker" eta Juanito Egurbide ziren. Lantegi horretako 14 lagun Argentinara joan ziren eta, jendea behar zutenez, hara pasa zen, 14 urterekin. 50 urte egin zituen bertan. Fama handia zuen guraize-fabrikak. Gerora, alemaniarrek hartu zuten eta guraizeez gain, produktu gehiago ere egiten zituzten.

645. Dantza-taldearen hasiera (MUT-042/027)

Mutrikun bazegoen dantza soltean zekien jendea, baina ez zegoen dantza-talderik. Debarrekin elkartuta, taldea sortu zuten. Dantza-taldearen hasiera.

646. Dantza-taldearen entseguak eta debuta (MUT-042/029)

Dantza-taldearen entseguak non egiten zituzten. Hasierako txistulariak. Bestela, ahoz kantatuta dantza egin behar. 1964-65 inguruko maiatzaren batean egin zuten debuta dantzari gazteek eta ekitaldi arrakastatsua izan zen.

647. Dantza-taldea sortu aurreko aureskua (MUT-042/033)

Dantza-taldea sortu baino lehen gogoan du aureskua egin zuela behin plazan, Madalena jaietan. "Atxukale"k erakutsi omen zien aureskua, lehengo erara.

648. Goizeko seietan zestaz entrenatzera (MUT-042/038)

Joxe Marik urtebete bakarrik egin zuen futboleant. Burumendin jarraitzea eskaini zioten arren, pilotan ere jokatzeko zuen, zestaz, eta berak nahiago zuen hura. Udan, goizeko seietan joaten ziren entrenatzera. Gero, etxera joan, pixka bat garbitu (artean ez zegoen dutxarik) eta lanera.

649. Aita eta ama, Donibane Lohitzunera (MUT-043/002)

Juanen gurasoak ezkondu eta ama berehala gelditu zen haurdun. Urte hartan bertan hasi zen gerra. Amonak Juanen gurasoak itsasontzian bidali zituen Donibane Lohitzunera. Mutrikutik atera eta lau egunetara iritsi ziren Donibane Lohitzunera. Bidaia gorabeherak kontatzen ditu. Irujo anaiak eta Telesforo Monzon barku horretan zihoazen.

650. Uxoetegia etxea (MUT-043/003)

Juan jaio berria zela eta bere gurasoak osabaren etxean bizi izan ziren Donibane Lohitzunen. Kaleari buruzko azalpenak: lehen, 9 rue Courtade izena zuen; orain, Manuel Sein, dit Xanpun kalea da. Osabaren etxeak Uxoetegia izena zuen, eta etxea nolakoa zen azaltzen du.

651. Jatorduak, hiru txandatan (MUT-043/004)

Mutrikutik ihes egindako askok Uxoetegiako bodegan egiten zuten jatordua. Juanek amari entzuna dionez, hiru txandatan bazkaltzen omen zuten. Gero, jendea beste etxe batzuetan "kolokatzen" hasi zen.

652. Atzerrian jaio zen lehen mutrikuarra (MUT-043/005)

Bere gurasoak Donibane Lohitzunera zergatik joan ziren aipatzen du. Juan Donibane jaio zen; bere bataioan 68 apaiz egon ziren (denak gerratik ihesi joandakoak). Handik hiru hilabetera Mutrikura bueltatu ziren.

653. Aita bankura bueltatu lanera (MUT-043/007)

Donibane Lohitzunera ihes egin aurretik, Juanen aitak bankuen egiten zuen lana. Handik bueltatzean, bankuan lanean hasteko "certificado de buena conducta" eskatzen zioten. Agiria nola lortu zuen kontatzen du.

654. Antoni maistrari eta amari buruzkoak (MUT-043/008)

Bost urterekin, Antoni maistraren eskolan ibiltzen zen Juan. Amarekin ikasi zituen matematikak. Amari buruzko azalpenak. Emakume oso ekintzailea zen: sare-konpontzen ibiltzen zen, taberna zuen, denda jarri zuen gero...

655. Mutrikuko dendak eta errazionamendua (MUT-043/009)

Juanen ume garaiko Mutrikuko dendak: Justo Urkiri, Jabier Piker, "Poterokua" eta bere familiakoa. Errazionamendu garaiko kontuak. Umetatik, bezeroen izen-abizenak idaztea egokitu zitzaion Juani.

656. Maristak (MUT-043/010)

Maristak Mutrikura joan zireneko azalpenak. "Hermanos de la instrucció;n cristiana". Sei urte inguru zituela, Juan maristen eskolan hasi zen. Hiru "hermanok" ematen zituzten eskolak. Maristen janzkerari buruzko azalpenak. Domeketan mezara joaten ziren.

657. "Hermanoak" eta geografia (MUT-043/012)

Maristen eskolako kontuak. Maisuen izenak aipatzen ditu. Geografia nola ikasten zuten kontatzen du.

658. Matematika (MUT-043/013)

Maristen eskolako kontuak. Matematika nola ikasten zuten kontatzen du. Gelako giroa.

659. Eskolako mailak (MUT-043/014)

Maristen eskolako kontuak. Eskola nola mailakatuta zegoen: maila bakoitzean bi sekzio zeuden. Bi maristari buruzko aipamenak.

660. Notak eta diploma (MUT-043/015)

Maristen eskolako kontuak. Notak eta diploma emateko ekitaldiari buruzko azalpenak. Udaletxean izaten zen ekitaldia, alkate, hainbat zinegotzi eta maristak bertan zirela. Egaña lantegiko medailak ematen zizkien. Juanek 1949ko uztailaren 12an jaso zituen diploma eta medaila.

661. Kantu frankistak eskolan (MUT-043/016)

Maristen eskolako kontuak. Eskolara joan eta lehenengo gauza egin behar izaten zutena, atarian ilaran jartzea izaten zen. Ikasle bat bandera espainolarekin egoten zen balkoian, eta besteek 'Cara al Sol', 'Con el rumor de la faena' edota 'Montañas nevadas' abestu behar izaten zuten.

662. Merkataritza-peritutza ikasten hasi (MUT-043/017)

12 urterekin eskola bukatu, eta merkataritza-peritutza ikasten hasi zen maristekin. Ikaskideen izenak aipatzen ditu. Lehen urtean 10 ikasgai eman beharrean hiru eman zituzten, eta ikasturte bat galdu zuten. Horregatik, Juan eta beste ikaskide batek Deban jarraitu zituzten ikasketak. Martxoan, 10 ikasgaien azterketa egitera joan behar izaten zuten Donostiara. Juani ez zioten utzi azterketa egiten Frantzian jaioa zelako. Azterketa egin ahal izateko falangeko karneta ateratzeko esan zioten.

663. Falangeko karneta atera behar (MUT-043/018)

Merkataritza-peritutza ikasketen azterketa egin ahal izateko falangeko karneta ateratzeko agindu zioten Juani. Falangea zer zen eta haren inguruko datak ("fechas conmemorativas") ikasi behar izaten zituen. Falangeari buruzko galdeketa: lezioaren zati bat buruz esaten du (gaztelaniaz).

664. Burgosera, soldadu (MUT-043/019)

Soldadutzari buruzko kontuak. Burgosera joatea tokatu zitzaion. Burgosko egonaldiari buruzko kontuak. Etxera joateko baimena nola eman zioten kontatzen du.

665. Ezin banketxean hasi (MUT-043/020)

Aitaren ezagun batzuen bidez Guipuzcoano bankuan lanean hasteko hartu zuten, baina amak ez zion utzi. Seme bakarra izanda, etxeko zereginetan laguntzea nahi zuen amak.

666. Maria Belen itsasontzia eta flota (MUT-043/021)

1952an, Juanen amak Maria Belen itsasontzia ekarri zuen. 150 zaldiko itsasontzia zen; garaian, Gipuzkoako handiena. Orduko, Mutrikuko itsasontziak: Gran Nazareno, Maria Belen, Sagrado Corazón de María, Virgen de Idurre, Virgen de Nava... 150 zaldiko itsasontziak emankorrak izan ziren.

667. "Efectos navales" eta sareak (MUT-043/024)

"Efectos navales" itsasorako elementuen denda ireki zuten. Bere ofizioko kontuak: sareen kodeak, sareen ezaugarriak (mailen arabera)

668. Korapilo gabeko sareak (MUT-043/025)

Sareei buruzko azalpenak: korapilodunak eta korapilo gabeak, kostua... Bartzelonako lantegietan egon izan da sareak ikusten.

669. Sareak: neurriak eta tresnatzea (MUT-043/027)

Saregileen lanei buruzko azalpenak. 180 brazako sareak. Neurriak: kana, 84 zentimetro; braza, 1,68 metro. Sareak nola "armatu" (tresnatu) . Mamia.

670. Kotoizko sareak "kaskatzea" (MUT-043/028)

Kotoizko sareak ez usteltzeko, taninoarekin "kaskatzen" zituzten. Gero, "alkitrana" (mundruna) erabiltzen hasi ziren. Sareak astero kanpora atera behar izaten ziren lehortzen jartzera. Sareak non eta nola esekitzen zituzten.

671. 1962an, Salve Maria Dakarrera (MUT-043/029)

1962an, Salve Maria itsasontzia Dakarrera (Senegal) joan zen. Dakarrera joan ziren Mutrikuko beste itsasontziak aipatzen ditu. Kontratuei buruzko azalpenak. Arrantzaren portzentajeak nola banatzen ziren. Marinelek sei hilabete egiten zituzten Dakarren.

672. Futbol taldearen zuzendaritzan sartu (MUT-043/031)

Mutrikuko futbol taldearen zuzendaritzan nola sartu zen kontatzen du. Labadora zozketatu zutenekoa.

673. Mutrikuk Atotxan irabazi (MUT-043/034)

Mutriku futbol taldeak eta Errenteriako Turin futbol taldeak Donostiako Atotxa futbol zelaian jokatu zuten partidari buruzko azalpena. Partida irratiz eman zuten. Mutrikuko taldeak 3-1 irabazi zuen. Herrira koparekin bueltatu zirenekoa.

674. "Kina", dirua ateratzeko (MUT-043/036)

Mutriku futbol taldea 3. mailara igo bai/ez. Taldeak 300.000 pezeta behar zituen mailaz igotzeko, eta "kina" (bingo) ireki zuten Txoko tabernan. Behar zutena baino askoz diru gehiago lortu zuten.

675. Sabanikan hazi (MUT-046/002)

Sabanika kalean jaio zen, frontoi ondoan. Umetako bizimoduari buruzko azalpenak. Amonaren lurretan aitzurrean ibiltzen zen. Txerriak hazten zituzten. Dolarea zeukaten eta sagardoa egiten zuten saltzeko. Aitona Amieta baserrikoa zen.

676. Sagardoa eta amonaren lursailak (MUT-046/003)

Dolarea zeukaten. Bi-hiru bukoi sagardo egiten zituzten urtean. Amonaren lursailak eta sagastiak aipatzen ditu.

677. Etxegintzan (MUT-046/005)

12 urte inguru zituela, igeltsero lanetan hasi zen koinatuarekin. 24 urte zituela, saltzeko eraikin bat egin zuen Mutrikun: Jauja etxea. Diru kontuak: galerak izan zituela aipatzen du. Markinan, Ondarroan, Deban eta Eibarren ere egin zituen etxeak.

678. Maristetan (MUT-046/007)

Maristetan ibili zen eskolan. Erdiko kalean zegoen eskola: gaur egungo Zabiel Kultur etxean. Eskolan zer ikasi zuen. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren maristekin.

679. Gerran, osaba sakan batetik bota (MUT-046/009)

Gerra zibileko kontuak ditu hizpide. Kandidoren osaba bat sakan batetik behera bota zuten. Patxi Etxeberria Urreizti "Mote" zen osaba, eta farmazeutikoa zen.

680. "Bazkaltzen baino denbora gehiago errezatzen" (MUT-046/012)

Igeltsero garaiko azalpenak. Mizkia baserrian lanean ibili zenean, bertan jan eta lo egiten zuen. Goizean, eguerdian eta iluntzean errezatzen zen baserri hartan. Errezatzeko ohituraz hitz egiten du.

681. Zestarekin pilotan (MUT-046/015)

Umetako jolasak: baleka, pilotan... Frontoi ondoan bizi zen Kandido, eta askotan joaten zen pilotan jolastera. Zestarekin pilotan ere ibiltzen zen.

682. Lagunekin zubian elkartu (MUT-046/017)

Ume garaiko Sabanika kaleko oroitzapenak. Baleka jolasten zuten. Zubian elkartzen ziren umeak. Modesto Galarraga pilotari ohiaren denda zegoen zubian.

683. Zubiaga plazako hiltegia (MUT-046/018)

Zubiaga plazan abere hiltegia edo mataderia zegoen. Baserritarrek txahalak eramaten zituzten hiltzera, eta abereak nola hiltzen zituzten begira egoten ziren mutikotan. Lehen ere iturria bazegoen plazan.

684. Garbitokia (MUT-046/019)

Garbitokia non zegoen azaltzen du. Aterpea zuen garbitokiak.

685. Aitak ura jarri etxean (MUT-046/020)

Mutrikun ura zuen lehenengo etxea beraiena omen zen. Kandidoren aitak jarri zuen ura etxean. Garbitasun kontuak eta orduko esamesak.

686. 9 urte zituela, gerra hasi (MUT-046/022)

Kandidok bederatzi urte zituela, gerra hasi zen. Gerraren eraginez bizitza, giroa aldatu egin zela dio. Soldadu italiarren tropa bat Erdiko Kalean egon zen, maristen eskolan. Eskolako patioan eta frontoian egiten zituzten instrukzioak. Sabanika kalean bizi zen mikelete bat eta haren familia gerra denboran Zarautzera joan ziren.

687. Soldadu italiarren instrukzioak (MUT-046/023)

Gerra denborako oroitzapenak. Frontoia nolakoa zen: ez zuen estalperik. Soldadu italiarrak frontoira joaten ziren instrukzioak egitera. Soldaduen kantu zati bat abesten du.

688. Gerra ezagutu eta "gerran" jolastu (MUT-046/024)

Gerra giroan, mutil kozkorrek ere "gerran" jolasten zuten. Tiragomarekin eta "aballiarekin" ibiltzen ziren jolasean. Jolasean ari zirela lagun bati harriarekin buruan jo zioneko pasadizoa kontatzen du.

689. Soldaduei fusila, esku-bonbak eta balak ostu (MUT-046/025)

Gerra denborako kontuak. Kalbaixora bidean kainoiak zeuden, eta Santa Kutza egiten zuten tiro. Lagun artean zebiltzala, kamioi batetik fusil bat ostu zuten. Santa Kutzen frontea zegoen. Hara joan, eta hango txaboletatik esku-bonbak eta balak osten zituzten. Balak sutara botatzean, zarata.

690. Kainoiak Alkolean (MUT-046/026)

Gerra denborako azalpenak. Alkolean kainoak egon ziren. Soldaduak eta armamentua non egoten ziren kontatzen du. Alkoleako kainoiek Bizkaia aldera botatzen zituzten tiroak.

691. Harriak bekokian jo (MUT-046/027)

Gerra giroan, mutil kozkorrek "gerran" jolasten zuten. Tiragomarekin eta "aballiarekin" ibiltzen ziren jolasean. Tiragomarekin botatako harri batek kopetan jo zion Kandidori.

692. Soldaduei ogia lapurtu (MUT-046/028)

Gerra denborako kontuak. Erdiko kalean soldadu italiarrak egon ziren. Jateko faltan, soldaduei ogia lapurtzen zien.

693. Saturrarango kartzelan, "giro beltza" (MUT-046/030)

Gerraostean, 12 urte inguru zituela, igeltsero lanetan hasi zen. Saturrarango kartzelan konponketa lanetan ibilia da. Kartzelako giroari buruzko azalpenak ematen ditu. Ondarroako eta Mutrikuko herritarrek kartzelatik ateratako emakumeei laguntza ematen zien.

694. Igeltsero lanen hasiera (MUT-046/032)

Kandidok ez zuen aita ezagutu: berak 15 hilabete zituela hil baitzen. Aita igeltseroa zen, baina marrazketan ere aritzen omen zen. 12 urterekin igeltsero lanetan hasi zen Kandido. Lehen, ez zen makinarik. Palarekin masa nola egiten zuten. Besteei ikusiaz ofizioa ikasi.

695. Australiara joateko asmoa (MUT-046/036)

Igeltseritzarekin aurrera biderik ez, eta Australiara joateko paperak prestatzen hasi zen. Amak ez zuen ongi hartu albistea, eta etxean geratzea erabaki zuen.

696. Hegazti granja (MUT-046/037)

Hegazti granja zuten, eta emaztea arduratzen zen granjako lanetaz. 700 hegazti zituzten arrautzak ipintzeko. Txitak ere hazten zituzten. Arrautzak eta oilaskoak saltzen zituzten gero.

697. Kai "sala de fiestas" (MUT-046/038)

Hegazti granja kendu eta "sala de fiestas" ireki zuten. Kandidok "pintxatzen" zituen diskoak. Iparraldera joaten ziren diskoak erostera. Jende asko ibiltzen zen dantzalekuan, Venecia diskoteka ireki zuten arte.

698. "Batakon" eta "Piston txiki" puntistak (MUT-046/041)

Zesta puntari buruzko azalpenak. Bera baino zaharragoak ziren "Batakon" eta "Piston txiki" pilotariei buruz hitz egiten du. Garai hartan, frontoiak ez zuen estalperik.

699. "Batakon"en kotxea, lehena herrian (MUT-046/044)

"Batakon" eta "Piston txiki" pilotariei buruz hitz egiten du. Mutrikun lehenengo automobila ekarri zuena "Batakon" izan zen. Nolako autoa zen azaltzen du.

700. Gurpil mazizodun kamioia (MUT-046/045)

Ameriketako artzain egondako Odriozolatar batek kamioia ekarri zuen. Gurpil mazizoak zituen, eta Ford etxekoa zen. Herriko beste kotxe batzuk ere aipatzen ditu.

701. Ameriketako urrea (MUT-046/049)

Aspaldiko kontakizuna. Olatz bailarako Urreiztieta baserrikoak berari kontatua. Mutrikutik Debara bidean, txalupak egiten ziren. Nabigatzeko ontzi onak omen ziren. Ontziak Sevillara eramaten zituzten erregearentzako. Ontzia egiten ibilitako batzuk barkuan Ameriketara joan ziren. Bueltan, urrea ekarri zuten.

702. Gerra aurreko gaitzizen batzuk (MUT-046/051)

Gerra aurreko Mutrikuko gaitzizen batzuk aipatzen ditu: kilkerra, amieta, piko txiki, txixua...

703. Errepublika garaiko giroa (MUT-046/052)

Errepublika denborako giroaz hitz egiten du. Maristetan euskaraz egiten zuten. Poxpolin jantzita dantzatzen zuten.

704. "Geure hizkuntzari heldu egin behar zaio" (MUT-046/053)

Gerra denborako kontuak. Euskaraz hitz egiten zutenean, "hablar en cristiano" esaten zien. Kandido umea zen, eta ez zekien gaztelaniarik.

705. Gerran hildakoak (MUT-046/054)

Gerran hildako mutrikuar batzuk aipatzen ditu.

706. Jaime I eta Baleares gerrako itsasontziak (MUT-046/058)

Gerra denborako kontuak. Herriko bikaria bere etxean egon zen ezkutatuta. Kandido Saturraranera bidali zuten senide batzuen etxera. Saturraran eta Ondarroa bitartean, Jaime I eta Baleares gerrako ontziak zeuden itsasoan. Itsasontzietatik Katetxe azpira bonbak nola botatzen zituzten kontatzen du.

707. Tropak Saturraranen sartu (MUT-046/060)

Gerra denborako kontuak. Abadea beren etxea zegoen ezkutatuta, eta, orduan, Kandido Saturraranera bidali zuten senide batzuenera. Tropen etorrerari buruzko oroitzapenak: Santa Kutz gainetik gizon bat seinaleak egiten, eta Arbelaiz azpitik sartu ziren soldaduak Katetxera. Katetxe barruan, bost mutil asturiar zeuden. Bostak hil zituzten. Ganadu zain zebiltzala, soldaduen tiroak.

708. Bederatzi urterekin amuak egiten etxean (MUT-059/002)

Bederatzi urterekin hasi zen amua egiten ikasten aitarekin. Hamabirekin amuak egiten zituen eta udan itsasora joaten zen. Etxean egiten zituzten amu ezberdinak. Garai batean dena amuarekin arrantzatzen zen. Andoni Eizagirre ondarrutarrari saltzen zieten amu gehienak.

709. Antxoatan beti sareekin; atuna, amuarekin (MUT-059/004)

Antxoatan ibiltzeko sareak erabiltzen zituzten. Atunak arrantzatzeko amuarekin. Makinako amuak.

710. Arrantzarako amuak (MUT-059/005)

Arrantzarako amu ezberdinei buruz hitz egiten du. Eskuz eta makinaz egindako amuak. Sarea, traina. Arrantza-motak.

711. Bilboko yate batean lanean (MUT-059/006)

Hemezortzi urterekin Sota ontzi-jabearen yate batean lanean hasi zen Bilbon. Udan Mediterraneotik ibiltzen ziren. Neguan, itsasontzia Bilbon egoten zen, konponketa lanetarako.

712. Motor txikiak "Euskadi Askatuta" izena zuen (MUT-059/008)

Arrasteko arrantza eta gero motor txikiarekin ibiltzen zen. Motorrari "Euskadi askatuta" izena ipini zion. Gero, masillarekin "Euskadi" tapatu behar izan zuen. Handik dator Jesusen gaitzizena, "Masillas".

713. Arrantzan motor txikiarekin (MUT-059/010)

Harrapatzen zituzten arrainak: itsaskabra, otarraina, zapoa, berdela, antxoa... dena motor txikiarekin arrantzatzen zuten. Traina erabili aurretik sare-begizko maila erabiltzen zen gehienbat.

714. Gerran, itsasontziak armamentua eta pertsonak garraiatzeko (MUT-059/013)

Gerra hasi zenean, arrantzara atera ziren. Bueltan, itsasontzia konfiskatu zieten armamentua Bilbora garraiatzeko.

715. Gerra garaian, yatean lanean (MUT-059/014)

Gerra garaian Bilbo hartu zutenean, yatearen jabeak urtebeteko kontratua egin zion Jesusi, bidaia luze bat egiteko. Portugaletik atera ziren eta Mediterraneo guztitik ibili ziren turismoa egiten. Danubiotik ibili zirenean, hegaztiak ehizatu zituzten. Gero, Islandia eta Eskoziatik ibili ziren bakailaoak arrantzatzen ere. Yateak 67 metro zituen.

716. Desertzioa egiteagatik epaituak (MUT-059/021)

Gerratik desertatu izanagatik Ferrolera eraman zutenekoa. Juanito Lizardi eta Lekeitioko beste hiru gizon ere berarekin egon ziren. Juanito eta bera askatu egin zituzten baina zorte hori izan ez zuten beste batzuk aipatzen dituzte.

717. Europa iparralde guztia itsasoz egina (MUT-059/026)

Ingelesaren yatearekin nondik ibili zen: Alemanian, Norvegian, Herbehereetan, Irlandan, Eskozian, Islandian... Amuarekin arrantzatzen zuen.

718. Amua egiteari utzi zionean (MUT-059/027)

Ezkondutuek zenean utzi zion amua egiteari, baina gerora batzuk egin dituen enkarguz.

719. Ramon de la Sota ontzi-jabea (MUT-059/030)

Ramon de la Sota ontzi-jabeari buruzko kontuak.

720. Yatearekin ebakuazioak egiten (MUT-059/031)

Bilbotik yatearekin egin zituzten ebakuazioak. Baionara eraman zituzten Gornizko ospitaleko gaixoak. Yateak bandera ingelesa zeraman, ordurako Sotak yatea saldua zuelako.

721. Arrantzarekin lotutako hiztegia I (MUT-059/035)

Arrantzarekin lotutako lanak eta nola deitzen zaien. Prozesuak.

722. Arrantzarekin lotutako hiztegia I (MUT-059/037)

Arrantzarekin lotutako lanak eta nola deitzen zaien. "Domino-otarra", "sinia".

723. Arrantzako hiztegia: lan-tresnak (MUT-059/038)

Arrantzarekin lotutako tresna nagusia sarea da. Beste batzuk aipatzen dituzte: "txasterua", "pitxia", "kakua", "txista", "txardangua"...

724. Hamahiru urtera arte ikasten eta gero aitarekin arrantzan (MUT-060/001)

Zabieleko jauregian moja frantsesekin ikasi zuen 3 urterekin; eskola nazionalan gero eta kofradiako eskoletan. Hamahiru urterekin aitarekin arrantzan hasi zen motor txikian, ezkondu zen arte.

725. Erretiratu ostean, arrantza gehiagorik ez (MUT-060/002)

Arrastero lanetan ibili zen, Pasaian eta Ondarroan. Mutrikun erretiratu zen, hirurogei urterekin. Ez da gehio arrantzara irten.

726. Euskaraz idazten Argian gerra aurretik (MUT-060/004)

Euskaraz idazten nola hasi zen. Argian idatzi zuen gerra hasi zen arte.

727. Aldizkari ezberdinetan idazten: Gure Mutilak, Euzko, Karmeldarren egunerokoa... (MUT-060/005)

Luistarretan idazkaria izan zen eta "Gure Mutilak" aldizkarian idazten zuen. Hilero argitaratzen zen eta Patxik Mutrikuko kontuak idazten zituen. Zornotzako Karmeladerren egunerokoan eta "Euzko"-n ere idazten zuen, beti Mutrikuko, elizako edo arrantzako inguruko kontuei buruz.

728. Gerran preso; Langile batailoia (MUT-060/007)

Gerra hasi zenean mendira ihes egin zuen. Harrapatu egin zuten Bilboko Arriaga antzokian, Gasteizen eta Logroño zezen-plazan egon zen preso. Handik langile batailoietara bidali zuten Teruelera, Castellonera, Murtziara... Bilbo erori eta gutxira hasi zen langile batailoian eta bi urte inguruz ibili zen bertan.

729. Xabiertxo-rekin ikasi zuen euskaraz (MUT-060/008)

Euskaraz idazten eta irakurtzen bere kontura hasi zen. Eskolan ez zuten euskaraz ikasten baina aita oso euskaltzalea zen. Xabiertxo liburua.

730. Arrantzaleak ez dira oso bertsozaleak izaten (MUT-060/015)

Arrantzaleak ez dira oso bertsozaleak izaten.

731. Bertsoak idatzi bai, baina kantatu ez (MUT-060/016)

Bertsoak ez ditu inoiz abestu, idatzi bakarrik.

732. Gerra aurreko Argia aldizkariko idazleak (MUT-060/017)

Gerra aurretik Argia astekarian idazten zuen. Kalixto Malkaretxea "Itxas aurre" idazlea. Elordi, Ziriako...

733. "Kaialde" ezizenaren jatorria (MUT-060/019)

Argian Patxirekin batera "Itxas aurre"-k, Ziriakok eta Elordik idazten zuten. "Kaialde", Patxiren ezizenaren jatorria.

734. Gerra aurreko Zeruko Argiako idazleak (MUT-061/002)

Aitak Zeruko Argian idazten zuen gerra aurretik. Beste idazle batzuk eta haien gaitzizenak: Kalixto Basterretxea "Itxas aurre", Angel Osoro "Aberri", "Arnondo" eta "Arnobe". Aberri fusilatu egin zuten eta beste batek bere buruaz beste egin zuen. Mutrikun gertatzen ziren kontuei buruz idazten zuten.

735. Maritxu Lekonde (MUT-061/003)

Maritxu Lekonde eta Maritxu Andonegik ere idazten zuten Zeruko Argian. Joxe Austin Arrietak omen daki Maritxi Lekonderi buruz zerbait.

736. Gerra aurreko euskal idazle mutrikuarrak (MUT-061/004)

Gerra aurretik Argia-n idazten zuen "Kaialde"-k. Beste idazle batzuk aipatzen ditu: "Gurutze ondo", Antonio Alberdi "Txikitxo"... Gerra aurreko idazle nagusienak: "Itxas aurre", "Aberri", "Arondo" eta "Arnobe".

737. Saturrarango kartzelara janaria eramaten (MUT-062/001)

Zortzi urterekin hasi zen Saturrarango kartzelara janaria eramaten. Ahal zutena sartzen zuten otarrean. Reinosako emakume bat egon zen beraienean bizitzen, familiakoren bat ere preso zuelako.

738. Saturrarango kartzelako presoak bisitatzen (MUT-062/002)

Saturrarango presoek eskulanak egiten zituzten. Kartzelara pare bat aldiz sartu zen presoekin egoteko. Benigno bakarrik joaten zen kartzelara. Anaiak bideak eraikitzen zituen, "Regiones Devastadas"-ekin.

739. Mutrikuko Astigarragarra (MUT-062/004)

Saturrararen lau edo bost hotel zeuden. Bat, Mutrikuko Astigarraga-rena zen. Haiei buruz hitz egiten dute.

740. Gerratik ihesi, Mutrikun bizitzen geratutakoak (MUT-062/006)

Gerratik ihesi ibili ziren batzuk, Mutrikun bizitzen gelditu ziren.

741. Tetuan baserrian kartzelako atezaina bizi zen (MUT-062/011)

Saturraranera presoak eramango zituztela jakin zutenekoa. Haien baserriak etxebizitza huts bat zuen eta bertan kartzelako atezaina, Teodoro, biziko zela esan zieten. Hamahiru txerri zituzten baserrian eta patata azala ematen zieten jateko.

742. Saturrarango kartzelan patata azalak batzen (MUT-062/012)

Saturrarango kartzelan sobratzen ziren patata azalak hartzen zituzten, txerriei jaten emateko. Kartzela barrura sartzen zenean, presoek leihoetatik agurtzen zuten Jose Luis.

743. Saturrararen preso zegoen maistraren eskolak I (MUT-062/013)

Saturrararen preso zegoen emakume maistra bat, egunero kartzelatik ateratzen zen klaseak emateko. Jose Luisen maistra izan zen.

744. Saturraranen preso zegoen maistraren eskolak II (MUT-062/015)

Eskolara nora joan zen. Saturraranen preso zegoen maistra batek klaseak ematen zituen. Gaztelaniaz ikasi zuen berarekin.

745. Saturraranen ama preso zituzten umeekin harremana (MUT-062/016)

Saturrarango emakume presoan semeak Mutrikun bizi ziren eta haiekin gaztelaniaz hitz egiten zuten. Antonio, Mariano, Pizarro... gehienak inguruetan bizitzen gelditu ziren eta baserrietan lan egiten zuten janariaren truke.

746. Saturraranen preso zegoen maistraren eskolak III (MUT-062/021)

Mijoako haurrak joaten ziren Saturrarango presoaren eskolak hartzera. Sei edo zazpi haur biltzen ziren.

747. Frontoia frantsesez beteta (MUT-062/025)

Alemanek Frantzia inbaditu zutenean, frantzes asko agertu ziren Mutrikun eta frontoian egoten ziren. "Tablas" deitzen zioten batek frantsesez hitz egiten bazekien eta negozioa egiten saiatzen zen.

748. Saturrarango presoak eta haien seme-alabak I (MUT-062/027)

Saturraranen preso egondako emakumeei buruz eta haien seme-alabei buruz hitz egiten dute.

749. Mutrikuko Maristen eskola (MUT-062/028)

Mutrikuko Maristen eskola: ikasleak, maisuak eta maistrak...

750. Saturrarango kartzela (MUT-062/029)

Saturrarango kartzelara janaria eramaten zuenean, gauzak garitako ate ondoan uzten zituen. Sare bat zegoen presoak eta herritarrak bereizteko.

751. Gerra aurretik Saturraranen hotelak zeuden (MUT-062/030)

Saturrarango kartzelaren inguruan lau hotel zeuden. Alfonso XIII.aren bizkarzainek bertan udak pasatzen omen zituzten.

752. Saturrarango presoak eta haien seme-alabak (MUT-062/031)

Saturraranen preso zeuden emakume askoren seme-alabak Mutrikura joan ziren lanera. Euskaraz ikasten zuten denek. Presoekin zuten harremana.

753. Saturrarango presoak (MUT-062/032)

Nola hasi ziren Saturrarango kartzelara janaria eramaten. Preso gehienak gazteak ziren. Hamazazpi urte zituen Teresa batekin harremana zuen Benignok. Nola jazten ziren.

754. Mutrikun nazionalak sartu zirenean (MUT-063/002)

Mutrikun nazionalak sartu ziren eguna nola izan zen. Bonbardaketak. Hegazkinak.

755. Soldadu nazionalak baserrian lotan (MUT-063/003)

Jose Luis-en baserrian ehun eta piku soldadu nazionalak lo egiten zuten.

756. Soldaduak eta herriko neskak (MUT-063/005)

Mutrikun ibiltzen ziren soldaduek, herriko neskekin ibili nahi zuten.

757. II. Mundu Gerrako soldaduak Mutrikun (MUT-063/010)

II. Mundu Gerrako soldaduak Mutrikun egon ziren. Txokolatea ematen zieten umeei ezkutuan. Arropak, herriko emakumeek garbitzen zizkieten. Nondik sartu ziren Mutrikura. Bonbak nola jausten ziren ikustera joaten ziren.

758. Herritarren arteko salaketak (MUT-063/012)

Herritarren artean salaketak egoten ziren.

759. Igandero Saturraranera preso bat bisitatu eta janaria eramatera (MUT-064/001)

Igandetan Saturrarango kartzelara joaten zen, preso bati (Ana) aste guztirako janaria eramatera. Autobusean joaten zen eta bisita gelan elkartzen ziren.

760. Saturrarango preso baten semearen ama pontekoa I (MUT-064/002)

Saturraranen bisitatzen zuen presoaren semearen amabitxia zen Enkarna. Leonardo zuen izena. Ama pontekoa izateko proposamena Teodorok egin zion, aita bitxi izango zenak. Herrian amabitxi egin ziren beste batzuk.

761. Saturrarango presoek jateko latak eramaten zituen (MUT-064/003)

Saturrarango kartzelako haur baten amabitxi egin zenean hasi zen igandero janaria eramatera joaten. Gehienbat latak janaria eramaten zuen. Hogei urte zituen Enkarnak eta ordurako Loretxun taberna lan egiten zuen.

762. Loretxu tabernan soldaduak (MUT-064/004)

Presoak Saturraranera nola eramaten zituzten ez zuen inoiz ikusi. Loretxu tabernara soldadu italiarrak, alemanak, nafarrak, galiziarak... egoten ziren.

763. Saturrarango preso baten semearen amapontekoa II (MUT-064/005)

Ana Arias deitzen zen Saturraranen bisitatzen zuen preso; semea, Leonardo Dávila. Uste du senarra fusilatu egin zutela. Leonardoren ama pontekoa da Enkarna. Aita pontekoa, Leonardo, Saturrarango kartzelako errekadista izan zen.

764. Saturraranetik irten eta Mutrikun bizitzen gelditu ziren emakumeak (MUT-064/007)

Saturrarango kartzelako atezaina Teo deitzen zen eta Tetuan baserrian bizi ziren. Teodoro ordea, kartzelako errekadista zen. Presoak atera zituzten arte, kartzelara bisitan joaten zen. Libre gelditu ziren batzuk (Maria, Carmiña, Juana "kastellania", Felipa "kastellania"...) Mutrikun gelditu ziren bizitzen.

765. Ana Arias, Saturraranen egondako presoak (MUT-064/009)

Teodorok eskaini zion Saturrarango kartzelako haur baten ama ponteak izatea. Igandero joaten zen autobusean kartzelara. Presoak oso esker onekoak ziren. Ana Arias, jostuna zen. Enkarnak hariak eta materiala eramaten zizkion.

766. Gerrari buruzko kantu bat (MUT-064/011)

Katalin Fondaberrik, gerrari buruz egindako abesti bat kantatzen du. Katalini buruz: janzkera, jarrera...

767. Gerra garaiko kontuetaz ezkutuan hitz egiten (MUT-064/013)

Gerra garaian, Pura Apalegi alkatearen emazteak, irratian entzundakoak kontatzen zituen herrian. Ezkutuan hitz egiten zuten.

768. Gerra garaiko kontuak Mutrikun (MUT-064/014)

Bittor Berasaluzeri buruz. Erreketeak.

769. Emakume Abertzale Batza Mutrikun: antzerkiak, bakarrizketak, (MUT-064/016)

II. Errepublika aldarrikatu zenean, batzokiak ireki ziren. Emakume Abertzale Batzan antzerkian ibili zen. Egin zuen lehenengo antzezlanak bakarrizketa bat izan zen. Euskarazko emanaldiak ere egiten zituzten. Zehazki bat gogoratzen du.

770. Zirkulo karlistan antzeztera behartuta (MUT-064/017)

Zirkulo karlistan ere antzerki emanaldiak eman izan ditu, behartuta. Antzerkiak, soldaduen gabonsariak ordaintzeko antolatzen zituzten. Bi antzezlan egin zituzten. Bera zen abertzale bakarra. Beste antzezleak.

771. Antzerkia Mutrikun Errepublika garaian (MUT-064/018)

Emakume Abertzale Batzan astero antzerkian ibiltzen ziren. Fermin Lekunderen bidez hasi zen Enkarna. Joakin Txiki, Antonio Arkotxa, Pedro Toloño, Maritxu Andonegi...

772. Saturrarango hotela eta bainuetxea (MUT-065/002)

Saturrarango bainuetxean bainuak itsasoan hartzen zituzten bezeroek. Argazki baten bidez deskribatzen dute gerra garaian kartzela izango zen hotela.

773. Osabarrena baserria, Saturrarango kartzelako sukaldea (MUT-065/003)

Saturraranen Zar-en ibili zen eta gerra garaian kartzelan lan egin zuen. Hasieran, kartzelako sukaldea Osabarrena baserrian zegoen. Osatarrak Elorriotik heldu ziren Mutrikura.

774. Saturrarango kartzelako presoek baldintzak (MUT-065/005)

Saturrarango kartzelan laguntzaile bezala lan egiten zuen Kandidok. Presoek nola lo egiten zuten kontatzen zuten, komunak...

775. Saturrarango bainuzainak, udatiarrak... (MUT-065/008)

Saturrarango bainunetxeko bainuzainak, "bañeruak". Zipri Osa San Martin eta haren familia. Hondartzan kasetak eta eguzki-oihalak zeuden. Udatiarrak ("beraniantiak").

776. Saturrarango presoek eskulanak (MUT-065/011)

Kandidoren anai baten koinatua Saturrarango kartzelako mantentze lanak egiten zituen. Presoek eskulanak egiten zituzten, janaria eramaten zieten trukean emateko: oliba hezurrekin egindako otartxoak, oihalak...

777. Gerraostean emakumeak kartzelaratzeko arrazoiak (MUT-065/012)

Saturrarango presoek jatorria ezberdina zen. Mutrikun Karmiña gelditu zen bizitzen. Kartzelatuak izateko arrazoiak.

778. Ama, Covarrubias kondearen familiaren inudea (MUT-065/016)

Inesen ama, Cobarrubias kondearen familiako inudea izan zen. Kondeak familia lehen aldiz itsasoa ikustera eraman zuenekoak kontatzen du.

779. Saturrarango bainuetxeko bezeroen zaindariak (MUT-065/018)

Saturrarango bainuetxeko udatiarrak zaindariak izaten zituzten. Mikeleteak non zeuden.

780. Olatzera argindarra heldu zenekoa (MUT-065/022)

Olatzen ez zegoen argindarrik eta Inesen osaba bati eskaini zioten bere etxean dohainik jartzea. Honek, auzo guztian argindarra jartzea eskatu zuen, ez bere etxean bakarrik.

781. Olatzeko etxeetara ura heldu zenekoa (MUT-065/024)

Olatzeko auzoan argindarra heldu zenean, afari bat egin zuten denek artean. Ondoren, ura eramane behar zen baserrietara.

782. Olatzeko Urreiztieta baserria (MUT-065/025)

Olatzen Urreiztitarren baserriaren inguruko kontuak: familiaren eta abizenaren jatorria, familiako kideak... Harginak ziren.

783. Urreiztitarren aberastasunaren jatorria (MUT-065/026)

Garai batean, Urreiztieta baserrian hiru anai ziren. Bat jenerala izan zen eta beste biak Mutrikuko bikarioa eta alkatea izan ziren. Jenerala, 500 bat pertsonaren hilketaren erruduna izan zen. Arlo mendiko baserri batura deserriratu zuten eta hango alaba batekin seme-alabak izan zituen. Ameriketara aberastu ziren Urreiztitarrak.

784. Txurrukatarrak Mutrikun (MUT-065/027)

Txurruka familiaren jatorria Soraluzean egon arren, Olatzera (Mutriku) mugitu ziren eta handik Mutrikura, herrira. Armagintzarekin aberastu ziren.

785. Olatz-ko auzoa (MUT-065/028)

Olatz-ko auzoari buruz: jatorria, merkataritza, baserriak, Sasiolako komentua...

786. Saturrarango kartzelako mojak (MUT-065/031)

Saturrarango kartzelako mojak zuriz jantzita joaten ziren.

787. Saturrarango kartzelako eguneroko bizimodua (MUT-067/001)

Saturrarango kartzelako egunerokoa. Dilistak bazkaltzen zituzten eta zopa afaldu. Denbora libre asko zuten. Kanpotik janaria eramaten zietenentzat eskulanak egiten zituzten.

788. Saturrarango kartzela barrutik nolakoa zen (MUT-067/002)

Saturrarango kartzela nolakoa zen deskribatzen du. Hotela izandako eraikin bat zen baina dena hutsik zegoen. Koltxoiak nolakoak ziren. Bi solairutan banatzen zen kartzela. Ondoko eraikin batean haurrak zeuden. Komunak.

789. Mojen autoritatearen abusuak (MUT-067/004)

Ez ziren fusilamenduak egoten. Presoen artean, moja batzuek fabore sexualen truke onurak ematen zituztela entzuten zen.

790. Mutriku eta Ondarroako jendearen inplikazioa Saturrarango presoekin (MUT-067/006)

Gerraren amaieraz eta Francoren garaipenaz kartzelan enteratu ziren. Mutrikuko eta Ondarroako biztanleak oso inplikazio handia erakusten zuten presoekin laguntzeko orduan.

791. Kartzelatik irten zenean ahizpa barruan geratu zen (MUT-067/008)

Preso bat hiltzen zenean, zaborraren gurdiaekin jasotzen zuten gorpua. Mojen jarrera eta autoritatea. Karmina Saturrarango kartzelatik atera zenean, Sagrario ahizpa barruan gelditu zen eta agurra oso gogorra izan zen, bazekielako non uzten zuen. Mutrikuko etxe batean neskame lanetan hasi zen, arrebarengandik gertu egoteko.

792. Gerra hasi zenean kobazulo batean ezkutatu ziren (MUT-067/010)

Gerra aurretik eskolara joaten zen baina etxean askotan lagundu behar zuenez, ez zuen ikasi irakurtzen eta idazten. Gerraren hasieraz nola jakin zuen. Kobazulo batzuetan ezkutatu ziren.

793. Gerra hasi zenean atxilotu eta kartzelatu zuten (MUT-067/015)

Gerra hasi zenean atxilotu egin zuten, anaia mugimendu politikoetan sartuta zegoelako. Kartzelan egon zenean, falangistak eta guardia zibilak biluzik egotera behartzen zituzten iraindu eta mehatxatzen zituzten bitartean.

794. Gerra garaiko "La Metralleta" epailea (MUT-067/016)

Kartzelan sartu zuten 17-18 urterekin eta "La Metralleta" epaileak heriotza zigorra ezarri zion. Zigortzak ezartzeko arrazoi ezberdinez baliatzen ziren epaileak. Zigorra konmutatu egin zioten.

795. Saturrarango kartzelara heldu zenean (MUT-067/017)

Saturraranen preso zeudela, amaren bisita jaso zuten. Kartzelara eraman behar zituztenean, tren geltokian jendeak janaria ematen zien. Sagrario beldurrez heldu zen kartzelara, baina ez horrenbeste, ahizpa bertan zegoelako dagoeneko.

796. Kartzelan ikasi zuen idazten eta irakruten (MUT-067/018)

Sei urtez egon zen Sagrario Saturrarango kartzelan. Presoen arteko harremanak oso onak ziren. Sagrariok ez zekien irakurtzen eta idazten eta preso zegoen Doña Jacinta izeneko maistrak irakatsi zion. Preso asko maistrak ziren.

797. Saturrarango kartzelako medikua I (MUT-067/019)

Saturrarango kartzelako medikua Don Luis deitzen zen. Sagrariok zotin kronikoa izan zuen eta medikuak ez zion jaramonik egin. Azkenean, Jose Maria Arrieta abadearen bitartez lortu zuen erizaintzan egotea eta medikuak kasu egitea. Abadeak medikuari derrigortu zion preso guztien osasunaz arduratzeko.

798. Saturrarango kartzelako medikua II (MUT-067/020)

Bi ahizpa galiziar tuberkulosiak jota zeuden eta medikuak ez zien jaramonik egin. Biak hil ziren. Medikua beldurgarria zen. Preso batenbat haien gelan hil ezkeru ohartzen ziren, bestela ez.

799. Kartzelan lapurtutako jaioberriak (MUT-067/022)

Presoei haurrak lapurtzen zizkieten Saturrarango kartzelan. Haurrak bizirik jaio eta geroago hil egin zirela esaten zieten emakumeei. Haurrak amarekin bizi ziren kartzelan hiru urte betetzen zituzten arte. Ama horien sufrimendua handia zen.

800. "Sor Veneno", Saturrarango kartzelako Ama Nagusia (MUT-067/023)

Haur asko bertan hiltzen ziren eta "Sor Veneno"-k ez zuen ezer esaten. "Sor Veneno" Ama Nagusia zen eta presoak psikologikoki zigortzen zituen.

801. Saturrarango kartzelako mojen zigorrak (MUT-067/024)

Zigor bezala, gau batez hildakoen gorpuak gordetzen zituzten kaxen gelan lo egitera behartu zuten Sagrario. Goizean Jose Maria Arrieta abadeak aurkitu zuen hor.

802. Saturrarango kartzelako moja onak (MUT-067/025)

Saturrarango kartzelako "Sor Benita" gogoratzen du, moja ona zelako. Behin patata gordinak jaten harrapatu zituzten hiru mojek baina ez zieten salatu.

803. Mojak presoek elikagaiekin trafikatzeko (MUT-067/026)

Koroan zeuden presoak hondartzara eramaten zituzten batzuetan. Behin, zaindari bati esan zion gose zela eta hau harritu egin zen, kartzelako baratzean barazki asko zeudelako. Mojek kartzelako janariarekin negoziatzen egiten zuten eta presoek gose asko pasa zuten.

804. Txerriak presoak baino hobeto elikatuak (MUT-067/027)

Soldaduek eta mojek txerriak zituzten eta hauek presoak baino hobeto elikatzen zituzten.

805. Gijon-eko kartzelan fusilamenduak (MUT-067/028)

Saturrarango kartzelan egon aurretik, Gijon-en preso egon zen. Bertan fusilamenduak egiten zituzten. Sagrarioekin preso egondako preso baten istorioa kontatzen du.

806. Ahizpa kartzelatik atera zenean baina bera ez (MUT-067/029)

Saturrarango kartzelan bizitzako momenturik txarrena, bere ahizpa kartzelatik atera zenekoa da. Pozik zegoen ahizpa libre gelditzen zelako, baina triste berak preso jarraitzen zuelako.

807. Amaren sufrimendua alabak kartzelan izanda (MUT-067/031)

Saturrarango egondako oroitzapenak. Kanpoko berriak. Sagrarioen ama kartzelan egon zen hiru hilabetez eta atera zenean bakarrik gelditu zen, alabak Saturrarango zeudelako. Kartzelatik atera zenean eta amarengana bueltatu zenean, guardia zibilekin eta falangistekin izandako pasarte bat kontatzen du.

808. Kartzelatik indartsu atera zen (MUT-067/033)

Saturrarango kartzelatik beste pentsaera eta jarrera batekin atera zen Sagrario. Emakume indartsu bat bilakatu zen.

809. Saturrarango kartzelan euskeraz hitz egitea debekatua zegoen (MUT-067/034)

Saturrarango kartzelan presoak ez zituzten behartzen mezetara joaten, nahiz eta Sagrario borondatez joaten zen. Koroan zegoen. Saturrarango kartzelan, presoek debekatuta zuten euskaraz hitz egitea.

810. Saturrarango kartzelako mojen negozioak presoan janariarekin (MUT-068/001)

Behin hondartzan zeudela, soldadu bati esan zion gose zela. Soldadua harritu egin zen, kartzelako baratzean janari asko zegoelako. Barazki hoiekin mojek trafikatu egiten zuten.

811. Jose Maria Arrieta, Saturrarango kartzelako apaiza (MUT-068/003)

Jose Maria Arrieta, Saturrarango kartzelako apaiza izan zen. Sagrariok berarekin izandako pasadizo bat kontatzen du.

812. "Sor Veneno", Saturrarango kartzelako Ama Nagusia (MUT-068/005)

"Sor Veneno", Saturrarango kartzelako Ama Nagusia zen. "Arriba España" ez bazuten esaten, eskutitzik gabe uzten zituen presoak.

813. Heriotza-zigorra kommutatu zioten (MUT-068/006)

Sei urtez egon zen Sagrario Saturrarango kartzelan. Gijon-en gerra-kontseilua egin zioten beste 12 atxiloturekin. Denei heriotza zigorra ezarri zieten baina 15 egunetara kommutatu zioten.

814. Anita Orejas, Saturrarango preso (MUT-068/007)

Anita Orejas, Gijonen berarekin preso egondako emakume baten istorioa kontatzen du. Sagrario Panes-en atxilotu zuten lehenbizikoz 17 urte zituela herriko gerrako ospitalea garbitzen zegoen bitartean.

815. Saturrarango kartzelan klaseak jasotzen zituzten (MUT-068/008)

Saturrarango kartzelan ez dute inoiz inor lanean ikusi, nahiz eta dokumentatua dagoen baietz. Eskulanak egiten zituzten, klaseak jasotzen zituzten beste preso batzuen bidez (Doña Maximina), koroa...

816. Kartzelan ezkondu zen (MUT-068/009)

Hamazortzi urterekin garai hortako mutil-lagunarekin ezkondu zen. Amaginarrebak ez zuen Sagrario gustuko, familia txiro batekoa zelako. Biak Gijoneko kartzelan zeuden. Ezkondu eta banatu egin zituzten, senarra Cruz de Santa Mariako kartzelara eta Sagrario Saturraranera. Trenez egin zuen Debarainoko bidaia eta gero autobusez Saturraranera.

817. Saturrarango medikuaren arduragabekeria (MUT-068/010)

Saturrarango kartzelako mojak. "Sor Veneno" eta "Sor Ana" ziren gaiztoenak. "Sor Benita" zen moja onena. Sagrariok bizkarrezurreko gaixotasun bat zeukan baina kartzelako medikuak ez zion jaramonik egin. Apaizaren bitartekotzarekin

lortu zuen tratatua izatea eta ohe batean lo egitea. Medikua
arduragabekeriagatik preso asko hil ziren

818. Kartzelako apaizen bihotz gabekeria (MUT-068/011)

Kartzelako preso batek eskutitz baten bidez jakin zuen seme bat eta senarra hil zituztela. Emakumea negarrez zegoen meza zegoen bitartean eta apaiz batek errieta egin zionean, Doña Jacinta izeneko preso maistra batek aurpegia atera zion. Kartzelako zuzendaria agertu zen eta gauzak argitu zituen eta apaizari kargu hartu zion.

819. Ondarroa eta Mutrikuko bizilagunen laguntza kartzelan (MUT-068/012)

Kartzelan gose asko pasatzen zutenez, patatak zuritzen zituztenean azalak jaten zituzten. Ondarroako mutil batek noizean behin janaria eramaten zion Sagrario. Mutriku eta Ondarroako jende askok janaria eramaten zieten.

820. Doña Jacintak irakatsi zion irakurtzen eta idazten (MUT-068/013)

Amataz asko gogoratzen zen Sagrario, seme-alaba guztiak kartzelan zituelako. Sagrario ez zen eskolara joaten amari lagundu behar ziolako.

821. Leku ezberdinetako presoak (MUT-068/014)

Saturrarango kartzelan leku ezberdinetako presoak zeuden, euskaldunak ere.

822. Lurrean lo egiten zuten (MUT-068/015)

Lurrean lo egiten zuten denek. Presoetako batek besteak zaintzeko ardura zuen horrek ohean lo egiten zuen.

823. Sor Veneno, kartzelako Ama Nagusia (MUT-068/017)

"Sor Veneno" deitzen zuten Sor Arantzazu deskribatzen du. Aurpegi gaiztoa zuten. Presoekin gaizki portatzeagatik bota egin zuten kartzelatik. Zuriz jantzita joaten ziren mojak.

824. Mojen zigorrak (MUT-068/018)

Jangelan hitz egitea debekatua zeukaten. Behin, asturiar bati hitz egiten harrapatu zioten eta zigor-gelaxkan sartu zioten. Gelan, hildakoen gorpuak gordetzeko kaxak zeuden eta presoak goizean atera zutenean, "zoro-begiak" zituela kontatzen du Sagrariok.

825. Saturrarango kartzelako gosea; jaioberrien heriotzak (MUT-068/019)

Garai batean haur jaioberri asko hil ziren Saturrarango kartzelan, mojek esne kondentsatua kentzen zitelako kartzelatik kanpo saltzeko. Kartzelan txerriak hazten zituzten mojak, presoek eman beharreko janariarekin. Gero kanpoan saltzen zituzten. Zomorroz betetako janaria jaten zuten.

826. Saturrarango kartzelako emakumeak (MUT-068/022)

Saturrarango preso egondako emakume batzuk aipatzen dituzte: Elgoibarko Maritxu eta Geronima, Donostiako Joakina...

827. Ustelkeriagatik kartzelako zuzendaria eta Ama Nagusia kaleratuak (MUT-068/023)

Presoentzat eta jaioberrientzat izan behar ziren elikagaiak, kanpoan saltzen zituzten. Kartzelako zuzendaria eta Ama Nagusia bota egin zituzten ustelkeriagatik.

828. Mojek janaria lapurtzen zieten (MUT-068/024)

Amak, astero janaria eramaten zien. Batzuetan, beste lagun batzuk ere. Manolita kartzelatik atera zenean, jateko zer nahi zuten galdetu zieten eta Carminak arroz-esnea eskatu zuen eta jaso zuen. Batzuetan mojak janariarekin geratzen ziren.

829. Eskutitz gabe zigortuak (MUT-068/025)

Behin mojek Carmina zigortu zuten, bi asturiar emakume heldu babesteagatik. Sor Ana-ri buruz hitz egiten du. Moja gaiztoa zen.

830. Carmen Rios, Saturrarango presoak (MUT-068/027)

Saturrarango kartzelako lehenengo zuzendaria emakumezko bat izan zen. Carmen Rios, Sagrario eta Carminaren herrikoa zen (Panes) eta haiekin zegoen Saturrarango preso. Dena berarentzat gordetzen zuen, ez zion familiari ezer kontatzen. Medikuek Carminari esan zion Carmenek ez zituela emozioak kudeatzen eta horrek gibelari kaltetzen ziola.

831. Manolita, Saturrarango presoak (MUT-068/028)

Manolita izeneko preso baten istorioa kontatzen du. Herriko gizon batek bortxatu zuen eta haur bat izan zuen kartzelan. Haurra gosearen ondorioz hil zen.

832. Neskame bezala gosea pasa zuen (MUT-068/029)

Saturrarango kartzelako baratzeetan preso euskaldun askok lan egiten zuten borondatez. Saturrarango kartzelatik atera zenean, Irungo etxe batean neskame bezala ibili zen eta gosea pasatzen zuen. Beste lan bat topatu zuenean, etxeko emakumeak ez zion ordaindu nahi izan eta ez zion errazionamendu kartila eman nahi, baina azkenean lortu zituen.

833. Artoaz eta esneaz elikatuak (MUT-068/031)

Saturrarango kartzelako erietxea kartzelatik aparte zegoen baina oso umela zen. Behin medikuarengana joan zen tuberkulosia zuelakoan eta honek esan zion birrikak oso ondo zituela, betidanik artoaz elikatu zelako.

834. Kartzelatik hondartzara paseoan (MUT-068/034)

Hondartzara joaten zirenean, Carmina uretaz sartzen saiatzen zen beti. Behin preso batek itsasoak ekarritako zerbait jan zuen eta bertan hil zen.

835. Arrantzaleek arraina eramaten zieten kartzelara (MUT-068/035)

Arrantzaleek arraina soberan zutenean, labean prestatu eta kartzelara eramaten zizkieten.

836. Seme jaioberriarekin epaitu zuten (MUT-069/004)

Asturiasen atxilotu zutenean haurdun zegoen. 1938ko abuztuaren 10ean kontseilu-gerrako epaiketa egin zioten eta bost aste zituen seme jaioberriarekin joan zen. Irailean Saturrango kartzelara eraman zuten.

837. Seme jaioberria koinataren esku utzi behar izan zuen (MUT-069/005)

Saturrango kartzelan egon baino lehen, Oviedon egon zen espetxeratua. Oso janari gutxi zeukanez semea elikatzeko, koinata bati utzi zion semea eta harekin bizi izan zen zazpi urte bete zituen arte.

838. Saturrango kartzelara heltzean, berrogeialdia egiten zieten presoek (MUT-069/007)

Oviedoko kartzelatik presoak atera zituztenean kantatzen zuten abestia. Saturranganerako bide guztia abesten egin zuten baina kartzelara iristean denak ixildu ziren. Berrogeialdia egin zuten ziega batean eta behatxulotik kontrolatzen zituzten. Berrogei egun eta gero, 4. pabilioira eraman zituzten bera eta bere herriko beste presoak.

839. Janariaren truke arropak egiten zituzten (MUT-069/008)

Bost presok egiten zuten lo elkarrekin. Manta bat erabiltzen zuten koltxoi bezala eta beste bat tapatzeko. Amak bisita batean koltxoi bat eraman zion. Inguruko herrietarako erropak egiten zituen eta estraperloan saldu. Horrela, Asuncion kartzelatik atera zenean, lan berdinarekin jarraitu zuen. Ondarroako biztanleek asko lagundu zieten Saturrango presoek.

840. Gerra aurreko akatsengatik barkamena eskatzera behartuak (MUT-069/010)

Saturraranen, presoak lerrokatu eta gerra aurretik egindako akatsengatik barkamena eskatu behar zuten. Asuncion eta bere lagun batzuek ez zuten nahi izaten besoa altxatzea eta zigortu egin zituzten. Batzuk beste kartzela batera eraman zituzten eta Asuncion beste pabilioi batetara.

841. Saturrango kartzelako mojak (MUT-069/011)

Saturrango kartzelan, pabilioi batetik besterako aldaketa nabarmenena mojak izaten ziren. Sor Angeles ondo portatzen zen presoekin. Ama Nagusia oso gaiztoa zen.

842. Gose handia pasa zuten Saturraranen (MUT-069/015)

Saturrango kartzelan jaten zutena kontatzen du: txokolate ontza bat, zomorroz betetako dilistak... Behin pertza bat lurrera erori zen eta presoak korrika joan ziren lurretik jatera.

843. Mojek estraperloan janaria saltzen zuten (MUT-069/016)

Kartzelako mojek, janaria estraperloan saltzen zuten. Txerri batzuk ere zeuden eta presoek bideratu beharreko janariarekin elikatzen zituzten, gero saltzeko.

844. Saturrarango kartzelako kontuak (MUT-069/018)

Kartzelako zuzendaria aurrez-aurre ikusten bazuten, agurtu egin behar zuten besoa altxatuz. Bi Ama Nagusi ezagutu zituen. Bat Mutrikukoa zen eta ondo portatzen zen beraiekin.

845. "Justiziaz hilko duzu", bostgarren mandamendua (MUT-069/019)

Kartzeko egun normal batean, goizean esnatu eta lerrokatu egiten ziren. Pabilioiak deskribatzen ditu. Mezan, "Ez hil" mandamentuaren ordezt, apaizak "Justiziaz hilko duzu" esaten zuenean, presoak asaldatu egiten ziren.

846. Kartzelako janaria eta arropak (MUT-069/021)

Saturrarango kartzelatik emakumezko zuzendari bat egon zen eta berarekin, nahiko ondo jan zuten. Kartzelan zeuzkaten arropen buruz hitz egiten du.

847. Hitz egiteagatik, eskutitz gabe zigortuak (MUT-069/023)

Mojen aurrean hitz egitea debekatua zeukaten eta harrapatuz gero, ez zizkieten eskutitzak banatzen.

848. Izoztutako patata azalak jaten; gosea (MUT-069/024)

Patatak zuritzen zituztenean ezin zuten hitz egin eta izoztutako patata-azalak jaten zituztenean ere zigortu egiten zituzten. Kanpotik jasotzen zituzten janari asko mojek errekiatu egiten zituzten.

849. Lan egun bakoitzeko, bi zigor egun gutxiago (MUT-069/025)

Kartzelan zegoela, Egaña lantegiarentzat dominak eta beste batzuentzat arropak egiten zituzten. Lan egiteagatik zigorra murrizten zitzairen, lan egun bakoitzeko, bi zigor egun gutxiago

850. Saturrarango kartzelako maistrak (MUT-069/034)

Saturraranen preso zeudela, maistrak ziren emakume batzuek klaseak ematen zituzten eta haiekin asko ikasi zuten. Asunción-en irakaslea Oviedoko Tere zen.

851. Saturrarango kartzelatik indultu bidez irten zen (MUT-069/035)

Saturrarango kartzelan 1938tik 1943ra egon zen preso. Indultuak behar zituzten libre gelditzeko eta Mutrikuko eta bere jatorrizko herrikoak lortu zituen.

852. Metraila gorputz barruan (MUT-069/037)

Gorputzean daukan metraila mugitu egiten zaio. Bere ahizpak barruan zeukan bala ere pixkanaka ateratzen joan zitzaion. Metrailaren zauriak ez zaizkio inoiz infektatu.

853. Saturrarango kartzelatik irten zenean Mutrikun gelditu zen bizitzen (MUT-069/038)

Saturrarango kartzelatik atera zenean, Mutrikun bizitzen jarri zen ahizparekin. Etxearengatik hamar pezeta ordaintzen zituzten eguneko. Debako ostatu

batean lanean hasi zen Asuncion, eguneko 5 pezetagatik. Ahizpa txiki bat ekarri zuten Asturiasetik. Zertan lan egiten zuten.

854. Kartzelatik irteteen Mutrikun edo inguruan geratu ziren asko bizitzen (MUT-070/005)

Kartzelatik irteten zirenean, ezin ziren epaituak izandako lekutik 450 km baino gutxira hurbildu. Saturraranez irteten zirenean, preso batzuk Mutrikun edo inguruan bizitzen gelditu ziren. Herriko jendearen laguntza izan zuten lana eta ostatua aurkitzeko.

855. Kartzela ondoren Mutrikun bizitzen (MUT-070/006)

Gerratik irteten zenean, Asturiasen zeukan ahizpa bat Mutrikura eraman zuen berarekin eta lanean hasi zen berehala. Gutxira, Asuncionez bere seme-alabak eraman zituen Mutrikura ere.

856. Gerrako umezurtzentzat dirulaguntzak (MUT-070/007)

Gerrako umezurtzek 75 pezeta jasotzen zituzten hilabetero. Asuncionez bi seme-alaba zituen arren, semearentzat zen dirulaguntza atzera bota zioten, epaitegiak eta elizak ama ezkongabetzat jotzen zuelako. Arazoa nola konpondu zuen kontatzen du. Apaizak esan zion ezkontza zibil batzuek gehiago balio zutela beste batzuk baino.

857. Kartzelako elizkizunak (MUT-070/009)

Saturrarango kartzelako derrigorrezko elizkizunetara bakarrik joaten zen baina ez zuen jauna hartzen.

858. Saturrarango kartzelako zigorrak (MUT-070/010)

Saturrarango kartzelan, preso batzuek zaindari lanak egiten zituzten. Zigorrak.

859. Presoen arteko harremana ona zen (MUT-070/011)

Arropak errekan garbitzen zituzten, preso bakoitzak bereak. Mojei baimena eskatu behar zieten. Eskulanak egiten zituzten. Presoen artean harreman ona zegoen.

860. Gaixotasunak kartzelan: tifusa, azkura... (MUT-070/012)

Kartzelan txertatu egiten zituzten presoak. Tifusaz hau eta preso asko hil ziren bera kartzelara heldu baino lehen. "Pika-pika" gaixotasunak, azkura sortzen zuen.

861. Ez da inoiz Saturraranera bueltatu (MUT-070/013)

Kartzelako kanpoaldea soldaduek zaintzen zuten. Kartzelatik atera zenetik behin bueltatu da kartzela zegoen lekura.

862. Amarekin Saturrarango kartzelan (MUT-071/002)

Raul Santanderren jaio zen baina ama atxilotu eta Saturrarango kartzelara eraman zutenean, berarekin joan zen. Lau bat urte zituela atera ziren kartzelatik eta pare bat astez Urresti baserrian egon ziren, amak lana lortu arte. Ama, inguruetan lanean ibili zen, Santanderrera bueltatu zen arte.

863. Kartzelan mojen begiradapean jolasean (MUT-071/008)

Ume bezala Saturrarango kartzelan zein pabilioitan egon zen gogoratzen du Raulek: sartu eta lehenengoa eskumara. Astigarraga fonda izan zen lehenago. Han bertan jolasten zuten haurrek, mojen begiradapean.

864. Beitia familiakoen babespean kartzela ostean (MUT-071/009)

Lau urte zituenean atera zen Raul amarekin Saturraranetik. Hasieran Kakatzan egon ziren eta amak Deban lana aurkitu zuenean, Beitianekoek hartu zuten Raulen zaintza. Kartzelan zeudenetik ezagutzen zuten familia hau. Beraiekin hazi zen eta familiako ofizioa ere ikasi zuen. Momentu batean abizena eman nahi izan zioten baina Raulen amak ez zuen nahi izan.

865. Santanderrera familia ezagutzera (MUT-071/011)

Santanderrera joan zen 16 urterekin bere borondatez, hango familia ezagutzera: anaiak, amona, osabak... Osaba batek zapata-denda bat zeukan Santanderren. Raulek anaiari buruz hitz egiten du.

866. Kartzelako urteei buruz ez zuen inoiz hitz egiten (MUT-071/012)

Amak inoiz ez zuen hitz egiten kartzelari buruz, ezta Raulekin ere. Deban eta Eibarren bizitzen egon ostean, Santanderrera bueltatu zen ama.

867. Kartzelatik ateratzean, ezin herrira bueltatu (MUT-071/014)

Hogeita hamar urte baino gehiago pasa ziren arte, Raulen ama ez zen itzuli Santanderrera, nahiz eta familiarekin harreman ona zuen. Agian, deserriratu zegoela komentatzen dute.

868. Saturrarango kartzelako oroitzapenak umea zelarik (MUT-072/003)

Mari umetan Saturrarango kartzelan egon zen bere amarekin. Emakume askoren besoetan egoten zela gogoratzen da. Kartzelako usaina.

869. Kartzelatik ateratzean ama Mutrikun gelditu zen (MUT-072/004)

Ama kartzelatik atera zenean, Ondarroara joan zen lanera, harategi batera. Gero Mutrikura itzuli zen eta neskame bezala lan egin zuen. Mari osaba-izebekin bizi zen.

870. Goserik ez zuen pasa gerraostean (MUT-072/006)

Amonarekin bizi izan zen bitartean ez zuen goserik pasaatu. Errazionamenduko ogi beltzarekin eta zeukatenarekin, ondo moldatzen ziren. Saturrarango kartzelan goserik pasa zuela ez du gogoratzen.

871. Alargun, sei seme-alaba eta Saturraranen preso (MUT-072/008)

Saturrarango kartzeko oroitzapen oso gutxi ditu, ez du gogoratzen gaizki pasatu zuenik. Beste ahizpa bat Madrileko umezurztegi batean egon zen. Ama atxilotu eta Saturraranera eraman zutenerako alarguna zen eta sei seme-alaba zituen. Aita fusilatu egin zuten.

872. Saturrarango kartzelako oroitzapenik ez (MUT-072/010)

Saturrarango kartzelako oroitzapenik ez du ia. Kontatu diotena daki.

873. Kartzelatik ateratzean, ezin herrira bueltatu (MUT-072/015)

Carmina Merodio, Saturrarango espetxean egon eta gero bere herrira itzuli zen eta atxilotu eta Martutenera bidali zuten. Antza, kasu batzuetan ezin izaten zuten beraien herrira bueltatu.

874. Ama salatu zuenaren alabarekin autobusean (MUT-072/016)

Behin amarekin autobusean zegoela, ama salatu zuen alaba ikusi zutenekoa kontatzen du.

875. Mutrikuko kartzela (MUT-073/002)

Guardia Zibila aitaren bila joan zen etxera eta Debara eraman zuten preso eta handik Mutrikuko kartzelara. Kokapena.

876. Soldadu italiarrak herriko etxeetan lotan (MUT-073/003)

Aitarekin batera beste lagun bat ere ba omen zegoen preso. Italiar soldaduak herriko familien etxeetan lo egiten zuten. Aitari espetxera etxetik koltxoia eraman zioten.

877. "Txurrukaneko" tabernan armak ezkutatzen (MUT-073/004)

Aita atxilotu zuten, norbaitek "Txurrukaneko" tabernan armak gordetzen zituztela salatu zuelako. Aitaren salaketa eta epaiketako dokumenturik ez dute.

878. Aitaren fusilamendua (MUT-073/005)

Aita espetxean inkomunikatuta egon zen. Norbaitek esan zien, horrek hurrengo egunean fusilatuko zutela esan nahi zuela. Aita non eta nola fusilatu zuten. Abadea bertan zen.

879. Udalaren jarrera aitaren fusilamendua eta gero (MUT-073/006)

Aita fusilatu eta hurrengo egunean, ama udaletxera joan zen azalpen eske, ez bait zuten epaiketa prestatzeko denborarik izan . Gerora, udaletxeko norbaitek esan zion berriz ezkontzeko.

880. Herriko soldaduek fusilatu zuten aita, ez italiarrek (MUT-073/007)

Aita fusilatu eta gero, etxean zituzten soldadu italiarrek etxea utzi zuten, lotsaz. Aita, herriko soldaduek fusilatu zuten. Soldaduak Zabel inguruan egoten ziren.

881. Tropak herrira sartzen bandera ezberdinekin (MUT-073/008)

Mutrikun tropa ezberdinak egon ziren. Errepublikanoak bandera zuriarekin sartzen ziren. Italiarrak harritu egiten ziren "gorrien" etxeetan elementu erlijiosoak zeudela ikustean. Nazionalak Espainiako banderarekin sartzen ziren herrira.

882. Errekisatzeak eta mehatxuak (MUT-073/009)

Nahiz eta soldaduak herriak egon, bizitza normala egiten zuten. Herriko nazionalak egiten zituzten errekiatzeak etxeetan. Mehatxuak.

883. Fusilatu eta gero kanposantuan hilobiratu zuten (MUT-073/010)

Aita kanposantutik kanpo zegoen sagasti batean fusilatu zuten. Zipriana Lete, Taurina Flores eta medikua joan ziren gorpuaren bila. Garbitu, frantziskotarren abituaz jantzi eta kanposantuan hilobiratu zuten.

884. Karlistak botua derrigortzen (MUT-073/011)

Karlistak non zeuden. Baserrietara joaten ziren, beraiei botua emateko derrigortzen eta Mari Doloren aitak ez zuen hori onartzen. Tabernak. "Mokillanekua".

885. Falangistak eta erreketek uniformez jantzita joaten ziren elizara (MUT-073/012)

Garai hartako bere adineko karlista batzuk aipatzen ditu. Pepita Txikita. Rosario eta Maria Artzain. Elizara sartzean, Espainiako ereserkia jotzen zen. Erreketeak eta falangistak uniformez jantzita joaten ziren elizara. Jostunak.

886. Don Pepeneko etxea, denen koartela (MUT-073/014)

Gerra garaian mutilak eta gizonak falta ziren herrian. Munizioak nora eramaten zituzten. Herrira sartzen ziren soldadu guztiak (karlistak, gorriak, errerepublikanoak...) "Don Pepeneko" etxean geratzen ziren.

887. Baserriko morroiak (MUT-073/015)

Gerra garaian, eskolara joaten jarraitu zuen. Etxean, emakumeak eta morroiak geratu ziren. Inguruko mutilak izaten ziren.

888. Soldaduak patruilatzen (MUT-073/016)

Herrian soldaduak patruilatzen ibiltzen ziren. Ibilbideak.

889. Soldaduen etxolak (MUT-073/017)

Gerra garaian baserri ingurua nolakoa zen. Inguruko lantegiak eta etxeak. Soldaduen etxolatik pasatzean, ibiltzeko baimena erakutsi behar zuten.

890. Norbait atxilotzean, manifestazioak herrian (MUT-073/018)

Norbait atxilotzen zutenean, manifestazioak egiten ziren herrian. Ibilbidea.

891. "Auxilio Social" a Mutrikun (MUT-073/019)

"Auxilio Social" ean bazkariak ematen zituzten eta umezurtz geratzen zirenak joaten ziren gehienbat. Abertzaleek gerra aurretik batzokia zegoen lekuan ere ematen zituzten otorduak.

892. Gerratik itzulera (MUT-073/020)

Gerra hasieran jendea herritik joan zen. Gerra amaitzean, familiakoen bila zebilen jendea. Bakoitza bere etxera bueltatzen zen

893. Herriko nagusiak gerra garaian (MUT-073/021)

Pertxal, Arrieta postaria, Pelayo... herrian geratu ziren gerrak iraun zuen bitartean, Herriko nagusiak ziren, Erremiro, aguazil errepublikanoa.

894. Gosea gerra ostean; irina egitera gauez (MUT-073/022)

Gosea gerra ostean. Arrantzarik ez, gizonik ez zegoelako. Emakume asko neskame sartu ziren. Irina egitera gauez joaten ziren Berriatura.

895. Anaia kontzentrazio-esparruan (MUT-073/023)

II. Mundu Gerran, Jose Mari, anaia gaztea, kontzentrazio-esparru batean egon zen. Frantziara joan zen bizitzera.

896. Saturrarango espetxera bisitan (MUT-073/026)

Aitak izara zuria eskegi zuen leihoan errepublikanoak herrian sartzean. Saturrarango espetxea, Eibarko izeba bat zegoen preso eta orduan hasi ziren joaten.

897. Saturrarango espetxera janaria eramatera (MUT-073/027)

Saturrarango espetxea nolakoa zen. Mutrikutik jende asko joaten zen presoak bisitatzen. Esnea eta jatekoa eramaten zuten.

898. Elizaren jarrera gerra garaian (MUT-073/028)

Mojak. Saturrarango emakumeen haurrak inguruko herrietara bidaltzen zituzten. Elizaren indarra. Beldurra. Fedea.

899. Maluta tratuak (MUT-074/001)

Aita marinela zuen baina arto-maluta tratutan ibiltzen zen, baserriz-baserri malutak zuritzen. Manuel osaba batekin bizi zen. Malutekin nola lan egiten zuten kontatzen du. Maluten prezioa.

900. Ama umea zela galdu zuen (MUT-074/003)

Gurasoak mutrikuarrak zituen eta hiru anai dira, Manuel zaharrena. Ama galdu zuen hamar urte zituela eta izebarekin bizi izan ziren.

901. Familia arrantzalea (MUT-074/004)

Gerra hasi zenean moilan bizi ziren, osasun-etxearen ondoan dagoen etxean. Aita marinela zuen eta ama sareak konpontzen eta bestelako lanak egiten.

902. Aita karlista, gerra hasieran Donostiara (MUT-074/007)

Lehengusu bat zirkulu karlistako kidea zen eta haren bidez Manuelen aita ere sartu zen. Gerra hasita zegoela, hauteskundeak egin ziren eta 33 karlista Mutrikuko kartzelan egon ziren preso. 1936ko irailean nazionalak herrian sartu zirenean, herriko karlistak Donostiara eraman zituzten, tartean Manuelen aita.

903. Tropak Mutrikun sartu zirenean (MUT-074/008)

Gerran, Mutrikun tropak nondik eta nola sartu ziren. Nahiz eta ezkutatuta egon, istiluak ikusi zituzten.

904. Nazionalak sartzean, itsasotik ihes egiten (MUT-074/009)

Gerra hasi zenean, Mutrikuar askok moilatik ihes egin zuten itsasontzietan. Normalean gauetan ateratzen ziren. Kofradiako kontuak. Soldadu eta milizianoak ere ibiltzen ziren moilan batzuetan. Nazionalak Mutrikura sartu zirenean jende askok alde egin zuen.

905. Abadea fusilatu zutenekoa (MUT-074/010)

Abadea fusilatu zutenekoa kontatzen du.

906. Zabielen intendentzia zegoen (MUT-074/011)

Zabielen intendentzia zegoen eta jatekoak bertan biltzen zituzten soldaduek.

907. Lekeitiotik kanoiak botatzen zituzten (MUT-074/012)

Udaberria heldu arte baserrian egoten zen Manuel. Handik fronteak ikusten zituen. Lekeitiotik kanoikadak botatzen zituzten.

908. Kanoikadak Alkoleatik (MUT-074/013)

Behin baserri inguruan lehengusuekin zegoela bonbak bota zituzten eta aitona bat hil zuten. Denbora batez ez zen bertara itzuli. Komentu inguruan eta Atxukaben ere bota zituzten bost kilo inguruko bonbak. Alkoleatik botatzen ziren kanoikadak.

909. Bederatzi hilabetez arrantzarik ez (MUT-074/014)

Gerra garaian, emakumeak, haurrak eta karlistak gelditu ziren herrian. Nazionalek herria hartu zuten arte, arrantzarik ez zen egiten Mutrikun. Gero, normaltasunera bueltatzen hasi ziren eta itsasontzi gehienak ateratzen ziren.

910. Arrantza gerra garaian (MUT-074/015)

Gerra garaian, gizonezkoak gerran zeudenez, 18 urtetik beherako gazteak ateratzen ziren arrantzara. Hurbil arrantzatzen zuten, ez ziren urrutira ateratzen. Gauetan ateratzen ziren eta uretan egin zuten "despeska".

911. Eskabetxerak Mutrikun (MUT-074/016)

Gerra garaian Mutrikun eskabetxera nork zuen kontatzen du. Moilan egoten ziren. Manuel ere joaten zen eskabetxera lanak egitera.

912. Kortan babestuta (MUT-074/019)

Kanoikadak botatzen zituztenean, Etxeberri baserrian oiloak astoratuta ibiltzen zirela gogoratzen du. Baserrian zeudenean, kortara jaisten ziren babestera.

913. Hegazkinak pasatzen Gernikako bonbardaketan (MUT-074/021)

Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, hegazkin asko ikusi zituzten pasatzen eta hurrengo egunean jakin zuten gertatutakoa.

914. Gaztainondoaren egurra jasotzen zuten (MUT-074/022)

Egurra biltzera nora joaten ziren kontatzen du. Gaztainondo asko zeuden bertan, baina gaur egun pinua dago. Egurra nola ateratzen zuten.

915. Arraina Mutrikun eta Deban saltzen zuten (MUT-074/023)

Amuak Ondarroara eramaten zituen amak. Arraina herrian bertan edo Deban saltzen zuten.

916. Leku guztietara oinez joaten ziren (MUT-074/024)

Autobusa zegoen Mutrikura baina dena oinez egiten zuten. Deba eta Ondarroara oinez joaten ziren.

917. Saturraranen milizianoen instrukzioak (MUT-074/025)

Saturraranen, soldaduak egon ziren gerra hasi aurretik. Armak nola erabili ikasten zuten bertan. Gerra ostean, kartzela bihurtu zuten.

918. Mutrikuko Erdiko kaleko kartzela (MUT-074/026)

Erdiko kaleko kartzelan aita preso egon zenean, janaria eramaten zioten. Gerra aurretik, kartzela zaintzen herriko errepublikanoak eta milizianoak egoten ziren.

919. Deba eta Mutriku arteko zubia apurtu zutenekoa (MUT-074/027)

Deba eta Mutriku arteko zubia apurtu zuten egunaz hitz egiten du. Ez zuten lortu zubia guztiz suntsitzea. Lekeitiotik botatzen zituzten kanoikadak oso indartsuak izaten ziren.

920. Izebaren upategian babesten (MUT-074/029)

Nazionalak Mutrikun sartu zirenean, izebaren etxean zegoen upategian gorde ziren. Moilan bizitza lasaiagoa zen baina orokorrean ez zen istilurik egoten.

921. Bakailaoa eskabetxeratik lapurtzen (MUT-074/031)

Gerra garaian, bakailaoa eskabetxeran egoten ziren eta gaueta bertara joan eta lapurtu egiten zituzten, etxean jateko. Goserik ez zuten pasa.

922. Gosea, errazionamendua eta ogi beltza (MUT-074/032)

Gerra garaian ez zuten goserik pasa, baina gerora bai. Errazionamendua. Ogi beltza.

923. "La Voz de España" egunkaria (MUT-074/036)

"La Voz de España" egunkaria irakurtzen zen gerra garaian. Etxez-etxe saltzen zuen baina Manuelek ez zuen egunkaria irakurtzen. Hogeitabat egunkari saltzen zituen egunero.

924. Emakumeei ilea mozten zieten zigor bezala (MUT-074/042)

Zigor bezala emakumeei ilea mozten zitzairen. Soldaduen lekuak garbitzera behartzen zituzten asko ere.

925. Salaketak eta fusilamenduak (MUT-074/045)

Herrian fusilatutako beste gizon bati buruz hitz egiten du. Gizon errepublikarra eta intelektuala. Herrian esaten zen Villa Dionisiako norbaitek salatu zuela eta horregatik fusilatu zutela.

926. Bizilagunak sorginak zirela uste zuen (MUT-075/002)

Jaio zen etxea. Bizilagunak: Dorotea Paletas, Ana Batista... Sorginak zirela uste zuten Rosariok eta anai-arrebek. Bera gazteena, "puzkar-kumia".

927. Anaia gerran hil zen, itota (MUT-075/003)

Anaietako bat gerran hil zen, itota, Balear Uharteetan.

928. II. Errepublika Mutrikura heldu zenean (MUT-075/004)

II. Errepublika aldarrikatu zenean jolasean zebiltzan eta kalean zehar oihuka hasi ziren.

929. Mutrikun babes bila, gerra hasi zenean (MUT-075/005)

Gerra hasi zenean, nahiz eta haurrak izan, bazekiten zer gertatzen zen. Mutrikura jende ugari joan zen haien herrietatik ihesi.

930. Mokillanekuenera legatzak eramaten (MUT-075/006)

Rosarioren aita arrantzalea zen eta osabarekin Gran Solen ibiltzen ziren. Osaba Ziriako patroia zen. "Mokillanekuak" taberna zuten Barrenkalean eta bertara legatza eramaten zuten.

931. Errazionamendua gerra garaian (MUT-075/007)

Errazionamenduaren bila joaten ziren udaletxe azpiko eskoletara. Zakuak nola betetzen ziren janariz. Behin tiroketa bat egon zen errazionamenduaren bila joan zirenean.

932. Nazionalak Irisarretik behera; Sinboako babeslekuak (MUT-075/008)

Nazionalak Irisarretik heldu ziren Mutrikura. Sinboako babeslekua.

933. Olio eskasia (MUT-075/009)

Alondegira olio bila joaten ziren. Galtzerdiekin olio batzen zuten.

934. Artoa eta garia ehotzen (MUT-075/011)

Artoa eta garia errotan ehotzen zuten eta ia Mendarora arte joaten ziren. Amak taloak egiten zituen. Atxukarro baserriak errota zuen eta guardia zibilak kontrolak egiten zituen.

935. Soldadu italiarrak "Txurrukaneko" etxian (MUT-075/012)

"Txurrukaneko" etxean soldadu italiarrak egon ziren. "Al Italiano" eta "El Abisinio" abesten zuten haiekin.

936. Milizianoak igandetan pasatzen ziren, beti armatuak (MUT-075/013)

Miliziano emakume eta gizonezkoa zeuden. Ordura arte Rosariok ez zuen inoiz emakumerik ikusi galtzak jantzita. Igandetan, errazionamendu egunetan, ikusten zituzten Saturrarana eramango zituzten presoekin batera. Armatuak joaten ziren.

937. Tropa ezberdinak Mutrikun (MUT-075/014)

Nazionalak Mutrikun sartu aurretik, komentuko mojek kanpaiak jo zituzten, errepublikanoek bertan sartu nahi zutelako. Arratsaldean, nazionalak sartu ziren Irisarretik behera. Tropa ezberdinak egon ziren Mutrikun. Astigarraganeko etxean, soldadu nafarrak egon ziren. Erro-ri buruz hitz egiten du.

938. Salaketak eta fusilamenduak (MUT-075/015)

Etxean herriko giro politikoaz hitz egiten zen. San Juan Txikiren hilketari buruz asko hitz egin zen herrian. Salaketa baten ondorioz hil zuten. Herriko emakume bat ere Donostian neskame zegoela fusilatu zuten, salaketa bat eta gero.

939. Erdiko kalean, kartzela (MUT-075/016)

Erdiko kalean kartzela egon zen. Etxearen izena. Aita bertan preso egon zen, nazionalak herrian sartu aurretik. Kokapena. Zaintzaileak herriko jendea ziren.

940. Don Pelayo eta bere maitalea (MUT-075/018)

Formatzera eta tropak izatera jolasten zuten meza eta gero. Don Pelayo eta bere maitaleari buruz. Maixako etxea.

941. "Pelayuak" (MUT-075/020)

"Pelayuak" zer ziren. Elizara joateko berezi jantzi eta elizara formatzen joaten ziren.

942. Gerraosteko errazionamendua (MUT-075/021)

Gerra garaian eskolara joaten jarraitu zuten. Eskolen kokalekua. Errazionamendua gerraostean.

943. Garai batean zabor gutxiago sortzen zen (MUT-075/022)

Garai batean askoz ere zabor gutxiago sortzen zen.

944. Eskola utzi eta eskabetxera (MUT-075/023)

Eskolan ibili zen 13-14 urtera arte eta eskabetxean lanean hasi zen.

945. Gerrako garaileen jarrera herrian (MUT-075/024)

Gerraosteko liskarrak herritarren artean. Garaileen jarrera.

946. Gerra ostean, alderdi politiko guztiak desagertu ziren (MUT-075/026)

Osinaldeko goialdean zegoen errepublikanoen egoitza. Gerra aurreko alderdi politikoak. Gerra ondoren, denak desagertu ziren.

947. Herria hartzen zutenean, kanpaiak (MUT-075/028)

Nazionalak herrira sartzen ziren egunaren urteurrenean kanpaiak jotzen zituzten. Zigorak.

948. Francoren bisita Mutrikun (MUT-075/029)

Elizaren jarrera frankismoarekiko. Franco Mutrikura joan zenekoa. Elizan egin zen ekitaldi bat.

949. Etxea errekisatu eta bertako neskame lanak egin (MUT-076/001)

Etxea errekisatu egin zieten eta bertan geldituko ziren soldaduentzat oheak prestatu behar izan zituzten. Egunero joaten ziren errekisatutako haien etxera oheak egitera, etxea txukuntzera...Okinak laguntzen zien, bakarrik ez joateko soldaduengana.

950. Osaba apaizak ihes egin zuen (MUT-076/002)

Etxea errekisatzean, osabaren etxera joan ziren bizitzera. Apaiza zen osaba batek ihes egin behar izan zuen, abertzalea zelako. Gero, Ameriketara joan zen.

951. Ama, Emakume Abertzale Batzarreko buru (MUT-076/004)

Itziarren ama Emakume Abertzale Batzarreko burua zen Mutrikun.

952. CNT-koak indarrez komentura sartu nahian (MUT-076/005)

CNT-koek Mutrikuko komentura sartu nahi izan zuten, lo egiteko. Mojak kanpaiak jotzen hasi ziren eta Joakin Txiki laguntzera joan zen, tornutik sartuta.

953. Herria uztera behartuak (MUT-076/006)

Gerra garaian, hainbat ama eta seme-alaba frontea bukatzen zen lekura arte eramaten zituzten. Haietako batzuk gogoratzen ditu Itziarrek.

954. Erreketeak eta falangistak (MUT-076/007)

Erreketeak karlistak ziren; falangistak nazional-sozialistak. Falangistak adeitsuagoak ziren eta herritarrek laguntzen zituzten. Erreketeek ez.

955. Gerratik ihesi, elikagaiak Mutrikun utzi zituztenak (MUT-076/008)

Gerratik ihesi, Mutrikun Donostiako epai bat eta bere familia agertu ziren, maletaz eta janariz beteta. Elikagaiak utzi behar izan zituzten Erdiko kalean eta han zeudela milizianoak agertu zen.

956. Milizianoen errexisatzeak (MUT-076/009)

Milizianoek harrapatzen zuten guztia errexisatzen zuten. Milizianoak irailean sartu ziren Mutrikun, herriaren gobernua abertzaleen esku zegoenean. Errepublikanoak frontera joanda zeuden.

957. Saturrarango seminarioa, Loiola Batailoiko kuartela (MUT-076/010)

Gerra garaian, anaia Loiola Batailoian zegoen eta Saturrarango seminarioa zen haien kuartela. Behin mendian bi egunez galduta ibili ziren kuartelera ezin itzulita. Batzuk heldu ziren, baina beste batzuek frontearekin topo egin zuten eta preso hartu zituzten.

958. Anaia, Castro Urdialesen preso (MUT-076/011)

Itziarren anaietako bat frontean zauritu zen eta aitarekin Donibane Lohitzunera lehenengo eta Bilbora gero ihes egin zuen. Castro Urdialesen preso egon zen.

959. Igandean sartu ziren nazionalak Mutrikun (MUT-076/012)

Nazionalak igandean sartu ziren Mutrikun, arratsaldeko zazpitan. Nondik sartu ziren. Goiko plazan bildu ziren, herriko argia moztu zuten, elizan abesten egon ziren... Ofizial baten aurrean "Viva España" esatera behartuta sentitu zen Itziar.

960. Nazionalen tropak herrira sartzen (MUT-076/013)

Nazionalak oso prestatuak zeuden eta tropetan sartzen ziren, ilaretan, banderekin, musikarekin... Astebetean musika egon zen herrian eta garaileen papera hartu zuten. Haietako batek Itziarri dantza eskatu zioneko istorioa.

961. Jarrera ona egiaztatzeko eta fusilatuak ez izateko txostenak (MUT-076/015)

Mutrikun gerran eta ondoren hil zituzten denak, herritarrek egindako salaketengatik gertatu ziren. Presoen jarrera ona ziurtatzeko txostenak eskatzen zituzten, fusilamendua saihesteko. Txosten negatiboak suntsitzen zituztenak bazeuden.

962. Osaba, Saturraraneko kapilaua (MUT-076/016)

Osaba bat apaizaren laguntzailea zen Mutrikun baina azken hauteskundeetan botoa beste bati emateagatik zigortua izan zen eta Saturraranera bidali zuten kapilau gerra garaian. Espetxean egondako apaizei buruz hitz egiten dute. Osabaren heriotza.

963. Zabel etxean, nazionalen intendentzia (MUT-076/017)

Mutrikura nazionalak sartu zirenean, astebetez egon ziren herrian. Zabel etxean nazionalen intendentzia zegoen.

964. Frontera joan nahi ez (MUT-076/018)

Mutrikun frontea non zegoen. Gudariak. Tropa eta batailoien arteko ezberdintasuna handia zen.

965. Alkoleako kanoia (MUT-076/019)

Alkolean itsasontzia zegoen, kanoiarekin.

966. Ingelesen itsasontzietan ihesi (MUT-076/020)

Ingelesen itsasontziekin ihes egitea zegoen bakarrik. Bertako itsasontzi edo txalupekin ihes egitean, denak preso hartzen zituzten. Cervera itsasontzia.

967. Balkoitik soldadu italiarrei begira (MUT-076/021)

Soldaduak sartzen zirenean, kanpaiak jotzen ziren. Italiar asko egon ziren Mutrikun. Egutero abesten zuten eta balkoitik begira ibiltzen ziren.

968. Soldadu italiarrekin harreman ona (MUT-076/022)

Mutrikun gizon helduak, emakumeak eta haurrak bakarrik gelditu ziren gerra garaian. Soldadu italiar asko zeuden herrian, baina ez zuten inongo arazorik izan herritarrekin. Goxokiak ematen zizkieten hurrei.

969. Nazionalek deitutako manifestazioetara derrigorrez joan beharra I (MUT-076/023)

Nazionalek herri edo hiri bat hartzen zutenean, oihuka abisatzen zuten herrian zehar eta manifestaziorako deia egiten zuten. "La toma de Teruel!" oihukatzen zutela gogoratzen du eta atez ate joaten ziren abisua pasatzen. Derrigorrez joan behar izaten zuten.

970. Nazionalek deitutako manifestazioetara derrigorrez joan beharra II (MUT-076/025)

Nazionalek deitutako manifestazioetara derrigorrez joan behar izaten zuten. Atez ate jendearen bila joaten ziren, gehienak emakumeak eta haurrak. Herritarrek ez ziren isilik gelditzen eta aurre egiten zieten nazionalei.

971. Pasaporterik gabe, ezin Ipar Euskal Herrira joan (MUT-076/026)

Ama osaba hil zenean bueltatu zen Mutrikura, gerratik bueltan. Pasaporteak ez zirenez ematen, jendeak ezin zuen Ipar Euskal Herrira joan familiarekin elkartzeko.

972. "Pelayos y flechas" (MUT-076/028)

"Pelayo"ak eta "Flecha"k nortzuk ziren eta nola janzten ziren. Kantak, banderak, formazioa, lemak...

973. Laguntza soziala, falangisten eta "margariten" esku (MUT-076/029)

Laguntza Soziala falangistek Montalivet-en ematen zuten. Emakume karlistei "margaritak" deitzen zieten eta haiek ere laguntza soziala ematen zuten.

974. Aita Barandiaran, Mutrikutik Donibane Lohitzunera (MUT-076/030)

Arrantzan ateratzea debekatua egoteaz gain, itsasontzi guztiak alde eginda zeuden. Aita Barandiaranek Mutrikutik egin zuen ihes 1936an, nazionalak sartu aurretik.

975. Salbokonduktoak, herritik ateratzeko (MUT-076/031)

Erreketeek herriko mugak kontrolatzen zituzten, lurrez zein itsasoz. Salbokonduktoek Gipuzkoan ibiltzeko bakarrik balio zuten. Mallabira joateko, salbokonduktoa Eibarrera ematen zioten eta handik oinez jarraitzen zuen, mendiz.

976. Santanderren preso zegoen anaia bisitatzen I (MUT-076/032)

Santanderren preso zegoen anaia bisitatzeko salbokonduktoa nola lortu zuen. Trenbidetik oinez nola joan ziren. Zentinelen kontrolak harrapatu baino lehen ikusi zuen anaia.

977. Santanderren preso zegoen anaia bisitatzen II (MUT-076/033)

Bilbotik Santanderrera trenean, anaia bisitatzeko. Derrigorrez soldadu izan behar zirenen jarrera eta erreketeeena oso ezberdina zen.

978. Bizitzako urterik txarrenak; goserik ez (MUT-076/034)

Gerra garaian eta ostean guraso gabe egondako hiru urteak izan ziren bere bizitzako urterik txarrenak. Apaiza zen osabarekin bizi zenez, ez zuen goserik pasa izan. Bizilagunek denda bat zuten eta askotan ematen zieten janaria.

979. Egaña fabrikan gerrako dominak egiten zituzten (MUT-076/035)

Gerra garaian, Egaña fabrikan gerrako dominak egiten zituzten. Saturrarango presoek margotzen zituzten dominak. Aita gerratik itzuli arte egin zuen bertan lan. Jostea asko gustatzen zitzaion.

980. Gerratik bueltan Ondarretan preso (MUT-076/036)

Ama, 1939ko azaroan eta aita 1940ko gabon egunean bueltatu ziren Mutrikura. Gabon horiek pasa eta Ondarretan espetxeratu zuten 3 hilabetez. Guardia Zibila Mutrikura oinez joaten zen Debatik. Espetxetik irten eta Debara joan behar izaten zuen sinatzera.

**981. Aitonak II. karlistadetan borrokatu zuen
(MUT-076/038)**

Itziarren gurasoak umezurtz gelditu ziren haurrak zirela. Aitonak II. karlistadetan borrokatu zuen. Abertzaleak eta karlistak. Apaizen jarrera politikoa.

982. Saturrarango espetxeko presoak (MUT-076/041)

Saturrarango espetxera joaten ziren, presoek janaria eramatera. Kartzelan zeuden haurrak ez zituzten ikusten. Paquita Rico.

**983. Saturrarango espetxera janaria eramaten zuten
(MUT-076/042)**

Saturrarango espetxera janaria eramaten zuten bai Mutrikutik eta baita Ondarroatik ere.

984. Saturrarango espetxea nolakoa zen (MUT-076/043)

Saturrarango espetxea nolakoa zen. Soldaduak zeuden. Dena gazteleraz.

**985. Mugimendu politikoen zentroak Mutrikun
(MUT-076/044)**

Montalivet-en Emakume Abertzaleen zentroa zegoen, Goiko Plazan karlisten egoitza eta errepublikanoena Osinalden. Itziarrek errepublikanoen kantak etxetik entzuten zituen. Errepublikano gutxi zegoen Mutrikun.

**986. Alejandro San Juan Txikiren fusilamendua
(MUT-076/045)**

Alejandro San Juan Txikiren fusilamendua gogorra izan zen herriarentzat. Gizona nolakoa zen. Fusilatzeko arrazoi politikorik ez zegoen eta herriko norbaitek liskar pertsonal batengatik salatu zuela uste dute herrian.

**987. Tifusa 1940ko udan Saturrarango kartzelan
(MUT-076/046)**

Saturrarango espetxetan hiltzen ziren presoak zuzenean hilerrira eramaten zituzten. 1940ko uda oso beroa izan zen eta Saturraranen preso asko hil ziren tifusak jota. Hilerria handitzeko proiektu bat ere egon zen.

988. Gerra urruti ikusten zuten (MUT-077/002)

Azpeitian jaio zen Pepita, hango okindegi bateko kargua hartu zuelako aitak. Gerra hasi zenean 12 urte zituen eta Mutrikun Malenak ziren. Urruti ikusten zuten gerraren gaia.

**989. Errepublikanoak, Osinalde gaineko etxean
(MUT-077/003)**

Nazionalak Mutrikura sartu aurretik, mutil-taldeak sortzen hasi ziren borrokara joateko. Karlistak preso mantentzeko kartzela zabaldu zen Erdiko Kalean. Errepublikanoen egoitza Osinalde gaineko etxean egon zen.

990. Emakume Abertzaleen egoitza Mutrikun (MUT-077/004)

Emakume Abertzaleen egoitza, Tranpa kalean zegoen, farmaziaren alboan. Zer egiten zuten bertan. Nortzuk sortu zuten egoitza: Juanita Piker, Maria Unanae, Txurruka...

991. Zirkulo karlista Mutrikun (MUT-077/005)

Zirkulo karlista non zegoen. Gau-ekitaldiak. Urtean behin, errosariora deitzen zuten.

992. Errepublikarrak komentuan babes eske (MUT-077/006)

1936ko irailaren 21ean errepublikanoak agertu ziren Mutrikun. Komentura sartu nahi izan ziren janari eta babes bila eta mojek, beldurrez, kanpaia jo zituzten.

993. Gerrako iheslariak Mutrikun (MUT-077/007)

Mutrikura, gerratik ihesi zebilen jendea heltzen zen. Donostia osaba-izeba eta lehengusinak izan zituzten Mutrikun. Lehengusinak Bilbora ihes egin zuten baina gero Donostiara itzuli.

994. Zabel etxean ekonomatza (MUT-077/008)

Maristen etxea zeneko gaur egungo Zabel etxean, soldaduentzat ekonomatza zegoen. Intendentzia ere izan zen.

995. Martin Txitxarro ontzian, karlistak Mutrikutik Donostiara eramaten (MUT-077/009)

Erdiko kaleko kartzela. Hasieran karlistak bakarrik zeuden preso eta nazionalak sartu aurretik, Martin Txitxarro ontzian Mutrikutik Donostiara bidali zituzten. Bi apaiz hil zituzten, Jose Maria Lazkibar eta Eulogio Ulazia.

996. Tiroak entzutean, okindegiko babeslekura (MUT-077/010)

Eibarrera frontierako bidean joaten zirenak ikusten zituzten etxe azpitik pasatzen. Amonak aurreko gerrei buruz hitz egiten zuen. Tiroak entzutean, okindegira joaten ziren ezkutatzera.

997. Nazionalak sartu aurretik, mugimendu handia herrian (MUT-077/011)

Nazionalak herrian sartu aurretik, mugimendu handia eta tiroketak egon ziren Mutrikun. Tiroak ez sartzeko, leihotetan koltxoak jartzen zituzten arren, batzuetan etxe barrura sartzen ziren.

998. Ekonomatoan barra librea gerra hastean (MUT-077/013)

Gerra hasi zenean, gizonezko asko borrokara joan ziren. Gerora, herriak ere bidaltzen zituen eta orduan derrigorrez joan behar zuten. Esaten zen, marokotik soldaduak helduko zirela eta jendea hiltzen zutela. Ekonomatoan barra librea. Ametzanekua ondoan zer erosten zuten. Soldaduak dendetatik eta ekonomatetik botatzen zituzten herritarrek, haiek janaria hartzeko.

999. Barrenkaletik sartu ziren nazionalak (MUT-077/014)

Nazionalak sartu ziren eguneko anabasarekin, ekonomatoan eta Ametzanekua alboan zegoen dendetan sartu ziren, janaria hartzeko. Dena nahasita hartu zuten: arraina, azukrea, garbantzuak... Barrenkaletik sartu ziren nazionalak, tiroak botatzen.

1.000. Luxioneko etxean, "El Polvorin" (MUT-077/015)

Nazionalak lehenengo eta gero erreketek eta soldadu italiarrak, irailetik otsailera geratu ziren Mutrikun. Garai hartan "Luxioneko" etxean zeuden eta polborina deitzen zioten. Ekonomatoak Maristen lekuan jarraitu zuen.

1.001. Dendetan jeneroa lortzeko zailtasunak (MUT-077/017)

Karlisten egoitzan alondegia zabaldu zen eta han ere ekonomatoa zegoen. Olioia nola erosten zuten. Dendek arazoak zituzten jeneroa lortzeko.

1.002. Militarrek etxean hartu beharra (MUT-077/018)

Gerra hasieran, militarrek etxean hartu behar zituzten. Gerora, lotan ez ziren gelditzen baina jaten ematen zieten askotan. Soldaduak kaletik.

1.003. Soldadu italiarrekin harremana (MUT-077/020)

Soldadu alemaniarrek Mutrikun. Goi-agintariak gutxi ikusten ziren kaletik. Soldadu italiarrak beti zeuden kalean eta herritarrekin hitz egiten zuten. Arostegineko bodegan, soldadu italiarrek armen munizioak gordetzen zituzten.

1.004. Bizitza normala egiten soldaduak zeuden bitartean (MUT-077/022)

Soldaduak Mutrikun egon ziren bitartean, fabrikak berriz martxan hasi ziren eta eskolara bueltatu ziren.

1.005. Alejandro San Juan Txikiren fusilamendua (MUT-077/023)

Alejandro San Juan Txikiren fusilamendua. Kanposantu atzean fusilatu eta hilobiratu ziren baina gero familiak atera egin zuen.

1.006. Falangistak eta erreketek Mutrikun (MUT-077/024)

Gerraostean, soldadu guztiak joan ziren eta falangistak eta erreketek geratu ziren. Bakoitzak bere kanta eta jantziak zituen. Haien artean ez ziren ondo konpontzen. Errosarioak.

1.007. Erreketeen jarrera gerraostean (MUT-077/025)

Erreketek, edozein momentu erabiltzen zuten gerrako irabazleak zirela erakusteko. Herri berri bat hartzen zutenean, herritarrek kalera ateratzen zituzten.

1.008. Erreketek eta falangisten arteko desberdintasunak (MUT-077/026)

Erreketek gerra bukatu zela zabaldu zuten baina bazekiten bukatu gabea zegoela. Erreketek deitzen zituzten manifestaldi eta mezueta, derrigorrez joan behar ziren; etxeetara joaten ziren herritarren bila. Goiko plazan biltzen

ziren. Lemak. Errekete eta falangisten arteko liskarrak. Lehenak karlistak ziren eta erreketek bihurtu ziren. Falangea, frankismotik sortu zen.

1.009. Acción Católica Mutrikun (MUT-077/029)

Gerraostean, falangistak eta erreketek elkartu egin ziren. Acción Católica. Diru-bilketak. Diru guztia txiroiei ez zen bideratzen.

1.010. Mutrikutik Ingalaterrara ihesi (MUT-077/030)

Ingalaterrara gerratik ihesi joandako herritarrek.

1.011. Ondasunen galera gerratik bueltan (MUT-077/031)

Etxe asko hustu ziren eta gerratik bueltatu zirenen artean batzuek etxea galdu zuten, beste batzuek etxe barruko altzariak, objektu pertsonalak...

1.012. Emakume Batza eta Acción Católica (MUT-077/033)

Gerraostean, Emakume Batza, elizaren babesean lanean ibili ziren, Acción Católica-ren barruan. Gainontzeko mugimendu politikoak ere desagertu ziren.

1.013. Saturrarango seminarioa, tropa ezberdinen babesleku (MUT-077/036)

Mutrikutik kanpo heldu ziren errepublikar eta sozialistei, CNT-koak zirela esaten zitzairen. Saturrarango seminarioa, tropa ezberdinen babesleku izan zen.

1.014. Saturrarango emakumeen kartzela (MUT-077/037)

Gerra bukatu aurretik bilakatu zen Saturrarango seminarioa emakumeen kartzelan. Herriko emakumeak hasieratik egon ziren presoak laguntzeko prest. Preso zeuden emakumeen haurrak, herrian bataiatzen zituzten.

1.015. Saturrarango presoak, Mutrikuko kanposantua (MUT-077/038)

Mutrikuko kanposantua nolakoa zen. Saturrarango kartzelak iraun zuen bitartean (1938-1944), hildako kopuru antzerakoa egon zen kartzelan eta Mutrikuko herrian. Gorpuak kartzelatik karro beltz batean eramaten zituzten kanposantura.

1.016. Saturrarango kartzela (MUT-077/039)

Saturrarango kartzela itxi eta presoak beste kartzela batera eraman zituzten. Kartzela bezala hasi aurretik (1938ko urtarrilean), ondoko frontoiak izan zituzte presoak. Umeen trukea Santa Agedan.

1.017. Aita itsasoan hil zen (MUT-078/002)

Hiru urte zituela, aita itsasoan hil zen beste 7 marinelekin batera.

1.018. Amaren bost anaiak gerran (MUT-078/003)

Auroraren amak bost anai zituen eta guztiak joan ziren gerrara. Haietako bi Canfranc-eko kartzelan egon ziren preso. Ama bisitan joaten zitzairen, arropa eta jana eramatera. Beste bi anai itsasontziko kapitainak izan ziren.

1.019. Kuliska itsasontziarekin, Bilbon gerrako minak batzen (MUT-078/004)

Joxe Mari Burgaña, Auroraren amaren anai nagusia izan zen. Familiako Kuliska itsasontziaren kapitaina, marinel zela atera zituen ikasketak eta Bilbon egiten zituen azterketak. Gerra garaian, Bilbon ibili zen itsasoan zeuden minak arrantzatu eta desaktibatzen.

1.020. Joxe Mari Burgaña kapitaina I (MUT-078/005)

Osaba (Joxe Mari Burgaña), Itxarkundia batailoian ibili zen gerra garaian eta Milloiko emakume batekin ezkondu zen. Gerra aurretik, bi itsasontzi txikirekin (Donibane eta Bigarrena izenekoak) Ameriketara joan zen, Euskadiko gobernuak bidalita. Bertan, petrolio-ontzietan lanean ibili zen.

1.021. Milloiko San Antolion ermitan gerran izandako ezkontza bakarra (MUT-078/006)

Joxe Mari Burgaña osaba, Venezuelen bizi arren sarri joaten zen Mutrikura eta bertan berriro egiten zen osasunez eta animoz. Egun batez, Milloiko San Antolin ermitara joan nahi izan zuen, bertan ezkondu zelako. Milloiko tabernako emakume batek ezkontza hura gogoratzen zuela kontatu zien.

1.022. Petrolio-ontziko gasekin itotako osaba (MUT-078/008)

Bi osaba Canfranc-en preso egon ziren gerra garaian eta gero Mutrikura bueltatu ziren. Beste anai bat Frantzian bizi izan zen eta itsasoan hil zen. Osaba Hilario itsasontziko kapitaina izan zen. Petrolio-ontzietan lan egiten zuen eta bere amaren urtebetetze egunean, tankeak ikustera jaitsi eta bertako gasekin ito zen. Berrogei urte zituen.

1.023. 1500 pezetako isuna semeak gudari izateagatik (MUT-078/009)

Auroraren aitona, bost seme gerrako gudari izateagatik, zortzi egunetan ordaindu behar zuen 1500 pezetako isuna jaso zuen. Antipatriota bezala izendatua izan zen. Dokumentu ofizialak erakusten ditu.

1.024. Karlistetatik ezkutatzen etxeko ganbaran (MUT-078/010)

Etxeko emakumeei ilea moztu zieten gerra garaian. Egunero karlistak etxera joaten ziren, emakumeak kalera ateratzera zigor bezala. Aurora izeneko izeba, ganbaran ezkutatzen zen arrantzako sare eta otarren atzean. Gaixotu eta Eibarko ospitale batera eraman zuten baina 20 urterekin hil zen. Aitona ere, semeak abertzaleak zirelako 1500 pezetako isuna ordaindu eta sei hilabetetara hil zen.

1.025. Umiliazioak gerra galdu zutenei (MUT-078/011)

Gerra garaian, abertzaleak izateagatik jasandako zigorrak eta umiliazioak. Karlistak etxera joaten ziren bila.

1.026. Joxe Mari Burgaña kapitaina II (MUT-078/013)

Osaba Joxe Mari, Venezuelan itsasoan lanean egon zen Jose Antonio Agirre lehendakariaren mandatuz. Bertako eskola batean ozeanografiako irakasle ere izan zen. Erretiratu zenean, lurmutur bateri Cabo Burgaña izena jarri zioten. Urtero Mutrikura bueltatzen zen.

1.027. Joxe Mari Burgaña kapitainaren heriotza (MUT-078/017)

Osaba Joxe Mari Burgaña oso pozik jartzen zen Mutrikura bueltatzen zen bakoitzean. Eskutitz batean, Aurorari Mutrikura noiz joango zen idatzi zion eta eskutitza botatzera joan zenean, bihotzekoak jota hil zen.

1.028. Soldaduei enkarguak egitera behartuak (MUT-079/003)

Gerra garaian, soldaduei enkarguak egiten zizkien Ramonen aitak. Behartuta zegoen lan hori egitera.

1.029. Berrosasi baserrian soldaduak (MUT-079/004)

Berrosasi baserrian soldaduak egon ziren gerra garaian. Handik Lete baserrira joan ziren. Ama esnea saltzera joaten zen Ondarroara.

1.030. Baserri gainetik bonbak pasatzen ziren (MUT-079/005)

Bonbak baserri gainetik pasatzen ziren. Itsasotik botatzen zituzten. Bonbak nolakoak ziren kontatzen du.

1.031. Gerran utzita lagatako bonbek ia hil zuten (MUT-079/006)

Ez da gogoratzen nongo soldaduak zeuden Berrosasi baserrian. Gerra garaian, Tontorramendin kanoiak eta bonbak egon ziren zeuden eta gerra amaituta inguruan ehizan zebilela, bertan utzita zeuden bonba batzuek eztanda egin zuten eta ia-ia harrapatu zuten Ramon. Larruskain baserrian, mutil batek eskua galdu zuen gerrako bonba batek eztanda egin ziolako.

1.032. Osaba Terueleko frontean eraila (MUT-079/008)

Osaba bat Terueleko frontean hil zuten, bala batek eztarrian jota. Zortzi anai ziren eta gazteenak joan behar izan zuten gerrara.

1.033. Okelar baserrian ere soldaduak (MUT-079/012)

Okelar baserrian soldaduak izan zituzten gerra garaian. Fusilamenduak baserritik gertu.

1.034. Eskolan euskaraz egiteagatik zigortuak (MUT-079/015)

Eskolan euskaraz hitz egiteagatik zigortuak izaten ziren belauniko egotera paretan kontra, bazkaldu gabe geratzea... Mizkiako eskolara joan zen Ramon.

1.035. "Viva España" eta "Cara al Sol" egunero eskolan (MUT-079/016)

Goizero eskolara sartu aurretik "Viva España" eta "Cara al Sol" abestu behar zuten.

1.036. Maisua eta maistrak baserrietan apopilo (MUT-079/017)

Maisuak eta maistrak erdaldunak ziren eta auzoko baserrietan bizi ziren. Okelar baserrian izan zituzten maisu eta maistra batzuk eta horiekin ikasi zuten gaztelaniaz hitz egiten. Berrosasin ere egon ziren maistrak apopilo bezala bizitzen. Baserriak txandakatu egiten ziren hauek jasotzeko. Okelar baserrian egondako maisua gaiztoa zela kontatzen du Benitak.

1.037. Eskolako materiala (MUT-079/018)

Eskolan erabiltzen zituen koaderno eta liburuak nolakoak ziren. Benitak izan zuen azkenengo maistra euskalduna zen.

1.038. Eibarren lanean eta ikasten (MUT-079/019)

Ramonek eskola utzi zuenean Eibarrera joan zen lanera. Gau eskolak ere hartzen zituen Fronto Zaharrean. Aste osoa pasatzen zuen Eibarren lanean eta bost pezeta irabazten zituen.

1.039. Mendi-bideak (MUT-079/020)

Bizikleta bat erosi zuen Eibartik Mutrikura joateko. Hala ere dena oinez egiten zuten. Mendi-bidea non zegoen azaltzen du Benitak.

1.040. Auzoko elizan, errogatibak eta bederatziurrenak (MUT-079/021)

Auzoko elizan ez zen mezarik ematen normalean. Errogatibak egiten ziren eta bizilagunen bat hil ezkerko bederatziurrena izaten zen. Asteko mezara Mutrikura joaten ziren. Kalbarioko ermitan ez zen mezarik egoten. Olatzen bai.

1.041. Jaunartze txikia eta handia (MUT-079/022)

Bi jaunartze egin zituen, txikia eta handia. Neskak eta mutilak elkarrekin. Jaunartze handian soineko zuriarekin joan zen, autobusean. Argazkiak ateratzera Debara joan ziren.

1.042. Lastargiekin bidea argitzen: mendi-bideak (MUT-079/023)

Berrosasi baserritik Ondarroara joaten ziren mezetara. Ilun zegoenez eta linternarik ez zegoenez, lastoarekin egindako hainbat lastargi eramaten zituen bidea argitzeko. Garai batean bideak garbiagoak mantentzen ziren. Mendi-bideei buruz hitz egiten dute.

1.043. Eguberri egunean ezik, egunero esnea saltzera Ondarroara (MUT-079/024)

Ramonen ama egunero jaisten zen esnea saltzera Ondarroara. Zein bide egiten zuen kontatzen du. Urteko egun guztietan jeisten zen, Eguberri egunean ez ezik.

1.044. Berrosasi baserriko erromeriak (MUT-079/027)

Berrosasi baserrian erromeriak antolatzen ziren. Bazkariak ematen hasi ziren eta Ramonen aitak soinua jotzen zuen. Panderoa, lantzean behin baserrian egoten ziren morroiek jotzen zuten. Jendea nondik joaten zen. Inguruko beste erromeria batzuk.

1.045. Debako erromeriara autobusean (MUT-079/028)

Udan Debara joaten ziren erromeriara. Musika-banda ere egoten zen. Neguan inguruko baserrietan elkartzen ziren.

1.046. Aita Euzko Itsas Gudarostean desagertuta (MUT-080/002)

Gerra hasi zenean, aita Euzko Itsas Gudarostera batu zen, kanoiekin armatutako bere bakailao-ontziarekin. Matxitxakoko gerran aritu zen eta bere itsasontzia hondoratu ez bazen ere, zazpi hildako egon ziren. Aita Portugaleten egon zen ospitalean denbora batez. Matxitxakoko Guda eta gero, aita Valentzia aldera bidali zuten laranja bila eta Frantziara helduan desagertu egin zen.

1.047. Gerran Bartzelonara ihesi (MUT-080/003)

Aita desagertuta, amonak (amaren amak) Bartzelonara eraman zituen Edurne, bere ama eta honen bi ahizpa. Vic-en zeudela, ahizpa txikia jaio zen denda bateko ganbaran.

1.048. Marokoko soldaduei arropak garbitzen (MUT-080/004)

Bartzelonan sei hilabetez egon ziren eta gerra bukatzean Bilbora bueltatu ziren. Marokoko soldaduei arropak garbitzen zizkieten.

1.049. Gerrako kontakizun tristeak (MUT-080/005)

Aita bisitan joan zitzaienean, babeslekuko haur guztiak sarnarekin zeuden. Aitak alaba horrela ikusita, berarekin eraman zuen zortzi egunez itsasora. Sufrea sarnarentzat ona zenez, ama haren bila joan zen Eusko Jaurlaritzako delegatu batengana. Honek esan zion sufrea bonbak egiteko behar zutela baina ezkutuan, soldadu batek zakutxo bat eman zion. Handik irtetean, hegazkinak agertu ziren eta bonbak bota zituzten. Amarekin zihoan laguna bertan hil zen.

1.050. Gerratik bueltan Mutrikura (MUT-080/006)

Bartzelonatik atera zirenean, Zaragozan maletak lapurtu zizkien eta ezer gabe bueltatu ziren Barakaldora, aitonaren etxera. Handik Mutrikura joan ziren eta Ametzanekoekin lanean hasi zen. Ondoren, zaku-fabrikan lanean hasi zen eta etxe bat lortu zuen berarentzat eta alabentzat.

1.051. Aita Figueraseko kontzentrazio-esparruan (MUT-080/008)

Sabanika kalean bizi ziren. Amak, aita bueltatzeko tramiteak egiten hasi zen Domingo Arruti alkate ondarrutarraren laguntzaz. Aita, Figueras-eko kontzentrazio-esparruan zegoen eta burua galtzen omen zegoen. Aita bueltatu zenean, itsasontzietan lanean aritu zen. Itsasertzeko arotza zen.

1.052. Mutriku faltan botatzen zuen (MUT-080/009)

Aita kontzentrazio-esparrutik bueltatu eta bost urte egin zituzten Mutrikun. Jaunartzea Mutrikun egin zuen Edurnek. Barakaldora joan ziren bizitzera baina Edurne askotan bueltatzen zen Mutrikura, bere lagunik onena bertan zegoelako.

1.053. Eskolan, Edurne izatetik Nieves izatera (MUT-080/011)

Barakaldon, Edurne izatetik Nieves izatera pasatu zen. Maistrak deitzen zionean ez zuen kasurik egiten eta zigortu egiten zuten. Aintzanek, bere ahizpak, zigorren bidez azkar ikasi zuen gaztelaniaz eta euskara ahaztu zitzaion.

1.054. Aitak lana ezin aurkitu "por rojo, separatista y peligroso" (MUT-080/012)

Aita Barakaldon beldurtuta bizi zen. Amak Don Eduardo Zabalo Altos Hornos-eko enpresari baten etxean lan egiten zuen eta senarrak lanik aurkitzen ez zuela arduratuta, honi galdetu zion. Eduardok esan zion, senarraren kontrako salaketa bat zuela eta horregatik ez ziotela lanik ematen. Salaketan gorria, separatista eta arriskutsua ("por rojo, separatista y peligroso") zela esaten zen. Don Eduardok lan bat bilatu zion.

1.055. Don Evaristo Txurruka enpresaria (MUT-080/013)

Don Evaristo Txurruka Mutrikura joan zen inguruko mutil gazteak berarekin Altos Hornos-en lan egitera eramateko. Edurneren aitak Evaristo Txurrukarekin errepublika aurretik izandako elkarriketa.

1.056. Osabaren hezurrak Erorien Haranean (MUT-080/018)

Edurneren amonak (amaren amak) zortzi seme-alaba izan zituen. Osaba Jose, Gasteizen fusilatu zuten Ostiral Santu batean eta dirudienez Erorien Haranean daude haren hezurrak. Osaba Vicente, gerra garaian desagertu zen.

1.057. Gerran desagertutako osaba agertu zenean (MUT-080/019)

Amonarekin Barakaldoko udaletxearen plazara joaten zen desagertuta zegoen Vicente semearen berri izatera. Hogeita hamar urte pasa zirenean, osabaren berri izan zuten eta Nizan bizi zela jakin zuten. Ama eta beste osaba bat joan ziren bera bisitatzen. II.Mundu Gerran parte hartu zuen eta goi-mailako militarra zen. Inoiz ez zen familiarekin kontaktuan jarri, mehatxatuta zegoelako. Denbora oso gutxira hil zen.

1.058. Gerrako umea izandako izebak ez zuen etxera bueltatu nahi (MUT-080/022)

Gerra garaian, izeba Isabel eta Eva Ingalaterrara bidali zituzten arren, amonak erreklamatu egin zituen. Isabelek 15 urte zituen eta eskolara joaten zen. Eva aldiz, emakume batekin bizi zen eta bueltatu zenean, inoiz ez zen hemengo bizitzara moldatu. Ingalaterran pozik bizi zen, ez zuen goserik pasatzen, ez zitzaion ezer falta...

1.059. Gerraosteko gosea (MUT-080/023)

Gerraostean Sabanikan bizi ziren. Gose asko pasa zuten. "Gosezto" izeneko txakur bat gogoratzen du.

1.060. Aita, Sasetako Langile Bataioilian (MUT-086/004)

Gernikako bonbardaketan aita Gernikan zegoen eta menditik ihes egin behar izan zuen. Bilbo jausi zenean, Kontxiren aita Saseta Langileen Batailoian egon zen hiru urtez lanean, Llerenan, Extremaduran. Mutrikura bueltatu zenean, igandero joan behar zuen kuartelera sinatzera. Extremadura bideak egiten ibili ziren eta hildako ugari egon ziren. Bide ertzean hilobiratzen zituzten.

1.061. Soldadu ezezagunaren hilobia I (MUT-086/006)

Frontea Itziar inguruan zegoen, Ollokin. Kontxiren osaba erretiran zegoela, bala galdu batek ustez Goierri aldekoa zen soldadu bat hil zuen eta Debara parte ematera joan zirenean, hango alkateak esan zien haien bandokoa ez bazen ez zuelako hilobiratuko. Ordurako ziurrenik Deba nazionalak hartuta zeukaten. Azkenean, Kontxiren osabak eta beste batek, hildakoa hilobiratu zuten han bertan zulo bat eginez eta gainean harriak jartzen. Osabak Francisco Korostola Salegi zuen izena. Beti ezagutu dute gorpu hori hori eta harriek hor jarraitzen dute.

1.062. Frontera trikitia jotzen (MUT-086/007)

Soldadu txarrenak nafarrak omen ziren, karlistak. Osabaren etxean sartu zirenean, pistolaz mehatxatu zioten soldaduek. Osabak Eibarren lan egiten zuen baina eskuan istripu bat izan zuen eta baserrira bueltatu zen. Aitak ez zekien gerra zer zen eta frontera trikitiarekin joan ziren.

1.063. Osaba Ondarretan fusilatua (MUT-086/009)

Baserri ondotik pasatzen ziren tropak. Kontxiren izeba baten senarra, Tomas Rodriguez, fusilatu egin zuten. Ika-mikaren baten ondorioz Ondarretara eraman zuten preso eta han fusilatu zuten.

1.064. Baserrian ez dute goserik pasatu (MUT-086/011)

Gurasoak 1941ean ezkondu ziren eta urtebetera jaio zen Kontxi. Miseria zegoen, baina baserrian ez zuten goserik pasa.

1.065. Baserriko produktuekin errenta ordaintzen (MUT-086/013)

Kontxiren gurasoak baserriaren maizterrak ziren. Geroago erosi zuten baserria, baina ordura arte sindikatuan entregatzen zuten uztaren parte bat eta urtean behin baserriko jabeari errenta ordaintzen zitzaion, oiloak eta oilaskoak ere emanez.

1.066. Mutrikurekin harreman gutxi (MUT-086/014)

Errazionamendu-kartilla zuten eta Debara joaten ziren janari bila. Mutrikun bizitza gutxi egiten zuten. Aguazilaren abisuak ematera emakume bat hurbiltzen zitzaion baserrira, txapel gorria jantzita. Margarita Ronda zen, "Errondanekuak".

1.067. Deban eskolan, "Cara al Sol" (MUT-086/015)

Eskolara Debara joaten ziren. Maistra erdalduna zen. "Cara al Sol" kantatzen zuten egunero bandera ipinita.

1.068. Elizako kantak mojetan (MUT-086/016)

Hamabost urtera arte egon zen eskolan eta gero mojetan jarraitu zituen ikasketak eskolaratze-kartilla lortu arte. Mojetan elizako kantak abesten ziren, banderari inoiz.

1.069. Osabak, soldadu nafarrei ezinikusia (MUT-086/020)

Osabak gerrako kontu asko kontatzen zituen. Soldaduak pasatzen ziren baserritik eta asko italiarrak izan arren, nafarrei ezinikusi berezi bat zien. Soldadu mutil koxkor batek mehatxatu egin zuen armarekin.

1.070. Lasaoko kobazuloan ezkutatu egon zen lehengusuaren bizitza I (MUT-086/022)

Batzarrik onenak "Erdikoan" eta "Lekonden" izaten ziren. Osabaren lehengusu bat Buztiñan ezkutatuta egon zen eta egunero goizeko 5.30etan osabak Lasaoko kobazulo batera eramaten zuen eta iluntzean berriz ere baserrira. Soldaduska ez egiteko Argentinara joan zen bizitzera eta handik Venezuelara. Familiarekin harremana izaten jarraitzen dute. Amadeo Gonzalez Gorostala zuen izena. Haren familiari buruz hitz egiten du.

1.071. Lasaoko kobazuloan ezkutatu egon zen lehengusuaren bizitza II (MUT-086/023)

Osabak eramaten zuen egunero Lasaoko kobazulo batean, soldadutza ez egiteagatik ihes egin zuelako. Haren emaztea eta seme-alabak Buztiñara joaten ziren maiz baina lehengusuak ezin zuen, soldadutzako iheslaria zelako. Azkenean, Donostian zegoen kontsul batek paperak egin zizkion eta Euskal Herrira bueltatu ahal izan zen.

1.072. Mutriku eta Deba arteko zubian hiletako bedeinkazioa ematen (MUT-086/025)

Buztiña baserritik pasatzen diren bideak aipatzen ditu: "Herribidia" eta "gorputz-bidia" non dauden aipatzen du. Buztiñako jendea hasieran Mutrikun lurperatzen zen baina gero Deban. Gaztea zenean, auzoko mutil gazte bat hil zen eta Deban hilobiratzera eraman bazuten ere, Mutrikuko abadea joan zen Deba eta Mutriku arteko zubira eta han bedeinkazio bat egin zuen.

1.073. Umetan, gerrako kontzientziarik ez (MUT-086/027)

Osabak umetan gerrako gauzei buruz hitz egiten bazion ere, eskolan ez zuen ezer esaten. Umea zenez ez zuen gerrako kontzientziarik baina gerora konturatu da gauza gehiago izango zituela osabak kontatzeko.

1.074. Soldadu ezezagunaren hilobia II (MUT-086/028)

Baserri inguruan osabak baserri ondoan hilobiratu zuen soldadu ezezagunaren hilobia beti garbi mantendu dute. Osabak harriak ipini zizkion gainean, txakurren gorpua ateratzen hasi zirenean.

1.075. Etxeko sinesmenak II: San Juan sua, erramua, lizarra atean.... (MUT-086/030)

San Juanak beti herrian eta Artzabalen ospatu dituzte, eta bezperan sua egiten dute baserrian. Loreak, belar-txarrak (asunak, larrak...). Trumoiak belarra sutara botatzen zuten, tximista eta trumoiak zegoenean. Atea lizarra ("leizarra") jartzen zuten, gurutzearekin batera. Baratzearen inguruan batzuetan erramu bedeinkatua ipintzen zuten.

1.076. Etxeko sinesmenak II: eskopeta beheruntz begira jarri Ostiral Santuan (MUT-086/031)

Ostiral Santu guztietan, eskopetak kainoarekin behera begira ipini dituzte. Ogia lurrera jausten bazen, gurutzea egin, ogia jaso eta muin egiten zitzaion.

1.077. Errotara garia ehotzera (MUT-086/032)

Errazionamendua zela eta, errotara joaten zen garia ehotzera eta ogia etxean egiten zen. Ogi koxkorra sutara botatzen zuten Urtezahar egunean. Antzondorak joaten ziren errotara. Kokapena. Kontxiren ama baserrira lehen aldiz heldu zenean ez zekien errota non zegoen, baina astoari jarraituz heldu ziren.

1.078. Aita anguletan; ilargiaren faseak baratzea lantzeko (MUT-086/034)

Sugeak behiari errapetik helduta esnea hartzea oso txarra zen behiarentzat, ahituta uzten zuelako. Aita anguletara joaten zen gabek, ilargiaren arabera. Ura piskat zikina egon behar zen. Baratzeko lanetarako, ilargiaren faseak kontuan hartu dituzte baserrian.

1.079. Legionarioen atzetik heldu zen frontea Mutrikura (MUT-087/003)

Laranga Handi baserrian bizi izan da beti. Gerra hasi zenean zortzi urte zituen eta zeozer helduko zela entzuten bazuten ere, ez zekiten gerra zer zenik. Legionarioak agertu ziren baserrietan zegoena eramaten (oilak, animaliak...) eta mehatxuka.

1.080. Baserriko ganbarako lasto artean ezkutatuta (MUT-087/004)

Legionarioak agertu zirenean gerra hastean, bizilagun askok ihes egin zuten eta mendian ezkutatuta egon ziren egunetan. Baserrian norbait ezkutatuta izan zuten lasto artean. Soldaduak bertara igo ziren eta nahiz eta bilatu ez zituzten aurkitu.

1.081. Frontearen lerroa baserri ondoan I (MUT-087/005)

Baserri ondoan zulo bat egin zuten eta egunez bertara joaten ziren ezkutatzera. Soldaduak egunez baserri barruan egoten ziren eta gauean mendira igotzen ziren. Frontea baserri ondoan zegoen. Animaliak gabek ateratzen zituzten ere.

1.082. Laranga Handi baserritik tiroketak (MUT-087/006)

Egunean zehar, soldaduak baserrira sartzen ziren eta bertatik tirokatzen zituzten beste aldekoak. Harez egindako zakuak ipintzen zituzten leihoetan. Tiroketa batean, soldadua zauritua izan zen. Lau egun egon ziren baserritik tiroka. Umeek ez zuten beldurrik pasa, ez zekitelako zer gertatzen zen.

1.083. Frontearen lerroa baserri ondoan II (MUT-087/007)

etxeko norbaitek Debara joan behar zuenean, soldaduek laguntzen zieten bidearen zati batean. Baserrian lau egunez soldaduak egon ziren baina alboko larreetan 18 bat egunez. Soldaduek balen zorroak ematen zizkieten. Debatik etorri ziren soldaduak. Frontea nondik nora zegoen kontatzen du.

1.084. Aita gerrara joateaz libratuta (MUT-087/008)

Baserrian egondako soldaduak espainiarrak, euskaldunak eta nafarrak ziren. Hemezortzi urtetik gorako mutil eta gizonak gerrara eramaten zituzten. Beste baserriko bateko mutil batek ihes egin zuen eta 3-4 urtez egon zen kanpoan. Bere aita libratu egin zen gerrara joateaz.

1.085. Alkoleatik bonbak botatzen zituzten (MUT-087/009)

Alkoleatik bonbak botatzen zituzten itsasontzi handi batekin. Baserritik gertu zegoen zulo batean ezkutatzen ziren. Gerrak iraun zuen denboran Mutrikun arrantzaleak ez ziren arrantzara ateratzen.

1.086. Legionarioen eta soldaduen jantziak ezberdinak ziren (MUT-087/010)

Legionarioen eta soldaduen jantziak ezberdinak ziren. Hasierako soldaduen etorrerarekin ez du emakumerik gogoratzen, baina gerora bai.

1.087. Soldaduekin harreman ona (MUT-087/012)

Baserrian egon ziren soldaduak, dena pagadian egiten zuten. Ez zuten inoiz animaliarik edo janaririk eraman. Ura bakarrik eskatzen zuten. Baserri barrutik tiroka egon ziren lau soldadu horiekin harreman ona egin zuten.

1.088. Itziar aldetik sartu zen gerra (MUT-087/013)

Hamar egunez Debako mutil bat izan zuten ganbaran ezkutatuta. Soldaduak pasatuta, Debara itzuli zen. Itziarretik tiro ugari entzun zituzten eta hurrengo egunean gerra sartu zen Mutrikun.

1.089. Frenteko zuloak eta lubakiak (MUT-087/014)

Egun batetik bestera sartu zen gerra eta jende askok ihes egin zuen. Gerra hasi baino egun batzuk lehenago, pagadian soldadu batzuk egon ziren eta gerra hasi zenean alde egin zuten. Ondoren, beste batzuk etorri ziren eta zuloak eta lubakiak egin zituzten. Bertan jaten zuten soldaduek. Santa Kutz aldera mugitu zen gero frontea. Tiroak nondik nora joaten ziren.

1.090. Bazkaltzen zeudela, tiroak sartu ziren leihotik (MUT-087/015)

Behin bazkaltzen zeudela tiroak hasi ziren eta aitak, leihotik urruntzeko esan zien. Gutxira, balak sartu ziren leihotik eta paretan zuloa egon zen denbora luzez. Beste leiho batzuetatik ere sartzen ziren. Frontea bertan egon zen egunetan egunero zeuden tiroak baserri albotik eta gainetik.

1.091. Pagadian fusilatuak eta hilobiratuak (MUT-087/017)

Baserri inguruan fusilamenduak izan ziren eta alboko pagadian gorpu batzuk hilobiratu ziren. Bala bat aurpegitik sartu eta irten zitzaion gizona ospitalera eraman zuten.

1.092. Gauez artoa biltzen (MUT-087/021)

Frontea baserrian egon zen bitartean ez zuten lurrik lantzen iluntzen zen arte. Arto-sasoia izan zen. Egunean zehar soldaduek zaintzek zizkieten soroak.

1.093. Bi txerri hiltzen zituzten urtero (MUT-087/022)

Gerra garaian ez zuten goserik pasatu baserrian. Txerria etxean hiltzen zuten.

1.094. Gerra garaian, errotak itxita (MUT-087/023)

Gerra garaian, baserrian gurasoak, anai-arrebak eta morroi bat bizi ziren. Ez zuten goserik pasatu. Gerrak iraun zuen errotak itxita egon ziren eta ondoren, Isasiko errotara joaten ziren irina ehotzera. Gerran, errota txiki bat zuten etxean eta han garia ehotu eta amak talo goxoak egiten zituen.

1.095. Isasiko errotara gauez eta ezkutuan (MUT-087/024)

Gerraostean, arto-irina lortzeko Isasiko errotara joaten ziren. Lepoan eramaten zituzten 40 kiloko zakuak. Isasira heltzeko erabiltzen zuten bidea. Guardia Zibilak harrapatu ezkerro, irina edo garia/artoa konfiskatzen zuen.

1.096. Gariaren zati bat eman beharra (MUT-087/025)

Gerroastean, janaria ezkutatzen omen zuten galdetzen zaio baina inoiz ez zutela egin esaten du. Errenteroek gariaren zati bat entregatu behar izaten zuten baina baserrian ez dute hori inoiz ezagutu.

1.097. Lastargiekin goizeko 6.30etako mezara (MUT-087/027)

Igandetan derrigorrez mezara joaten ziren. Goizeko zazpiretan izaten zen meza Mutrikun eta Deban 6.30etan. Debara joaten ziren, ogia erosi eta 7.30etarako etxean. Lastargiarekin joaten ziren denak. Itziarretik jaisten ere ikusten zuten jendea.

1.098. Laranga Handitik doa anda-bidea (MUT-087/028)

Garai batean mendia, larreak eta bideak garbiago mantentzen ziren. Anda-bidea nondik doan.

1.099. Mutrikuko maristetan eta kofradian ikasi zuen (MUT-087/029)

Deba gertuagoa egon arren, Mutrikun egiten zuen bizitza gehien lagunak hor zituelako. Maristetan eta moilako kofradian ikasi zuen. Bailaran ez zegoen eskolarik.

1.100. Mutrikoko auzo-eskolak (MUT-087/030)

Larangako bailaran baserri asko egon arren, ez zegoen eskolarik. Olatzen, Olabarrietan, Astigarrabian... ordea, bai.

1.101. Mutrikuko Laranga eta Olabarrietako bailarak (MUT-087/031)

Larangako eta Olabarrieta bailarakoen arteko harremana. Bidea.

1.102. Kanoi txikiak zaldiekin garraiatzen zituzten (MUT-087/033)

Soldaduek kanoi txiki batzuk izaten zituzten eta zaldiekin garraiatzen zituzten. Itzietatik botatzen ziren tiroak oso argi entzuten ziren Larangatik.

1.103. Balak eta bala-zorroak pagadian (MUT-087/034)

Kanoiak botatzen zituztenean entzuten zen soinua egiten du Eusebiok. Bonben parterik ez zen agertzen baserri inguruan baina balak eta zorroak, bai.

1.104. Mutrikutik Gernikara erditzera (MUT-088/002)

Amak nagusitan izan zuen Angelita eta Mutrikuko medikuak ez zuenez erditzean parte hartu nahi, Gernikara joan zen erditzera, han ahizpa bat zuelako. Gurasoak mutrikuarrak zituen. Biak kalekoak ziren baina gero aitaren familia Madariaga baserrira bizitzera joan zen.

1.105. Aita Australian lanean eta Panaman kontsul (MUT-088/004)

Aita gaztetan Australiara joan zen lanera. Diru asko egin zuen baina bizimodu gogorra izan zuen. Gerra hastean, soldadu izateko deitu zuten, baina ez zenez itzuli, iheslaritzat jo zuten. Panamara joan zen eta kontsul izendatu zuten.

1.106. Aita Hendaian, ama Mutrikun (MUT-088/006)

Aita eta ama nola ezagutu ziren kontatzen du. Ezkondu eta denbora gutxira, aita Espainiako lurraldea 24 orduetan utzi behar zuela esaten zuen jakinarazpena jaso zuen eta Hendaia joan zen. Bederatzi hilabetez egon zen eta ama astebururo joaten zitzaion bisitan. Behin, Meliton Manzanasek altua eman zion eta ezin izan zen mugaz bestaldera pasatu.

1.107. Hiru milio pezeta abokatueta (MUT-088/007)

Aita Espainiatik kaleratua zegoenez, Panamara bizitzera joan ziren eta han kafetegi bat zabaldu zuten. Aita hiru milio pezeta gastatu zituen abokatueta, Espainiara itzuli ahal izateko. Mutrikuko norbaitek salatu zuela aita uste du Angelitak.

1.108. Osaba falangistaren gerrako merituengatik, estankoa bereganatu (MUT-088/011)

Gerra garaian, osaba Jose Luis (amaren anaia bakarrak) falangistekin joan zen bolondres gerrara. Castellonen hil zen eta Mutrikun hilobiratu zuten. Gerraostean, Erdiko kalean zegoen estankoa hartzeko gerrako merituak izatea derrigorrezkoa zenez, osabarekin gerran egondako goi-mailako eskatu zioten laguntza.

1.109. Bijiliatik libratzeko "bula" (MUT-088/016)

Aste Santuan, bijilia egin nahi ez zutenek "bula" izeneko baimen bat ordaintzen zuten. Bula horietako batzuk aurkitu zituzten etxean.

1.110. Gurasoak nagusi zirenean ezkondu ziren (MUT-088/018)

Aita, ama baino 12 urte zaharragoa zen ezkondu zirenean. Amak 35 urte zituen. Ezkontzeko eskatu zionean, ama abadearengana joan zen aholku eske eta honek ezkontzeko esan zion.

1.111. Soldaduak etxe eta dendetan sartzen ziren janari bila (MUT-088/019)

Nazionalak Mutrikura sartu zirenenan, soldaduak etxeetara sartzen ziren janari bila. Marokotik zetozen soldaduak, emakume bila joaten zirela esaten zen.

1.112. Ogia eta irina kontrabandoan lortzen zuten (MUT-088/021)

Amonak jenio haundia zuen eta lan asko egin zuen. Gerra garaian, kontrabandoan lortzen zuen irina eta ogia. Ahal zuena erosten zuen gero dendan saltzeko. Ganbarak egiten zituzten malutak.

1.113. Mutrikuko Loretxo etxea (MUT-089/002)

Loretxun, Beheko ("Beko") Plazan, jaio zen Benedikta. Etxea eta familiaren arteko lotura.

1.114. Antonino eta Imanol Arrasate (MUT-089/005)

Antonino Arrasateri buruz. Imanol, bere semeak Oxford-en ikasi zuen. Beneren senarra izan zen.

1.115. Mutil laguna Bilboko burdinezko gerrikoan eta Galdames itsasontzian (MUT-089/006)

Imanol Arrasate, Beneren senar izango zena, Bilboko burdinezko gerrikora bidali zuten. Gero, Galdames itsasontzian egon zen.

1.116. Senarraren ama, Ondarretan espetxeratua (MUT-089/007)

Senarra gerra garaian atxilotu eta Ondarretan espetxeratu zuten. Handik, Ayun-era eraman zuten langileen batailoira. Bere ama, Susana Uranga, espetxean egon zen ere eta Imanolen besoetako ama Maria Barrueta izan zen.

1.117. Ayun-en langileen batailoian eta Gurutze Gorrian (MUT-089/008)

Senarra, Ayun-era bidali zuten langileen batailoira. Eraikuntza-lanetan aritu zen baina ingelesez hitz egiten zuenez, Gurutze Gorria aldatu zuten. Mutrikura itzuli zenean zuen itxuraz gogoratzen du.

1.118. Senarra nola ezagutu zuen (MUT-089/009)

Imanol senarra, gaur egun Bare-Bare den Margarineko jatetxe inguruan ezagutu zuen.

1.119. Emakume Abertzaleen egoitza Mutrikun (MUT-089/010)

Errepublikanoen egoitza, Margarineko jatetxearen ondoan zegoen; abertzaleena Ametza tabernan; karlistak Kulixka gainean eta Emakume

Abertzaleak Tranpa kalean, farmazia zegoen etxean. Juanita Piker, emakumeen batzokiko lehendakaria zen. Egoitzan zer egiten zuten.

1.120. Nazionalek, plazan ilea moztu zioten neska bati (MUT-089/011)

Errepublikanoek, egoitzan beraien bandera zuten zintzilik. Beko plazan soldadu nazionalek emakume bati ilea moztu zioten eta beldur asko pasa zuten guztiek.

1.121. Soldadu italiarrek ardo zuria edaten zuten (MUT-089/012)

Soldadu italiarrek ardo zuria edaten zuten eta aitak Loidi Zulaika ardoa ekartzen zien.

1.122. Francoren bisita Alkolean (MUT-089/013)

Francoren bisita batengatik, Alkoleako txaletera eraman zuten aita Franco zerbitzatzeko. Bene-ren ezkontzako kopa eder batzuk eraman zituen eta frankistek, mozkortu eta ia denak apurtu zituzten haitzen kontra.

1.123. Soldaduei agur militarra egiten (MUT-089/016)

Erdiko kaletik soldaduekin topo egiten zuenean, beldurra pasatzen zuen. Agur militarra egiten zien, badaezpada ere.

1.124. Alejandro San Juan Txikiren fusilamendua (MUT-089/017)

Erdiko kalean espetxea zegoen. Alejandro San Juan Txiki bertan egon zen. Fusilamendua. Don Telesforok konfesatu zuen hil aurretik eta berak ezer ez zuela egin errepikatzen zuen behin eta berriz.

1.125. Alejandro San Juan Txikiren salatariak (MUT-089/018)

Alejandro San Juan Txikiren salatariak hiru herritar izan ziren: Maturro, Pako Pertxal eta Gabilondo. Herrian oso gogorra izan zen bai salaketa baita fusilamendua ere.

1.126. Mutrikutik Azpeitiara jatetxerako janari bila (MUT-089/019)

Jatetxerako janaria lortzeko, Benediktaren ama asteartero Azpeitiako azokara joaten zen. Trenean eramaten zuen Mutrikura, ezkutuan. Barrenkalean autobusak gelditzen ziren.

1.127. Zumaian eskolan gerra hasi zenean (MUT-089/021)

Gerra hasi zenean, Benedikta Zumaian zegoen ikasten. Mojei abitua kendu zieten. Eskola non zegoen. Madriletik ikasle batzuk eraman zituzten eskolara. Ikaskideei buruz hitz egiten du.

1.128. Emakumeak eta haurrak kamioietan eramaten zituzten gerra hasi zenean (MUT-089/022)

Eskolatik prozesioak egiten zituzten. Uniforme marroia erabiltzen zuten. Gerra eskolan pasatu zuen, ez Mutrikun. Emakumeak kamioietan nola eramaten zituzten ikusten zuten.

1.129. II. Mundu Gerratik ihesi zihoan soldadu alemaniarra jatetxean agertu zen (MUT-089/023)

Gerra amaitzean, Mutrikura bueltatu zen eta familiako jatetxean lanean hasi zen, Bare-Baren. Pianoa ere jotzen zuen bertan. Behin, II. Mundu Gerratik ihesi zebilen soldadu aleman bat agertu zen. Irunen zegoen Ortega koronela eramanez omen zuen Mutrikura.

1.130. Mutrikuko moilatik gerratik ihesi (MUT-089/024)

Mutrikuko moilatik emakumeek eta hurrek ihes egiten zuten Donibane Lohitzuneruntz. Gerra garaian Belgikara joan eta flandiar hitz egiten bueltatu zirenak.

1.131. Saturrarango kartzelako ume bat etxera eramanez zuten I (MUT-089/025)

Saturrarango kartzela ireki zutenean, herriko jendeak janaria eramanez zuten. Benedikta horretan nola hasi zen. Dolores izeneko emakume baten haurra etxera eramanez zuten eta Bene izan zen bere ama besoetakoa. Ama kartzelatik ateratzen zenean, Cartagenara bueltatu ziren.

1.132. Saturrarango kartzelako ume bat etxera eramanez zuten II (MUT-089/026)

Benedikta eta imanor ezkondu zirenean, eztei-bidaian Cartagenara joan ziren, Saturrarango kartzelan Benek hartutako besoetako umearen herrira. Hotelera gonbidatu zituzten bazkaltzera eta hasieran ez zieten utzi sartzen. Paquita Izco Gomez izan zen besoetako haurra.

1.133. Presoa sotoan utzi, marea igotzean itotzeko (MUT-089/027)

Saturrarango kartzela nolakoa zen. Mojen zigorrak presoek. Sotoan utzi presoak, marea igotzean itotzeko.

1.134. Saturrarango kartzelara presoek janaria eramatera (MUT-089/028)

Saturrarango presoak ikuste zituzten, baina burdin hesi haundi baten atzetik. Kartzelara joateko egiten zuten bidea. Ze janari eramanez zuten.

1.135. Aita, Zarautzeko Gran Hoteleko sukaldari (MUT-089/031)

Benediktaren aitak, urtean zehar jatetxean egiten zuten eta udan Zarautzeko Gran Hotel-eko sukaldean lan egiten zuten. Amak hartzen zuten jatetxearen kargu.

1.136. Bi urtez etxean ezkutuan bizitzen (MUT-089/033)

Antonino aitonari buruz. Oso abertzalea zen. Nazionaletatik nola ihes egin zuten. Etxean ezkutuan bi urten bizitzen egon zen, armairu baten atzean zegoen zulo batean. Beste batzuetan, teilatupeko txori-etxeetan egoten zen.

1.137. Emakume mutrikuar bakarra espetxean (MUT-089/034)

Susana Uranga, Benediktaren senarraren ama, kartzelan sartu zutenean. Mutrikun kartzelan egon zen emakume bakarra.

1.138. Joseba Arrasate, Ingalaterran lurperatuta (MUT-089/035)

Joseba Arrasate, Beneren senarraren anai bat, Pensilbaniara joan zen. Ekonomista eta apaiza zen. Gerora Ingalaterrara joan zen eta han hil zen auto-istripu batez. Hezurak Mutrikura eraman nahi ditu Benediktak.

1.139. Tailerrean ikasi zuen euskaraz 12 urterekin (MUT-090/003)

Deban San Viator eskolan ikasi zuen, dena gaztelaniaz. Etxean gurasoak haien artean galiziarrez egiten zuten eta semeekin gaztelaniaz. Euskaraz 12 urterekin ikasi zuen, tailerrean lanean hasi zenean. Guraizeentzat trokelak egiten hasi zen eta gerora, mekanizaziorako forja-lanak egiten hasi ziren beste enpresa handientzat piezak egiten.

1.140. Debako haurren lehenengo Euskal Jaia (MUT-090/005)

Debako abadeak, gazteak euskaraz egitera bultzatzen zituen. Deban lehenengo haurren Euskal Jaia nola antolatu zen. Ondoren Eibarren antolatu zuten.

1.141. Euskal Jaiak antolatzeko beldurra (MUT-090/006)

Haurrentzako Euskal Jaiak antolatu ondoren, helduenak antolatzen hasi ziren Deban, Eibarren... Beldurra zeukaten euskal kulturarekin lotutako ekintzak antolatzeko. Deban gainera, udan Madriletik etorritako politiko eta militar ugari zeuden uda pasatzen eta beldurra handiagoa zen.

1.142. Euskal Jaiko panfletoak kotxearekin banatzen (MUT-090/007)

Itziar Aizpuru eta Begoña Andonegirekin errentako kotxe batekin Zumarragaraino joan ziren Euskal Jaietako panfletoak banatzen.

1.143. Euskal Jaiaren antolaketa I (MUT-090/011)

Euskal Jaietan egoten ziren ekintzak dantza eta korua izaten ziren. Herri guztiak parte hartu zuen. Antolamenduaren funtzionamendua. Emakumeek janaria prestatzen ibili ziren aurreko egunetan. Dantzariak.

1.144. Euskal Jaiaren antolaketa II (MUT-090/013)

Euskal Jaiaren egunean autobusak zenbatuta heltzen ziren eta bakoitzak dantza egiteko bere ordutegiak zituen. Antolatu zen lehenengo urtean, dantzari onenak joan ziren Debara.

1.145. 1965eko Debako Euskal Jaia (MUT-090/015)

Euskal Jaiaren bigarren urtean, 1965ean, 31 dantza-talde eta 18 koru bildu ziren Deban. Milaka pertsona bildu ziren Deban. Gobernadoreak eskutitz bat bidali zion Adolfori, Euskal Jaian zerbait gertatuz gero bera arduradun izendatuz.

1.146. Poliziak Debako sarrera itxi zuen Euskal Jaia ez ospatzeko (MUT-090/018)

Debako hirugarren Euskal Jaia ezin izan zen antolatu. Poliziak Deba itxi zuen, ezin zen inor sartu. Azken orduan Euskal Jaia ezeztatu zuenez poliziak, bertara hurbiltzeko plana zutenak inguruko herrietara joan ziren (Itziar, Mutriku, Eibar...).

1.147. Hamabi urterekin hasi zen dantzan; Oargi dantza taldea (MUT-090/019)

Euskal Jaietan, herritarrak baserritarrez jantzita joaten ziren. Musika egoten zen, bertsolariak... Debako dantza-taldeko irakaslea izan zen Adolfo. Hamabi urterekin hasi zen dantza egiten. Debako Oargi dantza taldea.

1.148. Basarri eta Uztapideren liskarrak (MUT-090/021)

Oargi dantza taldeko kidea izan zen eta jaialdiak antolatzen zituzten. Behin, Eibarko Astelehena frontoian egindako jaialdian Uztapide eta Basarriren arteko liskarraren nondik norakoak kontatzen ditu.

1.149. Euskal dantzak irakastera Mutrikura (MUT-090/022)

Euskal dantzak erakustera joaten ziren Mutrikura.

1.150. Euskal Jaiaren antolaketa Udalera pasatu zen (MUT-090/030)

Hirugarren Euskal Jaiaren ondoren jaialdi gehiago zergatik antolatu ez ziren kontatzen du. Udaletxeak hartu zuen ekitaldiaren kargu eta hasierako antolatzaileak atzera bota ziren.

1.151. Angulak saltzen JOC-eko ekintzetarako (MUT-090/036)

JOC-eko ekimenak Deban. Angulak saltzen zituzten eta diru horrekin herrian zeuden gabeziak konpontzen saiatzen ziren.

1.152. Arotza, baskulatzaile eta esne-banatzailea (MUT-091/002)

Elgoibarrera bizitzera joan zen arotzeriaren ofizioa ikastera. Urte batzuetara, eskopeten baskulak egiten ikasi zuen eta etxetik lan egiten zuen, baserriko ardura hartu zuen arte. 33 urtez Mutrikun esnea banatzen eta barazkiak saltzen ibili da.

1.153. Gerran, ardiak Ondarroara eta garia Mutrikura eraman behar (MUT-091/003)

Gerra garaian jaio zen, 1937an. Tomasek 22 egun zituela, aita gerrara joan zen. Garia Mutrikura eta ardiak Ondarroara eraman behar izan zituzten berez diru trukez. Ez zuten dirurik inoiz jaso.

1.154. Errekisatutakoa nazionalentzat (MUT-091/004)

Gerra garaian, karlistak ziren herriaren kontrola zutenak. Baserrietan eta etxeetan errekiatzuten zutenak nazionalei eramaten zitzaizen gabez ezkutuan.

1.155. Gerra garaian, esnea banatzen zuten Mutrikun (MUT-091/006)

Etxea erregistratzera eta dena hankaz gora jartzera joaten ziren soldaduak baserrira. Behiak ez zizkieten errekiatu eta amak esnea banatzen zuen Mutrikun.

1.156. Presoen lekualdaketen zaindaria (MUT-091/008)

Gerran, aita Bilbora eraman zuten. Kapitain batek, Tomasen aita hartu eta zaindari moduan jarri zuen presoen lekualdaketan egoten zirenean. Gero, Urduñara eraman zuten.

1.157. Frontea Mutrikutik Kalamuaraino; kanoikadak (MUT-091/009)

Mutrikun, frontearen kokapena non egon zen azaltzen du. Santa Kutz, Katu erreka, Aldabe zelai... eta Kalamuraino dena jarraian. Kanoiak mendebaldetik etortzen ziren, Amoroto ingurutik. Baserri ondoan jausi zen kanoia.

1.158. Mutrikuko mendi eta zelaiei toponimia (MUT-091/010)

Mutrikuko toponimia: Aldabe mendia, Aldabe zelai, Katu Erreka...

1.159. Burgoan denak karlistak ziren (MUT-091/012)

Burgoan (Berriatua) karlistak ziren ia denak eta soldadu asko egon ziren bertan. Bertan fusilatzeetik libratutako gizon baten istorioa kontatzen du.

1.160. Txurruka baserriko semearen desagertzea (MUT-091/015)

Aitak gerrako kontuez hitz egiten zuen baina amak ez. Aitak harreman zuen gerran tokatu zitzaion kapitainarekin. Presoak kartzela batetik bestera garraiatzen zituen trenez, baina inoiz ez zuen Mutrikuko inor eraman. Txurruka baserriko seme nagusia Bilbora eraman zuten gerra garaian, Tomasen aitarekin batera. Ez zuten gehiago haren berririk izan.

1.161. Gerraostean errota itxi zituzten (MUT-091/019)

Baserrian, garia eta baratzea zuten. Erremolatxa ereiten zuten behiei emateko. Txerriaren jatekoak. Artoa eta garia ehotzera Isasi Goikora joaten ziren. Gerraostean itxi egin zituzten Isasiko errota eta Markinara eta Berriatuara joan beharra zuten.

1.162. Baserriko produktuengatik zergak ordaindu beharra (MUT-091/020)

Baserrian egiten zituzten produktuak ikuskatzera joaten zen guardia zibila eta zerga bat ordaindu behar izaten zuten. Sagardoari zerga jartzen zitzaion eta garia entregatu egin behar zen.

1.163. Mijoa inguruko errenteroak (MUT-091/021)

Inguruko baserrietan errentero zeudenak aipatzen ditu: Ilunbe, Errotaberri...

1.164. Garia bedeinkatzeagatik bi oilasko trukean (MUT-091/022)

Mijoan ez baina Lasturren, abadeari bi oilasko eman behar zitzaizkion garia bedeinkatzeagatik. Behin, ez zen garia bedeinkatu eta bikarioak abadeari dei egin zion, oilaskoak jaso ez zituela abisatzen. Honek, haserre elizako leihotik bedeinkazioa bota zuen.

1.165. Kupitza baserri inguruko sagarrekin egindako sagardoa (MUT-091/025)

Baserrian sagardoa egiten zuten, edozein sagar motarekin. Sagarrak Kupitza Behekoa baserriaren ondoan zeukaten etxola batean gordetzen zituzten baina lapurtu egiten zizkieten eta azkenean Tomasek etxola bota eta pinua landatu zuen. Bertako sagarrekin sagardo oso ona egiten zuten.

1.166. Sagardoa eta ozpina Mutrikun saltzen zuten (MUT-091/026)

Egurrezko upela erabiltzen zuten. Ilbeheran saltzen zituzten botilak. Sagardoa eta ozpina egiten zituzten Izarra itsasontziak beraien ozpina eramaten zuen itsasora. Katu kalean (Mutriku) saltzen zuten sagardoa eta ozpina.

1.167. Sagardoa ikutzearekin nongoa zen bazekien aitak (MUT-091/027)

Ametza tabernako jabeak zuzenean baserrian erosten zuten sagardoa, bertara joan eta mementuan botiletan sartuz. Aitak, eskuak sagardoan sartzen zituen eta horrekin jakiten zuten noiz zegoen ona botiletan sartzeko.

1.168. Azokan saltzen zituzten barazkiak (MUT-091/029)

Urte batzuez txakolina egin zuten. Pagazarharretan zeuzkaten mahastiak. Mutrikun merkatuan, esneaz gain ere baratzeko produktuak saltzen zituzten: porruak, tomateak, lekak, letxuga, ilarrak, babarrun beltza...

1.169. Morokilak eta taloak (MUT-091/030)

Irinik ez zuten saltzen baina gerraostean, noizean behin norbait baserrian agertzen zen morokila egiteko irin bila, medikuak aginduta. Gosearen kontra morokila ona omen zen. Morokila eta taloa etxeko labean egiten zituzten.

1.170. Baserriko morroia, Etarte baserrikoa (MUT-091/031)

Umeak zirela, Etarte baserriko seme bat egon zen beraien baserrian morroi bezala. Etarte, Mendaroko Saratsu bailaran dago.

1.171. Aitarekin igeltsero lanetan (MUT-091/033)

Aita igeltseroa zen eta berarekin lan egiten zuen Tomasek gaztetan. Harri bila joaten ziren kamioarekin. Egindako eraikin batzuk aipatzen ditu.

1.172. Ondarretan preso ihes egiten saiatzeagatik (MUT-092/004)

Gerraostean, aita Ondarretako (Donostia) kartzelan egon zen preso. Galdames itsasontzian harrapatu zuten, Frantziara ihes egiten zuen bitartean. Aita nazionalista zen. Ondarretan, Martin "Tolon" mutrikuarrarekin batera egon zen ia hiru urtez.

1.173. Kartzelan tatuajeak egiten zituzten (MUT-092/005)

Aitarekin kartzelan zegoen gizon batek, tatuajeak egiten zizkien beste presoek. Aitari besoetan hiru egin zizkion: aingura bat, itsasontziko lema bat eta emaztearen irudi bat.

1.174. Xaboiaren barruan mezuak bidaltzen (MUT-092/006)

Ondarretan, Ana Mariren aitarekin batera beste mutrikuar bat preso zegoenez, bi emazteak txandakatu egiten ziren janaria eramateko. Behin, bestearen emazteak xaboiaren artean ezkutatuko mezua aurkitu zuen guardiak. Gerra bukatu zenean atera zuten aita kartzelatik.

1.175. Kartzelatik bueltan beldurra eta amesgaiztoak (MUT-092/007)

Iparkalean (antzinako Katu-kalea) jaio zen Ana Mari. Aita kartzelatik bueltatu zenean, amesgaiztoak izaten zituen eta edozein zarata edo hotsekin beldurtzen zen. Presokideen fusilamenduak ikusi zituen.

1.176. Soldaduen arropak garbitu eta konpontzera behartuak (MUT-092/008)

Gerra garaian, Irisarren esaten zaion aldapatik sartu ziren soldaduak Mutrikura. Bizilagunek, koltxoak jarri zituzten leihoetan, balak etxeetara ez sartzeko. Mutrikura sartu ostean, Ondarroara joan ziren soldaduak. Ana Mariren amonak, zigor gisa soldaduek zituzten zorritz betetako arropak garbitu eta konpondu behar izan zituen.

1.177. Don Rafaelen etxeko babeslekua (MUT-092/010)

Hegazkinak agertzen zirenean, Beko Plazan dagoen harrizko etxe batean (Don Rafaelen etxea) zegoen babeslekura joaten ziren. Komentuko mojek kanpaiak jotzen zituzten hegazkinak hurbiltzen zirenean.

1.178. Fusilamenduak Mutrikun (MUT-092/011)

San Juan Txiki kanposantuan fusilatu zuten. Mutrikuko abade bat goizeko ordubietan eraman zuten herriko beste batzuek eta hura ere fusilatu zuten. CNT-koek fusilamendu omen zutela esaten zen. Kalbaixo inguruan soldadu asko hil ziren eta fusilamenduak izan ziren. Bide ondotik hasita lehenengo gurutzearen azpian hildakoen gorpuak zeudela esaten zuen amak.

1.179. Karlistek banatzen zituzten errazionamenduko elikagaiak (MUT-092/012)

Gerraostean ez zuten goserik pasa baina gauza asko falta ziren. Errazionamenduko txartelarekin alondegian janaria lortzen zuten. Janaria karlistek banatzen zuten. Karlista asko zeuden Mutrikun eta haien erdia salatakiak ziren. Goiko plazan zuten karlistek egoitza nagusia.

1.180. Emakume Abertzale Batzaren egoitza frankistek hartuta (MUT-092/013)

Tranpa kalean, Emakume Abertzale Batzaren egoitza izandako etxean frankistek janaria ematen zuten. Gerraostean ogia nolakoa zen.

1.181. Gorria izateagatik kartzelara (MUT-092/016)

Umetan Ana Marik ez zuen ulertzen zer zen "gorria" izatea, baina bazekien gorriak kartzelan sartzen zituztela. Karlisteri eta frankisteri txapelgorriak deitzen zitzairen.

1.182. Eskolan dena gaztelaniaz, Cara al Sol, banderari muin egin... (MUT-092/017)

Eskola nazionalen sartzean banderari muin egin behar zioten eta "Cara al Sol" abestu. Maistra nafarra eta euskalduna zen, Miren Goiburua, eta pena ematen zion euskaldunek gaztelaniaz egin behar zutelako. Udaletxe azpian ibili zen eskolan. Neskak eta mutilak banatuta zeuden. Egoitza lantegian lanean zegoen bitartean atera zuen eskola-ziurtagiria.

1.183. "Lehengo lekuan burua", bandoz aldatzen zirentzat esamoldea (MUT-092/020)

Etxean, gerraostean bandoz aldatu zirenei buruz asko hitz egiten zen. "Lehengo lekuan burua" esaera erabiltzen zen haietaz hitz egiteko.

1.184. Mutrikuko "Caídos" kalea (MUT-092/023)

Mutrikuko parrokiako kanpoaldean "Por Dios y por España" lemapean agertzen ziren karlista eta frankisten izen-zerrenda bat zegoen. Lema zegoen kaleari "Caídos" deitzen zioten eta "Caídos gora" edo "Caídos behera" esaten zuten.

1.185. Gerraosteko debekuak (MUT-092/025)

Gerraostean Arruti izan zen alkate. Estankoen lizentzia frankisteri edo ingurukoei ematen zitzairen eta Arruti familiak estankoa zuen. Ikurrinak etxean gordeta zituzten. Etxean eta kalean euskaraz egiten zuten baina eskolan ez.

1.186. Pobreentzat eta aberatsentzat meza ezberdinak (MUT-092/026)

Bi meza ezberdin egoten ziren, bata pobreentzat goizeko 6.30etan eta bestea aberatsentzat eguerdiko 12etan. Don Rafael, Don Alejo, Peio Jauna,

1.187. Izeba Saturraranen egon zen preso (MUT-092/027)

Ana Mariren izeba bat, Kontxa Campos, Saturrarango emakumeen kartzelan egon zen preso bere ahizparekin batera. Ahizpak, Mari Campos, lau seme-alabekin bidali zuten kartzelara eta horietako hiru (nagusienak), herriko familiekin bizi izan ziren. Txikiena berarekin egon zen kartzelan.

1.188. Deikaztelutik Mutrikura gerra garaian (MUT-093/004)

Aita Deikaztelukoa da. Gerra garaian, aitaren arreba baten senarra eta haren beste senide batzuk hil zituzten eta aitaren familiak herritik ihes egin behar izan zuen. Saturraranera heldu zen, eta, bertan soldadu zegoela, gaixotu egin

zen. Mutrikuko familia batek hartu zuen etxean eta bertako alabarekin ezkondu zen. Aitak ez zekien euskaraz eta moilan ikasi zuen arrantzaleekin. Gero, bera ere itsasoan lanean ibili zen.

1.189. 1958ko Mutrikuko sutea I (MUT-093/005)

Etxea erre zitzaien umeak zirenean. Hiru etxebizitza erre ziren. Kanpaiengatik jakin zuten etxeak sutan zeudela. Amak hankak erre zituen. Gau hartan, herriko etxe ezberdinetan sakabanatu zituzten etxea galdu zuten pertsona guztiak.

1.190. 1958ko Mutrikuko sutea II (MUT-093/006)

Sutearen hurrengo egunean, etxe gabe gelditu ziren haur guztiak autobusean eraman zituzten; neskak Donostiara eta mutilak Tolosara. Sutean zazpi pertsonak bizia galdu zuten, tarteko beraien aitona eta izeba Juanitak. Aitona ezin zen bere kabuz mugitu eta Juanita berarekin gelditu zen. Amak ganbaratik ihes egin zuen bi umerekin eta teilatutik salto egin zuten.

1.191. Sutean dena galdu zuten (MUT-093/008)

Etxeako sutetik, amak Jaione eta Mari Jose Arrasate atera zituen. Maria Pilar lantegian zegoen eta bertatik ikusi zuen dena. Etxe gabe gelditu ziren. Maria Pilarrek kontatzen du San Pedro Txiki eguna zela eta arratsaldean jantziko zituen arropa eta zapata berriak sutean erre zirela. Ezer gabe gelditu ziren.

1.192. Auxilio Socialean bizitzen urte ta erdiz (MUT-093/009)

Senide asko zirenez, denak herriko familiakoen etxean sakabanatu zituzten. Buston familiaren etxean bizi izan ziren biak baina aurretik, Maria Pilar Auxilio Socialeko ikastetxera eraman zituzten. Etxe berriak egin bitartean (urte eta erdi inguru) eman zuen Maria Pilarrek bertan.

1.193. Sutearen ondoren, herriko etxeetan sakabanatuta (MUT-093/011)

Maria Pilar Bustoneko familiarekin bizitzen egon zen sutearen ondoren. Nahiz eta etxe berria urte eta erdi inguruan egin zieten, Bustoneko familiarekin gelditu zen. Amari, Erdiko kalean etxe bat eman zioten.

1.194. Mutrikuko "hotel handi" eta "hotel txiki" (MUT-093/012)

Sutean erretako "hotelian", komunak bizilagun guztien artean partekatzen ziren. Egurrezkoa zen eta "igogailua" deitzen zioten. Etxeari "hotela" deitzearen jatorria. Etxe bati "Hotel handi" deitzen zitzaion eta besteari "Hotel txiki". Beste eraikuntza bat ere bazegoen, besteak baino txikiagoa eta sutean ere erre zena. Izebaren kortsea aurkitu zuten sutearen hondakinen artean.

1.195. Eskolara baino, nahiago zuen lanera joan (MUT-093/014)

Nahiago zuen eskabetxera lanera joan eskolara baino. Mojei beldur handia zien Maria Pilarrek, Sor Celestinari batez ere. Buruko toka nolakoa zen.

1.196. Auxilio Socialeko eskolan bizitzen I (MUT-093/015)

Etxe gabe gelditu zirenean eraman zieten Donostiako eskola edo barnetegia nolakoa zen kontatzen du. "Señoridak" ez ziren ondo portatzen beraiekin. Lehenengo egunean "Cara al Sol" abesten hasi zirenean, Maria Pilarrek ezjakintasunez, ezkerreko besoa igo zuen eta zigortu egin zuten.

1.197. Auxilio Socialeko eskolan bizitzen II (MUT-093/016)

Hilean behin, gurasoak joaten zitzaizkien bisitan. Donostian bizi ziren mutrikuar batzuek goxokiak eramaten zizkieten. Nagusienetarikoa zenez, sukaldeko platerak garbitu behar zituen. Zigorrak.

1.198. Auxilio Socialeko eskolan bizitzen III: "Señoridak" eta mojak (MUT-093/017)

Eskolara janariaren kamioia heltzen zenean, Maria Pilarrek egiten zituen deskarga lanak. Egun berean edo hurrengoan, janari asko falta zela konturatzen zen. Mutrikuko alkatea eta herri beste pertsona garrantzitsu batzuk bisitan joan zitzaizkienean, Maria Pilarrek kontatu egin zien gertatzen zena eta "señoridak" kendu eta mojak sartu zituzten umeak zaintzera. Oso jatorrak ziren.

1.199. Mojekin hondartzara aldakandora zuriarekin (MUT-093/018)

Mojekin joaten ziren hondartzara. Bainujantziaren azpitik alkandora zuri bat jantzi behar izaten zuten. "Mutrikuko usoak" deitzen zien mutrikuar batek. Ia bi urte pasa zituen Maria Pilarrek Donostiako eskola hartan, etxe berriak egin bitartean. Mojekin ez, baina aurretik zeuden "señoritekin" gose asko pasatu zuten eta ahuntzarentzat eramaten zuten ogi gogorra ere jaten zuten.

1.200. Auxilio Socialeko eskolako uniforme falangista (MUT-093/019)

Moja nagusia katalana zen eta ez zuten "Cara al Sol"ik abesten. Donostiako jaietan, eskolak ematen zituen falangeko jantziekin janzten ziren eta tiobiboetan dena doan izaten zuten.

1.201. Falangeko uniformearekin, Mutrikura familia bisitzera (MUT-093/020)

Donostiako eskolan bizitzen egon ziren bitartean, irteera bat egin zuten Mutrikura familia ikustera.

1.202. Ameriketatik laguntza, etxeak berreraikitze (MUT-093/021)

Maria Pilar eskola gutxitara joaten zen baina eskolan lanak egiten zituen. Etxea galdu zutenek familia zuten Ameriketara eta hortik laguntza asko jaso zuten. Eskolan, gantxilloa asko egiten zuen.

1.203. Eskabetxerako lanak: antxoa, atuna... (MUT-093/023)

Eskabetxeran lan egin dute biek. Lan-prozedura. Buruak kendu, garbitu, gazitu, latatan sartu... Sasoi bakoitzean arrain ezberdina lantzen zen eta modu ezberdinetan. Atuna oliotan eta eskabetxetan lantzen zen eta amaieran bainu marian egosten zen. Garai batean beste arrain batzuk ere lantzen zituzten (txitxarroa, papardoa...) baina beraiek ez dute ezagutu.

1.204. San Miguel eskolako mojak (MUT-093/025)

Mutrikuko San Miguel eskolan ikasi zuten biek. Eguerditan, ikasleak txandakatu egin behar ziren mojek bazkaltzen zuten bitartean santuei buruzko testuak irakurtzeko. Sol Celestinari beldurra zioten.

1.205. San Miguel eskolako mojak: zigorrak I (MUT-093/026)

Mari Dolo Rodiño ikaskideari, medikuak esan zion pixa egiteko gogoa zuenean komunera joan behar zela edo bertan egin. sor Mariak ez zion utzi komunera joaten eta aterkiak gordetzeko lekuan egin zuen. Mojak jo egin zion zigor modura eta haren aita joan zen eskolara, mojak akabatuko zituela esanez.

1.206. San Miguel eskolako mojak: zigorrak II (MUT-093/027)

Jose Antonio Agirre hil zenean, Mutrikun egin zen meza berezi batera joan ziren Maria Pilar eta bere ikaskide batzuk, haietako baten familiakoa zelako. Mojek jakin zutenean, mila aldiz "ez naiz kriminal baten mezara joango" idaztera behartu zituzten.

1.207. Erromeriak, irteerak, dantzalekuak... (MUT-093/029)

Gaztetan, erromeriara San Jeronimotan eta San Isidrotan joaten ziren. Behin, Pello Jauna abadeak Itziarrera eramanez erromeriara. Mutrikun Kai dantzalekua zegoen. Bertan lanean egon ziren.

1.208. Ameriketatik jasotzen ziren gazta lata handiak (MUT-093/033)

"Pobreza" deitzen zioten lekuan, irina eta gazta banatzen zen familia behartsuenetan. Beraienean, nahiz eta etxea galdu, ez zuten ezer jasotzen osaba kontratista zutelako. Gazta lata handi batzuetan heltzen zen. Caritas-ek sortutako ekimen bat zen.

1.209. Mutrikuko kondea (MUT-093/035)

Mutrikuko kondeak, behin herriko bati gurgilezko aulki berezi bat egin zion. Etxeak erre zitzaizkienean ordea, ez zituen nahi izan etxe gabeko familiak berak zituen etxe hutsetan sartu nahi izan.

1.210. Gabonak auzokoekin ospatzen (MUT-093/038)

Gabonak nola ospatzen zituzten Mutrikuko hotel handi eta txiki etxeetan. Guztiak elkartzen ziren afaltzeko, dantzatzeko eta abesteko. Moilako eskabetxeko kantak abesten zituzten.

1.211. "Mutrikuko toma", irailaren 27an (MUT-093/040)

Gerra bukatu eta hurrengo urteetan, irailaren 27an "Mutrikuko toma" ospatzen zuten batzuek. Montejurrara joaten ziren eta Mutrikura bueltan Espainiako bandera ateratzen zuten, bazkaria egin, kantatu, txapliguak bota... Gaur egun Marinero taberna dagoen lekuan.

1.212. Gorria izatea txarra zen baina ez zekiten zergatik (MUT-093/041)

Politikari buruz ez da inoiz etxean hitz egin. Gorriak eta txarrak zirela bakarrik zekien. Ulazianekoen aitak, karlista bera, gorri guztiak akabatu behar zirela esaten zuen eta Maria Pilarrek ez zuen ondo ulertzen zergatik.

1.213. Zineman NoDo-a ikusten beldurtututa (MUT-093/043)

NoDo-an Franco ateratzen zenean beldurra izaten zuten. Beldurrez bizi ziren, bazekitelako ezin zutela askatasunarekin hitz egin. NoDo-a zineman ikusten zuten. Mutrikun zinema bakarra zegoen baina Maristek igandetan film batzuk ipintzen zituzten.

1.214. Oilar-mezan abadea mozkorra (MUT-093/044)

Eliza bat zegoen gaur egun liburutegia dagoen inguru horretan. Oilar-meza zer zen ikusi nahi zuen Maria Pilarrek eta aitarekin joan zen behin. Abadea mozkorra zegoen.

1.215. Mezetara errenkadan eta mantelinarekin (MUT-093/045)

Mutrikun mezak noiz eta non egoten ziren. San Miguelera joaten ziren lehenengo eta handik errenkadan mantelina jantzita, parrokiara. San Migueleko arkumeak eta "maistraneko zorrixak". Meza egunero egoten zen baina igandean denak joaten ziren.

1.216. Mojetan zigorrak, dotrinan ez (MUT-093/046)

Derrigorrez joan behar izaten zuten mezetara. Ez baziren joaten, astelehenean mojek zigortu egiten zituzten. Zigorrak eskolan. Dotrina Pello Jaunak ematen zien eta gustura joaten ziren

1.217. Konfesatzera derrigortuak (MUT-093/047)

Lagun baten osabak Ondarroako zinean lan egiten zuen eta askotan pelikulak dohainik ikusten zituzten. Film "berde" bat ikusi ondoren konfesatzera joan behar izan zuten.

1.218. Plazan dantzan eta gero konfesatzera (MUT-093/048)

Beheko plazan, musika banda egoten zen Kalbario bezperan. Goiko plazan udan jotzen zuten bandakoek eta txistulariek. Piezak. Gero konfesatzera joan behar izaten zuten.

1.219. Medikuaen laguntzaz bueltatu zen aita Mutrikura (MUT-094/004)

Gerra Mutrikura heldu zenean urte bat zuen Joseba Mirenak. Gerrako kontuak etxean entzun ditu. Aita eta haren koinata bat Frantziara ihes egin zuten.

Aitak, Mutrikura bueltatzeko Arriolako medikuaren laguntza izan zuen. Koinata ordea Mexikora joan zen.

1.220. Patxi Arriola, Mutrikuko mediku ondarrutarra (MUT-094/005)

Gerra garaian, Mutrikuko medikua Patxi Arriola zen, ondarrutarra.

1.221. Soldaduak baserrian (MUT-094/006)

Aitak ihes egin zuenean, ama baserrian gelditu zen aitonarekin, Jose Mirenarekin eta beste gizon batekin. Soldaduak baserrian agertzen ziren. Soldadu batzuk gogoratzen ditu: zumaiar bat, nafar bat, murtziar eta katalan bat... Soldaduak kartzelan ere egoten ziren eta baserritik janaria eramaten zuten.

1.222. Soldaduek telefonoz ematen zituzten abisuak (MUT-094/007)

Baserrian egoten ziren soldatuak fusilak bakarrik zituzten eta lubaki modukoak eraikitzen zituzten itsasoa eta itsasontziak kontrolatzeko. Telefonoa ere bazuten.

1.223. Galeperren bila (MUT-094/008)

Ume koxkorra zela, gerraostean, galeperren bila joaten ziren. Soldaduekin izandako pasadizoa kontatzen du.

1.224. Kanoiak baserri gainetik (MUT-094/010)

Etxean osabari entzuten zion gerra garaian kanoiak nola ibiltzen ziren baserri gainetik, Alkoleatik (Mutriku) Liorrera (Ondarroara). Etxe inguruan bonba bat jausi zen baina ez zen lehertu.

1.225. Soldaduak berdez jantzita (MUT-094/011)

Gerra bukatu arte egon ziren soldaduak baserrian. Soldadu horiek, gero mugan ibili ziren makiak bilatzen. Kaki koloreko jantziak eta txapelak berdeak erabiltzen zituzten.

1.226. Gerraosteko gosea (MUT-094/012)

Saturrarango kartzelako soldaduei buruz hitz egiten du. Gerraosteko gosea, bai Mutrikun eta baita Ondarroan ere. Igandetan taloak egiten zituzten eta Ondarroatik jendea joaten zen jatera.

1.227. Garai batean ez zegoen pinurik (MUT-094/013)

Baratze oso haundia zuten eta abarketan ibiltzen ziren alde batetik bestera. Oso pinu gutxi zeuden.

1.228. Saturrarango kartzelako soldaduen etxolak (MUT-094/015)

Saturrarango emakumeen kartzelatik pasatzen ziren maiz. Soldaduen etxolak non zeuden eta nolakoak ziren.

1.229. Etxetxiki auzo eskola Mutrikun (MUT-094/017)

Etxetxiki eskolan hasi zituen ikasketak eta gero Maristetan jarraitu zuen. Mijoa eta Galdonako haurrak ere eskola berera joaten ziren.

1.230. Maristetan, "Cara al Sol" eta bandera (MUT-094/018)

Maristetan, "Cara al Sol" abestu behar zuten eta soldaduak bezala kokatzen ziren. Bandera. Kapera eskolan bertan. Eskolaren antolamendua.

1.231. Falangistak eskolan haurrak erakartzen (MUT-094/019)

Maristetan ikasten zuenean, astean behin herriko gizon bat joaten zitzairen falangera batzeko deia eginez. Izena ematen zutenek, falangeko arropak jasotzen zituzten. Arropak eskolara, kalera, mezetara... eramaten zituzten gero. Mezetara nahitaez joan behar zuten baina batzuetan, baserriko-lanak zirela eta libratu egiten zen Joseba Mirena.

1.232. Franco eta Primo de Riveraren argazkiak eskolan (MUT-094/022)

Eskolan, Francoren eta Primo de Riveraren argazkiak zeuden. Baita uztarriak eta geziak zituen marrazki handi bat. San Francisco Javier zen Maristen eskolako izen ofiziala.

1.233. San Juan Txikiren fusilamendua (MUT-094/025)

San Juan Txiki fusilatzen eraman zuten soldaduak azpeitiarrak omen ziren. Kanposantura heltzean, ihes egiten saiatu zuen baina paretaren kontra fusilatu zuten. Ez du beste fusilamendurik gogoratzen.

1.234. Ehizako eskopetak errekiatuak (MUT-094/026)

Aitari, ehizarako zituen eskopetak kendu zizkioten gerraostean eta baimen batean haien bila joan zenean, udaletxean ez zizkioten eman nahi izan. Bere koronelak hura jakinda, ziurtagiri bat egin zion eta azkenean bueltatu zizkioten eskopetak.

1.235. Soldaduak baserrian I (MUT-094/027)

Gerra garaian baserrian zeuden soldaduek balak erabiltzen zituzten. Berangoko soldadu bat gogoratzen du, neguan putzu batean bainatu eta elurretan bueltak ematen zituena. Gerraostean, mendian tratutan ibiltzen zen eta hil egin zen.

1.236. Soldaduek baserriko sabaian lo egiten zuten (MUT-094/028)

Soldaduek sabaian lo egiten zuten. Koltxoiak lasto lehorrarekin betetzen zituzten eta mantekin berotzen ziren. Baserrian ez zen tiroketarik egon.

1.237. Soldaduak baserrian II (MUT-094/030)

Behin, soldadu errioxar batek txanpiñoiak batu zituen eta sukaldean zebilen bitartean, kapitaina heldu zen eta zartagina botazioan, perretxiko hoiekin hilko ote zen beldurrez.

1.238. Leizarren baserriko taberna (MUT-094/032)

Leizarren baserrian, taberna egon zen garai batean. Kantu bat dago. Eguraldi ona zegoenean, jende asko joaten zen sagardoa edatera. Pasadizo bat kontatzen du.

1.239. Aitonak baserri inguruko lurrak erosi zituen (MUT-094/033)

Baserrian, garia, artoa, sagarra... lantzen zuten. Aitonak, herriko jendeari lur zati txikiak erosten hasi zen. Horregatik, lur-zati bakoitzak izen ezberdina du: Mahastizarra, Floresena, Brunonekua, Kartutxona... Mahastiak egon ziren garai batean baina inguruan ez ziren egoten.

1.240. Esnetarako behiak (MUT-094/034)

Esnea saltzen zuten etxerik-etxe. Hamasei bat behi zituzten. Ixkuak saldu egiten zituzten eta txahal gutxi batzuk ere. Orain behi guztiak haragirako dituzte.

1.241. Idiak eta laiak (MUT-094/035)

Ferratokia izan zuten garai batean. Traktorea izan aurretik, idiekin lan egiten zuten. Laiekin nola lan egiten zuten azaltzen du.

1.242. Artoa nola jasotzen eta lantzen zuten (MUT-094/036)

Arto garaian, laguntza izaten zuten. Prozesua nolakoa zen kontatzen du. Laguntzen ibili ziren batzuk aipatzen ditu: Atxili, Mari Carmen Leteren gurasoak...

1.243. Idiak izatea ez zen oso ohikoa (MUT-094/038)

Idiak lanerako bakarrik zituzten, ez probetarako. Inguruko baserrietan ez zen normalean idirik egoten eta egonez gero, betiere lanerako izaten ziren.

1.244. Igandea bazen ere, baserrian beti lanean (MUT-094/040)

Igandetan, lehenengo mezetara joaten ziren. Eguerdian, ehizatzerak joaten ziren eibartarrak hartzen zituzten tabernan. Baserrian beti lana zegoen arren, lehenengo mezetara joan behar ziren.

1.245. Garia eta haren aprobetxamendua (MUT-094/041)

Garia-jotzea nola egiten zen. Lastoa osorik sabaian gordetzen zuten. Argia egiteko ere erabiltzen zen lastoa, bai etxean eta baita gabez bideetatik joateko.

1.246. Mendi bideak eta andabideak (MUT-094/042)

Garai batean bideak garbi mantentzen ziren eta suteak ez ziren egoten. Andabideak nondik pasatzen ziren. Bidegurutzeetan eta gurutzeak zeuden lekuetan gelditzen ziren erreztatzeko.

1.247. Leizarrengo taberna (MUT-094/044)

Leizarreneko tabernara hurbiltzen zen jendeak tortilla jaten zuen. Batzuetan enkarguz ere egiten ziren eta bizpahiru aldiz otarrainxkak prestatu zirela gogoratzen du. Amak kozinatzen zuen.

1.248. Txahalen prezioa ezberdina Gipuzkoan eta Bizkaian (MUT-094/045)

Gerra garaian, urtero garia eman behar zuten baina urte batean gari guztia kendu zieten. Urtero, produkzioaren parte bat entregatu behar izaten zuten. Txahalak, Bizkaian garestiago ordaintzen zirenez, kontrola egitera joaten zirenean, pare bat ezkutatu egiten zituzten. Behiak, pertsonak baino askoz ere gehiago kontrolatzen ziren, baina gaur egun kontrola askoz handiagoa da.

1.249. Fraideak babarrun bila baserrietara (MUT-094/046)

Patata eta garia entregatu behar izaten zen. Babarrun bila fraideak joaten ziren baserriz-baserri.

1.250. Garai batean 120 baserri zeuden Mutrikun (MUT-094/048)

Mutrikun garai batean 120 baserri zeuden martxan. Gaur egun oso zaila da baserritik bizitzea, dendetan saltzen dena askoz ere merkeago delako. Pentsua.

1.251. Baserrian morroiak eta neskameak (MUT-094/050)

Morroiak izan dituzte baserrian, ezkondu eta gero ere. Behin Burgosko morroi bat izan zuten eta 18 urterekin Ameriketara joan zen. Neskameak ere izan zituzten, Justa eta Joxepa. Etxeko lanetan laguntzen zuten, ura errekatik ekartzen zuten...

1.252. Hiru heriotza zigorretatik libratu zen (MUT-095/003)

Aita baratzean lanean zegoela joan zitzaizkion bila gerrara eramateko. 18 urte zituen. Hiru heriotza-zigorra ezarri zizkieten eta espetxean egon zen Tetuanen, Guadalajaran eta Bilbon. San Andres batailoian borrokatu zuen. Hiru heriotza-zigorrak zergatik izan ziren eta nola libratu zen. Jesuita, abade eta medikuen laguntza izan zuen libratzeko.

1.253. Langile batailoiak (MUT-095/004)

Aita espetxean zegoen bitartean, Langileen Batailoian ibili zen bideak egiten, mendian... Bertan aitari gertatuko anekdota bat kontatzen dute.

1.254. Gerra ondorengo beldurra (MUT-095/005)

Aita kartzelatik libratu zenean, ez zen inora sinatzera joan behar izaten baina beldurrez bizi zen.

1.255. Saturrarango guardia zibilaren kuartela (MUT-095/006)

Saturraranen guardia zibilaren kuartelaren kokapena. Bost edo sei guardia zibil egoten ziren, haien familiekin. Haurrak eskolan ibiltzen ziren beraiekin.

1.256. Txakurrak esnea eramaten zuen egunero kartzelara (MUT-095/007)

Saturrarango kartzela zabalik egon zen bitartean, amonak etxeko txakurrari ahoan esnez betetako kantina ipintzen zion eta honek kartzelara eramaten zuen, emakume eta haurrentzat. Umetan ez zekiten Saturraranen kartzela egon zenik ere ez. Beti ezagutu zuten seminario bezala. Etxean ez zieten gerrari buruz askorik esaten, aitak beldurra zuelako.

1.257. Guardia zibilaren bisitak baserrira (MUT-095/008)

Guardia zibilak susmoren bat zuenean, baserria joaten zen eta lastoan mosketoiarekin ibiltzen ziren, norbait ezkutatuta bazegoen, harrapatzeko. Guardia zibila maiz joaten zitzaien baserrira.

1.258. Mutrikuko Katetxeko eskolaren sorrera (MUT-095/009)

Umeak zirenean, Ondarroara joaten ziren eskolara baina auzokoek eskatuta Katetxen mikeleteek zuten eraikinean eskola bat zabaldu zen eta ume asko elkartzen ziren bertan.

1.259. Katetxeko eskolan 40 haur eta maistra bat (MUT-095/010)

Katetxen hamalau urtera arte ikasi zuten, eskola ziurtagiria lortu arte. Maistrak: Tere Arriandiaga (Ibarrangelu), Angelis (Jaca), Rosa Mari... Ume gutxi gelditzen hasi zirenean, zeudenak Mutrikura bidali zituzten eskolara. Maistrak 40 bat umeri ematen zien klasea, hiru taldetan banatuta (handiak, ertainak eta txikiak)

1.260. "Cara al Sol" kantaren bertsio ironikoa (MUT-095/011)

Juan Marik eskola profesionalean lan egin zuen. Ikasketak gaztelaniaz ziren beti. "Cara al Sol" eskolara sartu aurretik kantatzen zuten baina Arratek eta haren ikaskideen kantua moldatu zuten.

1.261. Mikeleteen kontrolak probintzien artean (MUT-095/012)

Eskola alboan mikeleteak zeuden, txapelgorriak. Probintzien arteko muga bertan zegoenez, merkantzien kontrolak egiten zituzten. Mikeleteen jantziak. Bulegoak. Eskolaren azpian kalabozoa zegoen eta beldurra sartzen zieten horrekin.

1.262. Guardia zibilak baserriak miatzen (MUT-095/013)

Guardia Zibila menditik ibiltzen zen eta salaketak egoten zirenean baserriak miatzen zituen. Baserrietara sartzen ziren inolako abisurik gabe. Batzuekin harreman ona zuten, urteak ematen zituztelako bertan.

1.263. Guardia Zibilaren kuartelera Santa eskean (MUT-095/014)

Eskolara guardia zibilan eta mikeleteen seme-alabekin joaten ziren. Azken hauek euskaldunak ziren eta horietako bik gero seminarioan ikasi zuten, nahiz eta ez ziren abade egin. Santa eskean joaten ziren guardia zibilaren kuartelera.

1.264. Saturrarango seminarioko ikasleak I (MUT-095/015)

Saturrarango seminarioko ikasleen adin-tarteak. Seminarioa itxi zenean, udalekuak egiten ziren bertan. Seminarioak zinema eta jolasetarako gela handi bat zituzten billarrarekin, futbolinarekin... Inguruko haurrak bertako zinemara joaten ziren.

1.265. Saturrarango seminarioko ikasleak II (MUT-095/016)

Hilean behin seminaristek haien gurasoen bisita jasotzen zuten eta euren baserriko tabernan bazkaltzen zuten. Aste Santuan prozesioak egiten zituzten. Beltzez joaten ziren jantzita, banda gorri batekin.

1.266. Saturrarango seminarioko meza-orduak; sakramentuak (MUT-095/017)

Auzokoak seminaria joaten ziren mezetara. Meza-orduak. Sakramentuak seminarioan ematen ziren. Dotrina Katetxan jasotzen zuten Don Peioren eskutik.

1.267. Seminaristekin pilotan jokatzeko (MUT-095/018)

Agustin seminarioko ikasleekin ibiltzen zen pilotan. Igandetan auzoko neskekin ibiltzen ziren eta zazpietan errosariora joan behar izaten zuten. Juan Mari Jauregik seminarioan ikasi zuen eta lagunak ziren.

1.268. Saturrarango abade bertsolaria (MUT-095/019)

Saturrarango seminarioko abadeak: Anton Garro, Don Manuel, Ignacio Altuna, Mantxola... Don Juan Maria abadea bertsolaria ere bazen eta batzuetan bertsoak botatzen zituen mezetan. Normalean Saturrarango abadeak nahiko gazteak izaten ziren.

1.269. Bi anaiak zesta-punta jokalaririk profesionalak Estatu Batuetan I (MUT-095/022)

Agustin pilotan aritu da beti eta hamabost urterekin zesta-puntan hasi zen. Seminarioan jokatzeko pilotan eta Zaragozan debutatu zuen zesta-puntan. Hamasei urterekin joan zen bertara eta garai berean soldadutza ere egin zuen. Soldadutza bukatuta, alde batetik bestera ibili zen jokatzeko: Bartzelonan, Durangon, Bilbon... Ameriketara jokatu zuen urte askoan, joan-etorriak eginez, Dania-ko (Florida) eta Milford-eko (Connecticut) frontoietan. Ameriketatik bueltan, baserrira itzuli zen.

1.270. Bi anaiak zesta-punta jokalaririk profesionalak Estatu Batuetan II (MUT-095/023)

Juan Mari 17 urterekin hasi zen zesta-puntan. Bartzelonan debutatu ostean, Palmara joan zen bertan jokatu eta soldadutza egiteko asmoarekin. Franco orduan hil zenez, ezin izan zuen bertan soldadutza egin eta Bartzelonan egin zuen. Handik Estatu Batuetara joan zen eta Dania, Milford eta Bridgeport-eko frontoietan jokatu zuen profesional bezala. Bridgeport frontoian 3 urteko greba egin zuten. Neguan 20 gradu zero azpitik izaten zituzten.

1.271. Bridgeport Jai Alai frontoiko hiru urteko greba (MUT-095/025)

Bridgeport Jai Alai frontoiko hiru urteko grebak bete-betean harrapatu zuen Juan Mari. Euskal Herrira bueltatzeko aukera izan zuen, hemen jokatu eta

irabazitakoa grebalariei bidaltzeko. Hala ere, eskirolek partidak jokatzen zituzten Bridgeport-en. Grebaren arrazoiak.

1.272. Estatu Batuetako frontoiak eta pilotaren negozioa (MUT-095/026)

Estatu Batuetako frontoiei eta bertan pilotan jokatzeari buruz hitz egiten dute. Dirutza mugitzen zen, frontoiak oso handiak ziren...

1.273. Saturrarango kanpina Arbelaitz baserriko lurretan (MUT-095/027)

Arbelaitz baserrian Saturrarango kanpinaren sorrera. Fraga Iribarneren agindu bat heldu zitzaion, baserriko lurretan kanpin bat egiteko. jabeek kanpin bat prestatu nahi izan ez balute, lurak desjabetuak izango liratekeen.

1.274. Saturrarango kanpineko hasierako urteak (MUT-095/028)

60. hamarkadan, jendeak kanpinean joateko ohitura zuen baina ez zegoen inolako kontrolik eta zaila izaten zen arauak betetzea. Gazteak festara joaten ziren eta familiak atsedeen hartzera, eta horrek liskarrak eta kexak sortzen zituen bezeroen artean. Kanpinean betidanik izan dituzte frantsesak, holandarrek... Kanpina zabaldu baino lehenago ere joaten ziren.

1.275. Saturrarango erreka garbi-garbi egoten zen (MUT-095/029)

Ondarroan ura ez zegoenean, Saturrarango erreka joaten ziren arropa garbitzera. Ezkailuak, aingirak... egoten ziren, fabrika bateko ur-zikinak heldu ziren arte.

1.276. Garai bateko eta gaur eguneko Saturrarango (MUT-095/030)

Garai batean Saturrarangoaren itsasoaren mareak noraino heltzen ziren. Saturrarangoaren zer ezagutu duten kontatzen dute: soroak, futbol-zelaiak, taberna...

1.277. Obretarako materiala itsasotik ta hondartzatik ateratzen (MUT-095/031)

Hondartza eta itsasotik harriak eta harea ateratzen zituzten obrak egiteko. Kamioiekin eramaten zituzten.

1.278. Saturrarango beti ondarrutar gehio mutrikuarrak baino (MUT-095/033)

Saturrarango hondartzara ondarrutarrak joaten ziren gehienbat. Mariñelak tabernara hurbiltzen ziren eta frontoian jokatzen zuten seminaristekin. Gaur egun ere ondarrutarrak dira nagusi hondartzan eta tabernan. Ondarroara oinez joateko bidea Katetxetik izaten zen.

1.279. Probintzien arteko garai bateko mugarrak (MUT-095/036)

Umetan, mikeleteek erakutsi zioten non zegoen Mutriku eta Ondarroako muga. Puntu zehatz horretatik Saturrarango hondartzako haitz punta ikusten da. Kokapena.

1.280. Aita frontera eramatera joan zirenean (MUT-095/038)

Aita frontera joateko bila joan zirenean, bere aitarekin zebilen goldaketan idiekin. Aitona saiatu zen soldaduak gelditzen baina ezin izan zuen. Mutil koxkorak eramaten zituzten.

1.281. Aitaren gerrako ibilerak preso bezala (MUT-095/041)

Gerra garaian aita Bilbon atxilotu zuten arren, soldadutza egitera bidali zuten Afrikara. Bukatzean, preso jarraitzen zuenez, Langileen Batailoira eraman zuten derrigorrezko lanak egitera. 27-28 urterekin bueltatu zen baserrira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com